(20) **Formulaire de Prône** Printzeak argitaratua zuen aurretik Baiona-n, 1866-ko otsailean, Lamaignère-n, baina edizio hori "Observations"-ik gabe izan zen; hauek Lodres-eko ediziorako prestatu zituen, eta urte bat geroago, 1867-garrenean beraz, Baiona-n ere, eta inprenta berean, argitaratu zituen "Observations" horiek. Zergatik birrargitaratu zuen **Formulaire**-a Londres-en, Bonaparte berak azaltzen digu edizio horretako "Observations"-etan (1867, 27):

> "Cette deuxième se distingue de celle que j'ai fait exécuter à Bayonne, par une plus grande uniformité avec l'edition originale de 1651, dont je possède le seul exemplaire connu."

(21) **Formulaire de Prône**-ko "Observations"-etik hartua.

(22) Bidaia honen bigarren aldiari buruz, 1867-ko udazkenean, ustez, egina, A. Riezu-k urte hartako bigarrena eta Euskal Herrira eginiko seietatik bosgarrena izan zela dio. Honek argituko luke sei bidaien arazoa. Arazo hau Printzeak berak **Le Verbe Basque** lanaren tituluan dionarekin bat ez datozen datotan oinarritu izan delako sortuko zen zihurrenez.

(23) RODRIGUEZ FERRER (1873,74). Nafarroa Erdiko informanteak deitu beharrak beste gauza bat ere erakusten digu, eta zera da, 1867-garreneko bidaiaren bigarren aldia, udazkenekoa, alegia, ez bide zela egin, bestela ez bait zuen oraingo honetan informante horiek deitu beharrik izanen.

(24) 1858-an ere "Canticum trium puerorum" zazpi dialektotan eta hamaika barietate ezberdinetan argitaratu zuen.

(25) Ez zituzten denak laguntzaileek egin. Berak ere hilabete gutxiren buruan hain izigarri ongi menderatu zuen Gipuzkerara itzuli zuen, beste lan batzuren artean, Bibliako **Abestirik ederrena.** (Canticum Canticorum).

(26) URQUIJO, J. (1908,219).

(27) URQUIJO-k (1910,260) eragozpenak arkitzen zizkion itzulpenerako testua erligiosoa izateari, eta behin gertatukoaz honela zioen:

> "En una ocasión se separó el Príncipe de su costumbre, y el resultado fue completamente opuesto. Compárense, en efecto, las traducciones de textos religiosos [...] con la de los diálogos agrícolas de Iturriaga [...], y se observará que el vascuence de éstos es muy superior, en punto à pureza, al de aquellas". Hori ez dago ukatzerik. Baina, zein homogenotasun eskura zezakeen batu nahi zituen materialetan, laguntzaile bakoitzari luma bere kasa erabiltzen utzi izan balio?

(28) Bolumenaren titulua hauxe da: **Mélanges sur les langues, dialectes et patois; renfermant, entre autres, une collection de versions de la Parabole de l'Enfat prodigue en cent idiomes ou patois différents, presque touts de France: précédes d'un essai d'un travail sur la Géographie de la langue française."**

(29) Coquebert de Montbret aintzindaritzat hartu dugu, bera izan zelako helburu linguistiko-dialektologikoak ezarri zituena. Baina askoz lehenago ere horrelako material-bilketarik eginak ziren. Esate baterako, 1552-an Zurich-en Conrad de Gessuer-en **Mithridates** agertu zen, Aita gurea hogei ta zortzi hizkuntzetara itzulia zuena, eta gargero antzerako lan askoren eredu izango zena, POP (1950, XXVI "on ouvre ainsi la voie aux enquêtes par

correspondence"). Sortalde Urrutiko hizkuntzak ere antzeratsu transkribatu ziren latineko alfabetora. Misiolariek beharrezko zuten joan behar zuten tokietako hizkuntza mintzatuak ezagutzea. Euskal Herrian ere erligiosoek zituzten beharrak misioak ematera joan beharra eragin zuen lurralde historikotako hiztegiak eta gramatikak egitera.

(30) Bonaparte bibliografo haundia zen eta edizioak oso asko begiratzen zituen. Argitaraldi oso mugatuak eta txikiak egiten zituen, 10 alekoak gehienbat, eta inoiz ale bat-koak ere. Oso edizio dotoreak egin ohi zituen, eta batzutan hartzailearen izena ere inprima erazten zuen. 250 aleko edizioak ere maiz egiten zituen, baina erosteko gehiegizko prezioak izaten zituzten, LACOMBE (1924,198)

(31) Goi-Nafarreraz bakarrik Echenique-k 40 dotrina argitaratu gabeak batu zizkion, hainbat dialektotan idatziak.

(32) Laugarren sailkapenean, **Le Verbe Basque** lanean, honela esaten digu:

"Sólo después de haber recorrido uno mismo todo el País Vasco y de haber estudiado todas las actividades lingüísticas debería permitirse enumerarlas y clasificarles. Si nos hemos apresurado demasiado a este respecto, cuando hace algunos años, antes de haber visitado la Navarra española, adelantamos que esta provincia no tenía dialecto propio y que hablaba todos los demás, excepto el vizcaíno, nos reprochamos [...]. Ahora que puede decir-se que hemos visitado todos los rincones de Euskalerría, tanto en España como en Francia, admitimos que la Navarra española, además de los dialectos que ya ..." Ongi agertzen du hemen zein izaera ganorazkoa zuen eta zein ikertzaile funtsezkoa zen.

(33) "No se ha adelantado gran cosa en cuanto al perfeccionamiento de los criterios que permitan distinguir subgrupos dentro de grupos cuando, aunque el campo no es de los mejor trabajados, todos siguen aceptando, con retoques mínimos, la clasificación de los dialectos vascos establecida por Bonaparte, mucho antes de Gilliéron, etc., y no precisa-mente con los mismos criterios que luego se han empleado en dialectología románica o germánica." MITXELENA (1976,319)

(34) YRIZAR-ek (1981,104) lehenagoko beste zatiketa baten berri ematen du. Fetxarik gabea den arren, 1857-koa izan daiteke beharbada. Latinez idatzia dago, eta egiten duen sailkapena oso hastapenetakoa denez ez dago hona ekarri beharrik. Nafarroa-ko Diputazioan dagoen eskuizkribu baten ageri da, P.L.L.B.-ren eskuizkribuen bildumako sorta 1-ekoa.

(35) "Dialekto" hitza "barietate" izenaren balioarekin darabil.

(36) Azpimarratua geurea da.

(37) P. de YRIZAR-ek (1981,109) zehatz-mehatz ematen ditu azpi-euskalki eta alda-kiak, baina ez dakigu ziur esposizio horrek zenbaiteraino erantzuten dion Bonaparte Printzeak garai hartan zuen ideiari.

(38) Zentzu horretan hartzen dut Mitxelena-ren dialekto literaria, hots, idatziaren sinoni-mo bezala, "ya que se ha tratado de formas estándar fijadas, o que se deseaban fijadas, para el uso escrito" (1981,291).

(39) 1864-ko arazoaren 7-ko gutunean euskalki honetakoa dela dio, aditz laguntzaile iragankorraren eta iragangaitzaren erabileragatik, "zutano"-aren erabileragatik, "duzu" "da"-ren ordez, -errespetuzko forma ote?- eta galdetzeko formagatik, duya?, ziraya?, Zubereran bezala URQUIJO (1910,280).

(40) Bonaparte-ren lanari buruzko ikuspegia osoagoa izan dadin, bidenabar bada ere esan nahi genuke hogei hogerleko ordaintzen zuela dotrina bakoitzaren itzulpena edozein aldakitara. Bruno Echenique beti ukatu zen diru hori hartzera. Napoleon III, Frantzia-ko inperadorea, erori zenean, Bonaparte-k ere urteko 130.000-ko sarrerak galdu zituen eta "Senatore" eta "Alteza" tituluak ere bai; horregatik txango linguistikoak eta itzulpenengatik ematen zituen ordainketa on horiek ere utzi behar izan zituen. Haatik, ez zuen sekula utzi, hil arte, euskararen ikerketa.

(41) Bidaia hau zehaztasunez ezagutzen dugu B. Echenique-ri bidalitako gutunei esker, URQUIJO (1910,293).

(42) Zenbait urte geroago herri honetako hizketari buruz lan bat argitaratuko da:"Observaciones acerca del vascuence de Valcarlos", **Revista Euskara** IV (1881,161-166), Arturo Campión-ek itzulia eta argitaratua.

(43) Eskuizkribua Bizkaiko Foru Aldundiko Bibliotekan dago, espedientearen zenbakia 84- Bonaparte ondarea.

(44) Izan ere, hauxe da behin-betiko eraketa, geroztik zenbait aldaketa sartuko badu ere, baina ez dira aldaketa nagusiak izanen, ikusiko dugun bezala. Laugarren sailkapen honen zirriborroak badira bere eskuizkribuen artean, baina ez dakarte deus berririk, eta horregatik ez dago hona ekarri beharrik. YRIZAR-ek (1981,117-118) dakar horietako bat.

(45) Data hau eman ohi da laugarren sailkapenerako, baina ez bide da zuzena. Le Verbe lanaren argitalpenak 1869-ko data darama, baina, RODRIGUEZ FERRER-ek dioenez (1873,78), berea baino urte bat lehenago argitaratu omen zen, hau da, 1872-an. LACOMBE-k (1924,205) imprimaketa 1871-ean amaitu zela dio. Bestalde, lan honetan sailkapen hau Euskal Herri-ko bazterrak oro ikusi ondoren egina dela Printzeak berak dio, eta 1869-an argitaratu izan balitz ezin izango zuen argitalpena prestatu, urte horretan egin bait zuen azkeneko bidaia Euskal Herrira. Ez dugu uste jasotako datuak aldatu, sailkapena prestatu, eta gainera argitalpena paratzeko astirik emango zionik. Ez da posible.

(46) 1880-ko urriaren 12-an A. Campión-i honela idazten zion: "vous vous rendez compte de la singularité du dialecte roncalais, qui est presque un dialecte indépendant", LACOMBE (1932, 195).

(47) **Actes de la Société Philologique** IV, 3er. décembre (1876), Paris, (1877). Bonaparte-k lana 1876-12-20 datatu zuen. 1870-ean urteko diru errenta kendu ziotenez, bere kabuzko argitalpenak urritu egin behar izan zituen eta, beraz, baita ohizko argitalpen-erritmoa eten ere.

(48) 1881-ean "Observaciones acerca del vascuence de Valcarlos" y "Observaciones acerca del vascuence de Betelu", **Revista Euskara** V (1882,120-121).

Urte bat lehenago argitaratua zuen "Observaciones sobre la ley de afinidad de las vocales en el vascuence de Lizaso, Valle de Ulzama, provincia de Navarra", **Revista Euskara** IV (1881,65-67). "Observaciones sobre el vascuence de algunos pueblos del valle de la Burunda" **Revista Euskara**, IV (1881, 33-40). Lan honetan Bakaikoa, Urdiain eta Olazti-ko hizketen zenbait alderdi aztertzen ditu aditz-formen arauera, eta ondoriotzen duena zera da, bailara honetako aditza Gipuzkerarena dela, zenbait ñabardurakin bada ere.

Ultzama bailarako euskarari buruz Iparraldeko Goi-Nafarreraren ezaugarriak beste azpieuskalki biak baino hobekiago agertzen dituela dio; eta Egues-eko bailarakoak Hegoaldeko Goi-Nafarrerarenak.

(49) Guk erabili dugun mapa bakarra litografiatua izan da, eta bestea ezagutzerik ez dugu izan.

(50) Drawn, engraved and pinted at Standford is Geographical establissement. Londres, 1863. Bi edizio egin ziren, lehena grabatua eta bestea litografiatua. Mapan ematen den fetxa hori benetan harrigarria da, urte hauetan ez zuelako oraino heldua euskararen sailkapena. Geroagokoa dela dirudi, lehen ikusi dugunaren arauera. YRIZAR-ek garbi azaltzen du fetxei buruz dagoen nahasmena:

> "En realidad el mapa fue puesto en circulación mucho más tarde y aun la fecha de 1867 dada por Vinson [...] es, evidentemente, demasiado temprana por la razón que acabamos de exponer y como tal fue rectificada por el propio Vinson en 1891, sustituyéndolo (sic) por la de 1869 (Vinson.- **Essai d'une bibliographie**, etc.). Lacombe, tan documentado en estos estudios, señala la fecha de fines de 1871 o principios de 1872 (LACOMBE.- "**La langue basque**" en Les langues du Monde, A. MEILLET et M. COHEN, Paris, 1924 "Observación al mapa de Broca").

Yrizar beraren eritziz Printzeak berak 1869-an eta Otaegi-k 1871-n jasotako datuekin osatu zen.

(51) Euskalki bakoitzak bere kolorea du. Koloreak, zenbat eta biziagoa, hainbat eta hobekiago gordetzen dela euskara adierazten du, hau da, eskuarki hitz egiten dela, bera soilik ez bada ere. Kolore ahulagoak hiztun gutxi dituela euskalkiak agertzen du, edo atzeraka doala.

(52) Hizkuntzak ez dira, bere izatez, ez haundiagoak ez txikiagoak, eta hedadurak ere ez du, beraz, hizkuntzaren bizitasuna edo indarra adierazten.

(53) Esan dugunez, Bonaparte-k aurkitu zituen lehenbizikoz euskalki horiek, Aezkera, Zaraitzera eta Erronkariera; baina, Aita Añibarro-k Erronkarierari buruz egiten duen aipamenaz gain, Fray José de Jesús María y Araquistain erligioso karmeldarrak Larramendi-ri, bere hiztegia argitaratu ondoren, igorri zizkion Gipuzkoa-ko eta Jafarroa-ko zenbait hitzekin batera Erronkarierako "algunos términos vascongados bien extraordinarios". Euskal hitz harrigarri hauek Erronkari-ko hitzak ziren, eta A. Fidel Fita-k argitaratu zituen **Revista de Cienclas Históricas** aldizkarian, Barcelona II (1881), "Suplementos al Diccionario trilingüe de Larramendi, escritos en 1746" izenburuarekin, MITXELENA-tik (1960,162) jasoa. Prestatu zirenean argitaratu ez zirelako parada eman zion Bonaparte-ri Erronkarieraren aurkitzaile ere izateko.

(54) Laburpen hau oso gainetik egina da, eta Printzeak askoz gehiago sakontzen zuen, bere lanetan garbi agertzen duen bezala, esaterako, bat besterik ez aipatzeko, **Observations sur le basque de Fontarable, d'Irun, etc** (1887), Paris, Ernest Leroux Editeur, 149-191, lanean ikus daitekeen bezala.

(55) Agertzen diren zenbakiak V. Collins-ek 1902-an bere Katalogoa-n eman zituenak dira, baina guk ARANA MARTIJA-tik (1984,1,42) hartu ditugu.

(56) Paris, 1877, 133-143.

(57) Lehenbizikoa 1883-ko 6-ko 30-ekoa, **Euskal-Erria** aldizkarian argitaratua, T. IX (z.16), 1883, eta bigarrena 1883-11-12-koa, Euskal-Erria-n, XI (z. 123). argitaratua.

(58) Iruñea-n argitaratu zen 1880-an. Edizio faksimila erabili dugu, Ed. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1970.

(59) "Observaciones acerca del vascuence de Valcarlos", **Revista Euskara** IV, (1881, 161).

(60) **Euskera aldizkarian** (1922, III-1) argitaratu zen; dena dela , aurretik Akademian irakurria izan zen eta urte berean, 1920-an, liburuxka gisa argitaratua Bilbo-n, Ave Maria-ren Inprentan.

(61) XIX mendean ere Iztueta euskararen batasunaren beharrean aldeko azaldu zen. Ikus MITXELENA (1978,167-179) "Iztueta, testigo político de su época", **Euskal Herria (1789-1850)", Actes du colloque International d'Etudes Basques,** (Bordeaux, 1973), Bayonne. Hauxe dio MITXELENA-k (1978,177):

> "Se tiende por necesidad, al menos en intención, a formas supradialectales de la lengua, o más modestamente, al empleo de variedades completadas con aportaciones de dialectos vecinos. Así Iztueta, a pesar de su guipuzcoanismo, fue asiduo recolector de voces y frases vizcainas -de ello da fe su diccionario manuscrito, aún inédito- y no desconocía, al menos indirectamente, el labortano."

Ideia hauek Mitxelena-k **Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia,** San Sebastián, 1847, liburutik atera zituen.

(62) **Obras completas** deituriko edizioa darabilgu, (1965), Buenos Aires.

(63) Euskararen aztertzaileen zerrenda izigarri horretatik XIX. azkenetako eta XX. hasierako nabarmenenak aipatzekotan, Frantzia-n honako hauek izango genituzke: Lacombe, Vinson, Luchaire, Gavel eta Lafon -hau beranduxeagokoa-; Alemania-n Baehr, Spitzer, Linschmann eta K. Bouda; N. Tauer txekoslobakiarra; H. Schuchardt, austriar haundia; Van Eys eta Uhlenbek holandarrak; Dogson eta W. Webster Inglaterra-koa; Trombetti italiarra, eta Marr errusiarra.

(64) Hain zuzen ere, VAN EYS-en Gramatika eta Hiztegia izan ziren S. Arana-Goiri-ren lehen irakasleak, **Euzkadi** (1914,183), VILLASANTE-tik hartua (1961,287).

(65) LACOMBE-k baditu zenbait lan hizkuntzalari honi buruz: (1908,805-807) "Basquisants contemporains. Le Jonkheer Van Eys" , **RIEV** II; (1914,386-388) "Necrologia", RIEV VIII, eta (1918,66-68) "La Bibliothèque basque de Van Eys" RIEV IX. Emazteak ere, Mathilde Van Eys-ek alegia, Euskal Herrira elkarrekin egin zituzten bidaia bakoitzen lanak argitaratu zituen RIEV-en XVIII (1927,111-121) eta (527-543).

(66) Nolanahi ere, gizon jakintsua izan zen eta ikertzaile nekagaitza, eta berea kenduko genioke ez bagenio eskertuko, eztabaidak gora-behera, euskarari eman zizkion ekina eta lanak; Julio de URQUIJO-k dioenez (1927,224):

> "... y no obstante algunas opiniones que no compartimos, hay que reconocer que el sabio francés fué uno de los autores que más contribuyeron al progreso de nuestros estudios, a los que se dedicó, durante cerca de 60 años, con paciencia de benedictino."

Dena dela, orduan eztabaida gai izan zena hizkuntzaren inguruan, guretzat gaur txit estimagarritzat gerta daiteke alderdi askotatik, esaterako, "El método científico y la lengua euskara" lana, **Revista Euskara**-n argitaratua (1879,144-148).

Vinson-ek izan zituen polemika batzu beste euskalari batzukin J.J. GRANJA PASCUAL-ek batzen ditu: (1986,237-235), "Julien Vinson, el euskera y una polémica del XIX", ASJU XX-1.

(67) VINSON, J. (1907, 627-633), (1908,129-135), (1911,210-223), "Spécimens de varietés Dialectales Basques", RIEV I,II eta V. Azken zenbaki honetan Darricarrère-ren gutun bat sartzen du, non Lapurdi-ko eta Behe-Nafarroa-ko herriguneetan euskararen giza-egoera azaltzen den.

(68) LACOMBE, J. (1936,74-76), "Les travaux bibliographiques basques de Julien Vinson depuis 1898", RIEV XXVII.

(69) MITXELENA-k lan askotan hitz egiten du honetaz, eta bat nabarmentzeko (1964,63) **Sobre el pasado de la lengua vasca,** San Sebastian, nabarmenduko nuke, eta lan orretan 63. or.

(70) **El euskera y sus parientes,** (1959) lanaz ari da.

(71) Itziar LAKA-k bere tesina **Hiperbizkaleraren historiaz** egin zuen eta bi ekinalditan argitaratu, **ASJU** XX-3 eta XXI-1 (1986-1987). J. A. LAKARRA-k ere badu lan bat gai honi buruz, "Bizkaiera Zaharra Euskalkien Artean" **ASJU** XX-3 (1986,639-682).

(72) Azkue-k egin zituen aldaketa hauek, ikusi genuen bezela, Bonaparte-k berak ere begiz joak zituen. Azkue-k, bestalde, herrien zerrenda osoa ematen du, bakoitza bere euskalkian kokatuz, euskalkiaren hedadura ezagutu ahal izateko; eta berak dioenez, izenen zerrenda Bonaparte-ren mapatik hartu zuen. Garai horietarako (1905) euskara lekutua zen Nafarroa-ko udalerri aunitzetatik; Azkue-k kontutan izan balu hori, egun XX. mendearen hasierako euskararen mugak ezagutzeko aukera izango genukeen.

Erronkariera eta Nafarrerari, biei dagokienaz gain, beste aldaketa batzu ere sartu zituen: Alzola eta Elgoibar Gipuzkeran sartzen ditu, Bonaparte-rengan Bizkaierakoak zirenak; Antzuola ere Gipuzkerakoa egiten du, baina hogei urte geroago, **Morfologia**-n, berriro Bizkaierara itzuli zuen.

(73) Kontsonante bustien idazkeraz azterketa fonetikoa eta proposamen zehatza egiten du "Cuestiones fonético-ortográficas" lanean, **Euskera** III (IV zenb.), (1922,49-62). Edonola ere, Azkue beti izango da Gipuzkeraren bitartez euskara batzeko zalea, eta "Gipuzkera osotua" izan zen berak eskeinitako aukera. Aldiro-aldiro arituko da horretaz. **Euskera** VIII (1927,116-140) ornaldetan "Batasunera bidean edo Pernando Amezketarra-ren autsi-osotxoak eta Ardi galdua-ren autsi-mautsiak" argitaratu zuen. "Gipuzkera osotua"-ren aurkezpen formala Euskaltzaindiaren 1934-ko apirileko bilèran egin zuen, **Euskera** XV. Hemen malguagoa azaltzen da, beste euskalkietako erakarpenak ere onartuz. Erabilerak batuz joan behar direla ikusten du, baina bide hori astiro-astiro egin behar dela onartzen du, hizkuntza egokituz joan dadin unean uneko beharretara.

(74) Interesgarria da garai horretan Azkue-k hurbileneko zituen euskaltzaleekin, P. Broussain-ekin batipat, izan zuen elkarridazketa. A. IRIGOYEN-ek, **Euskera** II (1957, 261-293), argitaratu zuen gutuneria hori titulu honekin, "Del Epistolario de Azkue". Gutun horietan agertzen dira, baita ere, Bonaparte-ren eskuizkribuak hemen geratu ahal izan zitezen egin zituen hainbeste joan-etorri eta ihardun; eta azkenean baita lortu ere nahi zuena Inglaterra-n enbajadore zen Fermin Lasa gipuzkoarraren bitartez, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa-ko Aldundiek bereganatu bait zuten hain ondare baliotsu hura. Arestian argitaratua izan da "Resurrección M[a] de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa (1897-1920)" ere, P. CHARRITON-ek paratua, (1986) **Iker-4**, Bilbo. Hagitz interesgarria da, era berean, J. A. ARANA MARTIJA-k (1983) argitaraturiko lana, "El fondo Bonaparte de "Azkue Biblioteka", **Iker-2**, "P. Lafitte-ri omenaldia", bertan jasotzen bait dira gutuneria eta zenbait zehaztasun Azkue-ren eta beste hizkuntzalari batzuren artekoak, esaterako Dogson eta Campión-ekin izan zituenak.

(75) Euskaltzaindiak eginiko lanetarik garrantzitsuenetarikoa izanen da lan hau. Antolaketa, inkestagileen eta informatzaileen bilaketa, erakunde publikoen laguntza lortzea, Euskaltzaindiak berak eramango ditu aurrera. Bilera haietako aktak eta geroztiko ondorioak aldizkari ofizialean argitaratuak izan ziren, **Euskera** III (1922), VI (1925), VII (1926), IX (1928) eta XI (1930).

(76) Ana Mª ETXAIDE-k zerrenda osoa ematen du (1984,43-49). Pedro de YRIZAR-ek O. de Apraiz-ek inkestak jaso zituen tokietako argitasun zehatzak ematen ditu, "Sobre las formas verbales alocutivas de pretérito desprovistas de "-n" final" **Homenaje a O. de Apraiz, O.F.A.**, (198 ,407).

Lehenago, 1957-an Erizkizundi-ko materialak argitaratzeko asmoa izan zuten Antonio Tovar eta Ion Bilbao-k, baina asmotan gelditu zen. Ikus ETXEBARRIA (1982,380).

(77) Argitalpenak, hurrenez-hurren, honela izan ziren: (1925) "Erizkizundi irukoitzari Bizkaiak erantzun diona", **Euskera** III, IV, 16-36 eta (1926), 38-56, 45-59; (1926) "Gipuzkoak erizkizundiari erantzun diona", **Euskera** VII, III-IV, (1926) 46-58; (1927) VIII, I-II, 3-30; (1927) Naparroak erizkizundiari erantzun diona", Euskera VIII, 164-178; (1928) IX,1ª, 35-58; 110-123; (1928) "Erizkizundia Naparroa barrenen", (BN), XI, Iª, 237-257. (1928) "Erizkizundia Lapurdin", Euskera IX, Iª, 319,336. (1930) "Erizkizundi Irukoitzari errietan erantzun diotenak" **Euskera** X, 62-71.

(78) MITXELENA-k (1981-2) kritika egiten dio Erizkizundiari, adibideez argituz eta frogatuz gainera, "Sobre las necesidades de una exploración lingüística en Euskal Herria", **Euskera** XXVI, 876-878.

(79) (1984) "Erizkizundi Irukoitza" **Euskara** (1925), Iker 3, Bilbao, (2 ale).

(80) Gai honetaz ikus VILLASANTE, L. (1985-2), "Erizkizundi Irukoitza-ren aurkezpenean", **Euskera** XXXII, 629-632.

(81) Erronkarierarena (1931) **Euskera**-n argitaratua izan zen, XII, 207-333. Eta Aezkoa-koa (1927) **Euskera** VIII, 179-300.

(82) Dialektologiari nolarebait badagokio ere, ez dago haren **Morfología vasca** (1923) berariz aipatu beharrik, gramatikako lana delako batik bat. Gainera, lan honetaz nahiago dugu MITXELENA-ren itzalaz baliatu (1981,136):

> "... sobre todo en lo que toca al verbo, Azkue se preocupó más de una vez de presentar sus propias teorías en lugar de los datos a que tenía derecho el lector. Y es lástima, ya que tenía a su disposición los copiosos datos que había recogido en una laboriosa encuesta y que de forma manuscrita se conservan en parte, si no estoy muy equivocado, en Euskaltzaindia."

(83) Eusebio Mª de AZKUE-ren (1896) **Parnasoko Bidea.**

(84) Alderaketak atsegin ez diren arren, Azkue-ren lana A. Barandiaran-enarekin erka daiteke, eta muaila linguistikoagoan, K Izagirre-narekin ere.

(85) Julio Urquijo-k **La Gaceta del Norte** (1913-7-20) egunkarian eman zuen Trebitsch-en Euskal Herrirako bidaiaren berri. Urte berean RIEV VII-n artikulu bat argitaratu zuen "De lingüística y etnografía vascas. A propósito del viaje del Dr. Rodolfo Trebitsch", 575-583. Baita (1918) **Estado actual de los estudios relativos a la lengua vasca**, Bilbao, lanean ere ematen du etnografoaren bidaiaren berri.

(86) Garai hartan museotan ziren eta Trebitsch-ek ziurrenez Viena-ra eramango zituen herri kulturako objetoei buruz, ikus URQUIJO (1913), RIEV VII, 580-583.

(87) Horri buruz ez dakigu besterik; ez dakigu egitekoa bete zuenentz.

(88) Tokien zerrenda J. M. ETXEBARRIA-ren (1984-1), Euskera XXIX, 395-396, lanetik hartu dugu.

(89) Euskaltzaindiak eskatu zituen disko horien kopiak, eta ez zitzaizkion ukatu, baina ez dakigu igorri dizkioten.

(90) Euskadi aldizkaria (1984), otsaileko lehenengo astekotik jasoa.

(91) Hau **Mémoires de l'Académie Nationale des Sciences, Arts et Belle-lettres de Caen**-en, 1866, 359-370, argitaratua izan zen.

(92) Jatorrizko titulua (1903) "Beiträge zu einer vergleichenchen Lautlehre der baskischen Dialekte" zuen, **Mémoires de l'Academie des Sciences d'Amsterdam** eta frantsesera G. Lacombe-k itzuli zuen (1909) RIEV III, 465-503 eta (1910) IV, 65-120.

(93) CHAMPION argitaletxeak argitaratua eta geroago RIEV-en, XII (1921).

(94) Hots horri buruz polemika interesgarria izan zuen SAROIHANDY-rekin, honen lan baten ondorioz, "Assimilation progressive de "i" a "ü" dans le basque de la Soule", **Bulletin de la Societé de Linguistique** XXIV (3ème. fascicule), 378-830, eta GAVEL-en erantzuna, "A propos de l'ü souletin", RIEV XVI (1925), 230-234.

(95) Lan denak Zubereraren inguruan, (1927) **Action de l'accent dans l'evolution des consonnes etudiés dans le basque souletin**, Vrin, Paris; (1928) **Recherches experimentales sur l'état actuel et l'evolution des velaires dans le basque souletin**, Paris; (1934) **Le basque souletin Nord-Oriental**, Paris.

(96) Mitxelena-k "importantísimo" erizten dio lan honi, **Euskera** III (1958,8).

(97) (1926) RIEV XVII, 98 eta hur., 370 eta hur.; (1927) XVIII, 437 eta hur.; (1928) XIX, 287 eta hur.; eta gainera (1929-30-31-34-35) RIEV XX, XXI, XXII, XXV, XXVI denbora soilei eta inperfektoari buruz.

(98) (1925) **Euskera** VI, 12-31, 73-114.

(99) **Bulletin de la Societé Romand** (1895) XXX, 131-162; 321-341; 126-138; (1896), XXXI, 126-138; (1897), XXXV, 129-189.

(100) (1922) **Abhandlungen der Preussischen Akademie der Wissenschaften**, Berlin, Phil.-hist. Klasse, 1.

(101) (1968) ASJU II, 81-141; (1969) III, 171-228, (1977) XI,3-43.

(102) (1975) FLV XIX, 5-42; (1975) XX, 141-188; (1976) XXII, 9-54.

(103) "Petit atlas `Sacaze'"-ren berriematea eta kritika R. LAFON-ek egin zuen, (1962) **Bulletin de la Societé de Linguistique** LVII, (2. fasz.) 152-155 or. eta (1964) BSL, 192-194.

(104) Metodo honek, gorago esan dugun bezela, ez du batere berritasunik, XIX. mendearen hasieratik erabiltzen bait zen.

(105) Voretzsch-i egin zitzaion omenaldirako prestatutako lan baten itzulpena da: "Baskische kultur in Spiegel des lateinischen Lenworthers".

(106) Ikus gai honetaz (1949) **Análisis de la cultura,** Barcelona, VII eta IX. kapituluak.

(107) Ohiartzun haundia lortu zuen Europa-n barna artikulu honek. A. TOVAR honako hau esatera iritsi zen metodo honi buruz: "el método de "palabras y cosas" [...] tiene una buena aplicación al terreno de los confines del vasco y el español [...]. El trabajo sobre Aezcoa de Alvar es en cierto aspecto al correlativo de la **Aezkera edo Petiriberro-Inguruetako mintzaera** que Azkue publicó [...] o de las **Particularidades del dialecto roncalés** del mismo gran vascólogo", **El estado de los estudios de Filología euskérica.** IORDAN-etik hartua (1967,119). Alvar-ek baditu beste lan batzu ere: (1947) "El habla de Oroz-Betelu" RDTP III, 447-490; "El léxico de la casa en el Nordeste de Navarra" (1950-eko inkestak), **Archivo Filología Aragonesa** XX-XXI, 9-55; eta "Breve vocabulario de la Navarra Nordoriental", **Archivo de Filología Aragonesa** XXII-XXIII, 251-298.

4. ATLAS LINGUISTIKOEN HISTORIA LABURRA: HELBURUAK, BILAKABIDEA ETA GAURKO EGOERA.

> *"Ahora bien, si no hay dialectos estrictamente diferenciados y, sobre todo, no hay fronteras dialectales marcadas, sí hay isoglosas que, a pesar de todos los fenómenos de polimorfismo, encierran áreas y las separan de otras. Los mapas son sustituidos por los atlas, conjuntos de mapas."*
>
> **MITXELENA (1976,319)**

4.1. Sarrera

Geografia linguistikoa dialektologiari arpegiratzen zitzaizkion gaitzen sendagai miresgarri bezala azaldu zen, hizkuntz gertaerak erabileratik zuzen-zuzen jasotzen bait zituen gero mapetan ezartzeko. Ez zen itxaroten zen bezala gertatu, ordea. Isoglosek edozein hizkuntz fenomenoren errealizazioak markatzen dituzte, eta uste zitekeen, beraz, zehaztasun osoz seinalatu ahal izango zirela hizkuntzaren areak edo nolabaiteko esparruak. Hortan oker zeuden. Horrek ez du esan nahi buruko aipamen horretan Mitxelena-k egia ez dioenik edo hor esaten denarekin bat ez gatozenik, baina bere testuinguruan hartu behar dela uste dugu. Isoglosek ez dituzte, berez, hizkuntzaren areak bereizten, isoglosen kopuruek, isoglosa multzoek baizik. Hizketen mugak isoglosen ugaritasunarekin proporzio zuzenean daude: zenbat eta isoglosa gehiago edozein puntutan, hizketen arteko ezberdintasuna ere haundiagoa, muga zehatzagoa eta esparru trinkoagoa. Baina isoglosak maiz elkarrekin gurutzatu egiten dira eta hizkuntz eremua inguratu eta mugatu beharrean isoglosa zenbaitek zeharkatu egiten dute hainbat aldetatik; horra, bada, arazoa, isoglosen artean bereiztea, mugak ezartzeko zeintzu utzi eta zeintzu hartu erabakitzea. Berriro ere, beraz, gainditua uste genuen subjetibotasunak mototsa agertzen du eta gai honetan zeresanik izaten jarraitzen ote duen geure buruari galdetzen diogu.

Geografia linguistikoaren metodoa hizkuntz gertakizunak mapetara aldatzea da. Gertakizun bakoitza mapa batetara. Atlasak, beraz, maila guztietako gertaerak bilduko ditu: fonetikakoak, morfo-sintaxikoak eta lexikokoak. YUSK-ek honela azaltzen du atlas linguistikoen betekizuna (1981,276):

> *"il s'agit de reporter sur un fond de carte géographique les variations régionales des faits linguistiques, sur le modèle de cartes isothermes, isobares ou isobathes. De même en effet qu'on peut parvenir à représenter graphiquement les variations d'un élément quelconque de la constitution géographique du globe, de même il est parfaitement possible de dresser des cartes linguistiques pour touts les paramètres du langage, à condition que ceux-ci soient simples par nature ou qu'on les soumette à une analyse et à une élaboration aboutissant à la production de cartes simples."*

Metodo honek zeharo aldatu zuen dialektologiaren mundua ezezik, baita linguistikarena ere; izan ere, metodo hau eraman edo hedatu zenean eremu zabalagoetara, hautatutako guneen bateratasunak eragin zuen ordurarte jaso gabe zeuden eta ezertarako kasurik egiten ez zitzaien herri-hizketak aztertzen hasi beharra. Horrek, gainera, berez agertarazi zituen aurretik ezagutu ere egiten ez ziren hizkuntzaren hainbat alderdi.

Hizkuntzalariak, hizkuntzen bilakabide diakronikoa ezagutu nahian zebiltzalarik, ohartu ziren herri hizketak, aunitzetan, erabat alde batera utziak izaten zirela hizkuntzen normalizatze ahaleginean, eta hizkuntza ofizialek edo kultoek ez zutela haiengan batere eraginik izan. Herri hizketa horiek, bestalde, hizkuntza normalizatuak eta bateratuak baino fenomeno eta egoera zaharragoak agertzen zituzten , hizkuntza ofizialek gordetzen ez zituzten forma arkaikoak. Bakoitzari zegokion bilakabidean galdutako urratsak berregiteko edo bestela frogatu ezin izango liratekeen hutsuneak agertarazi eta betetzeko ezin hobeak dira. Honek, beraz, ohizko dialektologian geografia linguistikoari, toki solte eta mugatutako monografiei eta, batez ere, atlas linguistikoei tokia egitera bultzatu zuen.

Halaz ere, atlas linguistikoekin zartako gogorra hartu zuten neogramatikariek. Lege fonetikoak ez direla itsu-itsuan aritzen aldaketak sorrarazteko: horra zeri eutsiko zaion orain; ordurarte esaten zenaren aurka, kanpotiko eraginez gertatuko dira aldaketak. Dialektoek eta "patois"-ek ez dute izanen uste zen eta eskeintzen zitzaien hizkuntz batasun hura; hizkuntza unitate txikiagoetatik hasita aztertu behar da, hau da, hitzetik hasita, unitate horietako bakoitzak bere historia bait du. Beraz, ez dago goimailako hizkuntz unitateez mintzatzerik ez eta "patois" direlakoak zientzi mailako lanerako oinarritzat hartzerik ere (1).

Burutazio hauek hedatuz eta giroan sartuz joan ziren. ALF interpretatzen zen neurrian, hainbat garbiago ageri zen hizkuntz eragineko guneak tokiz aldatuz joan ohi direla, eta eragina ez dela beti toki batena izaten. Hori horrela izanik, faltsua gertatzen zen dialekto garbien edo garbiagoen hasierako ideia, hots, dialekto batzu garbiak direla eta ez dutela ez eraginik, ez aldaketarik, ez formen ustegabeko garapenik jasan. Beraz, hizkuntz eskualde edo eremuen artean beti aurki daitezke eta sinalatu iraganguneak; hizkuntz eremu baten garapen bat ematen delarik eta beste baten beste bat, bien artean tarteko esparruak gertatu ohi dira, edo bestela esan, bi eragin-guneren artean eremu nahasiak edo bitarikoak izaten dira. DAUZAT-ek dioen bezala (1941,42):

> *"Une constatation qui se dégage des premières études de géographie linguistique, c'est le principe de la continuité des aires. Une aire qui apparaît aujourd'hui disloquée et fragmentée formait autrefois un tout continu."*

4.1.1. Lehenengo atlas linguistikoak

Atlas linguistikoen historia Alemania-n hasi zen eta gaurdaino iristen da. Historia hau asmo, ekintza eta lan haundiekin josia dago, gehienbat talde-lanean aurrera eramanikoak, baina hainbat aldiz burutu gabe ere gelditu direnak.

G. WENKER (1852-1911) alemaniarra (2) izan zen atlasak egiten aintzindaria. Egin zuen lanaren xedea alemanieraren muga dialektalak ezartzea izan zen, eta, beraz, mugak eta dialektoak ere badirela frogatzea. Ez zitzaion nahi zuen bezala atera gauza, ondorioak, lehen esan dugunez, uste zuenaren aurkakoak izan bait ziren. Faszikulo bat besterik argitaratzera ez zen iritsi. Erabili zuen metodologia honako hau izan zen: 40 esaldi laburreko galdekizuna paratu zuen eta herrietako jende ikasiari igorri zion gutunez herriko hizketara itzul zezan. Denera 30.000 herrigune aztertu zituen, eta aurrerago bere jarraileek beste 14.000-tan ere materiala jaso zuten.

G. WEIGAND **Linguistischer Atlas des dacorumänischen Sprachgebietes** (Daco-errumanieraren atlasa) (Leipzig, 1909). Berrikuntza bat sartu zuen honek, galdekizuna, berak prestaturikoa bestalde, berak zuzenean jaso zuen. (3)

4.1.1.1. ALF

Atlas Linguistique de la France, J. GILLIERON eta E. EDMONT,(Paris, 1902-1910). Gilliéron-ek 1900 galderatik gora zituen galdekizuna prestatu zuen. Fonetikako galderez gain, morfologiakoak, sintaxikoak eta hitzei buruzkoak ere sartu zituen. Ordurarte fonetikakoak baino ez ziren hartzen. Hitz kultoak ere sartu zituen ikusteko Paris-ko hizketa kultoa zenbateraino zen sartua herri hizketetan.

639 herrigune hautatu edo ezarri zituen dialekto hauen arauera: frantsesak, probentzalak eta frankoprobentzalak eta haien azpi-dialekto nagusiak. Bretoiera (Bretaina-n), neerlandera (Frantzia-ko Iparmendebaldean) eta euskara (Frantzia-ko Hegomendebaldean) ez zituen sartu; haren asmoa hizketa galo-erromaniarrak aztertzekoa izan zen, eta ez beste enborrak.

Ezarri zituen helburu linguistikoak bete ahal izateko Frantzia-ren muga politikoetatik kanpora ere irten zen. Belgika-ko Hegoaldera, non dialekto frantsesak (Valoiak) hitz egiten diren;

Suiza-ko mendebaldera (Suiza Romande-a), hor franko-probentzalera mintzatzen bait dute; Piamonte ingurura (Italia), hor ere franko-probentzaleko (Iparraldean) eta probentzaleko (Hegoaldean) zenbait une badirelako tarteka.

Behin materiala bildu ondoren, atlasa egiten hasi zen. Gilliéron-ek aurrenekoz erabili zuen teknika egun ere orohar erabiltzen den berbera zen. Datu dialektal bakoitzeko mapa bat; herriguneak aldez aurretik ezarritako zenbaki baten bidez ematen dira; eta jaso den hitza maparen gainekaldean, ezkerretara, frantsesez ipintzen da. Inoiz mapa bat baino gehiago ere ematen zaio datu bati, erantzunaren luzeerak hala eskatzen badu, sintaxiko erantzunetan gerta daitekeen bezala. Honela egiten da datu guztiekin, atlasa osatu arte.

ALF-ek 1920 mapa ditu, eta horietako 500-ek Frantzia-ko Hegoaldea baino ez dute jasotzen -Midi delakoa, edo Hego-Ekialdea-, eta frantsesa ez den beste hizkuntzaren bateko datu linguistikoak ere hartzen dituzte. Azkenik, atlasaren erabilerarako liburuxka azaltzailea ere badu, non sartu den baita frantseseko eta dialektoetako hitz guztien indize alfabetikoa ere (4).

Hauxe izan zen, orokorki esanda, Gilliéron-ek egin zuen lan haundia eta emankorra. Merezi du VIDOS-ek dioena (1963,49) hona aldatzea:

> *"Gilliéron, recogiendo sobre los mapas de un atlas la denominación de ciertos conceptos, objetos, ect., para 629 puntos del territorio lingüístico galorrománico, ha creado para este territorio un importante aparato lingüístico de comparación con más de un millón de formas dialectales. Sus materiales representaban al mismo tiempo la situación de entonces de los dialectos galorrománicos, esto es, una especie de sección transversal que reproduce la situación lingüística sincrónica. Extendiendo e integrando el material lingüístico con el geográfico, Gilliéron y con él la Geografía Lingüística, ha reforzado e integrado, sin proponérselo el método comparativo, y con él la lingüística románica como ciencia histórica".*

Gilliéron-en ondoren, eta eredu beraren arauera, hainbat lan egin ziren, nahiz atlasak nahiz Geografia lingüístikoko monografiak. Hurrenez-hurren, gutxi gora behera, aipatuko ditugu.

4.1.1.2. Jarraitzaileak

1910-ean George MILLARDET-ek **Petit Atlas linguistique d'une région des Landes. Contribution à la dialectologie gasconne,** Toulouse, Paris. Gaskoieraren 573 mapa ditu, 800 galderei dagozkienak, 400, hitzenak, eta beste 400-ak, esaldiak, alderdi sintaktikoak eta semantikoak jasotzeko. Udalerrietara lotu zen gehienbat, eta 68.000 erantzun lortu zituen, eta horiekin mapak eta lamina fonetikoak eratu zituen. Ahosapai artifizialez eta kimografoaz baliatu izan zen. Haren asmoa edo itxaropena dialektoak aurkitzea zen, bere ohizko zentzuan, alegia, eta horregatik hautatu zuen Landes-etako lurraldea. Halere, azterketaren ondoren atera zuen ondorioa besterik zen, bere hitzetara lotuz, "aztertutako fenomenoen mugarik gabeko ugaritasuna" eta "ordenarik eza eta erregulartasunaren falta osoa".

Charles BRUNEAU-k ere, Gilliéron-en galdekizunaren eredura, glosario bat osatu zuen 1914-1926 urteen artean, gero kartografiatu ez zuena: **Enquête linguistique sur les patois d'Ardenne.** Frantzia-ko 93 herrigunetan batu zen, Ardenne-tan, eta Belgika-n Namur-en eta Luxemburgo-n. Ahozko eta gutunezko galdekizunak konbinatu zituen. Interesgarria da, halaber, **Etude phonétique des patois d'Ardenne,** Paris, 1913; azterketa hau Enquête-ean eta haren ondorioetan oinarriturik egin zuen:

> *"... présente donc un tableau complet des principaux caractères dialectaux de la région ardennaise à l'époque ancienne et à l'époque moderne. J'essayerai, aprés avoir étudié successivement chaque fait, de faire la synthèse des conclusions de détail que j'aurai établies et de dégager les tendances phonétiques générales qui ont dominé toutes les évolutions particulières" (1913,7), IORDAN-etik hartua (1967,351).*

Interesgarria da gertakizun sinkronikoak diakroniarekin batera, azken hau testu historikoen bitartez aztertua, aurkezten dituelako, honela fenomeno linguistikoen bilakaera azalduz.

Beste lan honetan, **La limite des dialectes wallon, champenois et lorrain en Ardenne** (1913), Paris, dialektoen formazioan arrazoi linguistikoek duten eraginaz gain, historikoek eta gizartekoek dutena seinalatzen du; eta linguistikoetan hiztegia bereziki, hain egongaitza eta aldakorra baita berez. Agertzen zaio, bestalde, berak aztertu dituen dialektoen mugak ez direla garai baten ziren bezain garbiak eta zehatzak:

> *"La limite dialectale d'une caractère phonétique n'est pas nette. Les villages voisins de la frontière phonétique mélangent, ou échangent, les formes: les différences d'articulation s'atténuent; les voyelles intermediaires créent entre deux voyelles extrêmes une sorte de transition. La limite d'une caractère phonétique dépend aussi de la vitalité du mot étudié: elle varie sensiblement avec chaque mot." (1913, 179), IORDAN-etik hartua (1967, 351-352).*

A. TERRACHER (1881-1955). Gilliéron-en ikaslea izan zen, eta haietarik berritzaileena. Geografia linguistikoko azterketetan analisi fonetikorako zen joeratik aldendu egin zen, eta morfologiara eman zen erabat. A. MEILLET-ek errepresentatzen duen Frantzia-ko eskola linguistikoarekin lotzen da ikuspegi soziologikotik begiztatzen eta aztertzen duelako hizkuntza: "el habla humana es un hecho social y como tal evoluciona en función de otros hechos sociales" IORDAN (1967, 353).

Garrantzitsua da halaber agertarazi eta finkatu zuen dialektoetako morfologiaren nahasketek eta herrigune ezberdinetako pertsonen arteko ezkontzek elkarrekin duten zerikusia, hau da, gertaera demografikoek eta dialektalek elkarrekin dutena.

Seinalatzen du ere, aztertu dituen "area morfologikoak" ez

direla aintzinako zatiketa administratiboekin edo elizakoekin egokitzen, E. Boehmer-ek eta H. Morf-ek eusten ziotenez, eta bai,aldiz, aspaldiko banaketa feudalekin. Azkenik, ospea duten hizketek herri-hizketetan duten eragina ere iragartzen du.

Oscar BLOCH (1877-1937). Honek atera zituen ondorioetan honako hauek azpimarra daitezke: arrazoi extralinguistikoz aldakiak bereiz badaitezke ere, hizkuntzaren aldetik ez dagoela muga zehatzik ezartzerik dialektoen aldakien artean; fenomeno linguistikoak ez zirela, iraganaldian, parrokien hedaduraren arauera banatu eta orainaldian ere ez direla udalerrien arauera banatzen; Bloch-ek ere garbi ikusi zuen giza maila altuetako hizketek duten eragina eta, batipat, frantses literarioaren eragina eta zabalkundea geroago eta haundiagoa. **Atlas linguistique des Vosges méridionals,** Paris, 1977.

Azken ideia honetaz askoz ere argigarriagoa da **La pénétration du français dans les parles des Vosges méridionales,** Paris, 1921 (5). Lan honek sendotu baino ez du egiten aurreko ideia hori, herri-hizketek beti amore ematen dutela, alegia, hizkuntza literarioen aurrean. Frantsesa zuzenean (herri-hizketek hartzen dituzten maileguen bitartez) eta zeharbidez (herri-hizketak lekutuz) sartzen da. Hirikoek baserritarrekin ari direnean baizik ez dute erabiltzen tokian tokiko hizketa, edo baita elkarrekin ere, erdi txantxetan ari badira; landakoek erabiltzen dute herriko hizkera, baina bai haientzat eta bai hauentzat estatuko hizkuntzarekiko irrika gehiegizkoa izan ohi da, eta ezagutu ia denek ezagutzen dute. Familia gehienetan gurasoek semeekin frantsesez egiten dute. Hizkuntza literarioa eskolaren eta soldaduzkaren bitartez, hiriekin eta fabrikekin izan ohi diren erlazio ekonomikoen bitartez sartzen da. Hizkuntza literarioaren, frantses literarioaren eragina hotsetan eta lexikoan jasaten da, betiere herriko hizketa hizkuntza nagusira egokituz joaten delarik; morfologiak eta sintaxiak, berriz, ez dute eragin hori hain gogor pairatzen.

Heinrich MORF (1854-1921). Suizarra bera, eta orohar dialektoen eraketaz eta banaketaz arduratzen da, kontutan berezi-

ki hartuz eta garrantzi haundia emanez lehenagoko erromatarren probintzietatik sortu ziren eliz-barrutiei. Morf-en ikaslea izan zen Louis GAUCHAT, (1866-1972), suizarra hau ere. Honek Suiza romande-ko dialektotako lexikoa bildu zuen , eta bide horri jarraituz, bere lankide izan ziren TAPPOLET, JEAJAQUET eta, geroago, MURET-ekin lan nazional nagusi eta eragin haundikoa egin zuten: "Glossaire des patois de la Suisse romande".

4.1.1.3. ALC

Korzega-ko Atlasa. J. GILLIÉRON eta E. EDMONT, Paris (1914-1915),

Honen ezaugarri nagusiak hauexek izango lirateke:

- 45 gune geografiko.
- 1911-ko udaberritik hurrengo urteko udaren azkenalderarte.
- Toki bakoitzean galdekizuna eta tetu dialektal bat jaso tzen ziren.
- 10 aletako asmoa zuen, baina 4 baino ez ziren agertu.
- Lana kritikatua izan zen: Edmont extranjeroa izanik italie ra arrunta egiten zuen, lan honetarako berariz ikasia, baina honela erantzunak bateratu egiten zituen.

4.1.1.4. AIS

Dialektologian Karl JABERG-ek (1877-1958) toki berezia hartzen du. Suizarra bera, egiten dituen ikerketak Frantzia-ko, Italia-ko eta Suiza-ko Hegoaldeko atlasetako materialetan oinarritzen ditu. Mapa batez baliatuz, edo, berdin dena, kontzeptu linguistiko batez baliatuz zernahi nozio izendatzeko hitzen alderdi eta erabilera denak aztertzen ditu. "Hitzak eta gauzak" metodoaren bitartez hitzak kulturaren historiaren barnean aztertzen ditu, historia konparatiboa kontutan hartuta eta hizkuntzaren faktore psikologikoak bereziki miatuz.

Jaberg aipatuz gero, berehala datorkigu burura beste suizar eta haren lankide min izan zen baten izena, Jakob JUD-ena (1882-1952), alegia. Berauei zor zaie AIS izenarekin ezaguna dugun atlasa, **Atlas linguistique et etnographique de Italie et Suisse meridionel.** (Suiza, 1928-1940). Atlas honekin Gilliéron-en lanak ere behar zuen onespena jasotzen du Geografia linguistikoko aintzindari bezala, eta jakintzagai hau ere finkatuagoa geldi-tzen da.

ALF-ekin alderatuz, aurrerakuntza suposatzen du, etnografikoa bait da, eta honela hurrengo atlasei bidea zabaltzen die, "hitzak eta gauzak" delakora lotuko direlako batik- bat. Metodologiari dagokionez ere berritzailea da, galdekizuna lehenbiziko aldiz laguntzen duelako laminekin; tresnen eta baserri giroko, galtzear zeuden hainbeste gauzen eta materialen izenak aztertu eta jasotzeko marrazki eta fotografiekin baliatu zen. Gainera, galdekizuneko galderak eremu semantikoen arauera ordenatzen ditu eta ez, ordurarte egiten zen bezala, ordena alfabetikoz. Inkestagileen kopurua ere gehitu egiten du, eta espezialistekin osatzen du taldea, inkestak egin eta materiala jasotzeko ongi prestatutako espezialistekin.

AIS, beraz, funtsezko urratsa gertatu zen Geografia linguistikoa eta atlasak bereziki gotortzeko. Bidea ireki eta ibiliz gero,aurrerantzean bide beretik ibili baizik ez da eginen.

Jud-en egitekoa AIS-en prestakuntzan oso garrantzitsua izan zen Leo SPITZER-ek agertzen duen bezala honako hitzotan IORDAN (1967,377):

> *"Puso de acuerdo la doctrina de Gilliéron con los resultados actuales de la filología románica y ofreció en sus trabajos lexicológicos [...] una síntesis de todos los métodos: la reconstrucción de los étimos, el comparatismo lingüístico, el método de "palabras y cosas", el estudio de los valores estilísticos y la geografía linguística, todo esto al servicio de una actitud histórico-cultural por la que, a diferencia de Vossler, aspiraba a poner en evidencia no tanto el*

*reflejo **fenomenológico** de la cultura sobre la lengua, sino de la relación **causal** entre el factor lingüístico y el cultural." (6)*

Laburbilduz, K. Jaberg-en eta J. Jud-en arteko lan hau honela antolaturik dago:

- 8 ale; 1705 mapa.
- Suiza-Hegoaldeko eta Italia-ko (Penintsula eta Sizilia eta Zerdeña-ko irlak barne) 405 herrigune aztertu ziren.
- Herriguneen sarea ALF-ekoa baino itxiagoa izan zen Italia-Iparraldean eta Suiza-n, baina gainerakoan bakanagoa.

Berrikuntzak

3 galdekizun: 1. normala: 2000 galderetakoa (hitzak, formak, esaldiak). Gilliéron-ek ALF-erako prestaturikoan oinarritua.
2. laburra: Hirietarakoa.
3. luzea: Dialekto taldeetarakoa.

Herriguneak: Idoro zutena zera izan zen: hiri haundiak ez zirela beti hizkera garatuenekoak, edo herrietakoa ez zela beti gordetzaileena.
Edo errepide edo trenbide inguruetako herriguneek ez zutela urrutikoek baino eragin haundiagoa jasaten, alderantziz baizik.
Horregatik bereizi zen ALF-etik, hiriak ere sartu bait zituzten: Turin, Milan, Florentzia, Genoba, Bolonia, Napoles, eta abar. (Griera-k bezala, honek ere ikertu zituen hirigune haundiak).

Edukiak: Lexikoa fonetika baino gehiago. Hitzak eta gauzak, kultura bakoitza ezagutu ahal izateko.
Hitzak jaso zituzten, baina baita "gauzak" ere, batez ere galpidean zeudenak, gauza modernoagoez ordezkaturik; beraz, hamaika gauzen, tres nen, altzarien, eta abarren argazki eta marrazkiak egin zituzten. Honela 4.300 iruditako albuna osatu zuten,

non izenak eta gauzen deskribapenak ematen ziren. Mapen aurkezpena bera ere berritzailea du. Ez dira alfabetoa jarraituz ematen, nozinoen talde-en arauera baizik, "eremu semantikoen" arauera. Mapa bakoitzaren "irakurkizuna", gainera, iruzkin linguistikoez hornitzen da, marrazkiez ere lagunduz aipaturiko albunean irudirik agertzen ez denean. Azkenik, ahal denean, ALF-era eta ALC-era igortzen du eta baita dagozkion beste lan batzutara ere, honela **Geografia linguistiko erkatzailerako** oinarriak ezartzen hasiz.

4.1.1.5. Beste atlasak

ALI **(Italiar Atlas berria)**

Batzorde egilea: M. Bartoli eta G. Bertoni ziren idazlari behinenak, eta gero Bartoli bakarrik gelditu zen. Ugo Pellis izan zen inkestagile nagusia. Eta V. Bertoldi ere taldekoa zen.

Galdekizuna: 1. Orokorra: gizakia, familia, gizartea, izadia. 3.630 galdera (826 argazki, 291 galdera, 2.513 itzulpen) (7).

2. Berezia: Galdekizun osagarria nekazaritzaz, abereen hazkuntzaz, ehizeaz, arrantzaz, arteez eta lanbideez. 3.324 galdera (1841 irudi, 739 galdera, 744 itzulpen).

3. Apendize morfologikoa: 1.084 forma, eta horietatik 861 aditzarenak.

Galdekizuna 2.500 irudi eta argazkirekin osaturiko albunarekin batera doa. Denera, beraz, 8.038-ko galderatako galdekizuna da.

Herriguneen kopurua: 1.000. Ikerketarako pentsatu zen denbora 5-6 urtekoa izan zen. Ikertzaile bakarra Pellis izan zen

(aski kritikatua, ez baitzituen dialektoak zehatz ezagutzen). Pellis hil ondoren, idazlaritza batzordea berregituratu egin zen. 1947-an Vidossi-k eta Terracini-k zuzentzen zuten batzordea, eta lantaldea ere zabaldu egin zen.

Atlas errumaniarra

1. **Atlasul linguistic al Banatului.** Egilea I. A. Candrea izan zen. Hogei urte aritu zen Bánato-ko 250 herrigunetik gora ikertzen, eta 700 hitz jatorretik gora aztertu zituen. Materiala 130 mapetan ezarri zen, baina argitaratu gabe gelditu zen.

2. **ALR.** Egilea: S. Puscariu (1919). Oso kontutan izan zituen aurreko esperientziak: Jaberg-Jud eta Bartoli-renak. Gertatu zuen galdekizunak, hizkuntzalari suizarrei jarraituz, ikuspegi etnografikoa, "gauzena", alegia, izan zuen aurrean, eta folklorearena ere bai italiarren eredura. Berritzailea da tokien eta pertsonen izenak ere jasotzen dituelako, eta ordurarte hori ez zen egiten. Hizkuntzaren alderdi edo ikuspegi bakoitzerako ikertzaile ezberdinak ziren.

S. Pop-ek hizkuntzari zegokion alderdia batu zuen. Galdekizuna ere berak paratu zuen, eta gero CLUJ-eko hizkuntzalariek borobildu zuten. Bi galdekizun ziren: Laburtua, 2.200 hitz, oinarrizko nozioenak eta hitz jatorrenak; eta zabala, 4.800 galderatakoa, nekazarien bizimodua jasotzen duelarik etnografiaren eta folklorearen aldetik (8).

Argitaratutako aleak hauek dira:

Atlasul linguistic romîn, 2 ale, (1938 eta 1942).
Atlas linguistic romîn (sail berria), 3 ale, 1956-1961.
Micul atlas linguistic romîn (sail berria), ale bat, 1956.

Cluj-eko Linguistikako Institutoak eginak: zuzendaria E. Petrovici eta idazlaritza batzordea Ioan Patrut-ek arteztua.

Bada atlas linguistiko errumaniar berria eskualdeka egiteko egitasmoa, sare itxiagoan eta galdekizun hobeagotuarekin.

Errumanieraren **fonogramen artxiboa** ere egiten ari dira, hau da, magnetofoiko zintetan errejistraturiko testu dialektalen bilduma sistematikoa egiten.

ALC. **Atlas lingüistic de Catalunya**, Barcelona, Institut d'Estudis Catalans, 1923 eta hurrengoetan argitaratua. Frantziako Atlasaren luzapen gisa hartua izan da. Egile bakarra A. Griera izan zen.

Herriguneak: 101 puntu. Sareak Frantzia-ko atlasak duen itxiera badu bi aldiz. Ikertu zituen Roselloi frantsesa (5 herrigune Katalunia frantsesetik); Andorra; Katalunia; muga ondoko Aragoiko herriguneak, Ribagorza-ko Nogera-tik haratago; Valentzia; Baleares-ak; Zerdenia-ko Alger hiria; baita Aran Haraneko dialekto gaskoia eta Hueska-ko dialekto aragoiera.

Kartografiaketa ALF-aren idurikoa da, baita hitzen aurkezpen alfabetikoan ere.

1962-an Griera-k berak jarraitu zuen lanarekin, A. Pladevall ikerlearekin batera; haatik, jasotako materialen artean berrogei urtetik gorako aldea dagoenez, bigarren aldia kritikatua izan zen, eta ikerlea aldatzea ere bai.

Egitasmo berri bat ere bada: **Atlas lingüistic del Domini Català,** zuzendaria A. Badia delarik. Galdekizuna argitaratua dago: A. M BADIA eta J. VENY: **Qüestionari del Atlas lingüistic del Domini** Català, 1965.

Atlas lingüístico de la Península Ibérica (ALPI)

Atlas honen lehen urratsak Menéndez Pidal-ek eman zituen, ohartu baitzen Penintsula Iberiko-rako atlas linguistikoaren beharraz, eta T. Navarro Tomas-i kargutu zion egitea. Hurrenezhurren hauek lirateke urratsik garrantzitsuenak:

1925: Amado Alonso-ren laguntzaz galdekizuna prestatzeari hasiera ematen zaio.
1931: Aurre-inkestak egiten eta lanean sistematikoki hasten

da.
1936: Lana eten egin zen.
1947: Berriro hasi zen.
1954: Materialaren bilketa amaitzen da.

Galdekizunak hiru koaderno zituen eta denetara bi mila galdera bat eskas. Ez ziren denak jaso. Ikus beherago azaltzen den erantsian.

Alvar-ek nahiko kritikatu du galdekizuna, IORDAN (1967,449-453), batez ere maila lexikoan urria delako, baina baita zenbait hitz jasotzeko eragatik ere. Traskribapen fonetikoari buruz, ordea, ezin hobea dela onartzen du -egia esan, guk /e/ fonema bokalikoaren 26 aldaki ere zenbatu ditugu-, batez ere datuen ugaritasunari eta xehetasunari eta traskribapenaren zorroztasunari dagokienez; halere, Alvar-ek seinalatzen du Navarro Tomas-en jokabidea XIX. mendeko neogramatikarien erizpideetara hurbiltzen dela.

Herriguneen kopuruari dagokionez (Vide B) orri erantsian), 528 izan ziren, eta Penintsula Iberiko osoa izanik eremua, sarea nahiko mugatua dela esan daiteke.

Lekukoei eta inkestagileei buruz ikus C) eta D) jarraiberean orri erantsian.

Nolanahi ere, iruzkin batzu egin daitezke gai honi buruz. ALPI-ren zuzendaritza fonetikari bati gomendatzeak berez ekarri zuen hizkuntzaren maila hori hagitzik ere begiratuagoa izatea. Hirietako hizketek, esaterako, era guztietako dokumentazioa izan zuten: kimografoez egindako errejistroak, palatogramak, diskotan grabaketak; Millardet-ek Landes-etako atlasean erabilitako metodoa bera ere hobetu egin zen. Espaineraren dialektoen artxibo fonografikoa ere sortu zen, Zurich-eko Unibertsitateak Suiza-ko dialektoekin egin zuenaren arauera (9).

Hiriburuei arreta berezia eskeini zitzaien, eta galdekizunean ere sail berezi bat zuten, SANCHIS GUARNER-ek dioen bezala (1953, 56):

"a los gráficos de entonación en sus diferentes tipos (enumerativa, interrogativa, subordinativa, etc.), pues pese a la importancia que tiene la entonación como elemento caracterizador y estructural de la lengua y los dialectos, no se le ha prestado apenas atención en los Atlas ni casi tampoco en los estudios de Dialectología."

Eta hori gutxi balitz ere, NAVARRO TOMAS-ek berak dioenez (1975,12):

"se hizo hincapié en la oscilación y tendencias del timbre de las vocales en los frecuentes casos en los que se apartan más o menos del tipo medio que se les suele atribuir".

Deigarri gertatzen da zein epe luzea -sei urte- hartu zuten galdekizuna prestatzeko. Edonola ere, kontutan hartu ziren filologia erromanikoko alderdi nagusi eta orokorrak, Penintsulako hizkuntzen bildumari -euskara salbu- bereziki zegozkien arazoak, hizkuntza bakoitzari eta bakoitzaren aldaki dialektalen ezaugarri bereziei zegozkienak ere.

Bildutako lexikoaren urritasuna dela eta egiten zaizkion kritikei honela erantzun die NAVARRO TOMAS-ek (1975,13):

"por muy extenso que sea un atlas, sus mapas no pueden encerrar más que una parte del vocabulario total de la lengua. A esta totalidad sólo se puede llegar mediante el ***glosario*** *metódico general, con localización de vocablos y correlación de sus sinónimos, empresa más amplia que la del atlas y de distinta ejecución."*

Fonetika alderdia hain zehatz eraman nahiak atzeratu egin zuen agian atlasa burutzea. Alabaina, zehaztasun hori xehetasun denetan zaindu zen. Kasu baterako, mapa bakoitzean gaztelaniazko hitzez gain, portugeseko eta katalaneko baliokideak ere ipintzen dira; fonetikako mapetan, hizkuntza arruntean eskuarki

erabiltzen den hitza ez bada etimologiari dagokiona, hau parentesi artean ipintzen da. Bestalde, fonetikari dagozkion mapak alfabetikoki ordenatuak daude, baina lexikoari dagozkionak materien arauera, erizpide etnografikoak jarraituz.

Azkenik, atlasa osatzeko gehien eragotzi zuen gertaera 36-ko gerratea izan zen. Materialak eta lankideak sakabanatu zituen, batzuek eta besteak atzerrian, eta hau makurraldi haundia gertatu zen. 11 urte geroago berriro heldu zitzaion lanari, baina ez zen onerako izan, hizkuntz aldaketa gertatu bait zen, bigarren aldiko materialetan garbi nabari den bezala. Beharbada horregatik ez zen argitaratuko ale bat baizik, 75 galderei zegozkien beste hainbeste mapekin.

ERANTSIA I

Penintsula Iberika-ko Atlas Linguistikoa (ALPI)

I.- FONETICA, I, **CSIC,** Madrid, 1962.

Galdekizunaren ezaugarriak

I. FONETICA, MORFOLOGIA Y SINTAXIS.

411 galdera: horietatik, 281 hitz askeak dira, eta 130 esaldi bakun.

II. LEXICO Y ETNOGRAFIA (2 galdekizun): II G- 417 galdera, II E- 833 galdera, baina galdekizun bietan asko dira erantzun bat baino gehiago eskatzen dituzten galderak; gehienbat II E galdekizuna erabili izan zen, eta jasotzen ziren hitzak denetara 1661 izan ohi ziren.

A) Lehenbiziko galdekizunari esker mapa sail bat osatu ahal izan da. Mapa horietan artikulazioari dagozkion oinarrizko gertakizunak eta fonetika historikokoak agertzen dira. Fonetikako galde-

kizun hau prestatzeko ahaleginak egin ziren. Penintsulako hizkuntza eta dialektotan etimologia bereko hitzekin adierazi zitezkeen kontzeptuak hartzen saiatu ziren, honela erkaketak eta lauki erkagarriak errezago egin daitezkeelako. Hau dela eta sartu ziren "aire, boca, caña, causa, cinco, diente, hijo" eta antzerako beste hitz asko, lexikografiaren ikuspuntuz egon beharrik agertuko ez luketen hitzak.

B) Herriguneen hautaketa

Aztertu behar ziren guneak hautatzeko, aldez aurretik ezagutzen ziren gertakizun dialektal guztiak hartu ziren kontutan, tokirik interesgarrienak zeintzu zitezkeen jakin ahal izateko; bidebatez, oso zehatz begiratu ziren geografiazko baldintzaketak eta historiako gertakizunak ere. Guzti hauen ondorioz, aztertutako herriguneen sarea oso simetria gutxikoa da, oso itxia delako dialektoen eragina haundia den tokietan, esaterako Asturias-en, eta ez, ordea, Castilla-ren erdialdean, non hizkuntzaren berdinketa haundiagoa ematen baita.

ALPI-n, orohar, maiteago izan zituzten herri txikiak, horietan hobeto gordetzen direlako herriko hizketa eta kultura, herri nagusietako forma bateratuen eta erregularren eraginetik aske.

ALPI-n, 528 herrigune agertzen dira. Hizkuntzen arteko mugetan gertatzen diren eta sailkatzeko zail gertatzen diren pasoko toki batzuk izan ezik, gainerakoak honela bana daitezke: 156 herrigune gailego-portugeseko eremu linguistikokoak, 276 espainerakoak eta 96 katalanekoak.

ALPI-k hartzen dituen lurraldeen zabalera 189.076 km²-takoa da. Biztanlegoa 35.808.739-koa (1950-eko biztanlego datuak dira). Honen arauera, ALPI-k 1.115 km²-ko eta 67.819 biztanleko gune bat hartzen du.

C) Lekukoak

Lekukoak hautatzeko zera begiratu zen batipat: tokiko herri-

hizketa berez eta ahalik zintzoen ager zezatela. Herriko semealabak izan behar ziren, eta, ahal izanez gero, baita gurasoak eta ezkontidea ere. Gogokoagoak ziren, bestalde, gutxi eskolatuak, analfabetoak eta ezikasiak eta herritik kanpo bizi izan gabeak, hizkuntza kultoaren eta beste herri batzutako hizketen eraginik izan ez zezaten.

Nekazaritzako hitzak zirenez gehienbat jasotzen zirenak, emakumeak baino gehiago gizonak izan ziren lekukoak, emakumeek ez bait dute zenbait tokitan baserri-lanetan parterik hartzen. Adintsu samarreko pertsonak hartzen ziren, batez ere holakoen hizketak ez duelako eguneratze berdintzailearen hain eragin haundirik jasan; haatik, zaharregiak ere ez ziren onargarri, burua argia behar zutelako, eta, horrez gain, hortzak ere ongi behar zituztelako ahoskera garbia gerta zedin.

d) INKESTAK

Traskribatzaile talde batek egiten zituen, bi lekuko edo informatzailerekin gehienbat.

Inkestak egiteko tokian tokiko hizkera arrunta erabili ohi zen, eta ahal izanez gero lekukoen dialektoa edo aldakia bera. Galderak beti zeharbidez egiten ziren, baita Morfologiarako eta Sintaxirako esaldietan ere. Marrazkiak, belarreria eta intsektoen kaxak izan ziren inkestagileek erabili zituzten materialak.

Alfabeto fonetikoa

Traskribaketak zehatzak eta zorrotzak nahi izan zituzten. Beste atlas batzutan baino ñabarduagoak eta zehaztasun gehiagorekin emanak.

1.4.1.2. Atlas linguistikoak eskualdeka

Hogeitamarreko urteen azken aldera asmo berriak nabaritzen dira Geografia linguistikoaren inguruan. Europa-ko hizkuntz

eremurik haundienak kartografiaturik daude; eta dialektologoak, atlasen analisian sakonduz joan diren neurrian, ohartu egin dira atlasek eskeintzen zituzten datuak ez zirela behar adina zehatzak eta ugariak. Heldua zen, beraz, eremu mugatuagoak lantzeko unea, honela elkarrengandik hurbilago zeuden guneak aztertu ahal izateko. Hortik sortu ziren eskualdetako atlasak.

Eskualdeka egin ziren atlas hauek, bestalde, eremu haundietako atlasei, hots, atlas "nazionalei" kontrajarriak sortu ziren, "nazional" izena bera ere ez bait zuten ongi ipinia, horrelako izenak estali egiten duelako edozein naziotan gertatzen den hizkuntz ezberdintasuna edo, bestela esan, hizkuntz egoeren ugaritasuna.

Eskualdekako atlasetan, gainera, beste jokabide batzu ere errezago har daitezke. Fonetika eta fonologia ordurarte ukatzen zitzaien toki garrantzitsuago bat hartzen hasten dira. Alderdi fonetikoak eta baita fonologikoak ere jasotzeko berariz prestatzen dira galderak, honela fonemen arteko aurkakotasunak finkatu ahal izateko eta, ahal zitekeen neurrian, baita sistemen artekoak ere. Ez dago, beraz, zalantzarik: atlas linguistikoetan hizkuntzalaritza estrukturalaren eragina nabari da. Eta beste hainbeste esan daiteke maila morfologikoari dagokionez, eta berdin sintaxiaz, maila apalxeagoan bada ere, sintaxia zaila baita jasotzeko; ez daiteke ahaztu morfologia eta sintaxia direla hizkuntzen egituren zutabeak.

Teknika, hutsa aldatzen da; baina bai, ordea, metodologia, inkestak batzeko era, inkestagileen kopurua, formatoa, erantsiak eta abar, eta guzti honek ordurarte behar zen baino beraritza haundiagoa eskatzen du.

Lurralde mugatuagoen atlasak egiteko ideia eta beharra Jaberg-ek ikusi zuen (10), eremu haundietakoak gutxietsi gabe, besteak hizkuntzaren egoera geografikoaren ikuspegi zehatzagoa eskeintzen dutelako.

Geografia linguistikoaren aro berri honen eredu Frantzia-n

egin zen NALF **(Neuf Atlas Linguistique Français)** (1942) bihurtuko da (11). Albert Dauzat izan zen haren bulkatzailea eta egile garrantzitsuena (12). NALF delakoak zituen xede nagusiak hauek ziren: lehenengo eta behin, frantsesaren dialektoen azken hondarrak salbatu, berdintzen bait zihoazen oso arriskugarri frantsez estandarrera, desagertzear aurkitzen zirelarik. Nahi zen, bestalde, ALF hobetu; ALF eta NALF-en artean zeuden 50 urteko epean landa-hizketek jasan zuten aldaketa ezagutu; eta Gilliéron-ek zabaldu zuen sarea ere itxiagoa egitea bilatzen zen, DAUZAT (1948,26-27) (13).

Eskualdeka egindako lanak baziren arren, lurralde mugatuagoetara loturiko lan berrien beharra hedatu zen, estatu osorako, aipaturiko eskualdekako lan horiek ez bezala, galdekizun, helburu eta erizpide berdinekin, atlas bakarra egiteko asmoz (14).

Esan dugun bezala, Dauzat izan zen bultzatzailea. Berak eta beste dialektologo frantsez eta okzitanoen belaunaldi berri batek ekin zioten eskualdekako atlasak egiteari. Iniziatiba honen meritoa Albert Dauzat-i zor zaio; 1939-an, **Français moderne** aldizkarian jaurti zuen ekintza berri honen ideia, eta 1940-tik aurrera dialektologiako lanak oro ideia horren inguruan ariko dira. Egitasmoa ere berak eramango du aurrera, metodoa arteztuz, galdekizuna prestatuz eta lehen inkestak jasotzen lagunduz. 1940-1955 urteetan berri asko eman zituen **Français moderne**-n inkestagileei eta lanen garapenari buruz. 1955-ean, Dauzat hil ondoren, Mario Roques-ek hartu zuen lanaren lehendakaritza.

ALF-en ez bezala, lan honetan estatu frantsesetik kanpoko hizketak azterketatik ere at uzten dira, hala nola Suiza-ko hizkera franko-probentzalak edo muga politikoetatik bestalde dauden hizkera galo-erromanikoak.

Mapa erantsian agertzen dira eskualdetako atlasak, hemeretzi denera, gehi Alsazia-koa eta Lorena germanikokoak, eta Frantzia-ko Euskal Herrikoa; azken honetaz mintzatuko gara aurreraxeago (15).

Frantziako eskualdetako atlas linguistikoen egoera, Centre

National de la Recherche Scientifique (CNRS) erakundeak dioenez, honako hau da (amaitutakoak aipatzen dira bakarrik, denak ere oso aurreratuak badaude ere):

Centre, (ALCe). Pierrette DUBUISSON
3 ale, 1275 mapa

Bourgogne, (ALB). Gerard TAVERDET
3 ale, 1800 mapa. Kartografiaketa burutua.

Lyonnais, (ALLy). Pierre GARDETTE
3 ale mapekin. 4. tomoa metodologiaren azalpenarekin. 5. tomoa iruzkinekin.

Jura et Alpes du Nord, (ALJA). Jean Baptiste MARTIN eta Gaston TUAILLON. 3 ale, 1842 mapa. Kartografiaketa burutua. 1. Faszikulu bat indizearekin.

Gaskogne, (ALG). J. SEGUY
6 ale, 2531 mapa.

Massif Central, (ALMC). P. NAUTON
3 ale, 1899 mapa. Tomo bat azalpen orokorrarekin.

Pyrénées Orientales, (ALPO) J. GUITER
Tomo bakarra, 565 mapa.

Eslkualdekako beste atlas linguistiko batzu ere egin dira, baina koordinaketarik gabe, ikuspegi osorik gabe, bakoitza bere aldetik, ikertzaileen bakartasuna agertzen dutelarik, NALF-en kasu bakanean izan ezik.

Lanerako era aldatu egin da; Geografia linguistikoaren ikuspuntutik ez, Gilliéron-i jarraitzen bait zaio, baina bai metodologiarenetik. Inkestak errejistratuak gelditzen dira, kartografiaketak forma berriak hartu ditu hainbat kasutan, inkestagileen kopurua eta formazioa aldatu egin da, etnografiaren alderdia ere kontutan hartzen da, eta abar. Haatik, funtsezko gauzetan ez da aldaketarik izan. ALVAR-ek zioen bezala (1973,14):

"Bien sé cuánto ha significado la geografía lingüística para el progreso de nuestra ciencia, y nadie podrá negarme el entusiasmo con que la practico. Pero mi fe en ella no me permite ver que lo que hacemos hoy es, con enormes progresos ¿quién lo duda?, lo que inventó Gilliéron."

Eskualdetako atlasen gisara egin zen **Atlante linguistico-etnografico italiano de la Corsica** (1933-1942). Atlas honen berrikuntza galdekizunean datza: pertsonek hitz soilak ez baina esaldiak erabiliz hitz egiten dutenaren ideian oinarrituz, esaldiekin bakarrik osatu duelako galdekizuna. Galderarik gabeko lekukoen solas askeaz ere baliatzen da.

Gugandik hurbilago dugu Manuel Alvar-en lana. NALF-en ereduari jarraituz, bakardade osoan -laguntzaileak hartu zituen, dudarik gabe- eta plangintza bateraturik gabe, Espaina-ko Estatuko hainbat eskualdetako atlasak egin ditu.

Lehenbizikoa **Atlas Lingüístico Etnográfico de Andalucia** (ALEA) izan zen.

Galdekizuna prestatzeko eta lana aurrera ateratzeko NALF-en plangintzari jarraitu ziola esaten digu ALVAR-ek berak, IORDAN (1967,477). Hasiera batetan , 2150 galderatako galdekizuna inkestagile bakarrarekin jasotzea pentsatu zen; gero galderak gehitu egin zituen, eta egitasmoan bi lankide berri sartu, Gregorio Salvador eta Antonio Llorente. 230 gunetan jaso zen, zenbait tokitan, sexoaren eta maila kulturalaren aldakien arauera, inkesta bat baino gehiago egin bazen ere. Sei ale ditu, lehen bostak lexikoari dagozkionak, eta seigarrena morfologiari, fonetikari eta sintaxiari.

Gregorio SALVADOR-en hitzetan (1977,53) ALEA izan zen:

"El primer atlas lingüístico que introdujo en su cuestionario una serie de preguntas orientadas a delimitar las áreas de unas determinadas oposiciones

fonológicas, las existentes entre vocales abiertas y cerradas en Andalucía Oriental."

Atlas lingüístico y etnográfico de Aragón, Navarra y Rioja

Atlas hau Alvar beraren ideia batetik sortu zen; hasieran bi atlas ezberdin egiteko asmoa zuen, bata Aragoi-koa eta bestea Nafarroa-koa eta Errioxa-koa (16). Aragoi-n jaso zen galdekizun bera erabili zen geroago Nafarroa-n eta Logroño-n ere. Denera 135 herrigune, eta lantaldea M. Alvar, Antonio Llorente, Tomás Buesa eta Elena Alvar-ek osatu zuten.

Nafarroa-ko lurraldeari dagokionez zera esan behar da, euskaraz ere jaso zirela hitzak eta horrela azaldu zirela atlasean. Inkestak egiterakoan lanak banatu zituzten, T. Buesa-k euskaraz eta gazteleraz jasotzen zuen hitza eta A. Llorente-k lekukoak gaztelerako hitza ezagutzen ez zuenean bakarrik jasotzen zuen euskarakoa, edo baita gaztelerako hitza ez zenean galdetzen zena. BUESA-k berak esaten duen bezela (1972,65-66):

> *"La mayoría de las voces, como recuerdo de las hablas éuscaras, fue facilitada espontáneamente por mis informantes junto a los correlatos romances, con la aclaración "en vasco se dice así", otras -las menos- han pasado como sustrato en unos casos, y como adstrato en otros, al léxico románico...".*

Kartografiaketak bederatzi ale eman zituen, eta horietatik zortzi lexikoarekin. Mapak, ALEA-n bezala, onomasiologikoak eta etnografikoak ziren. Gehienbat, mapa "puntualak" dira, galdera bakoitza den bezala eta zorrotz traskribatzen dutenak (17); badira "gertatuak" ere, balio gutxiko gertakizun fonetikoak zeinu berezien bitartez murrizten direlarik; azkenik, "bietarikoak" ere badira, "puntualak" eta "gertatuak" biak batera. Mapa etnografikoak bietarikoak baino ezin dira izan, baina inoiz edo behin kontzeptua bietara ematen da, bakoitza bere mapan, onomasiologikoan eta etnografikoan alegia (18).

Alvar-en beste atlasetan bezala, mapak eremu lexikalen arauera aurkezten dira, hitzak eremu horien barnean bilduz.

ALEA-tik ia zuzen-zuzen hartutako galdekizunarekin, Alvarek **Atlas Lingüístico y Etnográfico de las Islas Canarias** (ALEICan) egin zuen,1975-ean argitaratua (19). Egin zitzaizkion ukituak, irletarako egokierak baizik ez dira. Bilketarako metodologiak eta kartografiaketak aurreko atlasetako jokabide bera jarraitzen dute, kasu honetan Alvar berak bakarrik egin badu ere lana, hau da, lan-talderen laguntzarik gabe. Hiru ale ditu, lexikoari batez ere zuzenduak hirurak (20).

Léxico de los marineros peninsulares (1985) lana, atlasetatik at gelditzen bada ere, metodologia bera erabiltzen duenez inkestak jasotzean, ez daiteke desegokitzat jo hemen aipatzea. M. Alvar **Atlas Lingüístico Mediterráneo**-ko lankide izan zen, eta horrek aukera eman zion itxasoko lexikoa jasotzeko, bidenabar. "Lexiko" horrek badu garrantzirik itxasoz inguraturiko estatu batean, eta are gehiago ordurarte horretaz ezer egin gabe zegoenez. Lan honetarako QALM (Questionario dell'Atlante Mediterraneo) (21) egokitu zuen, eta hiru hizkuntza erromanikoetan (gaztelania, gailego-portugesa eta katalana) eta euskaran (A. Irigoyenek jasoa) bildu zen. Gaztelaniaren dialektoetan: "montañés" deituan, asturiarrean, murtziarrean, kanariarrean eta Andaluzia-ko aldakietan. Katalanetik, katalanean, balentziarrean eta balearrean. Gailego-portugesetik, gailegoan, iparraldeko portugesean eta hegoaldeko portugesean. Materialak, dagoeneko argitaratuak (22), ez dira kartografiatuak eskeintzen, fonetikoki oso zorrotz traskribatuak baizik eta hitzak zerrendetan. Metodo honek, merkea izateaz gain, "no sacrificaría ninguna de las ventajas que la cartografía lingüística ha conseguido hasta este momento" ALVAR (1985,23). Kartografiaketak badu, bestalde, eragozpenik ikuspiderako: itxas-bazterreko guneak direnez inkestatuak, mapako zatirik haundiena zurian agertuko litzateke, eta ez uste deus gutxiko arrazoia denik hau, kartografiaketa egiteko arrazoirik sendoena ikuspidezkoa delako, dena batera ikusi ahal izatearena, alegia.

Alvar-en lanetatik kanpo, Estatuan Atlas lingüistic del Domini Catalan (ALDC) da garrantzitsuena.

Katalan eremurako egiten den bigarrena da. Galdekizunaren prestatzaileak A. M. BADIA MARGARIT eta Joan VENY CLAR izan ziren (23). 2.096 galdera ditu. Inkestak 1964-an hasi ziren egiten, eta, uste dugunez, 1976-an burutu ziren. Guk dakigunez, mapak ez dira oraindikan argitaratuak izan.

Metodologiako erizpideak edo jokabideak honako hauek izan ziren (24): inkestak beti bi lankideen artean jaso ziren; inkesta osoro errejistratzen zen hizkera errepresentagarria zenean, eta zati bat baino ez beste kasuetan; galdetzeko era zeharbidezkoa izan zen, eta itzulpenera sintaxi-arazoetarako eta zeharbidez jaso ezin zitezkeenetarako baizik ez zen jo.

Galdekizuna bakarra izan zen eta galderen kopurua honela banatzen zen: galdera gehienak lexikoari zegozkionak, gero maila morfo-sintaktikoari buruzkoak, eta azkenik, fonetika mailan, batez ere fonetika historikokoak.

Inkesta 200 gunetan jaso zen, nola hiri haundietan nola herrixketan. Lekukoak bat edo zenbait izan zitezkeen, adin ezberdinetakoak eta nahiago gizonezkoak. Nekazaritza giroko tokietan beti begiratzen zen nekazariak izan zitezen lekukoak, egokiago bait dator horrela baserri inguruarekin.

4.1.3. Eremu haundietako atlas linguistikoak

Euskal Herriaren ingururik hurbilenean egin diren atlasei dagokien zati hau burutzeko eremu haundietako atlasak aipatzea gelditzen zaigu.

Eremu haundietako atlas hauek, bere izateagatik hain zuzen, ikuspegi orokorra ematen dute eta ez hainbeste xehetasuna; izan, sintaxi-lanak dira berez. ALF eta ALPI eremu aski haun-

diko atlasak dira, eta xehetasunak jasotzen ez dituztelako, hain zuzen ere, eremu txikiagoetako atlasekin hasi behar izan zen, xehetasunak garbiago ikusi ahal izateko. Horra bada, nondik sortu ziren eskualdekako eta lurralde txikiagoetako atlasak, betiere batasun geografikoa ahazten ez zelarik: haran naturalak, herrialdeak, irlak; edo baita ere hizkuntz batasuna dutenak, esaterako gaskoiarena eta abar. Baina atlas txikiak egiten ziren bitartean, eremu oso haundietako atlasak egitea ere pentsatu zen, hainbat estatu eta hizkuntza hartuko zituzten atlasak. Ideia hau, Geografia linguistikoan ere metodo erkatzailea aplikatu beharretik sortu zen.

Bide honetatik joango litzateke lehen aipaturiko "Mediterraneo-ko Atlas Linguistikoa" (ALM). Lan honen asmoa Mediterraneo-ak bustitzen dituen Europa, Asia eta Afrika-ko lurralde guztietako itxas-lexikoa batzea zen.

Beste atlas aipagarri batzu: 1934-an Varsovia-n, eslabisten Kongresoan aurkeztu zen eslabieraren atlas orokorra (25); **Errusieraren dialektoen Atlas Linguistikoa** (erizpide fonologikoetan oinarritua); edo **Estatu Batuetako eta Kanada-ko Atlasa** (1939).

Asmo mailan, kasu batzutan ekintzak bideratuak badaude ere, aipa ditzakegu **Munduko Atlasa** eta **Erromaniako Atlas Toponimikoa. Europako Atlas linguistikoa** (ALEA), estrukturalismoaren ikuspuntutik planteatu zen; bi galdekizun ditu (26): lehenbizikoa, lexikoa, hau da, onomasiologia eta oinarrizko hiztegia; bigarrenak, berriz, hizkuntzaren eremu denak hartzen ditu, hau da, lexikologia, fonologia, morfologia eta sintaxia. Egitasmoa 31 estatutan jasotzekoa zen. Ez dakigu, ordea, zertan den egun egitasmo hori.

4.2. ATLAS LINGUISTIKOAK EGITEKO METODOLOGIA

Atlas linguistikoena arretarik haundienaz egin behar den zeregina da, eta hasitako ekintza ongi eta horrelako lan zientifikoek eskatzen dituzten bermeekin burutu nahi bada, detaileak oro zaindu behar dira. Inkesta linguistikoa da, azken batean, urratsik garrantzitsuena eta aurrenengo eman behar dena, eta S. POP-en eritziz (1957,246), inkesten balio zientifikoa erabakitzen duten elementuak hauek dira:

> *"... le territoir de l'enquête, le questionnaire, l'interrogatoire et l'enregistrement des réponses, le choix des localités, le choix des informateurs, la notation phonétique et la manière de publier les materiaux."*

4.2.1. Inkesta-guneak

Edozein atlas egiteko lehenengotariko lan bat ikertu behar diren guneak, inkesta-tokiak, alegia, finkatzea da. Guneek elkarrengandik aski hurbil behar dute izan, errejistratzen den inbentarioak homogeneotasunaren bermea izan dezan. Lehen esan dugun bezala, helburuak ongi erdietsi nahi badira, sareak aski itxia behar du izan, baina ez lana burutu gabe gelditzeko arriskutan jartzerainokoa. Honela, lurralde jakin bateko hizketa edo hizketak biltzen dira, aldakiak nahiz dialektoak nahiz hizkuntzak izan, eta bat baino gehiago ere bai, lurraldearen eta lanari ezarri zaizkion helburuen arauera.

Behin datuak kartografiatuz gero, ikertzaileak denak batera izanen ditu begien aurrean. Eta, gorago ere esan dugun bezala, datu horiek agerian utziko dituzte berdintasunak, desbideratzeak, gune nahasiak eta abar, eta atlasari batasuna emanen dion unitatea, ohizko atlasetan behinik-behin, hitza izanen da (27).

Mapak egiteko oinarriak ipintzerakoan, ordea, galdera funtsezko bat sortzen zaigu: zertarako egiten diren atlasak, eremu geografiko mugatu baten ematen diren gertakizun linguistikoak idorotzeko ala, agian, gertakizun horiek ezagutuz gero, beraien hedadura eta banaketa finkatzeko. Galdera bikoitz horrek erantzuna ere bikoitza du, atlasek fenomenoak ezagutzen ez direnean ezagutzeko balio dutelako, baina batez ere atlasek fenomeno horiek geografian hartzen duten forma ikuserazten dutelako. R.I. AVANESOV, sobietar hizkuntzalariak ere hori bera dio (28):

> *"Precisamente por esto es difícil concebir la posibilidad de realizar el atlas lingüístico de una lengua cuyos dialectos no han sido aún objeto de investigación científica. Lo fundamental en la recolección de materiales para el atlas de esta o aquella lengua no consiste en el descubrimiento de fenómenos nuevos, no conocidos hasta entonces (aunque en la práctica esto puede tener lugar) sino, normalmente, en el establecimiento de la extensión, de la geografía más estrictamente, de fenómenos lingüísticos conocidos."*

4.2.2. Galdekizuna

Esan berri dugun guzti hori kontutan izanez gero, ez dago besterik gehitu beharrik galdekizunaren garrantziaren haundiaz ohartzeko. Grabaketa askeak edo arteztuak ere egin daitezkeen arren Galdekizuna ezinbestekoa da inkestak egiteko, eta noraezeko da ezagutu eta jaso nahi diren alderdiak oro aldez aurretik ongi prestatzea. Galdekizunaren kalitatea nolakoa, halakoa izango da ondorengo eginkizuna eta, azken buruan, lan osoa bera ere; eta hau honela izanik edozein lan dialektologikorako, areago izanen da atlas linguistikotarako, material guztia prestatu diren galderen arauera jasoko delako (29).

Ez dago, ordea, galdekizun onik prestatzerik, fenomeno linguistikoak ez badira aurretik ezagutzen, maila foniko eta morfo-

sintaktikoko hizkuntz arazoak, alegia; baina hori ez da aski, aztertu nahi den eremuko mundu materiala ere ezagutu behar bait da alderdi lexikoa ongi jaso ahal izateko.

Ohizko atlasek garrantzirik garaiena lexikoari eskeintzen zioten, eta baita egungoek ere, ez bait da aldaketa nabarmenik izan lexikoari dagokionez. Eremu lexikoko galdekizuna prestatzeak, batez ere kultura materialekoak, baserri-inguruaren ezagutza sakona suposatzen du, giro horretako kulturarena, lanabasena eta tresneriarena, eta toki bakoitzean gertatu ohi diren aldaketena, bestela galdekizuna ez da tokira egokituko. JABERG-ek seinalatzen zuenez (1924,279):

> *"Or un atlas ne se propose pas d'être un inventaire complet du vocabulaire d'une langue. Ce n'est qu'un choix de mots qu'il présent: mais ce choix doit permettre saisir les traits essentiels du vocabulaire, sa répartition géographique et de la vitalité des éléments qui ont été choisis pour en démontrer les differents aspects."*

Badira urteak Jaberg-ek baieztapen hori egin zuela, baina oraino balio du. Galderen hautaketa zeharo neurtua, doi-doia, egin behar da. Beste atlas baterako prestaturiko galdekizuna egokitu nahi balitz, xehetasun denak begiratu beharko lirateke arretarik haundienaz, bestela aztertzen den tokirako alferrikako liratekeen hainbat datu jasoko lirateke, eta, aitzitik, beste asko beharrezkoak eta aztertzen den tokirako adierazgarriak agian batu gabe geldituko lirateke (30).

Atlas linguistikorako galdekizuna ikuspuntu desberdinetatik presta daiteke, betiere helburuen arauera. Hainbeste aldiz aipaturiko Jaberg eta Jud-en AIS delakoak sartu zuen aurrenekoz galdekizun anizkoitza: 2.000 hitz galdekizun normalerako, 800 laburrerako eta ia 4.000 luzerako, POP (1950,565-566).

Badira, nolanahi ere, beste arazo edo alderdi batzu ere kontutan izan behar direnak galdekizunaren luzeera finkatu aurre-

tik, eta bat lanaren eginkortasuna bera da,dela denboraren aldetik dela hartu nahi den eremu fisikoarenetik, eta ezinbesteko den finantzaketarenetik, inoiz gertatu izan delako burutu gabe utzi behar izatea lanaren luzeegiagatik. Italieraren atlasak 7.500 galdera ditu, eta POP-ek (1957, 250) zera gomendatzen du:

> *"Mon expérience m'incite à conseiller l'emploi, dans une enquête plus étendue, d'un questionnaire contenant moins de deux mille questions; celles-ci peuvent être facilement enregistrées en trois jours, lorsqu'on a la chance de trouver un bon informateur."*

Luzeegiaren arazoa, batzutan, atlasaren bi aldaki eginez erabaki ohi da, bata luzea, materialak nahiz kartografiatuak nahiz kartografiatu gabeko zerrendetan agertuz, aldaki laburraren osagarri edo eranskin gisa; eta bestea laburra, non mapak ohi bezala aurkeztuak ematen diren. Esaterako, Errumaniakoak 4.800 galdera zituen aldaki luzerako eta 2.208 laburrerako, POP (1933,91-91).

Berriro ere lanaren eta lurraldearen izaerari daragoiogu. Lurraldea oso zabala bada eta kultur-eskualde ezberdinak hartzen baditu, eta hizkuntz eremu bat baino gehiago, galdekizunak tokian tokiko beharrizanetara egokitua beharko du izan. Ezta gauza bera abelaldea, itsasaldea edo industrialdea; eta galdekizun fonetikoak eta morfo-sintaktikoak ere ez dute berdin balioko hizkuntz eremu baten eta bestean, hizketa baten edo dialekto baten eta bestean. Lehenengo, eremu osorako baliagarri gerta daitekeen oinarrizko informazioa jaso behar da, eta galdekizuna behin eta berriz ikusi, bestela atlasak ez luke batasunik ez homogeneotasunik lortuko; hori eginez gero, egoera eta toki ezberdinetarako galdekizunaren osagarri batzu prestatu eta jaso behar dira.

Arazo hau GARDETTE-k (1957,253) planteatu zuen NALF zela eta:

> *"... si nous voulons comparer plus tard les cartes des divers atlas régionaux, ne faut-il pas qu'elles soient*

comparables? Pour que ces cartes soient comparables, ne faut-il pas que l'on pose les mêmes questions? Ne faut-il pas pour touts les atlas un questionnaire semblable? Et lequel?"

Dauzat-ek, NALF-erako, galdekizun orokor bat proposatu zuen, atlas guztietarako bera. Gilliéron-en atlasean oinarrituz, eta interes gutxiko hainbat hitz kenduz, 18 kapitulutan banatutako 960 galderetako galdekizuna proposatu zuen; galdera horietarik zenbaitek erantzun bat baino gehiago dutenez, "goldearen zatiak", "gurdiaren zatiak"..., 1.300 galderatakoa bilakatzen da, GARDETTE (1957,254).

Dauzat-ek proposaturiko honi ez zaio, ordea, Frantzia-ko eskualdetako atlas denetan jarraitu. Gardette-k Lyon-erako eta Nauton-ek "Massif central" deiturako galdekizun bereziak eta elkarren artean ere ezberdinak prestatu zituzten. Ez da, beraz, hain gauza erreza, egitasmoa baterakoa eta bakarra izan arren, atlas ezberdinetarako galdekizun bakarra lortzea.

Honez gero igarriko zen galdekizunean lexikoak hartzen bide duela garrantzirik haundiena. Eta, izan ere, hala da. Linguistika historikoaren kezka lekutu ahala, Geografia linguistikoa eta Etnografia hurbilduz doaz elkarren artean.Egunetik egunera gehiago batzen dira tokian tokiko gauzen, lanbideen eta tekniken izenak. Gauzak arretarik haundienaz marrazten dira, atal guztiak ongi bereiziz, beste gauzekin eta beste teknikekin erkatu ahal izateko. Atlas linguistikoek etnolinguiskoak izateko bidea hartu dute:

"L'influence combinée des "Wörter und Sachen" et de la linguistique structurale a contribué à imposer l'exigence d'une présentation systematique et non plus alphabétique du vocabulaire", PICOCHE (1973,13), (31).

Bilketa lexiko-etnografikoaren ikuspegi honek garrantzi haundia du. Atlas etnografiko soilen eragozpenak, ekonomi alde-

koak batipat, orokorrak izan ohi dira. Hiri gehienek dituzte herriko ohituren eta arte-lanen museoak, eta herri-kulturako gauza materialak ere batu dituzte, baina lexikoaren batuketak erakusten dutenez egin diren saioek eragozpen haunditxoak bide ditu, ez bait dira oso egokiak atera etnologoek egin dituztenean. Inkestagile dialektologoek izan behar dute, horrela bientzat balioko duelako bildutako materialak. Egia da, bai, dialektologoa ez dela etnografo, baina akats hori era askotara txulia daiteke, marrazkiekin, argazkiekin, berezkotzat edo jasogarritzat har daitekeen ororen nota hartuz, eta, edonola ere, galdekizunean gauzak aldez aurretik prestatuz, ez daitezen bat-batekotasunaren eskutan utz. SEGUYri (1973,75<0 jarraituz, atlasa egiteko hiru erreferente mota dira beharrezko, informazioa jasotzeko erarekin hertsiki loturik daudenak eta esan dugunarekin zerikusi zuzena dutenak:

> *"1. **Le mot de la langue de départ** [...] comme dans les petits dictionnaires de poche. C'est le titre de la carte, et bien souvent, ce référent est suffisant (PAIN - VIN - TETE - NEZ [...])."*
>
> *"2. **le référent-définition.** C'est la "question indirecte", en général libellée en tête de l'exergue; ou bien, dans les cartes inverses, c'est-à-dire celles où les divers sens d'un mot vernaculaire sont précises et localisés, les définitions données par les informateurs à la question: "Que veut dire tel mot de votre patois?"[...]"*
>
> *"3. **le référent déictique,** montré sur la forme d'un croquis."*

Asko eztabaidatu da galdekizunaren erabilerak suposatzen duen mugapenaz; galdekizun batera lotuz gero, ez bait dira hitz orokorrak eta objetiboak baizik jasotzen eta ez, berriz, adierazkorrak; eta gainera hitz edo esaldi bakarra jasotzen da nozio bakoitzerako, izan daitezkeen beste batzu, bigarren mailakoak edo erabilera urriagokoak, baztertuz. Honek, ezpairik gabe, hizkuntzaren ikuspegi mugatuagoa ematen du eta ez du agertzen haren

benetako aberastasuna. Ikuspuntu honetatik izan da kritikatua, esaterako, Gilliéron-en atlasa, galdekizun soila erabili zuelako, alegia (32).

Hala eta guztiz ere, zenbait alderdi oker gora-behera, mundu guztia ohartzen da galdekizuna ezinbestekoa dela aztertu nahi den hizkuntzak lurralde zabala hartzen duenean.

Jarraian azaltzen ditugu atlasik nagusienek izan dituzten galdekizun motak eta beren sareen hedadura:

Galdekizunak

ALF	1.400 - 1.820 galdera
AIS: arrunta	2.000
laburra	800
luzea	4.000
ALI.....	7.000
ALR-I	2.160
ALR-II	4.800
ALPI (I+II).....	1.661

(ALPI-k hiru galdekizun zituen, gorago ikusi dugun bezala).

Galdekizunen sarea

ALF, ...	830	km-rako eta	64.000	biztanleetarako,	gune bat
AIS,.	634	"	98.000	"	"
ALI, ...	310	"	40.000	"	"
ALR I, ...	840*	"	50.000	"	"
ALR I, ...	634	"	38.000	"	"
ALPI,.....	1.100	"	68.000	"	"
"	773	"	47.000	"	"

(*) POP-ek (1957,723) beste zenbaki batzu ematen ditu. Datuak M. Alvar-enak dira, IORDAN (1967,452).

4.2.3. Lekukoak

Informatzaile edo lekukoen hautaketak garrantzirik behinena du, azken finean heurak izango direlako atlasetarako materiala emango dutenak.

Lekuko onak bete behar dituen baldintzetan lehena, inkestatzen den tokiko hizketa ongi ezagutzea da; hizkuntza jakitea ez da aski, barnetik ezagutu behar da eta, beraz, bertako umea behar du izan lekukoak, eta gurasoek ere bertakoak behar dute (33), eta ezkondua balitz, ezkontidea ere bertakoa izanez gero kutsaketen arriskua gutxitu egiten da.

Buru argikoa behar du izan, bestalde, lekukoak, eta bere ahalmenak ere osotasunean dituena galdeketa saioak aski luzeak izaten bait dira; horzdura hotsak ongi ahoskatzeko adina gordetzen duena eta herritik kanpo gehiegi ibili ez dena.

Lekukoen adinari dagokionez, beti eutsi izan da adinik onena pertsona adintsuena zela, horiek, ezen ez gazteek, gorde ohi dutelako hizkuntza "garbien". 60 bat urtetakoa jotzen zen hoberentzat, edo 60-tik gorakoa ere. Zenbaiten ustez adin ona omen da 40-60 urteren tartekoa ere, adin honetan aski ongi gordetzen direlako ahalmenak oro.

Gaur egun hizkuntza gordetzearen arrazoia ez da hain onartua. A. M. BADIA-k, esaterako (1976,277), informatzaile zaharrenak gaitzetsi egiten ditu, batez ere ez dutelako inkesta egiten den garaiko hizkuntz egoera agertzen:

> *"...nuestros trabajos de dialectología seguían ignorándolo, en parte por la influencia psicológica de lo que yo llamo aquí el "estado dialectal recibido" (con unas fronteras ya establecidas por Alcover, y por cierto, muy bien establecidas), y en parte porque, en la duda, los dialectólogos siempre han tenido el prurito de cerciorarse con los informantes de edad más avanzada, cosa que hacía imposible verificar casos de igualación."*

Eta Veny, ALC egitean lankide garrantzitsu izan zuenaren jokabidea azalduz, honela dio BADIA-k (1976,279):

> *"... en un momento en que yo todavía me sentía muy atado a la tradición dialectológica, por nuestro grupo universitario barcelonés: Juan Veny (que se mostraba totalmente desprovisto de dogmatismos, utilizaba sujetos de todas las edades- superando el mito del "informante ideal", obligadamente anciano-, y reconocía científicamente muchos casos de nivelación)."*

Lekuko onaren beste ezaugarrietako bat, hizkuntzaren egoera "garbia" zintzotasun gehiagoz isladatu ahal izateko, lekukoa letrarik gabea izatea izan da, alfabetatu gabea, alegia, edo, gutxienez, eskola eta irakurketaren eragin haundirik jasan ez duena. Haatik, funtsean horrela den arren, hau ere gauza erlatiboa da. Ohizko atlasetan hizkuntzaren egoera geografikoa azaldu nahi denez ez da mesedegarri gertatzen lekukoa kulturadunegia izatea. Baina hizkuntzaren gizarte-egoera ere aztertu nahi balitz, orduan kulturaren aldakiak eragin haundia du.

Lekukoen kopuruaz, zenbait ikertzailek toki bakoitzeko lekuko bat aski dela uste du, hala nola ALVAR-ek (1973,152), eta Frantzia-ko eskualdeko atlasetan ere, NALF-en, lekuko bat erabili dute, salbuespenekin bada ere, SEGUY (1973,72):

> *"Le plus souvent, pour chaque localité, les atlas font état de plusieurs informateurs. En réalité, on n'en interroge qu'un informateur dit secondaire intervienne pour redresser ou compléter le témoin principal: ces données d'appoint sont enregistrées et portées sur la carte. Mais ceci ne se produit que par intermittence. La règle, c'est l'informateur unique."*

Egia esan, Seguy-k bere buruari galdetzen dio informatzaile bakarraren balioaz eta bermetasunaz gizatalde baten ordezkotza hartzeko. Alabaina, komunikazioak, dio, gizatalderik txikienean ere ez du askatasun haundiegirik edo bakarkako jokabide eta asmaki-

zunetarako aukerarik eskeintzen, gertakizun fonologiko bakarren baten izan ezik. Baita polimorfismo nabarmena aurkitzen bada ere, polimorfismo hori talde osoan hedatua aurkituko da eta, beraz, talde osoaren jokabidea agertuko du (33).

Ez da erizpide horretakoa LOPE BLANCH (1985,399). Honek dioenez, Mexiko-ko atlasa egitean bi metodoak erabili zituzten, ohizko galdekizunarena eta hizketa askearen magnetofoizko grabaketa ugariena. Azaltzen dituen arrazoiak hauek dira:

> *"Con esta pluralidad de sujetos -elegidos atendiendo a consideraciones de carácter sociolingüístico: edad, sexo y nivel sociocultural- pretendía cumplir tres objetivos fundamentales: obtener muestras abundantes de polimorfismo lingüístico de las hablas mexicanas; superar la desconfianza o inseguridad que me producen, en algunas ocasiones, las respuestas obtenidas de un uniformador único; y detectar fenómenos que pudiesen aportar a factores sociolingüísticos como determinantes de ellos."*

Dena dela, Mexiko-ko atlasean egoera soziolinguistikoko ondorioak ere atera bide zituzten, eta ikuspegi soziologikoa ez da eskuarki sartzen atlas arruntean, lehen esan dugun bezala.

Hirigune haundiek onartzen dute eta beharrezko ere gertatzen zaie inkesta bikoitza. ALVAR-ek (1973, 153-154) Andaluziako atlasa egin zuenean lau lekuko ere galdegin zituen: bi unibertsitari, gizakumea eta emakumea, eta beste bi auzune desberdinetakoak, hauek ere gizonezkoa eta andrazkoa. Baina kasu honetan ere esan beharra dago soziologia linguistikoko datuak ere jaso nahi izan zirela.

Ohar bezala besterik ezean, bada beste alderdi bat ere kontutan hartu beharrezkoa, lexikoaren bilketarena. Badira hainbat eremu lexiko oso berarituak eta lanbidez edo jakitez pertsona prestatuak eskatzen dituztenak erantzunak jasotzeko. Honelakotan lekuko osagarriak hartzen dira galdera konkretuenei erantzuteko.

Sexoari dagokionez, berriro ere lanaren helburuak izan beharko dira begietan. Emakumeek hobeki ezagutzen dituztela eremu lexiko mota batzu: sinesteak, gaisotasunak, etxeko lanak. Ez da hain gauza garbia, ordea; betiere hautatutako informatzailearen kalitatearen arauera izanen da. Emakumeak, bestalde, kontserbatzaileagoak agertzen dira batzutan (35), inoiz gizonak baino berritzaileagoak badira ere. Fonetika artikulatorioaren aldetik, giza-ahotsaren tinbrea onesgarriagoa izan ohi da.

Beste batzutan gertatzen da inkestak berak eskatzen duela lekuko bat baino gehiago. Lexiko bereziak jaso nahi direnean galdekizun bakarra aski ez dela eta zerrenda osagarriak behar izaten direla esan dugun bezala, informatzaile osagarriak ere beharko dira informatzaile oinarrizkoak edo bakarrak eman ezin duena emateko. Hala nola baserri edo itxas giroko zenbait alderdi jaso nahi izanez gero: mahas-bilketa, errotaritza, ehungintza, eskulanak, arrantza eta abar.

Edozein modutan ere eta esanak esan, egia da informatzaile bakarraren eragozpena harekin egindako lanaren ordezkotza mugatuarena dela. Bizpahiru informatzailek aukera gehiago eskeintzen du nahiz erkatzeko nahiz egiaztatzeko. Horrek ere badu eragozpenik, ordea: noiz eta zein aldetara erabaki, zalantza hitzari edo hotsaren traskribaketari badagokio? Eta ezberdintasunak ematen direla, danok dakigu, noski, baita sendi bereko kideekin arituz ere, Rousselot-ek XIX. menderako frogatu zuen bezala.

4.2.4. Inkestagileak

Lekukoei buruz hartu diren aztergai edo eztabaidagaiek inkestagileentzat ere balio dute. Zenbat inkestagile, bat edo zenbait? Gilliéron inkestagile bakarraren aldekoa zen arren, gaur egun baztertuxea gelditu da erizpide hori. Haatik, galdera egin egiten da oraindik, eta ez erretorika arrazoi hutsez.

Atlasetan denera jokatu izan da: inkestagile bakarra ALF-en

-Edmont- eta 21-eraino inkestagile ALPO-n ("Ekialdeko Pirinieotako Atlas Linguistikoa", H. Gaiter-ek zuzendua), eta horien artean, 3-ko AIS, edo 2-ko zenbait talde atlas katalan berrian, eta 16 ALG-en.

Arazo honen gakoa, nolanahi ere, denborarena da. Inkestatokiak asko badira, bistakoa da lana ere asko luzatuko litzatekeela inkestagile bakarrarekin. Baina badu, bestalde, abantail haundia inkestagile bakarrak, eta hori bildutako materialen bateratasuna da, noski. Inkestagile gehiegiak ere, hainbeste pertsona ezberdinen lana izaki, ondorioak lar zatikatzen ditu. Bilketari berari dagokionez, datuak aberatsagoak gerta daitezke eta tokikoagoak ere, eta denboran ere asko aintzinduko litzateke, baina, esan bezala, datuek elkarren arteko loturan eta bateratasunean galduko lukete, ez bait da posible, aurretik har dezaketen prestakuntza gora-behera, hainbesteren erizpideak eta jokabideak behar adina bateratzea.

Eremua oso zabala denean, bestalde, eta, beraz, inkestatokiak ugariak, inkestagile asko sartuz gero, lurralde hori eskualdetan banatzen dugu, eta gerta daitekeena zera da: zenbat inkestagile, hainbat eskualdeko atlas. Alderaketa honek gehiegizkoa irudi lezake, baina JABERG horrelako zerbaitez ari zen honako hau zioenean (36):

> *"On imagine difficilement une treintaine de dialectologues se mettant d'accord comme voudrait M. Merlo, pour faire un atlas linguistique d'Italie. Un atlas national composé d'atlas régionaux perdrait en cohérence ce qu'il gagnerait en authenticité et en précision dans le detail."*

Beste puntu eztabaidatu bat inkestagilearen nongotasunarena izan da, tokikoa edo kanpokoa behar duen izan, hain zuzen ere. Bertakoa izateak abantailak ditu, baina baditu, bestalde, baita eragozpen haundiak ere. Eta haundiena zera litzateke, bere herriko hizketaren alderdi interesgarriak ohartu gabe ihes egin diezaio-

ketela, beretzat, agian, oso etxekoak eta egunerokoak izanik, ez dielako garrantzi berezirik ikusten. Toki bakoitzerako bertako inkestagilearekin, bestalde, zatiketa oraindikan haundiagoa bihurtuko litzateke. Ez herri bat, baita haran bat ere izango balitz inkestagile bakoitzarentzat, jasoko liratekeen datuen ugaritasuna haundiegia gertatuko litzateke.

Denek onartzen dutena zera da, ikertzaileak hizkuntzalaria behar duela izan. Gilliéron-ek hizkuntzatik kanpoko inkestagilea nahi zuen, baina hori gaur arras gaitzesten da. Eta inola ere ez da onartzen, noski, galdekizuna zenbait inkestagileren artean banatzea, jokabide honekin artez-artez joango litzatekeelako bateratasunaren eta loturaren aurka.

Alvar-ek esaterako, inkestagile bakarrari eusten dio, baina onartzen ditu, arrazoi materialak direla tartean, zenbait inkestagile erabiltzea ere zatiketa larregitik zainduz gero, baina sekula ere ez galdekizuna zenbaiten artean zatitzea edo banatzea, ALVAR (1973,149):

> *"Creo anticientífico y con resultado de valor muy dudoso el interrogar a sujetos distintos distintas partes del cuestionario. Entonces los yerros se multiplican demasiado: dualidad de sujetos, dualidad de transcripciones, preguntas diferentes..."*

Beste galdera bat atlasaren zuzendariari dagokio: inkestak jasotzen lagundu behar ahal du zuzendariak?

Batera edo bestera erantzun daiteke, erizpideen arauera. Alvar-ek zenbait arrazoi ematen ditu alde (Apud IORDAN 464,65): tokia ezagutzeak mapak egiten laguntzen duela, lankideei exenplu ona eskeintzea lanik okerren eta zatarrenean, eta abar, baina ez dute hainbesteko indarrik ere.

Baina zuzendariak benetako arduraduna eta erantzulea behar du izan, eta lanak horrela eskatuko balu baita parte hartu ere lana ongi burutu ahal izateko; eta baita tokian bertan ibili ere

biltzen doazen datuen lotura eta bateratasuna egiaztatzeko, traskribaketa begiratzeko, eta, hitz gutxitan esanda, lan-taldearen ugaritasuna ikuspegi bakarrez bateratzeko; azken finean, aterako den atlasa egoera linguistikoaren islada zuzena izan dadin.

Traskribaketa fonetikoaz hurrengo gaian arituko gara, eta mapen motaz ere bai, guk erabiliko ditugun mapa analitikoaz eta sintetikoaz, hain zuzen.

4.2.5. Atlas Linguistikoen Automatizazioa

Grabaketez eta fonetika artikulatorioaz eta akustikoaz aparte, informatika ere sartzen ari da dialektologia lanetan:

> *"Avec un corpus mis en mémoire informatique et un ordinateur couplé à des imprimantes automatiques, il devient possible d'envisager l'exploitation de la banque des données sous des angles variés et de produire divers documents de travail. Les index et les listes produits par la technologie informatique son toujours complets et fiables; la reproduction des données et de leurs paramètres (localisation, prononciation, etc.) reste conforme à la banque originale. En fin, l'avantage le plus important de l'informatisation est de permettre la montage et l'impression automatiques d'une édition -prototype que l'éditeur publie telle quelle." (37)*

Ez dago duda apurrik ere atlas linguistikoak egiteko beharrezko direla, egun, ordenagailuak, hauek eskeintzen dituzten aurrerakuntzak neurri gabekoak bait dira. Hona hemen zer dioen ALVAR-ek (1984,58):

"En definitiva, se confía obtener las sabidas ventajas que la automatización tiene sobre los procedimientos manuales: reducción de tiempo y gastos, almacenamiento electrónico de datos y

posibilidad de su futura utilización, amén de limitar mucho las posibilidades de error."

Urteak dira ordenagailuen bitartez atlasak egiten hasiak direla. Egia esan, egiten baino gehiago, probatzen eta saiatzen. Edozein modutan, aipatu dugun Kanada-ko Ekialdeko Atlas Linguistikoa (ALEC) informatizaturik egin da eta bide hau daramate "Atlas Linguarum Europae" (ALE) egiten ari direnak, batez ere, kartografiaketa mailan pentsatuz (38).

Lehenengo saioak Geografia linguistikoarekin egin ziren. U. WEINREICH-ek (1962) yidish hizkuntzari buruz egin zuen azterketa soziologiko bati aplikatu zion informatika, aski emaitza onak lortuz (39). Estatu Batuetan ere aspalditik ari dira horrelako lanak egiten, HOUCK (1967),(40). Eta urte beretsuetan beste toki batzutan antzerako saioak egiten hasi ziren, Alemania-n eta Japon-en batez ere (41). Baina kasu guztietan saio lanak edo lan pilotoak izan ziren. Edozein modutan, teknika honek ematen dituen aurrerapideak izugarriak dira eta, era berean ez bada ere, nabari da ordutik gaur egunera pasatu diren urteen diferentzia.

Gure artean, hau da, inguruko hizkuntza erromanikoz egiten ari diren atlasetan eta hemen gehien ikusi ditugunen artean, (ALG), (ALC), (ALEA), (ALEICAN) eta besteak ez dira teknika honetaz baliatu. Bai, ordea, Alvar, sartu bait du informatika Santander-ko atlasean, (ALES)-ean, alegia. Guk ez dugu oraindik atlas honen alerik ikusi; lerro hauek idazten ari garenean ez dugu argitaratu denaren berririk izan, eta, beraz, ezin dugu erizpiderik eman. Dena dela, ALVAR-ek berak (1984,58-59) seinalatzen ditu eman behar diren pausuak eta, bidebatez,heurek jarraitu duten metodologia ere argitzen du:

Premisa hauetan oinarrituz, asko ugaritu dira, hizketa erromanikoetan batez ere, deskribapen fonetikoak eta ondorengo sistematizatze fonologikoak; eta bokalismoan izan ohi diren nahaspiletan, hala nola metafonia, armonizazio eta abarreko kasutan, oso ongi etorri da, arau ezagun batzuei jarraituz, kasuan kasuko sistema bokalikoa finkatzeko, eta honela nahaste-borrastea baizik ez zen alorrean ordena ipini ahal izateko.

5.1.1.1. Atlas linguistikoetan arlo fonetikoaren metodologia

Traskribaketari dagokionez, zein erabili behar da atlasetan, traskribaketa fonetikoa ala fonologikoa? Gilliéron-ek eta Edmontek, kasu baterako, ez zuten horrelako arazorik izan, ez bait zen fonologia ezagutu ere egiten. Artean aski urte igaro behar ziren Trubetzkoy-k fonologiaren oinarriak ezarri arte. Baina geroztik, oinarri estrukturalistak sartuz joan ahala, arazo nahiko bizia eta eztabaidagarria izan da hori. Dudarik ez duena zera da, sistema

fonologikoa finkatzera iritsi behar litzatekeela, baina horretarako ezinbestekoa da aldez aurretik hizketa mailako gertakizun fonetikoak jasotzea. Nolabait esateko, beraz, fonetikan ongi prestatua izatea da oinarririk hoberena. Begira zer dioen PICOCHE-k (1973,26):

> *"... les ètudes de phonétique ont commencé par des observations et des rapprochements de nature historique auxquels sont venus s'ajouter des expériences de laboratoire permettant de décrire précisément le mode d'articulation des differents sons du langage et de chercher dans cette description des lumiéres sur le "comment" de l'evolution historique des sons."*

Oraindik zehatzagoa eta zorrotzagoa da FOURQUET (1957,266):

> *"La meilleure prèparation de l'enquêteur se fera cependant dans un laboratoire de phonétique où l'on a la possibilité d'examiner les articulations sur le vif et de les confronter avec le sons auxquels elles donnent naissance; des exercises d'audition et de transcription sur le terrain, acompagnés d'explications sur les rapports entre les mouvements articulatoires et les sons, ainsi que sur ceux qui apparaissent entre les différents sons du parler examiné, doivent compléter ce travail de préparation qui est, à notre avis, la condition sine qua non de toute enquête dialectologique."*

Inkestatzailearen prestaera hau oso garrantzitsua da, ongi zaindu beharko duelako berak erantzunen kalitatea eta fidagarritasuna, eta ahoskera eta artikulazio tokia edo puntua ere miatu beharko ditu, hainbat kasutan ez bait da beste biderik izaten, behaketa zuzenarena baizik, hots bat edo bestea den finkatu ahal izateko.

Honela lortuko da, bestalde, atlasek eskeintzen dituzten

datoak fidagarriak izan daitezen eta edozein erkaketarako baliagarriak (1).

Inkestagileak erabaki behar du ere, eta erizpide orekatuz, noiz edo zein kasutan zehaztasunen bat edo alderdi konkreturen bat behar den egiaztatu, edo, aitzitik, noiz utz daitekeen besteren bat xehegia gertatzen delako edo.

Atlasaren izaera nolakoa nahi den, halakoa izan beharko du traskribaketak. Atlas erromanikoak gehienbat fonetikoak izan dira; Kanada-koa, S.E.S.B.-ekoak, Bulgaria-koa eta abar, berriz, fonologikoak. Alderdi biak ere, ordea, elkar daitezke. Alvar-ek ALEA-ko galdekizuna ikuspegi biak zainduz prestatu zuen: gertakizun fonetikoen parean fonologia ikuspegiko zati bat ere jasotzen du. Gu ere jokabide honekin ados gaude. Alderdi fonikoari dagokiona nahiko zehatz jaso behar da, baina, sistemara iritsi nahi bada, oposaketak, banaketak eta fonologiari dagozkion beste zenbait puntu ere batu behar dira.

Azalpen horrekin erantzuten ari gara, bidenabar, hasieran egin dugun hirugarren galderari: zein alderdi jaso behar dira galdekizun fonetikoan? Gure ustez eta ahalik zehatzen jaso behar direnak honako hauek dira: errealizio fonetikoak, aldakiak, neutralizazioak, banaketak, maiztasunak, elkarketak eta, orohar, aztertzen den hizketa hobeki ezagutzeko balio dezakeen oro.

Galdekizunean hitz solteak jasotzen dira, edo hitzak sintagma edo esaldi barnean, jaso nahi denaren arauera; baina deskribapena behar bezalakoa nahi bada, kate mintzatua ere aztertu behar da, eta horretarako, galdekizunaz gain, zenbait testu eta esakune labur ere beharrezko dira, grabaketa askeen nahiz arteztuen bidez jasoak, betiere informatzaileen hizketa arrunta bat dezatenak. Honela izan ezik, ezin daiteke finkatu fonemen portaera.

Gure ustez, beraz, esan dezakegu beharrezko direla elkarrizketa eta galdekizuna, eta azken honek ez duela fonetiko soila izan behar, fonetiko-fonologikoa baizik.

Oraindik erantzuteko dugun galdera bigarrena da. Galdekizun fonetiko-fonologikoaren luzeerak zenbatekoa izan behar du? Guk aztertu ditugun atlasek kopuru hauek ematen dituzte: ALEA-k 21 galdera ditu bokalentzat eta diptongoentzat, kontsonanteek 152 dituztelarik, fonetika sintaktikoari dagozkionak barne direla; berdintsu Alvar-en beste bi atlasek ere: ALEANR-ek 190 galdera eta ALEICAN-ek 199. Ehunekoak hauek dira: ALEA-k % 9'29, ALEANR-ek % 11'11 eta ALEICAN-ek % 16'5.

ALPI-n ehuneko jasoagoa hartzen du galdekizun fonetikoak: galdekizun luzean % 33'93, eta laburrean 22'58. Galderen kopurua fonetika historikoari begiratzen dioten 281 galderetakoa da, eta "abuelo", "abeja", "abrevadero" eta antzerako hitzak jasotzen ditu.

ALDC-ek 34 galdera baizik ez dio ematen fonetikari, denak fonetika sintaktikokoak, ehuneko 1'62 baino hartzen ez duelarik. ALG-ek ehuneko 6'15 honela banatutako 155 galderekin: 83 fonetika diakronikoari eta 72 fonologiari.

5.1.2. Gure proposamena EHHA-erako

Orain arte esan dugunaren ondorio bezala, galdekizun plangintza bat eskeintzera ausartuko ginateke. Kopuru hauek izango lituzke gutxi gora behera: 300 bat galdera maila fonikoan, 100 bat morfologikoan, 50 bat sintaktikoan eta 2.550 bat lexikoan.

Proposamen hau egiteko inguruetako atlasen eredua izan dugu begien aurrean, geure hizkuntzaren eta hizkuntzaren egoeraren beharrizanak ere kontutan hartuz.

Garrantzirik haundiena maila lexikoari ematen diogu, betiere beste atlasen tradizioari lotuz.

Morfologiarena laburragoa da, eta murritzegia badirudi ere, kontutan hartu behar da aditza kanpoan utz daitekeela zatirik haundienean. Aditzaren paradigma osoak beste sistema edo

metodo bat eskatzen du, Alliéres-ek egin zuen bezala. Ez dugu, bada, aditzaren paradigma morfologiari dagokion galdekizunean sartzen (2).

Maila lexikoak badu, bestalde, abantail haundi bat: material horrek hizkuntzaren beste mailak aztertzeko ere bailo duela (3). Bokalak eta kontsonanteak aztertzeko maila fonikoan, esaterako; edo modismoak, partizioak, mugatu/mugagabea, morfologian.

3.000 galderetako galdekizuna neurri egokikoa dela iduritzen zait. Ez da laburregia, beste atlasekin konparatuz, eta ez luzeegia ere. Gehiago luzatzeak, berriz, ezin amaituz ibiltzeko arriskua du. Hor dago, adibide gisa, ALI-ri (Italia) gertatu zaiona, bere 7.500 galderekin.

Guretzat hau lehenbiziko atlasa izango da. Lan berria denez, hobe izango zaigu aurrena erroak ongi botatzea, eta gero etorriko da oinarria sendotzea monografia dialektalen bidez esaterako.

Bada beste arrazoirik ere. Fonetika-fonologiari dagokion alderdia arreta bereziz batu behar da. Goraxeago genionez, zenbat tokitan euskara galtzear dago, esaterako Nafarroa-n, eta galketa ez denean ere, euskeraren normalkuntzaren bilakabidea hedatuz eta finkatuz doa maila guztietan eta urte gutxiren buruan maila fonikoa izango da ukituena. Morfologia eta sintaxia, bestalde, idazkietan, literaturan, gutunetan eta abarretan gelditu ohi da, baina fonetikarekin ez da horrelakorik gertatzen, eta ez balira grabaketak egingo berreskuratzeko aukerarik gabe galduko litzateke.

Frogatu ahal izan dugu ere, inguruetako hizkuntza erromanikoen eragina euskararengan. Iparraldean, adibidez, adinaren aldakia guztiz erabakiorra da aspiraketaren ahoskera gorde ala galtzeko, edo dardarkarien ahoskera ezberdinetarako. Orobat gertatzen da Bizkaieran sabaiko *j-ren ahoskerarekin, gazteek [x] belareko frikari ahoskabea ahoskatzen dutela, lehen, edo orain ere adinekoek, hurbilkari sabaiko ahostun bezala ahoskatzen zen tokietan.

Horregatik eusten diogu galdekizun zehatza prestatzeak duen garrantziari, euskal hizketen maila fonikoa ongi eta sistematikoki deskribatzeko jaso behar diren forma fonetiko-fonologiko interesgarriak hartuz, hain zuzen.

EUSKAL ATLASERAKO PROPOSAMENA. 3.000 galderatako GALDEKIZUNA

Mailaz-mailako kopurua	FONETIKA	MORFOLOGIA	SINTAXIA	LEXIKOA
	300	100	50	2.550
Ehunekoak %	10	3'33	1'66	85

EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASARI EMAN ZAIZKION GALDEREN EHUNEKOAK

3.865 galderetako GALDEKIZUNA

Mailaz-mailako kopurua	FONETIKA	MORFOLOGIA	SINTAXIA	LEXIKOA
	51	Morfosintaxia: 862 Aditz-morfolo. 294 1.156	41	2.617
Ehunekoak %	1'31	29'90	1'06	67'71

Gure proposamena 1982-an prestaturikoa da. Urte hauetan Euskaltzaindia lanean aritu da atlasa egiten, eta, aurreko gaian esaten genuen bezala, galdekizuna prestatua du, maila guztiak jasoz, jakina. J. M. ETXEBARRIA-k (1986,375-412) egin ziren bileren eta izan zituzten emaitzen berri zehatza ematen du, eta

hauetako bat galdekizuna bera izan da, maila bakoitzari eskeinitako galdera kopuruekin. Kopuru guztiek batera 3.865-eko galderetako galdekizuna osatzen dute.

Maila lexikoari dagokionez, Euskaltzaindiak prestatutako galdekizuna eta gurea erkatzen baditugu, bien arteko ehunekotan desberdintasun bat aurkitzen dugu, Euskaltzaindiarenean % 67'71 hartzen duelarik eta gurean % 85. Haatik, galderen kopuru soilari dagokionez, bietan kopuruak oso antzerakoak dira, Euskaltzaindiarenak 2.617 galdera eskeintzen dizkiolako lexikoari eta gureak 2.550. Ehunekotan ematen den aldea beste galdekizunek sortzen dute, Euskaltzaindiarenak gureak baino 865 galdera gehiago dituelako.

Maila sintaktikoan ez dago alde haundirik ez kopuruan eta ez ehunekotan: Euskaltzaindiarenean ehuneko 1'06, 41 galderakin, eta gurean ehuneko 1'66, 50-ekin.

Desberdintasun nabarmenenak morfologiari eta fonetikari dagozkienetan agertzen dira. Euskaltzaindiaren galdekizunak 1.156 galdera ditu morfologiarako, bi zatitan banatuak: 862 morfosintaxirako eta 294 aditzerako, denera galdekizunaren ehuneko 30-a hartzen dutelarik. Guk kopuru hori asko laburtu dugu, 100 galdera baizik ez bait ditugu sartu morfologiarako. Ehun galderak izenaren morfologiari dagozkio; aditzarena jaso beharrik ez dagoela uste dugu, P. de Yrizar-ek Euskal Herri osoan aditzaren formak jasotzen egin duen lan haundiak zati hori betzeko balioko lukeelako gure aburuz. Morfosintaxiak 862 galdera hartzea, bestalde, asko iduritzen zaigu, nolabait atlas batek behar duen oreka hausteko arriskutan jartzen duelako. Lan horren garrantzi haundia ez dugu ukatu nahi, baina lan monografikoen bitartez egiteko egokiagoa dela iduritzen zaigu. Ehun bat galderen bitartez, atlaserako premiazkoena eta garrantzitsuena jaso daitekeela uste dugu, batez ere, hainbat kasu, bai lexiko mailan, bai fonetika mailan, jasorik gelditzen direla kontutan harturik.

Edonola ere, maila fonetikoak arduratzen gaitu gehien.

Euskaltzaindiaren galdekizunak 51 galdera ditu, % 1'31 denetik. Guk uste dugu euskararen gaurko egoerak maila fonetiko-fonologikoari garrantzi haundiago ematea eskatzen duela. Hasierako gure asmoak bahetik ongi pasa ondoren, 300 galderatan utzi dugu maila honi dagokion zatia, galdekizunaren % 10-a, beraz.

Kopuru hau beharrezkoa dela uste dugu. Lehen egin ditugu zenbait burutapen fonetikari hein bateko tratamendua eskeini behar zaiola azalduz: esaterako, zenbait tokitan euskarak duen galtzeko arriskua; inguruko hizkuntzen interferentziak; sistema fonetikoaren tinkotasunik eza; arrazoi soziolinguistikoak; euskal komunikabideen eragina; sartuz doan norma estandarraren eragina; eskolarena eta abar.

Maila fonetikoari eskeinitako galderen kopurua gutxitzeko, eskuarki arrazoitu ohi da esanez maila horretarako interesgarri daitezkeen hitzak morfologia eta lexikoa jasotzean ere jaso ohi direla. Hau, izan, egia da, baina ez du kontutan hartzen, eta are gutxiago kontrako argudio bezala erabiltzen, galdekizun fonetikoa jasotzeko prestaera haundia eta arreta berezia behar direla eta, batez ere, lexikoa batzerakoan, esaterako, ahoskerari ez zaiola kasurik egiten, inkestagilearen arreta ez dagoelako horretara jarria.

Beti eztabaidatu izan da, Gilliéron berarengatik hasita atlasetan fonetikari eskeini behar zaion garrantziaz. Beharbada, ez fonetika berari, fonetika esperimentalari baizik. Rousselot Abadea, fonetika-esperimentalaren sortzailea, kritikatua izan da zehatzegia zelako materialak jasotzean, xehetasunak larregi begiratzen zituelako, dena bere tresnekin egiaztatu beharra izan ohi zuelako, honela inkestak gehiegi atzeratuz. Izan ere, hori egia da, tresneria aldean hartuz ibiltzen bait zen artikulazioko xehetasun txikiena ere errejistratuz, eta honek asko eragozten zuen inkestak jasotze lana.

Gaur egun ez da horrelako arazorik. Inpresiozko metodoa gomendatzen da atlasa egiteko, hau da, tresnarik gabekoa da

erabiltzen dena. Rousselot-ena, berriz, lan monografikotarako da ona, eta fonetikarako bakarrik, ez atlas osoa egiteko. FOURQUET-ek (1957,264) ongi dioen bezala:

> *"Elles sont bonnes toutes les deux, chacune dans des circonstances appropriées: la première s'impose dans les enquêtes faites sur une grande échelle et destinées a fournir des matériaux pour les cartes d'un atlas linguistique; la seconde, dans des enquêtes geographiquement limitées en vue d'une monographie soit sur l'ensemble du langage ou sur l'aspect phonétique d'une localité déterminée (voire d'un petit groupe de localités), soit sur des problémes précis de phonétique dans une aire plus ou moins vaste ou restreinte."*

Guri ere esperientziak gauza bera erakutsi digu, alegia ez dela posible lan enpirikoaz, tresneriarekin egindakoaz, baliatzerik atlaserako datoak jasotzeko. Atlasak hainbeste datu suposatzen dituenez, jokabide horrekin ez legoke atlasik egiterik erdi epean. Horregatik, beraz, askoz zorrotzago begiratu behar da nola prestatzen den galdekizun fonetiko-fonologikoa, fenomeno interesgarri guztiak sartuz; eta asko zaindu behar da ere nola egiten diren inkestak, artikulazioko gertaera asko **in situ** jaso behar dira-eta, grabaketa, ona denean ere, ez delako izaten aski zalantzak garbitzeko.

Eragotzi dakioke honi atlasak uzten dituen hutsuneak betetzeko lan monografikoak daudela. Baina ikuspuntu honetan bada akats bat. Atlasa bera izan behar da argitu behar duena zein fenomenok eskatzen duen eta zein tokitan egin behar den lan monografikoa. Atlasaren egitekoa da hori garbi azaltzea, eta galdekizun eta lan egokirik gabe ez du hori betetzerik.

Badakigu, gainera, erlojuaren aurka egin behar den lana dela hau, euskararen egoerak ez bait du zenbait tokitan luzapenetan ibiltzeko aukerarik eskeintzen, eta mingarriegi gerta liezaiguke

lana atzeratzen ibiltzea. Hau esatean ausartegiak garela irudi lezake, baina 6-7 urte hauetan egin ditugun ibilerek ongi frogatu digute esaten duguna egia dela zoritxarrez.

Berriro ere, beraz, 300 bat galderatako galdekizun fonetiko-fonologikoa gomendatzen dugu; Mitxelena-k Madrid-eko "Consejo Superior de Investigaciones Científicas" delakoan izandako bileren ondorioz, 1950-kadako azken urteetan prestaturiko galdekizunak zuen kopurua, hain zuzen ere.

5.2. EUSKARARAKO GERTATU DUGUN GALDEKIZUNAREN AURKEZPENA

Orain arteko azalpen teorikoen ondoren dator benetako lan geolinguistikoa eta doktoradutzako lan honen ardatz nagusia. Hiru alderdi ditu lan honek: A: Lehena eta oinarrizkoa, galdekizun fonetiko-fonologikoa prestatu, eta hori izango da Euskal Herri osoan batzeko egingo dugun proposamena. B: Inkestak egin eta traskribatu, eta hori eremu geografiko mugatuan egingo dugu, erakusgarri bezala. C: Azkenik, kartografiaketa egingo dugu, hau da, batutako datoak mapetara pasatu; honela gure helburuetariko bat erdietsia izango dugu.

Hurrengo helburua, ahal den neurrian, ondorioak ateratzea izango da. Bi motatako ondorioak izan ditzake lan honek: ondorio geografiko-linguistikoak, aztertu diren tokietako datu fonetikoen arauera; eta ondorio fonetiko-fonologikoak, jasotako datuak proposatu dugun sistemakoekin erkatuz, eta, ahal deino, aztertu den eremu geografikoko sistema fonologikoa eratuz.

Proposatu dugun alfabeto fonetikoa dela-eta, ohar batzu egin daitezke. Galdekizuna ez dugu hainbeste hitzetara mugatu, hau da, ez da 300 edo 400 hitzetako aurre-galdekizuna. Aurre-galdekizun hau prestatzerakoan kuestiotara lotu gara, hots, fonemen errealizazio, aldaketa, distribuzio eta abarretara. Kuestio bakoitza fonema edo fenomeno konkreto bati dagokio.

Kuestio bakoitzerako zenbait adibide ipini dira. Adibide horietatik batzuk kendu egin beharko dira, baina hori euskalkiz euskalki egingo den aurre-inkestak erakutsiko du: zer sobratzen den edo, agian, zer falta den.

Galdekizuna kuestiotara lotzeak, berriz, arrazoi gehiago ditu alde kontra baino: kasu bakarraren kasuistikan erortzeko arriskua txuliatzen da, jasoko den informazioa aberatsagoa bihurtuz.

Fonetika sinkronikora lotu gara. Baina honek ez du esan nahi fonetika historikoa baztertua gelditu denik: aitzitik, fonetika historikoari dagozkion fenomeno garrantzitsuenak jaso dira.

Maila fonikoa ez da hartu behar, beraz, atlas linguistikotan hartu izan den erara, fonetika historikoko lana bezala. Gure eritziz, fonetika deskribatzailean oinarrituz jaso daitezke **gertaera bereiztaileak,** eta hauek dira interesatzen zaizkigunak hizkuntza baten azterketa dialektalerako. Horrek ez du esan nahi geure baitan ez gaudenik konbentziturik, hipotesi gisa noski, Euskal Herrian datu fonetiko sinkronikoen bilketa sistematikoak ez duenik eskeiniko informazio garrantzitsua gertakizun diakronikoak argitzeko; alabaina, eta berriro diogu, ez da hori lan honen helburua, edo, helbururik nagusienetakoa.

Egin den adibide eta fenomenoen hautaketa ez dakit ongi egina egongo den, baina hautaketa beharrezko zen, ez bait da kasu guztiak jasotzeko biderik. Dena den, benetan saiatu gara gaurko egoeran gertatzen diren aldaketak azaltzen eta jasotzen, eta beti oso kontutan hartu izan dugu geografia, errrealizazio guztiak jaso ahal izateko. Zenbait hotsen fonematasuna dudazkoa denean ere bikoteak ezartzen dira.

Hiru multzo nagusitan eratu da aurre-galdekizun hau: bokalismoa, kontsonantismoa eta ezaugarri suprasegmentalak, azentua batez ere.

Errealizazio guztiak, bada, jaso nahi izan dira, nahiz bokalikoak nahiz kontsonantikoak, testuinguru ezberdinetan eta, beraz, ez dago ohar berezien beharrik. Baina kontsonantismorako erizpide bat hartu behar zenez gero, artikulaketa motarenari jarraitudiogu: leherkariak, afrikariak, igurzkariak, sudurkariak, albokariak, dardarkariak, alegia, eta, azkenik, talde kontsonantikoak -azken hauetatik banaka batzu, galdekizun barnean asko ageri bait dira-.

Fonema bakoitzaren sailak edo apartatuak egiterakoan erizpide zabalak erabili dira. Esan nahi dena zera da, fenomeno baten azpian edo barruan kasu gehiago daudela, jakina, eta hori, gero, analisia egiteko orduan aztertu eta ikusiko da.

Konprenitzen dugu kasu batzutan beste eraketa moduren bat hobe litzatekeela, edo praktikoago behinik behin, esaterako, fonema busti denak batera bustiduraren barnean, edo leherkari aspiratuak aspiraketaren sailean. Baina, beharbada, euskararen sistema fonetikoa eta, bidebatez, fonologikoa hobetoago eta garbiago gureganatzeko, eta metodologiari ere kontzesio bat eginez, aurkeztu dugun era honetan hobeto izango dela pentsatu dugu. Bidebatez, batzen den uneko sistema fonikoaren ezagutza sinkronikoa ere lortu nahi da.

Era berean, hizketen egitura fonologikoa aurkitu nahi dugu, eta horretarako ez gara bikote soiletara lotu -gaur egun eztabaidatuak direnak, bestalde-, eta hotsak ahalik eta osoen deskribatzeko, bakoitza isolaturik ez baina gertakizun dialektalen egituretan ezarriz batzeari eritzi diogu probetxugarrien. Zentzu honetan interesgarria deritzagu J. SEGUY-k **ALG**-ri egiten dion "Notice explicative"-n (8. or.) dionari:

> *"Au lieu des commutations aussi rituelles qu'efficaces, on trouvera ici un salmigondis de statistiques, de références à la diacronie et de manipulations plus ou moins critiquables."*

Galdekizuna prestatzerakoan nahaste-borraste itxuratik aldegin dugu, eta diakroniari buruzko aipamenetatik ere bai (4).

Nolanahi ere, gure hautaketa beste edozein hautaketa bezala kritikara irekia dago. Prestatu dugun galdekizuna euskal fonetikaz dagoen bibliografia erabiliz prestatu da. Lan horiek ia erabat artikulaziozkoak direnez, gure galdekizuna ere, tradizioari jarraituz, fonetika artikulatorioan oinarrituz egin da, honela ondoren egin daitezkeen analisi akustikoko lanak ez direlako eragozten.

Galdekizun fonetiko hau gertatzeko euskararen fonetikaz egin diren lan guztiez -edo ia guztiez- baliatu gara, baina noraezeko dugu azaltzea Mitxelena-ren **Fonética Histórica Vasca** gertatu zaigula aberatsen eta interesgarrien, eta hura izan dugula gidari

eta ardatz lan hau egiterakoan. Beste lanetan aipatzen diren kasuak ere jaso dira, eta dagokien tokian beren aipamena eramango dute. Halere, Gavel-en **Eléments de Phonétique Basque** ere bereizi nahi genuke,bera izan bait da alor honetan bide urratzaile bikaina eta gure laguntzaile haundia.

Bestalde, beste hizkuntzetako atlasak ere ikusi eta aztertu dira, baina, galdekizuna egiteko behinik behin, uste genuen baino probetxu txikiagoz. Batetik, gure hizkuntza urruti gelditzen delako hizkuntza horietatik; eta bestetik, orain arte erabili izan diren erizpideek ez diotelako fonetikari behar den garrantzia eman, eta atlasetan, gehienetan behintzat, bigarren maila batetan gelditu izan delako.

Bilakabide estrukturalistari jarraitzen saiatu gara, dela galdekizuna gertatzen, dela ondorengo analisian. Ohartzen gara horrek duen zailtasunaz, eta are gehiago erkatu behar diren elementuen artean aldakien arteko ezberdintasun xumeak direnean, gure kasuan gertatzen den bezala (5).

Laburbilduz, beraz, galdekizunak ohizko hizketako formak jasoko ditu, betiere berezko eta sendi giroko hizketaren eredura, hizketa informalekoa, alegia. Izatez deskribatzaile-sinkronikoa izango da, eta jasotzen den informaziotik jarraituz gero, diakroniari dagozkion oharrak ere sartuz.

5.2.1. Aurre-galdekizuna

Euskal fonetikaz egin diren lanak batu eta aztertu ondoren -agian bateren bat gelditu da ikusi gabe, baina erabili ditugunak bibliografian agertzen dira (6)-, fonema guztien errealizazioak aztertu ditugu:

- Ingurumen fonetiko ezberdinak kontutan hartuz.
- Euskalki eta azpi-euskalkietako errealizazioak ere kontutan hartuz.

- Horien ondorioz, kasu bakoitzerako bi edo hiru adibide ipini dira, beraiek izango direlarik, hain zuzen, galdekizunaren zutabe edo, bestela esan, galdekizuna osotuko dutenak.

Lan hau, euskalki eta azpi-euskalkien ezagutza praktikoan oinarritzen den arren, teorikotzat har daiteke. Gero, hautatutako tokietan materiala jaso ondoren, teoria horren errealizazio praktikoa eta behin-betirakoa egingo da.

Honez gain, saiatu gara ere, ezaugarri suprasegmentalak aztertzen: indarra (intentsitatea), kantitatea eta doinua (entonazioa), hauek ere beren tokia beharko luketelako atlasetan.

AURRE-GALDEKIZUNAREN AURKIBIDEA

1. Bokalismoa
1.1. Bokalak
1.1.1. /i/
1.1.2. /e/
1.1.3. /a/
1.1.4. /o/
1.1.5. /u/
1.2. Diptongoak
1.2.1. "au"
1.2.2. "eu"
1.2.3. "ai"
1.2.4. "ei"
1.2.5. "oi"
1.2.5. "ui"
1.2.6. Gorunzko diptongoak
1.3. Hiatoak
2. Kontsonanteak
2.1. Leherkariak
2.1.1. Leherkari sabaikariak
2.1.2. Leherkari aspiratuak
2.2. Afrikariak
2.3. Igurzkariak
2.3.1. /f/
2.3.2. 'j
2.3.3. Xistukariak
2.3.4. Aspiraketa
2.4. Sudurkariak
2.4.1. /n/
2.4.2. /n'/
2.5. Albokariak
2.5.1. /l/
2.5.2. /l'/
2.6. Dardarkariak
2.7. Talde kontsonantikoak
3. Ezaugarri suprasegmentalak

1. BOKALISMOA

1.1. Bokalak

1.1.1. /i/

1. Silaba askatuan:

ikusi
etorri
birikak
irin
(h)iri
ukitu
urritza

2. Silaba trabatuan:

ispilu
irten
kirten
bildur
iltze

3. Sudurkaria:

ĩ(h)i̇̃ze
mĩ(h)ĩ / bi(h)i

4. Alternantziak:

i / e ikus goikoak eta /e/
i / u ikus /u/

5. Galera:

jostuna
bazkaldu
erlauntz
gizoner(i)
etorriko (da)
ikusiko (du)

1.1.2. /e/

1. Silaba askatuan:

etsai

etxe
nere
(h)erri / (h)arri
erdi / ardi
erbi / arbi
berriz
gerri
txerri
bele
labe
gabe
hobe
eguzki
eduki
ekusi
keratz

2. Silaba trabatuan:

mende
berdin
bazter
izter
piper
eguerdi
(t)xertatu
aterpe
beltz
elkar
beldur
erdoi

3. Sudurkariak:

ẽhẽ / ehe

4. Alternantziak:

e / a	ikus goian
e / i	ikus goian eta /i/
e / o	behor
	sendo
	zek(h)or

e / u arraztelu
gaztelu

5. Galera:

konp. loratu
nekatu
has. (e)man
(e)torri
(e)karri
barr. (h)un(e)tan
(h)orr(e)tan
garr(e)na
aberea - abria
ab(e)rats
bat(e)re
at(e)ra
and(e)re, etxeko-
gaztanb(e)ra

1.1.3 /a/

1. Silaba askatuan:

kate(a)
arropa
arratoi

2. Silaba trabatuan:

aldatu
arto
gazta
za(h)ar

3. Sudurkaria:

ãhãte
ãhãi
ãtze
ãhãlke

4. Alternantziak:

a / e ikus /e/: "r" aurrean
"l" aurrean

Hitz barruan
Azken posizioan

5. Galera:

Buk. kate(a)
bard(a) - bart
axol(a)
giltz(a)
Bar. nab(a)la

1.1.4. /o/

1. Silaba askatuan:

poliki
polita
beso
mogitu
zoro
arotza
a(h)o

2. Silaba trabatuan:

(h)on-
non
(h)ondar
ongi
tontor
ontzi
(h)ontz
gizon
zortzi
bortz
zolda

3. Alternantziak:

o / u ikus goian
o / e ikus /e/

4. Aldaketak:

Azken pos. osatu
usategi
zoratu

Galera: denb(o)ra
goroldi(o)

1.1.5. /u/

1. Silaba askatuan:

luze
zure
duzu
errazu
katu
putzu
garizuma
zuek
duzue
mutil
utzi
guti

2. Silaba trabatuan:

larunbat
(h)untz
gorputz

3. Sudurkariak:

ʔhũẽ
ardũ
hũgũ

4. Alternantziak:

u / o ikus goian
" /o/
u / i ikus goian
" /i/
u / e " goian
" /e/

5. Aldaketak:

Azken pos. -u / ϕ bur(h)ezur
Konpos. u / a katakume
berant

gertatu
kutsatu

1.1.6. "ü"

1. Bikoteak:

hun / hün
nun / nün
húrtze / hürtze
hun / hür
phezu / phézü

2. Sudurkaria:

gahũ̈

3. Asimilaketak:

i / ü	ütsü
	dütüt
	ütxü(r)a
	ülhün
	xümür
u / ü	bü(r)ü

4. Kasu aztergarriak:

"r"	urdai
	urdin
	urthe
	urtü
	ürko
	kürlo
	ürzo
	bürdin
"k","nk"	
	ukutu
	hunki
	ünkhü
	üngüra

Dip. murrizketarekin:

urthuki
usuki

üska(r)a

Dip. murrizketarik gabe:

ehüle

ehün

1.2. Diptongoak

1.2.1. "au"

1. Gordetzen da:

lau
(h)auspo
aurt(h)en
gaude
daude

2. Aldaketa:

"ai" gauza
auzo
gau

3. Murrizketa:

Hitz hasieran: "a" aulki
- aurkitu
- aurpegi
(h)aundi

Hitz barruan: "o" arraul(t)za
i(h)aute

Hitz bukaeran: "u" beraun
barau(r)
garaun

4. Distribuzioa:

a(h)untz
a(h)uña
a(h)ul

1.2.2. "eu"

1. Murrizketak:

"e" neukan

zeurea
Alternantzian u / e euskara
euri

2. Distribuzioa:

e(h)ule
le(h)un
e(h)un

1.2.3. "ai"

1. bai
na(h)i
na(h)iko
baitan

2. Aldaketa:

"ei" gai
egitai
eztai
jai

3. Murrizketa:

"i" gaitu
zaitu
naiz
Jainko
bezain
bikain
baino

"a + kons. bustia:
(h)aize
gaitz
bakoitz
ekaitz
laister
zail
zain
arrai(n)
usai(n)

artzai(n)
gain
ezpaina

4. Diptongoa egiten da N + kontsonante aurrean:
a(i)ngura
a(i)ngira
a(i)ngeru
ma(i)ndire

1.2.4. "ei"

1.

sei
deitu
eite / egite
beitu / begitu
bei / be(h)i; be(g)i

2. Murrizketa:

Hitz hasieran: ei(h)ar
Hur. konts. bustiz: eleiza
zein
areitz

1.2.5. "oi"

1.

goi
xaboi
arratoi
arrazoi
le(h)oi
milloi

2. Murrizketak:

"i" or(h)oitu
Konts. bustiz: noiz
goiz(ean)
oina
soin

1.2.6. "ui"

1.

eskuin
fruitu
asuin
lurruin

2. Murrizketak:

(Ikus goian).

1.2.7. **Gorunzko diptongoak**

1. Maileguen errealizazioak:

suerte
gorde
kodaña

2. [j]

eria 'el enfermo / dedo'
(h)erria 'pueblo / quemado'
semia
kafia
maitia
(erran) zi(d)an / didazu
(eman) zion
ia
anteojoak

3. [j] dip.-ren ele.

errealizazioak: ai(h)en
lei(h)o
oi(h)al
sai(h)ets
ei(h)ar
e(h)o
laia
maia
maiatz(a)

4. Metatesiak:

bienke
bezain
Ikus "oi" dip.

5. [w]

negua
a(h)ua
zangua
eguerdi(a); gauerdi(a); (-ko)
joan - goazen
gua(rda)sola
ipui(n)a

6. [w] konts.

eraman
gau(a)
kristau(a)
(h)auek

1.3. Hiatoak

1. Geminazioak:

a(h)ari
ari
a(h)ate
ate
be(h)e
mi(a)
ma(h)ats
za(h)ar
le(h)en
a(h)asi
a(h)aztu
edaa(n), (-ari)
jaan
erlee
laarregi

belaarri
zo(o)r
lur
(Ikus aspiraketa)

2. Aldaketak:

Dekl. -a + -a, -ak:	alaba
	pasa, (uso---)
	doan
	dan / den
	dala / dela
Dekl. -e + -a, -ak:	seme
	ke
	an: etxe(an)
Hitz barruan:	be(h)or
	deabru
Dekl. -i + -a, -ak:	mendi
	ogi
+ bat:	mendi bat
	ogi bat
+ -an:	mendi(an)
Kanp. sandhi:	zein da?
	ikatza
Hitz bar. (epent.):	bi(h)ar
	bi(h)otz
	etorri zen (bust.)
Dekl. -o + -a, -ak:	bero
	beso
+ -an	beso(an)
Aditz.:	noa
	doa
	zoaz
Dekl. -u + -a, -ak:	esku
	teilatu

+ -an:	estu(an)
	teilatu(an)
+ bat:	esku bat
	teilatu bat (itsidura)
	bularra
	esku (h)aundia
	esku apala
Dekl.-kons.+ -a, -ak:	mutila
	bularr(a)
	espartin(a)
Beste batzu:	gauza (h)aundia
	andre ederra
	etxe (h)au
	etxe (h)orietan
	ma(h)i hau
	begi (h)aundi
	begi eder
	na(h)iko(a) dut
	beso (h)au
	katu (h)aundia
	katu ederra
	katu itsusia

2. KONTSONANTEAK

2.1. Leherkariak

/p/, /t/, /k/, /b/, /d/, /g/, /t'/, /d'/

1. Hitz hasieran:

bizar / pizar
gorria / korrinkoa

1.1. Alternantziak:
a. ahost. / ahosk.: butzu, barkatu, pake, borru

dorre, ditare, dipula
gatu, gorbata

b. ahost. / ahosk. / ϕ:
dupel / kupel / upel
bustel ...
bere...
goroldio...

c. ahosk. / ϕ: (h)abia
(k)orapilo
(k)okotz

1.2. Protesia:
kirikiño
konddo

2. Bokal artean:
lapur / labur

2.1. Alternantziak:
ebaki / -gi
epai / epaile
jaiki /-gi
irabazi / irapazi
sabai / sapai

3. Hitz bukaeran:
Ahostu? Bok. artean:
zenbat ardi?
andreak esaten dute
Leh. ahost. aur.:
zenbat diru?
(h)erritik gatoz
sagarrak dira?

4. Galera:
egin dut
eman diot; ditiot; deutsot

5. Aldaketa d / r:
edo, edan, bide, odei
bizi da

antza deko
zenbat etxe dagoz?

Besterik:

mogitu / mobitu
oilanda / -anta
eguzki / eduzki / iruzki
gura(t)soak / b-
gurdi / b-
(h)ogen / (h)oben
Ikus /m/

6. Metatesia:

bage / gabe
bigel / gibel

7. Neutralizazioak:

denbora
igande
boronde / borondate
aldare
alde, alke (ahalke), elkhi
ongi
zango
(h)ango
emango
(h)emengo
kolko / golgo
(h)ilgo
ez dut
ez gara
ez banaiz etortzen
ap(h)ez bat

2.1.1. Leherkari sabaikariak

2.1.1.1. /t'/

1. Bikoteak:

ata / atta
oto / otto

2. Ingurumenak eragin gabe:
ttipi
gutti
ttente
ttonttor

3. Ingurumenak eraginda:
aittu
deittu
oittu
lodittu

4. Fonosintaxia:
o(h)etik (oittik)
itsita (itsitte)
jagiten (jagitten)
egin ditut (iñ ttut)
ekarri ditiot (... ttot)

5. Aldaketak:
[t'] / [č]: aitxa, gaitxu
ttipi, txipi
gutti, gutxi
tu..., ttu..., txu
Fonosintaxia (Esanahiaren arabera):
tto: amatto, attatto
mutil: muttiko

2.1.1.2. /d'/

1. Bikoteak:
(h)ondo, ondo, onddo
andderéjer, andéjer

2. Errealizazioak: (Leherkari, leher-igurzk., igurzk.?):
saiñddu
iñddar
eziñ ddot
eiñ ddaigun

billddur
ill dda
miñ egiñ ddaku
miñ ddakot

3. Aldaketak:

[d'] / [č]:	txakot
	(Matxalen)
[d'] / [t']:	ontto
[g] / [d']:	gorrinddo
	manddika

4. Alternantzia:

ura / udda

2.1.2. Leherkari aspiratuak

1. Bikoteak:

p / ph	---
t / th	nota / notha
	hurte / úrthe
k / kh	merkatü / merkhatü
	oker / okher

2. Distribuzioa:

Hitz hasieran:	phitz
	thü
	khe
Hitz barruan:	ephe
	lepho
	gerthatu
	sarthu
	sorthu

3. Mugaketak:

eduki, ebaki
agertu, ausartu
güti, ttipi
aita, maite

Fonosin. badit heben
baduk heben

4. Aldaketak:

urkhatu
pharka
phika
khorpitz

5. Aspir - azent.:

néke
nekhatu
mútu
muthátü

2.2. Afrikariak

/c/, / ǰ/, / č/

1. Bikoteak:

zar / txar
(h)otza / (h)otsa
atzo / atso
oso / otso
[dž]-rako ikus *j eta [d']
edžamina
edžemplu

2. Distribuzioa:

Hitz hasieran: txakur
txerri
txori
txotx
txapela
txipi
tzintzarri
tzimur
tximitxa

Hitz bukaeran: (h)itz
(h)otz

(h)ots
utz
(h)uts
gorputz

Hitz barruan: etxe
itxaso
martxo
mertxede
itsu
itsuki
autsiki
jauntzi
eran(t)zi
intxaur
utzi
itsi
putzu

2. Neutralizazioak:

(h)ustu
(h)izkuntza
bi(h)otz bera
mintzatu
ontzi
zintzur
galtza
giltza
bertso
non zera
dagoen zubia; (h)agin za(h)arra
su(d)urtzuloa
(h)aurtzain
apurtxo bat

3. Galera: Ikus "Hitz hasierakoak":

txirnitxa
tzintzarri

4. Alternantziak:

[š] / [č] Ikus:	hitz has.:
	txakur
	txori...
[d] [ǰ] / [č]:	
	dastatu
[l] [l'] [č]:	
	labur, ilenti
[-c] / [č]:	bakoitz, aitzaki
	(h)aitzur
	(h)aritz

2.3. Igurzkariak

2.3.1. /f/

1. Bikoteak:

afera / atera
foru / zoru
apaldu / afaldu
kafia / kabia

2. Distribuzioa:

Hitz hasieran: faltsu
feria
festa
fede

Hitz barruan: afari
nafar
afera
alfer

3. Alternantziak: (Goian jasotakoak):

fiko
frogatu
frakak
ferra
aifatu

ifar
aufa
ifini
farre

lkus *j

2.3.2. *j

1. *j hotsaren errealizazioak euskalkien arauera:

1.1. Aditz nominaletan:

a:	jan, jakin, jarri
au:	jausi, jautsi
ai:	jaiki, jaitsi
o:	jo, joan, josi, jorratu

1.2. Izen sintagmetan:

Jaun, Jaungoikoa, jostorratza
jostuna, jabe(a), jende, jolas(a)

2. Euskalki baten gerta daitezkeen errealizazioak:

[d'] nor	(h)aiz
	deus
	j(y)einha, (-tu)
	eduki
[x-]	Birjina
	kajoia
	jende
	ijitu
	ajata
[š-]	xaboi
	xoku
	xunta, zango---
[f-]	joan
	joale
[k-]	jikara
	jauna
	Jaungoikoa
[ś-]	jauts(i)

jaits(i)
[h-] jende
jetxi
jostorratza
Adizkietan: zait - jat
zaio - jako

3. Epentesia: Ikus "Hiatoak"

2.3.3. Xistukariak

/s /, /ś/, /š/; /z/, /ź/, /ž/

1. Bikoteak:

sare / zare
(h)asi / (h)azi
joko / xoko
fede / xede
aizina / aitzina
losa / lotsa
xüxena / jüjena
[z] ikus [ʲj]
[s] " "

2. Distribuzioa:

Hitz hasieran: zeru
zor
sorgin
zuri
Ikus: [č]
Hitz barruan: aisa
esne
ustez bai
Ahost.? ez dut, ez dago
ez untsa, ongi
e(h)o
Bust. eliza
goiza
(h)aize

gizon
izan

3. Hitz bukaeran: Ikus afrikariak.
4. Neutralizazioak: Ikus leherkari-igurzkariak.
5. Galera: Hitz hasieran:
   zozpal
   zitoitz
   Hitz bukaeran:
   burtxintxa
   ortots
   urdain
6. Alternantziak:
   [ś] / [r] esnatu
   esan
   [s] / [c̓] ez jaku
   Ikus: ˚j

2.3.4. Aspiraketa

/h/; [r-h], [n-h], [l-h]

1. Bikoteak:
   har / ar
   hari / a(r)i
   ezi / (h)ezi
   hala / alha / ala
   eri / erhi
   belar / belhar
   hürrez / ürrhez
   ürrhia / ürria
2. Distribuzioa:
   1. Hitz hasieran: harea
   hüme
   (h)auzo
   (h)aize
   hor
   (h)un (ñ)

2. Hitz barruan: ehun
ahizpa
leiho
aihen
gaiherdi / egüerdi

3. Alternantzia:
[h] > ϕ / g / r /l

1. Tinbre berdineko bokaleak:
ahate
aha(n)tzi
mahai
mahats
mehe
xehe
mihi
ihize
ohortz
zuhur

2. Tinbre ezberdinetakoak:
beharri
behi
aho
ahuña
ohe
ihartu
zuhar

(Ikus: geminazioa, leherkariak)

5. [r-h] , [r̄-h]
be(r)e
be(r)ez
ber(h)o
sor(h)o
burhaso
burhi
ürhe

ürhe
ürhats
[l-h] belhar
elhur
ilhun
ilhe
alhaba
[n-h] senhar
manhatü
iñhazi

2.4. Sudurkariak

/m/

1. Distribuzioa:
Hitz hasieran: maiz
merke
mi(h)i
me(h)e
mak(h)ila
makar
mezpera
mospel
Hitz barruan: ama
eman
(h)emen
atzamar
kuma
(Ikus aspiraketa)
2. Alternantziak: Ikus goikoak.
(m / b / p)

2.4.2. /n/

1. Distribuzioa:
Hitz hasieran: na(h)as

nabar
nagusi
neska
na(h)i
(n)egal
(n)e(h)or
(n)ekaitz

Hitz barruan: Bokale artean: Ikus aspiraketa.

" /n'/

anaia
gona
enara
gaztanbera
kanpantorre
ardandegi
bedeinkatu
lukainka

(Ikus bokalismoa)

2. Alternantziak: n- / ϕ Ikus goian.
n- /l-: Ikus /l/

3. Galera:

amaitzen dot
egin eban
egoten zan
jaten dute
esaten dituk
joan zen
eman zion

4. Metatesia:

ematen dute
erraten duzu
egiten dute

5. Disimil.

emanen, izanen

6. Hitz bukaeran:

gizon

esan
egun
Fonosint. eguberri
eguraldi
emale
egile

2.4.3. /n'/

1. Bikoteak:

nabar / ñabar
ona / oña
sena / seña
bana / baña

2. Distribuzioa (Fonetika eta geografikoa):

Hitz bar. baña
laño
iñor
iñon
keñu
burdiña
gañan

Hitz has. ñor
ñeur
ñoiz
ñauk
ñagok
ñabillek
ñoak
ñatorrek

Hitz buk. zaiñ
soiñ
miñ (Ikus bokalismoa)

3. Alternantziak:

baña /-o
giñan

4. Metatesi palatala:

manteliña
labaña

2.5. Albokariak

2.5.1. /l/

1. Distribuzioa:

Hitz has.	luma
	lore
	luze
	la(h)ar
	lasai
	larru
	lapur
Hitz bar.	kale
	bele
	bale
	arraztelu
	gaztelu

2. Alternantziak:

n- / l-	lkus goian
l- / r- / d-	bel(h)ar - belar
	el(h)ur
	il(h)ar
	el(h)ar
	zil(h)ar
Komp.	il(h)argi

3. Disimilaketak:

galtzairu
giltza(g)ur
a(i)ltzinean
arraultze
alkar
belarri
iltze

2.5.2. /l'/

1. Distribuzioa:

Hitz bar.	botella

2.5. Albokariak

2.5.1. /l/

1. Distribuzioa:

Hitz has.	luma
	lore
	luze
	la(h)ar
	lasai
	larru
	lapur
Hitz bar.	kale
	bele
	bale
	arraztelu
	gaztelu

2. Alternantziak:

n- / l-	lkus goian
l- / r- / d-	bel(h)ar - belar
	el(h)ur
	il(h)ar
	el(h)ar
	zil(h)ar
Komp.	il(h)argi

3. Disimilaketak:

galtzairu
giltza(g)ur
a(i)ltzinean
arraultze
alkar
belarri
iltze

2.5.2. /l'/

1. Distribuzioa:

Hitz bar.	botella

tella
tellatu
ollo
ollar
ille, illoba, billatu, illun
zizallu

Hitz buk. mutill
(h)ill

2. Adierazkorretan:

r- -l'- bello
(h)olli
ello

rr- > -l'- golli

ld'- > -l'd'- billddur

l- > l'- llabur, llo

2.6. Dardarkariak

/r/ , /r̄/

1. Distribuzioa:

ari / (h)ari / (h)arri
ere / erre
buru
orhe
sorho
urr(a)
ur(a)
zur(a)
hor(a)
eliza(ra)
mendi(ra)
buru(ra)
gizonari
amari

2. Alternantziak:

r / r̄	er (h)aztun
	perexil
	bare / barraskilo
	ateri
	antzara
r / l	zeru
	orio
	mendira
	etxera
	(Ikus: /l/)
r / d	amari
	gizonari
	ura

3. Fonosintaxian:

r- > h, g, ϕ	ugalde, u(h)arte
	zuhaitz
	lupeko
	lubizi
r- > -l-	aizkolari
	afari, bazkari
	ldu, -kaldu
	euskaldun
	galburu

2. 7. Talde kontsonantikoak

2.7.1. Sonantea eta leherkaria

sukalde, alde
(h)ilgo, alkate
ardi
arte
urde
urte
(h)ordik, (h)orgo
Eibardik
lukainka

bedeinkatu
saindu
entendimentu
menda
(Ikus: Leherkariak, neutralizazioak)

2.7.2. Sonantea eta xistukaria:

tasun, -tarzun, -tarsun: gozotasun
maitasun
gorritasun

urzo / uso
osasun
masust(r)a, marzuza
(h)ertsi
burtzintz
(h)artz, bor(t)z, or(t)ziral, or(t)zegun,
her(t)ze
bost, ostiral, ostegun, este.
(Ikus: Afrikariak, neutralizazioak)

Ezaugarri suprasegmentalak

Oharrak

Azentua eta entonazioa jaso nahi izan dira, baina biak batera. Hitz soltez ari garenean ere, ahal izanez gero, euskaraz egindako galderen erantzuna bilatu da.

Hauek jasotzeko ez genuen uste informatzaile denekin balia gintezkeenik. Gure ustez bospasei tokitan jasotzea nahiko izan zitekeela pentsatzen genuen, baina beti, hori bai, informatzaile konfiantzazkoekin, hau da, zer eskatzen zen ulertu lezaketenekin, eta eskatzen zen horri erantzuten ere saiatuko ziratekeenekin.

Puntu hauen galdekizuna gertatzeko ez genuen izan erizpide garbirik ez tinkorik. Hitz solteetatik hasi eta esaldi sinpleenetara igaro ginen, lexemak mugagabean eta mugatuan ipiniz, hitzen luzeera ere kontutan hartuz. Esaldietan, berriz, esaldi motarik ezagunenak.

1. Silaba bateko hitzak

lurra (la tierra)
ona (bueno)
lur hori (es tierra)
lur on bat (una buena tierra)
lur(rik) onena (la mejor tierra)
lurrera bota (echar al suelo)
lurreratu zen abioia (bajó a tierra el avión)
lur hori lur ona da (esa tierra es tierra buena)
lurrak honenak dira, Jonenak (las tierras son de éste, de Jon)
lurra honena da, Jonena (la tierra es de éste, de Jon)

2. Bi silabakoak

ogia (pan, el)
basoa (bosque, el)
haundia (grande, el)
txakurra (perro, el)
hau bestea baino hobea da (este es mejor que el otro)
basoa (vaso, el)
ogi bat (un pan)
hiru ogi (tres panes)
txakur hori (ese perro)
ogi bat (tres perros)
txakur hau hoberena (onena) da (este perro es el mejor)
hau hobe da (esto es mejor)
hobe! (¡mejor! enfasiz edo amorruz)

3. Hiru silabakoak (edo gehiagokoak)

beharria (belarria) (la oreja)
nekosoa (cansado, que cansa)
beharri bat (una oreja)
irabaziak (irauziak) (ganancias)
irabazi nekosoak (ganancias costosas)
bi beharri (belarri bi) (dos orejas)

bi beharriak (las dos orejas)
beharritakoak (pendientes, los)

4. Eratorriak eta besterik

lotsa (vergüenza, respeto)
lotsaizun (respeto)
lotsagarria (vergonzosa, de vergüenza)
lotsagabea (sinvergüenza)
haundi (grande)
haundia (grande, el-la)
haunditasuna (grandeza)
haundikeri(a) (grandeza, despectivo)
lotsagabekeri(a) (desvergüenza, acción concreta)
behi eder-ederra (vaca muy buena)
gizon haundi-haundia (hombre muy grande)
txakur hau txiki-txikia (ttipi-ttipia) da (este perro es muy pequeño)

5. Esaldiak

Mutilak bukatu du lana (El mozo ya ha terminado el trabajo)
Mutilak (-ek) bukatu dute lana, baina neskak ez (Los mozos han terminado el trabajo, pero las chicas no)

(Orain galdera aurreko esaldian oinarrituta erantzuna bilatzeko: "Nortzuk bukatu dute lana?")
Bukatu dugu lana, mutilak! (Ya hemos terminado el trabajo, muchachos!)
Mutilak, bukatu diagu lana! (Muchachos, ya hemos acabado el trabajo!)
Bukatu duzue lana, neskak? (¿Habéis terminado el trabajo, chicas?)

(Bi gauzetatik bat bukatu dela adieraztea eskuratu behar da, bestea ez dela bukatu suposatzen delarik):
Lana bukatu dugu (baina ez afaria)

Beste perpausa batzu:

Txakurra okerrean dabil (El perro está haciendo algo malo)
Txakurra! (¡Perro! amorruz)
Txakurra, alde! (¡Fuera, perro!)
Txakurrak!!! (¡Perros!)
Behiak belagian (belardian, zelaian) daude (Las vacas están en el prado)
Behiak!!! (¡Vacas! con todo énfasis)
Xabier, zuk ekarriko duzu ardoa (Xabier, tú traerás el vino. Mera enunciación)
Xabier, zuk ekarriko duzu ardoa? (Pregunta)
Xabier, zuk ekarriko duzu ardoa! (Orden, mandato, y con cierto énfasis)
Mikel, etorri zaitez hona (Mandato sin énfasis)
Mikel, etorri zaitez, ba! (Con mucho énfasis)
Mikel, etorriko zara? (Mera pregunta)
Mikel, etorriko zara behingoan? (Mandato enfático de entonación más o menos interrogativa)

OHARRAK

(1) Jaberg-ek, esaterako, gaskoieraren Edmont-ek jasotako ALF-eko datoak Alliéres-ek jasotako ALEG-ekoekin erkatu zituen. Zenbait kasutan bataren eta bestearen datuen arteko desberdintasunak larriskoak dira, eta hori, agian, ez zen horrela izanen Edmont-ek prestaera fonetiko mamitsuagoa izan balu. Ikus ALVAR (1973, 120 eta hur.).

(2) Hor dago, bestalde, P. Yrizar-en lan eskerga. Aspaldiko urteetan euskal aditza oso zehatz jasotzen ari da, eta, beraz, alderdi hori, neurri batetan, egina bezala har genezake.

(3) Berriro ere ekarri nahi dugu maila lexikoa betzeko premia bizia, hainbat eremu lexiko galtzorian bait dago.

(4) Lehen esan bezala, dialektoetan jasotzen den materialak berak eskeintzen du informazio ugari diakroniaz. NAVARRO TOMAS-ek zera zioen (1925, 594, 2. oharra):

> "La escasez de textos antiguos podría compensarse ventajosamente, por lo que a la fonética se refiere, con el estudio detallado de las muchas modalidades diferentes observables en el vasco actual. Basta el tanteo de algunos sujetos para comprender hasta qué punto deben abundar por pueblos y aldeas las variantes intermedias de algunos procesos fonéticos cuyos extremos suelen aparecer en muchos casos separados por una evolución difícil de entender sin el conocimiento de dichas variedades."

(5) Interesgarriak dira honetaz MITXELENA-ren hitzak (1971, 60. oharra) sistemen arteko erkaketa estrukturalista zalantzetan jarriz:

> "Ahora bien, en Europa (y acaso también en América) la práctica, no la teoría de la encuesta dialectológica, ha estado libre de preocupaciones estructuralistas: La **dialectologie** de S. Pop es, como señaló MARTINET, un caso límite de impermeabilidad a este respecto. Creo, con todo, que KING está en lo cierto al sostener que, dentro de un planteamiento estructuralista ortodoxo, dos sistemas son incomparables entre sí, aunque no difieran más que en menudos detalles, ya que sólo cuentan las relaciones entre elementos dentro de una totalidad. Cf. p. ej. GABRIEL BES "Phonetique, phonologie et communication" en **Beiheft** 3-4 (neue Folge) de la **Zeitschrift für Mundartforschung**, págs. 6-83 y "Certains aspects du rapport de la phonologie avec la dialectologie" en **Phonetica** 13, 1965, pás. 22-26."

(6) MITXELENA-ren **Fonética Histórica Vasca** da gehien erabili duguna, lan hori bait da orain arte egin den lanik zehatzena fonetikaren eta dialektologiaren aldetik, eta onena ere bai metodologiaren eta analisiaren aldetik.

5.2.2. AURRE-GALDEKIZUNAK JASOTZEKO JARRAITU DEN METODOLOGIA

5.2.2.1. Lehen urratsak

Galdekizuna fenomeno fonetikoen arauera prestatu ondoren, hitz guztiak zenbakitu egin ziran, zein kasutan agertzen ziren zainduz eta hitz bat eta bera toki batetan baino gehiagotan ager zitekeela ere kontutan hartuz. Gainera, hitz bakoitzari galdera bat ezarri behar zitzaion, beti testuinguru berdintsuan jaso ahal izateko. Bidebatez, galderak bakoitza gaztelaniaz eta frantsesez ere jarri genituen, erdaraz egin behar bait ziren erantzuna euskaraz jasotzeko. Azkenik, galderak ere zenbakitu egin ziren garbitasuna lortzeko metodologiaren aldetik.

Orohar 845 galderatakoa gertatu zen aurre-galdekizuna, eta horiez gain, ezaugarri prosodikoak jasotzeko beste esaldiak eta hitzak ere kontutan hartu behar dira.

Galdekizun fonetiko ugari honek badu arrazoirik. Azken asmoa euskalki guztietarako balia zezakeen galdekizun laburrago bat lortzea zenez gero, fenomeno bakoitzerako hitz bat baino gehiago prestatzea nahitaezko zen, gero fenomeno horiek euskalki denetan jasotzeko aukerak hutsik egin ez zezan, eta horren ondorioz euskalki guztietarako aipaturiko galdekizun labur eta zehatz hori egiteko.

Inkestak 1983-ko udan jaso dira eta hurrengo neguan osatu, falta edo garbi azaltzen ez diren datuak bilduz. Grabatzeko erabili den tresna UHER 4.400 Report Monitorra izan da, bobina irekikoa, eta mikrofonoa, UHER M518 motakoa. Grabatzeko zintak BASF markakoak izan ziren, bobina irekikoak, (Ferro LH HiFi DP26) 366 m-koak eta 1201'-ko iraupenekoak.

Inkesta guztiak herrietan egin dira eta lekuko guztiek oso harrera ona egin digute, borondate ezin hobeagoz ahalegindu direlarik gure galderak erantzuten, saioak luzeak eta aspergarriak

izan arren, eta, kasu batzutan, palatogramak egiteko aukera ere eskeini zigutelarik.

5.2.2.2. Jaso diren lekuak

Azaldu berriak diren arrazoiengatik, begibistakoa zen Euskal Herri osoan probatu eta jaso behar zela galdekizun hau. Horretarako inkestak sei euskalki hauetan egin dira:

Goi-Nafarreraz, Lapurteraz, Behe-Nafarreraz, Zubereraz, Gipuzkeraz eta Bizkaieraz. Lekuak, berriz, honako hauek izan direlarik:

Goi-Nafarrerarako Ituren-en jaso genuen.
Lapurterarako Sara-n.
Behe-Nafarrerarako Baigorri-n eta zenbait osagarri Elhetako lekuko batekin.
Zubererarako Santa-Grazi-ko lekuko batekin.
Gipuzkerarako Astigarraga-n, eta Orendain-eko lekuko batekin osatu.
Bizkaierarako, azkenik, Gorozika-ko lekuko batekin, eta oñatiar batekin osatu.

5.2.2.3. Lekukoak

Aurre-inkesta egiteko ez gara zorrozkerietan ibili, aurregaldekizun horren helburua ez baitzen fonetika azterketetarako edo mapetarako materiala biltzea, galdekizuna bera probatzea baizik, hau da, galdekizun horrek euskalki guztietarako balio zezakeen edo ez probatzea. Lekukoak bere hizkera ongi menderatzea aski genuen, betiere zenbat eta gutxiago kutsatua izan,nahiz beste euskalkiengatik nahiz erderagatik, hobe. Honela Gipuzkerarako aurkitu genuen lekukoa ia elebakarra zen; honek ere baditu, ordea, eragozpenak, ozta-ozta ulertzen bait zituen galderak. Baxe-Nafarrerako lehenbiziko lekukoa "ikasia" zenez, ondo-

ren Ekialdeko (BN) ezagutzen zuen beste lekuko trebe batekin berrikusi genuen galdekizuna, eta, azkenik, zenbait galdera Baigorri-ko beste lekuko batekin osatu genituen. Zubererak ere baditu berez arazoak guretzat, eta horregatik lekuko trebea bilatu genuen, euskalkia ongi ezagutu eta guk nahi genuena ongi uler zezakeena. Ez dira horrelakoak lekukorik hautatuenak geografia linguistikoan, baina gure helburuetarako nahiko egokiak.

Lekuko nagusiak -laguntzaileak ez ditugu aipatzen- honako hauek izan ziren:

Feli Petrirena Aranburu, Ituren-goa (Nafarroa), emakumea, 72 urtekoa, Ip (Goi-Nafarrera) euskalkikoa, Bortzirietako azpieuskalkiaz egiten duelarik.

Paul Delpech, Sara-koa (Lapurdi), gizona, 58 urtekoa, Lapurtera euskalkikoa, Bertako azpieuskalkiaz egiten duelarik.

Pierre Bidart, Baigorri-koa (Behe-Nafarroa), gizona, 37 urtekoa, Mend. (Behe-Nafarrera) Baigorriko azpi-auskalkiaz egiten duelarik.

Xipri Arbelbide, Heleta-n, gizona, Ek (Behe- Nafarrera).

Martin Zabaltzagarai, Baigorri-koa (Behe-Nafarroa), gizona, 59 urtekoa, Mend. (Behe-Nafarrera) Baigorriko azpieuskalkiaz egiten duelarik.

Junes Casenave, Santa-Grazi-koa (Zuberoa), inkesta Larrañe-n egina, gizona, Zuberera euskalkia egiten duelarik.

Francisco Irigoyen, Astigarraga-koa (Gipuzkoa), gizona, 55 urtetakoa,

(Gipuzkera) euskalkia, Iparraldeko azpi-euskalkia, Hernaniko aldakia egiten duelarik.

Elixabete Garmendia, Gorozika-koa (Bizkaia), emakumea,

60 urtetakoa, (Bizkaiera) euskalkia, Mendebaldeko azpi-euskalkia, Gernikako aldakiaz egiten duelarik.

5.2.2.4. Inkesten traskribaketa eta hautaketa

Hurrengo pausua inkestak traskribatzea izan zen. Traskribatzeko ez ginen erizpide estutara lotu, ez bait zen hori beharrezko lehenengo aurre-galdekizun horren asmotarako. Bilatzen genuena zera zen: batetik fenomenoen eta zegozkien adibideen banaketa eta hautaketa ongi zegoen edo ez probatu; eta bestetik, fonetikaren aldetik batasuna euskalki denetarako lortu, eta lexikoaren aldetik adibideen esanahia ezagutu eta finkatu.

Fonetika mailan, "r(t)z" eta "st" talde kontsonantikoek, esaterako, zein eremu nagusi hartzen duten jakiteko beste adibideen artean "ortzegun" eta "ortziral" ipiniak genituen, baina Bizkaierak "eguena" eta "barikua" erabiltzen dituenez, Bizkaiera kanpoan gelditzen zitzaigun; "bortz" / "bertze", ordea, toki guztietan berdin erabiltzen direnez, haiek kendu eta azkenengo bi hauek gelditu ziren bigarren galdekizunean. Gainera, bi hitz hauek beste fenomeno batzutarako ere balio dute : "bortz"-ek "o" bokala silaba trabatuan nola gertatzen den ikusteko, eta "bertze"-ren kasuan dardarkari ondoko xistukaria afrikari ala igurzkari gertatzen den ikusteko. Eta adibide hobeagorik ere bada, baina, lehen esana argitzeko hauek aski dira.

Lexikoaren aldetik, berriz, esanahia ezagutu eta finkatzeko. Goierri-n esate baterako, arkitu dut "otso" gaztelerako 'oso' dela eta, benetako "otso"-ari "basatxakurra" esaten diotela. Beste batzutan alor semantikoa nahastu xamarra dago: "laino", "lurrun" eta zenbait kasutan erreferentea zailegia gertatu da hitza jasotzeko: "gozotasun", "dastatu", "aufa"..., eta galdera baztertu egin behar izan da.

Inkesta denak traskribatu ondoren, orrialde haunditara

pasatu genituen,zutabetan, bata bestearen parean, horrela galderak eta euskalki guztietako erantzunak begien aurrean denak batera izateko. (Ikus eraskin gisako alea).

Hitz bakoitzari bere fitxa egin zaio, azkenik, bertan zein kasutan eta kasu bakoitzean nola den eta errepikatzen den edo ez sinalatuz. Horrela galdekizuna orraztuz, garbituz eta bakanduz joan da, 845 hitzetako galdekizuna 325 hitzetakoa bihurtuz.

Halere, aurreko jokabide bera daramagu behin-betirako galdekizunean ere: fenomeno bakoitzari bere adibidea ezarri zaio eta, ahal izan den neurrian, bat baino gehiago ere bai, honela fidagarriago gerta dadin eta aztertzen den fenomenoa kartografiatzerakoan adibide baten baino gehiagotan oinarriturik egon dadin.

Galdekizunak bi atal ditu: batetik, galdekizunaren sail nagusia, euskalki guztietan jasotzekoa, eta bestetik, bi eraskin: bata, Iparralderako, 17 hitzetakoa, aspiraketa eta leherkari aspiratuak jasotzeko; bestea, "ü" bokalari dagokio eta Zuberoa-n eta Ekialdeko Behe-Nafarreraz egiten den tokietan behintzat jasotzeko da; 28 hitz ditu eta, lartxo badirudite ere, interesgarriak eta beharrezkoak izan daitezke, noiz eta non gertatzen den fenomenoa ikusteko; azkenik, beste hitzen bat ere sartzen da tartean, bokal sudurkariak jasotzeko asmotan.

5.2.2.5. Galdekizunetik kanpo gelditu dena

Helburua Euskal Atlaserako galdekizun baliagarria gertatzea denez gero, lokalismo batzu, interesgarriak badira ere, kanpoan utzi dira, hala nola Zubereraz gertatzen diren hots xistukari afrikari ahostun esporadiko batzuk, "edzamina", "edzemplu", eidzer"; edo leherkari ahostunak, "andderejer" edo, Zubererarekin jarraituz, sabaiko albokari bereziren bat,

"holli"... Gipuzkoa-ko Goiherri aldean ere -(G)-ren mugak ongi zehaztea ez da gauza erraza-, fonetika sintaktikoan (fonetika

sintaktikoa ala morfofonologia?) agertzen diren sabaiko sudurkari batzuk ere kanpoan utzi ditugu: "ñauk", "ñagok"...

Halere, derrigorrezkoa da esatea erizpide tinkoari jarraitu diogula. Arestian aipaturiko kasu bakanok, gure eritziz, dialektalismo oso lokalizatuak dira, eta estruktura barnean sartu ezin daitezkeenak; isolatu samar agertzen direnez, ez dute Atlas linguistikorako balio berezirik, hizkuntz maila osoan fenomeno denak baliotsuak izaten badira ere.

Bestalde, oinarrizko galdekizunean bikoteak bilatu genituen zalantzazko hots batzuren fonematasuna argitzeko edo, hau da, "bikote soilak" direlako horiek bilatzen saiatu ginen. Baina, errealitateak erakutsi digu hori ez dela posible atlas baten; sei euskalki nagusi jasoko duen atlasean, behinik behin. Bikotean gertatzen badira, gehien ere euskalki baten gertatzen dira, eta kasu aski bortxatuetan, baina ez bitan. Fonema konfliktiboez ari naiz, dudarik gabe, esaterako: t /t'; t'/d'...Holakoak ere alde batera utzi ditut, horien arazoa argitzea ez bait da atlasen egitekoa. Jakina, honekin fonetikaren ala fonologiaren eztabaida famatu horren aurrean gaude. Lehenengo, fonetika egitea beharrezkoa da, hotsak jasotzen bait dira, hots bakoitzaren analisi artikulatorio eta akustikoa eginez; gero, horretarako biderik izanen balitz, fonologiara ere pasa daiteke. Bestalde, bikoteen arazoa baztertu egin dugu, izan ere nahiko diskutigarria baita horien balioa hotsen arteko oposizio fonologikoa frogatzeko

Errealitateak erakutsi digunez, ezinezkoa da galdekizun fonetikoan sintagma luzeak batasunez jasotzea. Galdekizun lexikotan barietateak ez du gaitzik egiten eta hein batean aberasgarri ere gerta daiteke. Galdekizun fonetikoak, aldiz, lehen esan dugun bezala, batasuna ezin bestekoa du, elementu fonikoak aztertu eta erkatzeko. Sintagma luzeetan, berriz, aditzak, erakusleak eta hitzen ordena asko aldatzen dira, eta askotariko perpausak eta perpaus zatiak jasotzen dira, eta orduan, erantzunen balioa ezabatua edo, gutxienez, hagitz murriztua gelditzen da fonetika azterketarako. Horregatik, esaldi luze banaka batzu baino ez dira sartu: gutxi baina ziurrak.

Antzeratsu gertatu zaigu, inoiz edo behin, lexema soilekin ere, eta horrelakoren batzu kendu beharrean ikusi gara. Arrazoiak, besteren artean, honako hauek lirateke:

. Erantzunak desberdinak ematen dituztelako. "Ispilu" edo "zekor" jaso nahi arren, (L), (BN), "miraila",(Z) "miaila", (B), (G) "txekor", (L) "zokor", (GN),(BN) "aretxi", jasotzen dira. "Eguzki" hitzaren kasuan, Zubereraz "ékhia" erantzuten dute, halere hitz horri eutsi egin zaio interesgarri gertatzen delako sortzen dituen aldakiak direla eta.

. Hitzaren erreferenteak ez direlako errezak mamitzen, esaterako, "berdin" edo "etsai" edo "sendo" lortzeko, eta horrelakotan ere erantzunak ez dira parekagarriak suertatzen.

. Sinonimoak ere gehiegi badira, galdera ez da ona izan ohi: "gaztanbera" jaso nahi bada, (GN), (L) "gaztanbera" edo "gaztanbra" ala "kallatua" jasoko dira, baina (G) "mamia", (B) "gatzatua", (Z) "zúnbea"; "atera" jaso nahi bada, (G) eta (BN)-rako balio du, baina (B) "urten" eta (Z) "élkhi" eta "khéntü".

. Erantzun berdinegiak ere ez du asko laguntzen beti: "-garren" ("bosgarrena"), "e" bokalaren sinkopa ("bosgarna") aztertzeko ipini zen, baina Goi-Nafarreran izan ezik ez du probetxurik izan. Halere, beste kasu batzutan, erantzuna bera izan arren euskalki denetan, adibidea edo galdera gorde egin da fenomenoren batetarako ona zelako, hala nola "bai" hitzaren kasuan, diptongoa beti mantenitzen duelako.

. Nahi zen helburua betetzen ez dutelako: "arbi /erbi" bikotea, esaterako, "e" eta "a"-ren arteko oposizioa bilatzeko jarri zen, baina Bizkaieraz eta Zubereraz "nabua" esaten denez, bikoteak ez digu balio.

. Beste batzutan, galdekizuna luzeegia ez zedin gertatu fenomeno bat jasotzerakoan, lexema bakarrakin edo birekin, euskalki guztietan ongi bildua gelditzen bazen, nahiko zela erabaki genuen, alperrikako kasuak kanpoan utziz.

Esaterako, "gerri" kendu genuen "txerri" hitzak bere betekizunarekin kunplitzen duelako. Gainera, azken hitz honek badu, bokalismotik kanpo, kontsonantismoaren aldetik ere interesik, hitz hasierako xistukariaren, afrikari ala frikariaren ebakierarena, alegia.

. Beste kasuren batzutan lexema bera ezagutzen ez zutelako kendu behar izan dugu: "gaztelu"-ren kasuan, esaterako.

. Erreferente baterako erantzun bat baino geiago gertatu ohi dira balio semantikoa ez delako berdina izaten zenbait baldintzen arauera: "mendi"/ "baso"/ "oihan" eta besterik ere gerta daiteke hurbil / urrutitasunaren edo tamainoaren arauera.

. Bokalen armonia kanpo-sandhietan, edo / eta tinbrearen aldaketak jasotzeko, "gauza haundia", "andre ederra" eta horrelakoak jarri genituen. Baina, forma mugagabea jasotzeko gauza bera hainbeste aldiz aurkitzen genuenez, erredundanteegi gerta ez zedin horrelakoak kentzea erabaki genuen.

. Lehen, bidenabar, morfo(fo)nologia aipatu da, eta, beharbada, erabat bazterturik utzi dela pentsatzeko bidea eman da. Ez eta gutxiagorik ere. Fonetika sintaktikoko gertaera orokorrak batu dira, hala nola, mugagabea, mugatu singularra eta plurala, inesiboa, adlatiboa, erregela fonetiko ziur batzuk jarraitzen dituztelako eta euskalkietan distribuzio berezi bat dutelako. Aditzaren morfologiaz ere jaso dira zenbait kasu, euskalkitik euskalkira hots nabarmenen bat dela bide bereizten direnak, alegia. (Besteak galdekizun morfologikoan bilduko dira).

. Azkenik, ezaugarri suprasegmentalez zerbait esan nahi dugu. Galdekizunean zenbait galdera prestatu nituen azentua eta entonazioa jasotzeko. Baina, oraindik lan hau hastapenetan dagoela konturatu gara , eta atlasean ez lukeela toki egoki eta ziurrik. Hirureun galdera horietan azentua denetan agertuko zaigu eta ondoriorik ateratzeko biderik emango duela uste dugu. Edonola ere, azentua eta doinua apropos jasotzeko biderik onena, berriro

esan, ez dugu uste atlasa denik. Horregatik, hori atlasetik at uztea hobe izanen dela pentsatu dugu.

. Azkenik, zera esan behar da: galdekizun biak, bai aurrekoa eta bai behin-betikoa, tesiaren zuzendariaz gain, Koldo Mitxelena Jaunak ere ikusi zituela eta bere erizpide eta oharrak kontutan hartu nituela. Azentoari buruz harturiko erabakia oso ona iruditu zitzaion, haren ustez azentoaren balioa lexemetan bakar bakarrik jaso bait daiteke. Forma mugatuetan, gainera, "etxea" bezalako formetan, eta ez "hiru etxe" gisako hitz andanetan, hauetan azentua aldatu egiten delako inguruko hitzen eraginez. Hiztunen kontzientzia ere, hitza ematerakoan, forma mugatuan oinarritzen da, eta alderdi horretatik ere badu interesik. Hori dela eta, azentua jasotzekotan, forma mugatuetan, eta horietan bakarrik, jaso beharko litzateke.

5.3. Galdekizun fonetikoa (bigarren saioa)

Arrazoi horien ondorioz honako galdekizun hau gelditu zaigu:

1. ikusi
2. irin
3. ukitu
4. urritza
5. iltze
6. ihizi
7. bazkari
8. bazkaldu
9. gizone(r)i
10. etxe
11. etxera
12. herri
13. harri
14. txerri
138. jaiki / -gi
139. irabazi
140. zenbat diru?
141. sagarrak dira
142. edo
143. bizi da
144. oilanda
145. gurasoak
146. gurdi
147. gabe
148. aldare
149. hemengo
150. kolko
151. hilgo

15. bele
16. eguzki
17. kerats
18. izter
19. eguerdi
20. gauerdi
21. elkar
22. erdoi
23. behor
24. honetan
25. katea
26. arratoi
27. gazta
28. zahar
29. ahate
30. ahari
31. nabala
32. beso
33. mogitu
34. arotza
35. aho
36. hondar
37. ontzi
38. ontz
39. bortz
40. zoratu
41. denbora
42. goroldio
43. katu
44. katakume
45. putzu
46. garizuma
47. guti
48. huntz
49. gorputz
50. ardo
51. berant

152. ez dut
153. ez gara
154. ez banaiz
155. aita
156. ttipi
157. ttentte
158. lodittu
159. ohe
160. ohetik
161. egin ditut
162. tu
163. -tto, -txo (amatxo)
164. hondo
165. hil da
166. ezin dut
167. txar
168. atzo
169. atso
170. oso
171. otso
172. txakur
173. txori
174. txotx
175. tximitxa
176. hotz
177. itxaso
178. martxo
179. itsu
180. autsiki
181. jauntzi
182. erantzi
183. intxaur
184. itsi - hertsi
185. beltza
186. bertso
187. sudurtzulo
188. haitzur

52. hauspo
53. gauza
54. gau
55. arraultza
56. ahul
57. euskara
58. euri
59. leun
60. egitai
61. naiz
62. Jainko
63. bezain
64. baino
65. bakoitz
66. zain (-a)
67. usain (-a)
68. artzain (-a)
69. aingeru
70. behi
71. eihar
72. eleiza
73. eleizara
74. hareitz
75. xaboi
76. arrazoi
77. goiz
78. goiza
79. oin
80. fruitu
81. asuin (-a)
82. suerte
83. kafia
84. aihen
85. leiho
86. oihal
87. eho
88. mahai
189. faltsu
190. feria
191. festa
192. afari
193. afaldu
194. nafarr(a), -tar
195. alfer
196. fiko
197. ferra
198. ifar
199. jakin
200. autsi
201. jo
202. jauna
203. jabe
204. jai
205. jende
206. (Ama) Birjina
207. ijitu
208. jikara
209. zait - jat
210. zaio - jako
211. sare
212. zare
213. zeru
214. zor
215. sorgin
216. zuri
217. aisa
218. esne
219. izan
220. zozpal
221. burtxintxa
222. esnatu
223. esan
224. merke
225. makila

89. zango
90. joan
91. hauek
92. hari
93. mahats
94. zahar
95. edan
96. jan
97. belarri
98. alaba (mugag.)
99. alaba (mugat. sing.)
100. alabak
101. dan / den
102. dala / dela
103. ke
104. kea
105. etxea
106. etxeak
107. etxean
108. deabru
109. herriak
110. herrira
111. herrian
112. herri bat
113. ogi
114. ogia
115. ogi bat
116. ikatz
117. bihar
118. bihotz
119. besoa
120. besoak
121. besoan
122. besora
123. zoaz
124. esku
125. eskua
226. makar
227. mospel
228. mezperak
229. hemen
230. atzamar
231. nahas
232. nabar
233. negal
234. nehor
235. enara
236. bedeinkatu
237. ukainka
238. egun
239. guraldi
240. ona
241. bana
242. nehon
243. keñu
244. burdiña
245. manteliña
246. luma
247. lahar
248. lasai
249. larru
250. bel(h)ar
251. el (h) ur
252. il(h)ar
253. zil(h)ar
254. il(h)argi
255. botila
256. oilar
257. iloba
258. bilatu
259. or(h)e
260. ura
261. er (h)aztun
262. perrexil

126. eskuak
127. eskura
128. eskuan
129. esku bat
130. bularra
131. barkatu
132. borru
133. ditare
134. (k)upel
135. (k)abia
136. (k)orapilo
137. (k)onddo
263. ateri
264. antzar
265. orio
266. ugalde
267. lupeko
268. aizkolari
269. hortik
270. horko
271. maitasuna
272. masustra
273. hartz
274. hertze

Oharra: 66, 67, 68, 81 galderak, bikoitzak dira. Hortaz, euskalki guztietan jaso behar den galdekizun nagusi honek, 278 hitz izango ditu.

Eraskinak

A - Iparralde guztian jasotzeko

A. 1. urthe
2. hurte
3. merkatu
4. merkhatu
5. oker
6. okher
7. lepho
8. sarthu
9. sorthu
10. agertu
11. ausartu
12. urkhatu
13. phika
14. mutu
15. mutatu
16. manhatu
17. senhar

B - Zubereraz eta Behe-Nafarreraz jasotzeko

B. 1. ẽhẽ
2. ehe
3. ãhãlke
4. hũn
5. hũ̃n
6. nun
7. nũ̃n
8. hurtze
9. hürtze
10. hur
11. hür
12. phezu
13. phezü
14. gahũ̃na
15. ütsü
16. txümür
17. urdazpi
18. urdin
19. hürko
20. kürlo
21. ürzo
22. bürdin
23. hũ̃nki
24. ünkhü
25. üngüria
26. urthuki
27. ehüle
28. ehün

5.4. GALDEKIZUN FONETIKOA (hirugarren saioa)

Galdekizuna gertatzerakoan orain arte eman diren urratsak zein izan diren ikusi dugu. Momentu honetan bigarrena lorturik dugu, euskalki guztietan jasotzekoa eta nahiko zehatza, gure ustez. Baina guk, gure xedeekin aurrera eginez, Nafarroa-ko hogei bat herritan bakarrik jaso behar dugu.

5.4.1. Prestaketaren azalpena

Kontutan harturik horretarako eman diren eritziak, galdekizuna berriro frogatu behar izaten da inkesta toki guztien ehuneko hamarrean, horrela galdekizuna frogatua eta behin-betirako finkatua gel dadin.

Gure kasuan, hogei bat herrik egiten dutenez eremu osoa, ehuneko hamarra bi herri dira. Hasieran hautatutako herrietatik honako hauek hautatu ditugu, oraindik aurre-inkesta den hau jasotzeko: Auza, Ultzama bailaran, eta Arraiotz, Baztango-an.

Bi herri hauen hautaketa, lehenengo inkesta Bortzirietako azpi-euskalkian, Bonaparte-ren sailkapenaren arauera, jaso zelako izan da batik-bat. Oraingoan, beste bi azpi-euskalki jaso nahi izan dugu: Ultzama-koa eta Baztan-goa, biak, zer esanik ez, Iparraldeko Goi-Nafarrerakoak.

Lekukoak honako hauek izan dira:
Francisco AIZPURUA DESCARGA. 64 urte, Auza-koa, Ultzama bailarakoa eta Ultzama-ko azpi-euskalkikoa. Eta
Juan AGERREBERE BERTIZ. 77 urte. Arraiotz-koa, Baztan bailarakoa eta Baztango azpi-euskalkikoa.
Inkestak 1984. urteko urtarrilan egin izan ziren.

Ultzama-ko lekukoari buruz esan nahi nuke, lexiko mailan gaztelaniaren eragin bortitza sumatu dudala: "sabaionak", "morak", "perak". Lekukoak argitzen zuen, berak ezagutu edo gorde arren hitz bat, esaterako: "igertua", "flore igertuek", jendeak galdua zuela. Hau euskararen egoeraren adibide bat besterik ez da.

Inkestak egin eta traskribatu ondoren, erkatu egin genituen eta galdekizuna aldatu puntu banaka batzutan, gutxitan. Aldatu ditudan puntuak azaldu aurretik, esan nahi nuke berriro ere, galdekizunaren helburu nagusia edo azkena euskalki guztietan jasogai izatea dela, eta horregatik hitzen batzu mantenitu egiten ditugula, Nafarroa-n edo Goi-Nafarreraz ez jasotzeko arriskurik baldin bada ere.

Zergatik? Uste dudalako hitz bat ez ezagutzeak edo esperoko litzatekeen maneraz ez esateak esanahi bat duela, sinale bat dela, hizkuntzalaritza mailan; eta Geografia linguistikoan ezberdintasun horiek dira,hain zuzen ere, erabili nahiz ez erabili, interesgarrienetakoak. (Aurreko galdekizuna, bigarrena, alegia, gertatu dugunean, puntu honetan zorrotzak izan gara, kasu hartan bene-

tako garrantzia zuelako batasuna lortzeak eta oraingoan ez zegoen horren beharrik).

Adibide batzurekin azalduko dugu hau. Esaterako "berant" hitza azken posizioan doan "u" bokalaren galera jasotzeko ipini zen, eta horrela jaso genuen Iparraldeko euskalkietan; Hegoadekoetan, berriz, "berandu". Baina, eratorrietan "berantetsi", "berantsi" Nafarroa-n. Honekin agertzen da "berant" Hegoaldean ere argigarri dela fenomenoaren isoglosa ezartzeko.

Leherkarietan albokarien ondoko leherkaria ahostun / ahoskabe egiten den ikusteko, besteren artean, "hilgo" ipini zen. Iparraldeko euskalkietan "hilen" jaso genuen, eta bai orain Auza-n eta Arraiotz-en ere. Halaz ere, "hilgo"-ri eutsi egiten diogu Goi-Nafarrerako beste toki batzutarako eta Gipuzkera eta Bizkaierarako balio duelako.

Gauza bera "txotxa" hitzarekin, Ultzama-n "sistrikek" eman badute ere; eta "enara", Arraiotz-en "azpixuri" jaso arren.

Berdin "emanen" hitzarekin, "emango" ibiltzen bait da zenbait tokitan baina sudurkarien disimilazioa ikusteko utzi da.

"Gurdi" hitzarekin "g- / b-"-ren arteko alternantzia ikus daiteke, "guraso"-rekin batera. Ez da toki guztietan erabiltzen, Iparraldean "orga", 'carro', adierazteko eta "gurdi", berriz, 'l'oreiller' bur-(u)di, kontrako prozesoa adierazten duelarik. Iparraldeko Goi-Nafarreraz: Baztan eta Ultzama-n: "karru",... Bestalde, "gurdi"-ren parean "gurdibide", "gurlanga", 'palos del carro' eta horrelakoak gelditu direnez jaso daitezke.

Kontutan hartu behar da fenomeno bakoitzerako hiruzpalau hitz daudela kasu gehienetan, ez gehiago, goian esan dugunagatik; horregatik, hitz bat edo beste tokiren baten ez azaltzea ez da izango kaltegarri, beste toki askotarako oso egokia bada.

Hitz batzu kendu egin ditugu: "oina", "zangoa" eta "hanka"ren artean bereizteko zail eta gogaikarri gertatzen delako.

Auza-koak, bestalde, ez zuen "oina" erabiltzen eta Arraiotz-koak ere gutxi. "Lukainka" ere kendu egin dugu, ez bait da erabiltzen. Eta gutxi gehiago.

Aldaketak ere egin dira: "usain"en tokian "ezpain" sartu dugu, esaterako, haren helburua honek ere berdin erdiesten duelako, eta "usain"-en ordez, berriz, "urriñe" jasotzen delako.

Hitz berriren bat ere sartu dugu, fenomenoren bat osatzeko edo hobeki osatzeko edo isoglosak finkatzeko, beti euskalki denak kontutan harturik, jakina.

Adibidez: lehenengo galdekizunetik [d'] hotsarekin ahoska zitekeen hitzen bat kendu genuen bigarrenean: "deus", "dastatu", "i(d)uki", ez genuelako espero genuena jaso eta geografikoki hedadura aski mugatua dutelako. Aldiz, hirugarren honetan "nor (h)aiz?" sartu dugu, arruntagoa eta ezagunagoa delako.

Xistukari frikarien disimilazioagatik gertatzen den galera ikusteko, bi hitz genituen: "zozpal" eta "burtxintx". Baina azken honek aldaki asko ditu: "katagorri" eta horrelakoak ere barrenean gertatzen direlarik. Erabaki genuen, bada, horren ordez "azkazal" hitza sartzea eragozpen gutxiago sortuko duelakotan.

Labur esanez, denetara, hamasei hitz berri sartu eta hamar kanpoan utzi genituen azken galdekizun honetan.

Galdekizuna, aldaketa hauekin, ia 300 hitzetakoa da, eta horri erantsi behar zaizkio lparralderako aparte jaso behar diren "ü" bokala, bokal sudurkariak, aspiraketa eta leherkari aspiratuak biltzeko. Hortaz, hirueunetik pasatzen da. Baina kontutan hartu behar da galderen kopurua dexente gehitzen dela, forma asko mugatuan eta mugagabean hartu behar direlako.

6. KANPO LANAREN AURKEZPENA

Lanaren helburuetariko bat eta nagusia galdekizun fonetikoa gertatzea zen, baina ez zen hori bakarrik bilatzen. Galdekizun hori probatu eta toki batzutan jaso ondoren, hurrengo pausu batetan datu horiek kartografiatzea ere helburuen artean zegoen. Azken finean, bilatzen zena zera zen, metodologia bat erakutsi eta bideak ireki. Eta toki batzutan egin dugu, ez bait du honelako lana pertsona batek bakarrik Euskal Herri osoan egiterik, epe finko batean behintzat. Horregatik lana mugatu beharrean aurkitu ginen.

Tokiari dagokionez, ni neu nafarra naizenez eta hango azpieuskalki eta aldakiak hobekien nireganatzen ditudanez, inkestak han jasotzea erabaki nuen. Hala eta guztiz ere, toki batzuk aukeratu behar ziren. Horretarako, Nafarroa-n euskaraz egiten den herriekin plangintza oso bat egin ondoren, zein herritan jaso beharko liratekeen inkestak hautatu eta gure lana non kokatu erabaki nituen.

Beste lurraldeetarako ez nuen horrelako azterketarik egin. Izan ere, Iparralderako eginik zegoen sailkapenak balio zuela iduritzen zitzaigun (1); Hegoalderako Yrizar-ek 1955-ean proposamena egin zuen (2). Geroztik, Euskaltzaindiko Dialektologia Batzordeak proposamen bat egin zuen. Garai hartan 175 tokitan egitea proposatu zen, distribuzio honekin: 51 toki Iparraldean; Bizkaia-n, Gipuzkoa-n eta Nafarroa-n 40 toki bakoitzean eta 4 / 5 Araba-n (3). Nolanahi ere, Euskaltzaindiak hautatuak ditu dagoeneko tokiak, eta inkesta linguistikoen lana aurrera darama.

6.1. Nafarroa-n euskaraz egiten den herrien zerrenda (4)

6.1.1. Lanaren metodologia

Herrien zerrenda egiteko Bonaparte-ren laugarren sailkape-

na darabilgu, eta horretara arrazoi metodologiko batek bultzatu gaitu. Ez du horrek Bonaparte-ren erizpideekin guztiz bat gatozenik esan nahi: hain zuzen ere, euskararen atlasa egiteko beharra, nolabait XIX.. mendeko erizpideetatik alde egin beharretik dator.

Ez dago ahazterik, halere, Bonaparte-ren sailkapenarekin mugitzen garela egun ere, oinarri-oinarrian behinik behin, eta euskararen egoera linguistikoa bera ere ez dela hainbeste aldatu. Horregatik ongi deritzat Bonaparte-ren sailkapena -azpi-euskalki eta aldakiz- hartzeari, horrela, metodologia mailan, komenigarri daitezkeen puntuak edo inkesta tokiak hautatzea errazago gertatuko delako.

Bonaparte-ren sailkapeneko azpi-euskalki eta aldakien izenek, adierazten dituzten baino lurralde haundiagoak hartzen dituztenez gero, azaldu beharreko zen, zehaztuz, zein eskualde edo haran hartzen dituzten. Hona, beraz, Bonaparte-ren sailkapenetik, euskalkien arauera euskaraz egiten den Nafarroa-ko herrien zerrenda, haranez-haran, eta lurraldearen hedadura eta biztanlegoa emanez (5):

Euskalkia - Azpi-euskalkia - Aldakia	Harana	Biztanlegoa
II- (G) 6. Nafarroakoa - Burunda: Ziordi		
Altsasu		
Bakaiku		
Iturmendi		
Olazti		
Urdiain		13.949
Lizarraga		
Dorrau	Ergoiena	
Unanu		
Etxarri-Aranatz: Etxarri-Aranatz		
III - Ip(GN) 7. Ultzamakoa - Lizaso: Eltzaburu		
Ilarregi		
Juarbe		

Auza		
Larraintzar		
Lizaso	Ultzama	1.609
Gerendiain		
Urrizola		
Elso		
Zenoz		
Iraizoz		
Alkoz		
Arraiz		
Arraras		
Beruete		
Igoa		
Orokieta		
Jaunsaras		
Itxaso	Basaburua	907
Garzaron	Haundia	
Erbiti		
Iaben		
Beramendi		
Udabe		
Burutain		
Esain		
Etulain		
Leazkue	Anue	521
Egozkue		
Olague		
Arizu		
Lanz		153
Urriza		
Latasa		
Goldaratz		
Eraso	Imotz	498
Zarranz		
Etxaleku		
Oskoz		
Muzkiz		

	Beunza		
	Berasain		
	Erize	Atez	243
	Arostegi		
	Eguaras		
	Ziganda		
	Denera:		3.931
8. Baztangoa - Elizondo:	Almandoz		
	Berroeta		
	Aniz	Hegoaldea	
	Ziga		
	Arraiotz		
	Lekarotz		
	Irurita		
	Garzain	Erdia	
	Elizondo		
	Elbetea		8.545
	Azpilikueta		
	Arizkun		
	Errazu	Ipar.	
	Amaiur hiribildua		
9. Bortzirietakoa - Bera:	Oronotz-Mugaire	Baztan	
	Bera		
	Etxalar		
	Igantzi	Bortzirieta	8.379
	Lesaka		
	Arantza		
	Oieregi		
	Narbarte	Bertizarana	
	Legasa		
	Donamaria		
	Elgorriaga		
	Ituren		
	Oiz		

		Lerin-go	
	Doneztebe	Doneztebe	4.046
	Sunbilla	(Gaur desagertua)	
	Urroz		
	Zubieta		
	Erasun		
	Saldias	Basaburua	
	Ezkurra	Txikia	1.578
	Labaien	(Gaur desagertua)	
10 Araizkoa - Intza:	Arribas		
	Atallo		
	Gainza	Araiz	893
	Inza		
	Azkarate		
	Uztegi		
	Betelu		359
	Leiza		
	Areso	Leizaran	3.472
	Gorriti		
	Huitzi		
	Azpiroz		
	Albiasu	Larraun	950
	Errazkin		
	Baraibar		
	Denera:		5.674
11 Arakilgoa - Huarte-	Arbizu		
	Arakil	Lakuntza	
	Arruatzu	Sakana	2.982
	Irañeta		
	Huarte-Arakil		
	Etxarri		
	Aldaz		
	Lekunberri		

	Mugiro	Larraun	1.186
	Iribas		
	Alli		
	Arruiz		
	Astiz		
	Oderiz		
	Madoz		
12 Gipuzkoakoa - Irun:	Goizueta	Urumea	1.479
	Arano		
IV - Heg (GN)			
13 Ekialdekoa-Erroibar:	Zilbeti		
	Aurizperri		
	Bizkarret		
	Mezkiritz		
	Erro		
	Linzoain	Erroibar	1.031
	Esnoz		
	Olondriz		
	Loizu		
	Ainzin		
	Ardaitz		
	Iragi		
	Usetxi		
	Leranoz		
	Eugi		
	Urtasun		
	Agorreta	Esteribar	
	Zubiri		
	Osteriz		
	Ilarraz		
	Inbuluzketa		
	Auritz		345
Artzibar:	Lusarreta		

	Arrieta		
	Saragueta	Artzibar	247
	Imizkoz		
	Espoz		
	Gorraiz		
	Lakalle		
Olaibar:	Zandio		
	Osakain		
	Anoz		
	Latasa		
	Uriz	Olaibar	153
	labar		
	Aginaga		
	Ollakarizketa		
	Beorburu		
	Gelbenzu		
	Gendulain		
	Ripa	Odieta	315
	Gascue		
	Ziaurritz		
	Anotzibar		

Oharra

Heg (GN) euskalkitik Ekialdeko azpieuskalkia sartu dugu zerrenda honetan, alabaina, euskaldunak direnik ezin daiteke esan. Oso testimoniala gertatzen da euskararen presentzia bailara gehienetan, batzutan batere gelditzen ez delarik. Horrela, Artzibar eta Odieta haranetan euskara erabat galdurik dago eta Olaibar-en zaharren batzuk besterik ez dira gelditzen, eta horiek ez dira euskaraz elkarrizketa bat mantenitzeko adina. Esteribar-en gelditzen zaizkigu benetako herri euskaldunak eta Erroibar-en zer edo zer agertzen da, esaterako Mezkiritz-en, baina ez besterik.

Badira beste bi bailara sailkapen hauetan agertu ez direnak eta euskaldunak, edo nahiko euskaldun direnak: Aezkoa eta Zaraitzu. Lehenengoa, eta beti Bonaparte-ren sailkapenarekin jarraituz, Mendebaldeko Behe-Nafarreran eta bestea, berriz, Ekialdeko Behe-Nafarreran kokatzen direlarik euskalkien

aldetik. Horiek ere kontutan hartu behar dira tokien hautaketa egiterakoan. Urdazubi eta Zugarramurdi udalerriak ere kanpoan gelditzen dira, Lapurtera euskalkiaren barruan kokatuak daudelako.

6.1.2. Inkesta tokien proposamena. Arrazoiak.

Nafarroa-rako egin dugun antolaketan lehen aipaturiko banaketari jarraitu diogu, hau da, Euskaltzaindiak proposaturiko 175 tokitakoari. Kopuru hori egokia iduritzen zaigu kontutan hartzen baldin badugu inguruetako atlasak ere horrelako kopuruez mugitzen direla:

ALEANR: 135 toki
ALEG: 163
ALEA: 230
ALEICAN: 51
ALPI: 528

Euskal Herri osorako gure proposamena 176 tokikoa litzateke, Nafarroa-ri leku bat gehitzen zaiolarik.

Beste atlasekin erkatuz, ikusten den bezala, tokien aldetik, berdintsu jokatzen da. ALEA-k gehiago hartzen ditu, baina lurraldea ere haundiagoa du. ALPI Penintsula guztirako pentsatua zegoen, eta gainera, ordutik gerra aurretik bildu zen materiala-, dialektologiaren erizpide eta helburuak ere aldatu egin dira.

Lurraldearen hedadura eta biztanlegoaren arauera, eta 41 puntu proposatzen ditudala Nafarroa-rako kontutan hartuz, batezebestekoa hauxe litzateke: puntu bat 1.459 biztanleko eta 6.574 ha. do 65'74 km²-tarako.

Zabaltzen den sareak nahiko hertsia, trinkoa eta egokia dirudi ALPI-rekin erkatzen badugu, adibide baterako. ALPI-k honako kopuruok aurkezten dizkigu: toki bat 1.115 km²-tarako eta 67.819 biztanleetarako. (ALPI hartu dugu erkatzeko, bera bait da, azaldu ditudan atlasetatik, toki gehien dituena).

Bestalde, hartaratu behar gara, Nafarroako eremua askoz txikiagoa dela eta hiribururik ez dela sartzen. Honekin biztanlegoa ere asko murrizten da.

Tokiak aukeratzeko dialektologian jarraitzen diren erizpideak izan ditugu aurrean:

a) Euskara galduta dagoen tokitik at, badira beste toki batzu, goian aipatutakoak, euskara erdi hilik dutenak. Adineko pertsonengan gordetzen da, baina horiek ere gaizki eusten diote, eta komunikazioan gaztelera erabiltzen dute beti. Jaso dudan esperientziak zera erakutsi dit: atlas bateko lekukoak izateko ere ez direla gai. Horregatik, toki horiek gaitzetsi egin ditut: Artzibar, Olaibar..., Hegoaldeko Goi-Nafarreran, jakina.

b) Herri haundiak edo haundixkoak ere, erdaldunak edo gaztelera erabat sartua dutenak -Lekunberri, Irurtzun, Elizondo...-, kanpoan utzi ditugu. Ogibide bezala baserrilana, nagusiki, duten herriak nahiago izan ditugu, horietan euskara hobeki gordetzen delako.

Era berean, badira toki batzu, gaztelera oso sartua duten arren, hartu beharrezko direnak, euskara berezia dutelako eta -larregi ez bada ere- oraindik bizirik irauten duelako. Aezkoa eta Zaraitzu bailaraz ari gara. Horietan, euskara biziago duen tokia aukeratu dugu: Iriberri, esaterako, hobe dela uste dugu, Abaurrea baino.

c) Euskal dialektologia mailan tradizio esanguratsua duten tokiak ere jaso dira. Tradizioarekin hauxe adierazi nahi da: herri horretako hizkerak aldaki bat ongi agertzen duela edo maiz ekarri izan dela on eta garbia bezala. Esaterako: Oskoz edo Goizueta.

d) Errepidetik aldentzen diren herriak eta gune geografiko-komertzialak -merkatuekin eta abar- ez direnak nahiago izan ditugu. Hauetan ere euskara hobeki eta kutsadura gutxiagorekin gorde izan delako, edo horrela esan ohi delako.

e) Kasu batzutan, herri bateko hizkera ez da herri hori kokatzen den haranekoa, ezberdina baizik. Horiek ere hartu izan ditut: Oronotz-Mugaire, Sunbilla... Era berean, haran batek bi hizkera modu baditu, bakoitzetik toki bat hartu dut. Esate baterako, Ultzama-ko azpi-euskalkian, Basaburua Haundia-n, Arraras eta Beramendi.

f) Azkenik, hautatu ditudan tokiak ez dute betikotasuna bilatu. Behin-behingoak dira, eta esperientziak, aurre-inkestak edo errealitate linguistikoak berak besterik eskatuko balu alda daitezkeenak.

Inkesta tokien PROPOSAMENA

EUSKALKIA	AZPI-EUSKALKIA	ALDAKIA	HARANA	TOKIA
II (G)	6 Nafarroakoa	Burunda	=	1 Unanua
				2 Urdiain
		Etxarri-Aranatz	=	3 Etxarri-Aranatz
III lp (GN)	7 Ultzamakoa	Lizaso	Ultzama	4 Auza
				5 Larrainzar
			Basabur. H.	6 Arraras
				7 Beramendi
			Anue	8 Leazkue
			Imotz	9 Goldaratz
			Atez	10 Beunza
	8 Baztangoa	Elizondo	Baztan	11 Aniz
				12 Arraiotz
				13 Gartzain
				14 Amaiur
	9 Bortzirietakoa	Bera	Baztan	15 Oronotz-Mugaire
			Bortzir.	16 Etxalar
				17 Arantza
			Bertizar.	18 Oieregi
			Leringo	19 Donamaria
			Doneztebe	20 Sunbilla
				21 Ituren
			Basabur.Tx.	22 Erasun

	10 Araizkoa	Araiz	=	23 Arribas
				24 Gainza
			Betelu	25 Betelu
			Leizaran	26 Leiza
			Larraun	27 Gorriti
				28 Errazkin
	11 Arakilgoa	Huart. Arak.	Sakana	29 Irañeta
				30 Arbizu
			Larraun	31 Aldaz
				32 Astiz
	12 Gipuzkoakoa	Irun	Urumea	33 Goizueta
IV Heg(GN)	13 Ekialdekoa	Erroibar	Erroibar	34 Mezkiritz
			Esteribar	35 Iragi
			Odieta	36 Anozibar
V (L)	16 Bertakoa	-	-	37 Zugarramurdi
VII Ek(BN)	22 Zaraitzukoa	Zaraitzu	Zaraitzu	38 Esparza
VIII Mend(BN)	23 Baigorrikoa	Baigorri	=	39 Luzaide
	25 Aezkera	Aezkoa	Aezkoa	40 Aria
				41 Iriberri

(Oharra: Inkestak egiteko tokien proposamena eta horrek euskalkien sailkapenarekin duen zerikusia hobeki ager daitezen, ikus atzean datozen mapak (6).)

6.1.3. Lan honetarako hautatu diren tokiak

Goian esan den bezala, Nafarroa-ko zenbait leku hartu nahi genituen galdekizuna probatzeko eta atlasgintzaren metodologia zabaltzeko. Tokiak hautatzerakoan, bada, mugatu beharra garbi



YRIZAR (1981)-tik hartua.

YRIZAR (1981)- tik hartua.



YRIRAZ (1981)- tik hartua.



Mapa 14.—Dialecto guipuzcoano. Límite de subdialectos y variedades, con indicación del número de vascófonos correspondientes a cada una de estas en 1970-72.

YRIRAZ (1981)- tik hartua.

ikusi genuen. Hogei bat herrirena kopuru egokia iduritu zitzaigun gure xedeak betetzeko. Bestalde, aldakien eta azpi-euskalkien aldetik barietate bat baino gehiago bilatzea mesedegarria gerta zitekeela uste genuen, datuak erkatzerakoan ondorio aberatsagoak eta interesgarriagoak jasotzeko. Horregatik, bi euskalki hartu ditugu, bata, eta nagusia, Iparraldeko Goi-Nafarrera, eta Lapurtera, bestea. Lehenengo euskalkiaren lau azpi-euskalki jasotzen dira eta bat Lapurterarena, eskema honen arauera:

Euskalkia	Azpi-euskalkia	Aldakia	Harana	Tokia
III Ip(GN)	7 Ultzamakoa	Lizaso	Ultzama	Auza
				Larrainzar
			Basbur. H.	Arraras
				Beramendi
			Imotz	Goldaratz
			Atez	Beunza
	8 Baztangoa	Elizondo	Baztan	Aniz
				Amaiur
				Gartzain
				Arraiotz
	9 Bortzir.	Bera	Baztan	Oronotz-Mugaire
			Bortzir.	Arantza
				Etxalar
			Bertizar.	Oieregi
			Leringo	Donamaria
			Doneztebe	Sunbilla
				Ituren
			Basabur. Tx.	Erasun
	11 Arakilgoa	Huarte Arak.	Larraun	Aldatz
V (L)	16 Bertakoa	-	-	Zugarramurdi

(Ikus: 6. 5. 2. atalean ezartzen diren mapak)

6.1.4. Ikertutako eskualdearen deskribapen geografikoa

Nafarroa morfologia eta klimazko alde haundiak dituen lurraldea da, eta bi alderdi edo eskualdetan zatitzen da: bata hezea eta bestea idorra. Zatiketa hau Pirinio-en eta Ebro Arroaren artean kokatua aurkitzearen ondorioa da. Banaketa honek baditu bere ohizko izenak, eskualde hezea "Mendia" da (La Montaña) eta bestea "Erribera" (La Ribera), eta bien artean "Nafarroa Erdialdekoa" dago (La Navarra Media) dago. Azken hau beste bien artean gertatzen den iragan-gunea da. "Mendia" bera ere, geografiaren aldetik, ez da dena bat, hiru eskualde desberdin bereizi daitezkeelarik: Pirinio zeharkako ibarrak; Ipar-Mendebal hezea eta Piriniotako ibarrak.

Guk ikertu dugun eskualdea Ipar-Mendebal hezea da (7). Nafarroa-k dituen 10.421 km²-tatik, Ipar-Mendebal-eko Nafarroa hezeak 2023'20 km² hartzen ditu, hots, Nafarroa osoaren % 16'4. Demarkazio honek bailara hauek hartzen ditu: Burunda, Sakana, Ergoiena, Larraun, Basaburua Haundia, Ultzama, Anue, Imotz, Atez, Odieta, Baztan, Bertizarana, Leizaran, Urumea, Bortzirieta, Araxes, Lerin-go Doneztebe eta Basaburua Txikia (8).

Esan bezala, Ipar-Mendebal hezean kokatzen dira ikertu ditugun tokiak. Lehen eman dugu zerrenda -ikus 6.1.3.-, bakoitza bere bailaran ezarriz.

Nafarroa hezearen mugak historikoak eta betitik onartuak dira eta gai honen inguruan ibili diren autore denek ere horrela onartu izan dituztenak (9). Lerro mugikor samar bat ikusten da muga bezala Europa-rekin Iparraldetik, lerro horren barnean Bortuz Bertzaldeko Merindadea ere sartuko litzatekeelarik. Merindade horrekin ezartzen diren mugak administraritzakoak dira, noski, egitura fisiko eta linguistikoaren eta kultur ezaugarrien aldetik idekotasuna osoa izan delako orohar eta betitik, aspaldiko Estrabon eta Ptolomeo geografo greziarrek ere beren garaian agertu zutenez.

Eleiz-ikuspuntutik, XVI. mendeko erdialderarte, guk aztertu

ditugun eskualde horretako tokirik gehientsuenak Baiona-ko Eliz-Barrutikoak ziren (10). Honela izan zen aurreko lau mende luzeetan, 1566-ko apirilaren 30-eko Bularen bitartez Iruñe-ko Eliz-Barrutira pasa ziren arte (11). Nafarroa hezeko eskualdeak ozeano eragineko klima biguna du; Nafarroa-ko lurralderik euritsuena da, Imotz eta Atez-eko bailaretatik hasita, 800 mm-tako euriekin, asko gehitzen dira Iparralderuntz, 1.500 mm-ak gainditzeraino, Bortzirieta Euskal Herriko tokirik euritsuena delarik. Klimaren eragina funtsezkoa da, ezinbertzez, landaretzan eta bizitza moduan, egitura ekonomiko bereziak sortuz, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Uren isuria ez da bera bailara denetan. Isuri Kantabrikoa (12) Bortzirieta, Doneztebe, Bertizarana, Baztan eta Basaburua Txikia bailarek dute. Bortzirieta-ko mazizoak garrantzi haundia du, Bidasoa ibaiaren ibilbidea bideratzen bait du Baztan-go eta Doneztebe-ko bailaretan zehar, Ekialde-Mendebalde norabidea Hegoalde-Iparralde norabidera aldatuz. Mazizo horrek gainera "hace de nudo de dispersión de aguas puesto que en él tienen su nacimiento los ríos Urumea y Leizarán. Por último, sirve de vertiente al río Ezcurra -tributario del Bidasoa- que corre al pie de este mazizo y entre él y las montañas de la divisoria." TORRES LUNA (1971,13)

Urak Mediterraneo-ra isurtzen dituzte, Ebro hibaiaren bitartez, Larraun, Basaburua Haundia, Imotz, Atez eta Ultzama-ko bailarek.

Kanpoan gelditzen da Zugarramurdi, Olabidea errekastoak Sarrakaria (Nivelle) hibaira eramaten bait ditu urak Sara-ko lautadan zehar.

Bailara hauetan hagitz ugariak dira pagoak eta haritzak eta honek oihan-hustiapena sortu du, baina ez oso haundia.

Nekazaritza mendikoa eta abeltzantzan oinarritzen dena da. Azpimarratzekoa da abeltzantzarako belagiei eskeintzen zaizkien eremu zabalak, batez ere behi-abereentzat direnak; hori Euskal

Herrian oso usatua den askotariko lurgintzarekin -artoa, mailarrak, arbia,...- batera doa.

Nafarroa osoan eskualde hau da gutxien landua, GAVIRIA (1978,123), landutako lurrak ibar barrenekoak eta higaduraz sorturiko batzu baizik ez bait dira.

Nekazariak lurgintzarako izan duen jokabidea edo erizpidea norberaren mantenuarena izan da, bizitzeko beharrezko duena ekoiztera begiratuz, lurraren erabilera eta hustiaketa gehiegizkoa izateraino iritsi delarik.

Gainerako beharrak abeltzantzak bete ditu: usatuenak behiak, ardiak eta txerriak izan dira.

Nekarazarien jokabide autarkiko hori aldatuz doa azkenaldiko hamarkadetan, ohizko lurgintza baztertu eta bazka eta larretarako erabiliz lurrik gehienak; gure ikerketako bailaretan lur landuetatik % 90 belagi eta larretarakoak dira, ZENBAITEK (1980,144).

Honek berez ekarri du hustiapen egituren aldaketa eta hazkuntza tekniken modernizatzea, makineria sartuz.

Eskualde hau "Baserrien Nafarroa" bezala ere hartua izan da, eta bi populamendu motatan sakabanatua dager:

> *"La casa aislada en medio de prados, campos, bosques y matorrales, y el pequeño grupo de casas cercanas entre sí." FLORISTAN (1986,94)*

Baserriaren inguruan kokatu eta banatu ohi ziren lurrak eta hazkuntzak, baserriko premien eta eginbeharren arauera. Etxebizitzatik hurbileneko lurretan baratzeak ezartzen ziren; gero zetozen alor landuak eta, azkenik, urrutiago, belagiak.

Ohizko egituraketa hau desegokia bihurtu da egungo bizimoduarekin. Bizimodu hiritar-industrialak eta esnearen eta behiharagiaren eskaritza haundikorrak, hirien haunditzea dela eta bati-

pat, aldaketak ekarri dituzte ekoizpenean eta hazkuntzan (13). Dena dela, hirien haunditzea herrien bizkarretik eta herrien kaltetan gertatu da, hauen biztanlegoa aunitz urritu delarik.

Biztanlegoaren murrizketa azken mende osokoa da. Lehenbizi emigrazio haundia izan delako Europa-ra eta, batez ere, Amerika-ra; azken urteotan, berriz, hiriburura. Halere, gure eskualdeko hirigune nagusienetan industrigintza gehitu denez gero, biztanlegoa ere haunditu egin da apur bat, hala nola Leitza-n, Doneztebe-n, Lesaka-n eta abar.

Nolanahi ere, egoera zinez da kezkagarria, aztertu ditugun bailaretan biztanlegoa erdira murriztua gelditu bait da 1960-1981 urteen epean.

Arazoa, bestalde, makurtu egiten da zahartzaroaren indizea kontutan hartzen bada, biztanlegoaren % 15-16-ra iristen delako batez-beste, eta bailara batzutan % 25-era.

Imotz, Basaburua Haundia, Atez eta Ultzama-ko bailarei buruz LOPEZ ASENSIO-k (1987,24) zera dio:

> *"El riesgo de despoblamiento es por tanto real, ya que de continuar la actual situación puede alcanzarse un despoblamiento generalizado en un plazo medio de 15 a 20 años, con la consiguiente muerte social del territorio."*

Gure lanari dagokionez, bestalde, interesgarriak dira bailara hauetako jendeek egun sinalatuetan dituzten sal-erosketa tokiak. Feria eta merkatu egunez ari gara, noski. Feriak urtean behin edo birritan baizik ez dira izaten eta aski berariak izan ohi dira, nahiz salmenten haundiagatik, nahiz eskeintzen diren salgaiakatik, laborantzako tresneria eta makineria ere izaten delarik. Merkatuak, aldiz, asterokoak edo hilerokoak izan ohi dira, eta hauetan baserrietako ekoizpenak eskeintzen dira. Merkatuetara inguru hurbileko jendeak joaten dira; ferietara, berriz, eskualdetik eta lurralde osotik ere joan ohi dira.

Merkatu toki ezagunak dira Lesaka eta Doneztebe hamabostero; eta Elizondo eta Irurtzun astero. Lurraldetik at ere badira eskualde hauetako jendeentzat erakarri haundiko beste merkatu batzu:

> *"El primer escape extraprovincial lo dan al norte los pueblos de la que podríamos llamar Navarra cantábrica: Irún, San Sebastián, Hernani y Tolosa recogen la actividad de los vecinos lugares de Navarra" CASAS TORRES - ABASCAL GARAYOA (1948,27).*

Gipuzkoa-ko toki hauek inoiz ferien maila ere lortzen dute, esaterako Tolosa-koak, eta aztertzen ari garen Nafarroa-ko bailara eta herrietako jende ugari erakartzen dute eta beste tokiek baino gehiago.

Nafarroa-koei dagokienez, Irurtzun-go merkatuek eta feriek dute erakarririk haundiena. Bestalde, Irurtzun oso lagundua izan da ibilbideen garapenarekin, gurutzagune gertatu bait da.

Trenbideak eta autoak erabateko eragina izan dute usarioen aldaketan, mugikortasuna asko gehituz. Halaz ere, azken lustroetako aldaketak direnez, ez dugu uste eragin haundirik izan dutenik tokian tokiko hizketaren egituran.

Harreman hauetatik ere kanpoan gelditzen da Zugarramurdi, merkataritza harremanak Sara-rekin izan dituelako batipat; eta Etxalar-ek ere, Iparraldearekin mugaz-muga, adiskidetza eta lotura haundia izan du Sara-rekin aspalditik, merkataritzan ezezik baita uren eta belarren partzuergoan ere nork bere aziendentzat.

Ibilbideei dagokienez, Larraun, Imotz eta, gutxiago bada ere, Basaburua Haundia dira Tolosa-rako eta Donostia-rako iraganbide gertatu direnak. Gainerako bailarek ez dute hainbesteko menpetasunik jasan, baina Ultzama-koak eta Atez-ekoak, agian Iruñea-kin duten hurbiltasunagatik, euskaldungoaren batez-bestekoa urritua ikusi dute, bailada hauetan, hizkuntza kinka larrian dagoelarik.

OHARRAK

(1) LAFON-ek 1955. urtean proposamen bat egiten du Iparralderako inkesta tokiak aukeratuz. "En vue d'une enquête linguistique sur les parles basques de France", **BRSVAP**, XII (1956), 1-8. or.

Ikus gai honi buruz GAVEL-en (1957) eritzia ere.

(2) YRIZAR (1956): "Sobre la exploración lingüística del País Vasco", **BRSVAP**, XI, 375-385. or. Baita bizkaierari buruz egiten duena ere boletin berean XII. alean, (1956), 35-38. or.

Era berean ikus IRIGARAY, A. (1957): "Observaciones al artículo de Pedro de Yrizar "Sobre la exploración lingüística del País Vasco", **BRSVAP** XIII, 247-249. or.

(3) Donaixti-Ibarren, 1982, Apirilaren, 16 eta 17-an.

(4) Euskararen egoeraz Nafarroa-n argitaratu diren lanak nahiko ugariak izan dira. Joan zen mendeko Bonaparte-tik hasita, gaur arte, etengabeko galeren, garaien arauera, kontu ematen duen idazle bakoitzak kronista bat dirudi, hain da begi bistakoa bilakabidea. Nagusienak baizik ez ditugu aipatuko, eta horien artean, A Irigaray (Apat-Echebarne izen ordez, maiz), klasikoa bihurtu dena euskararen gibeleratzeaz Nafarroa-n. Lan asko ditu, eta hemen nolabait ere horien mamia biltzen duena bakarrik ekarriko dugu: APAT-ECHEBARNE, A. (1974): **Una geografía diacrónica del euskara en Navarra**, Diario de Navarra 10, Pamplona, eta autore berarenak, (1935): "Documentos para la Geografía lingüística de Navarra", **RIEV** XVI, 601-623. or., eta lan bera (1960): **Geografía Histórica de la Lengua Vasca** liburuan, Auñamendi, San Sebastian ; eta (1956) "Noticia del estado lingüístico de Navarra en 1935", **Euskera** I, 41-46.or. YRIZAR, P. (1973): Los dialectos y variedades de la lengua vasca (Variedades desaparecidas y variedades amenazadas de rápida extinción. Su evolución en el transcurso de un siglo", **ASJU** VII, 3-36. or. SANCHEZ CARRION, J. M. (1972): **El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970)**, Príncipe de Viana, Pamplona. Eskualde baterako bakarrik balio badu ere, autore berak du (1981): "La Navarra Cantábrica (Malda-Erreka)". Estudio antropolingüístico de una comunidad euskaldun", **FLV** 37, 19-97. or. eta ETXAIDE, A. Mª (1966): "Regresión del vascuence en el Valle de Esteribar", **Problemas de la historia y de la etnología vascas**, Príncipe de Viana, Pamplona, 257-259. or.; E. ELGOIBAR, B. ZUBIZARRETA, I. GAMINDE (1987): Euskararen galera Nafarroan (1587-1984), Pamiela, Iruñea.

(5) Guk ematen ditugun datuak bizianlegoaren zentsokoak dira, 1975. urteko zentsokoak. ARDAIZ, J.(1980): **Navarra elementos para su estudio regional**, Eusko Ikaskuntza, Navarra, liburutik jasoak.

(6) (1980): **Contribución a la dialectología de la lengua vasca** I, San Sebastian, (2 ale).

(7) "Ipar-Mendebal hezea" edo "Ipar-Mendebaleko Nafarroa hezea" izena hainbat ikertzailek onartu eta erabiltzen zuen, hala nola Floristán-ek, Mensua-k, baina espreski erabili izan duena TORRES LUNA (1971) izan da, bailarak eta herriak zehaztuz.

(8) Lerin-go Doneztebe eta Basaburua Txikia egun desagertuak dira. Horietako hainbat herri, batez ere Doneztebe-koak, Malda-Erreka izenarekin ofizialtasunik gabe- ezagutua den bailaran sartzen dira.

(9) Esaterako, LEFEBVRE, Th. (1933): **Les modes de vie dans les Pyrénnées Atlantiques orientales,** Paris. LAMARE (1952): "La structure géologique des Pyrénnées basques", **Actas del 1er. Congreso Internacional de Estudios Pirenaicos,** II, Zaragoza, 1-44. or. SERMET, J. (1957-58): "Le problème de le limite géographique occidentale des Pyrénnées", **Memoires de l'Académie des Sciences, Inscriptions et Belles-Lettres de Toulouse,** IX, 99-144. or.

(10) Zelestino II-ren Preskriptoaren arauera Baiona-ko Eliz-Barrutiak euskualde hauek hartzen zituen, CARO BAROJA-k dioenez (1932,12):

> "Vallem que dicitur Laburdi. Vallem que dicitur Arberoa. Vallem que dicitur Orsais. Vallem que dicitur Cizia. Vallem que dicitur Baigur. Vallem que dicitur Bastan. Vallem que dicitur Lerin. Vallem que dicitur Lesseca. Vallem que dicitur Otarzu, usque ad Sanctum Sebastianum."

Mugetarako ikus, baita ere, UBIETO, A.: (1953, 92-93) eta LACARRA (1949, 421-425).

(11) Honela jasotzen du HARISTOY M.-k, **Le Pays Basque,** II alea, 125. or.

(12) Gure ikerketako bailaretara mugatzen gara.

(13) Nafarroa, urte gutxiren buruan, industria-aurreko koordenada sozioekonomikotan sartua zegoen lurralde bat izatetik, egoera industrial garbira igaro da, aurreko egoera edo aroko hainbat ezaugarrik oraindik irauten badu ere. Esaten den honen froga ona da nekazaritza lanetan ihardun zuen biztanlegoak izan duen beherakada azken hogeitabost urteotan, 81.304 pertsonatik 30.303-ra jeitsiz. I. ARDAIZ (1980,13)

6.2. LEKUKOEN HAUTAKETA

Zein garrantzitsua den lekukoen hautaketa denok dakigun gauza da, beren esku bait daude lanean agertuko diren emaitzak. Begi bistakoa denez, inork ez du zalantzatan jartzen hau. Bestalde, Edmont ALF-erako datuak jasotzen hasi zenetik herriz herri, leku bakoitzean informatzaile bat bilatuz, gaur arte gauzak franko aldatu dira. Egun, lekukoaren "fitxa" osoa egiten du zenbaitek, herrietatik hasiz: gurasoen eta aiton-amonen jaiotze lekuak, ikasketak, ogibidea, erabiltzen dituzten edo dakizkiten hizkuntzak eta abar luzea lekukoaren datu guztiak jasotzeko "curriculum vitae" osoa eta zehatza eginez.

Gu, egia esan, ez gara hain zehatzak izan; izan ere, Euskal Herriko euskaldunen jendeen gorabeherak aski berdintsuak bait dira; horregatik, zaindu ditugun arloak eta gure ustez garrantzitsuenak, honako hauek izan dira.

6.2.1. Lekuko mota

6.2.1.1. Adina

Betitik esan izan da lekuko zaharrak, adin askokoak, onenak direla horrelako lan motak egiteko. Horrela izango denik ez dugu ukatzen, euskararik garbiena eta jatorrena, gehienbat haiek gordetzen dutelako. Alabaina, gure lanerako ez dira egokienak, arlo fonikoa jasotzen bait dugu. Lekuko zaharregiak ahotsa ez dute hain tinkoa, eta ahoskera bera ere moteltzen hasia izan ohi dute. Salbuespenak salbuespen -oso adinekoak ere baditugu, izan ere ez baita euskalkun gazteagorik gelditu ere egiten herri batzutan-, berrogeitamar- hirurogei urteetakoak hartu izan ditugu batipat.

6.2.1.2. Sexoa

Jasotzen genuen informaziotik parte batek analisi akustikotarako balio behar zuela, eta analisi mota horretarako gizonen ahotsa egokiagoa dela kontutan harturik, nahiko baldintzaturik ikusi genuen gure burua gizonezkoak hartzera. Halere andrazkoekin ere egin dira zenbait inkesta. inkesta batzu egin direlarik.

6.2.1.3. Beste zehaztasun batzu

Lekukoa hautatzerakoan non jaioa zen hartu dugu kontutan, jakina, baina horrekin batera, eta ahal zen neurrian, herrian bertan bizi izandakoa izatea ere bai. Gurasoak ere biak herri bertakoak edo oso ingurukoak izatea, eta gauza bera lekukoaren ezkontidearekin.

Ikasketen aldetik, zoritxarrez esango genuke, ez da zaila izan euskaran alfabetatu gabeak eta euskaraz ikasketak egin gabeak aurkitzea. Zailagoa da, gaur egun, euskal irrati-telebistak entzun gabekoak aurkitzea, baina horien eragina, azken urteotako kontua denez, aski urria izanen zela pertsona helduengan ziur gaude.

Azkenik, eta lanbidearen aldetik, inkestatu ditugun herriak baserri girokoak direnez, lekukotarako nekazariak bilatzen ahalegindu gara edo, behinik-behin, fabrikara joaten ez zirenak; horrela, baditugu arotzak, harakinak, saltzaileak, etxeko-andreak, baina edozein modutan ere denak baserritarrak. Kasu guztietan zera bilatu dugu: hizkera izan zezatela ahalik eta gutxien kutsatua.

6.2.2. Lekukoen kopurua

Gure lana fonetikara mugatu arren ez da lan monografikoa, atlasarako ekarpen gisa egina baizik. Horregatik, tradizioari lotuz,

lekuko bat hartu genuen puntu bakoitzerako. Badakigu horren fidagarritasun estadistiko eta soziologikoak ez direla behar adinakoak, halere atlas bati ez zaizkio ez bata eta ez bestea eskatzen. ez bestea ere, ez dira atlas bati eskatzen zaizkion baldintzak.

Alabaina, lekuko bakarra eskastxo eta inoiz murritzegi ere gelditzen zitzaigunez, bigarren inkesta bat egin genuen toki guztietan. Bigarren horrekin ez ginen beti erabat konforme geldi-tzen, eta hirugarrenaren beharra somatzen genuen zenbait kasu konkretotan, bi emaitza ezberdin jasotzen genituenean lekukoengandik batez ere. Horrelakoetan kezka bizia gelditzen zitzaigun: noren errealizazioa ote da nagusia edo errepresentagarriena? Egia esan, hirugarrenarekin zalantzak ez dira beti argitzen baina, lanek amaiera bat behar dute.

Dena den, leku bakoitzerako informatzaile edo lekuko nagusia bat bakarrik izan da, hau da, lekuko bat eta bakarrarena da leku bakoitzean agertzen den informazioa (ikus mapei egiten diegun sarrera). Bigarrena, osagarri bezala hartu dugu; eta hirugarrena, berriz, emaitza puntualak kontrastatzeko baizik ez dugu erabili.

6.2.3. Lekukoen zerrenda

Francisco AIZPURUA DESCARGA. 64 urte. Auza-koa (Ultzama), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Mikela LASARTE OSTIZ. 91 urte. Auza-koa (Ultzama), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Ulpiano MARIEZKURRENA OIARTZUN. 83 urte. Larraintzar-koa (Ultzama), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Raimundo OSKOZ ARISTEGI. 77 urte. Larraintzar-koa (Ultzama), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Pedro BARBERIA ITURRALDE. 52 urte. Arraras-koa. (Basaburua Haundia), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Juan José LEIZAGA ERRETXEA. 48 urte. Arraras-koa. (Basaburua Haundia)Ip (GN),Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Miguel GOÑI ETXEBERRIA. 44 urte. Beramendi-koa. (Basaburua Haundia), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Juan Bautista ETXEBERRIA GOIKOETXEA. 57 urte. Beramendi-koa. (Basaburua Haundia), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Miguel OLAETXEA AZPIROZ. 68 urte. Goldaratz-koa. (Imotz), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Ignazio LEGARRA LEGARRA. (27 urte),Goldaratz-koa. (Imotz), Ip (GN) Ultzama-ko azpi-euskalkikoa

Pedro NAZABAL LEKUNBERRI. 58 urte. Beunza-koa. (Atez), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Enrique NAZABAL LATASA. 63 urte. Beunza-koa. (Atez), Ip(GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Jose Joaquin AZKARATE ETXENIKE. 40 urte. Aniz-koa (Baztan), Ip (GN),Baztan-go azpi-euskalkikoa.

Patxi JUANIKORENA SANTESTEBAN. 30 urte. Berroeta-koa (Baztan), Ip (GN), Baztan-go azpi-euskalkikoa.

Gil GOIENETXE ITURRIAGA. 71 urte. Amaiur-koa. (Baztan), Ip (GN), Baztan-go azpi-euskalkikoa.

Alberta ETXENIKE IRIBARREN. 70 urte. Amaiur-koa. (Baztan), Ip (GN), Baztan-go azpi-euskalkikoa.

Valentin IRIGOIEN PEROTXENA. 68 urte. Gartzain-goa (Baztan), Ip (GN), Baztan-go azpi-euskalkikoa.

Maria ORMAT ETULAIN. 89 urte. Gartzain-goa (Baztan), Ip (GN), Baztan-go azpi-euskalkikoa.

Hemen jasotzen diren kasuetan, "hondar" hitzarekin erkatuz, askoz ere ugariagoa da hartan "u"ren aldeko ebakera; eta "hontz" hitzaren kasuan ere, "ontzi"-renean baino ugariagoa. Azken honetan bokal hertsia Baztango azpi-euskalki osoak egiten du, azpi-euskalki horretakoa ez den beste herriren bat hartuz, bazilazioekin bada ere azken hauetan: Ituren-en, adibidez, A lekukoak ez du bokala isten, baina bai B-k eta hirugarren lekukoak. Harrigarriagoa da Zugarramurdi-n gertatzen dena, A-k itsi egiten bait du forma mugatuan, baina ez mugagabean, B-k, ordea, bietan isten du.

"Ontzi"-ren kasuan, esan bezala, "u" forma mugatuagoa da Baztan-go azpi-euskalkian, Amaiur-ek bakarrik isten bait du, baina zabaldu egiten da gehiago beste azpi-euskalkitara: Ultzamakoan eta Bortzirietakoan "hontz" hitzak baino eremu haundiagoa hartuz.

Ezin daitezke aipatu gabe utz ageri diren txandaketa larriak. Mugatuan Arraras-ek eta Etxalar-ek "o" bokalarekin ebakitzen dute, baina mugagabean biek isten dute bokala. Era berean, mugatuan "o" hertsia egiten dute Oieregi-koek, baina "u"z ageri da mugagabean.

kin, "u"rekin, ebakiz, Zugarramurdi, Amaiur, Gartzain eta Aniz daude. Arraiotz-ek, berriz, alternantzia aurkezten du lekukoen arauera. Beste guztiek, bokal irekia.

Ez da beste horrenbeste gertatzen "ontasun" lexeman (448), bokala inon ez bait da isten ez forma mugatuan ez eta mugagabean, Amaiur-ek bakarrik "o" hertsi bat egiten duelarik, baina erabat herstera ailegatu gabe.

(84) mapan "huntz" ('hiedra') batzen da eta han, ikusiko den bezala, "u" bokala tinkoa ageri da batere aldaketarik gabe.

Datu hauetatik ondorio bat atera daiteke: ez dela hersketa hori batere irmoa; aldaketak ageri direla, ugariak gainera, eta ezin daitekeela inondik ere bilakabide hertsi batean gaudela esan.

Kontutan izanik Baztango azpi-euskalkia hartu dugula, -Baztanerako fenomenoa hertsia bezala, "u"-ren alde, alegia, azaltzen bait da- eta jaso diren emaitzen aldaketak nahiko bortitzak ikusi direla, atera beharko genuke autore zaharrengan ortografian ageri diren alternantziak ez direla izanen hainbeste normalizazio ortografikoaren faltaz, ahoskeraren eraginaren ondorioz baizik.

Hemen, berriz ere, grabaketek sortzen duten bat-batekotasunaren falta somatzen da eta ematen ditugun datuen pertinentzia zenbaterainokoa den kezka sortzen zaigu. Edozein modutan, polimorfismoa sortzen dela garbi dago; eta, "hontza", 'lechuza' eta "huntza" 'hiedra', askotan baina ez beti, bat egiten direnez, agian, "hun(t)zostoa" sortzeko beharra sentitu dute "huntza" 'lechuza'-tik bereizteko. Hain zuzen ere, hontza > huntza gertatu den tokitan, ez denetan, "hunt(z)ostoa" ageri bait da.

"o" → "u" aldaketak oso ugariak izaten dira arrazoi ezberdinakatik. Ikusi ditugun kasuetatik kanpo, badira beste batzu ere orokorki dilaziokoak direnak eta aipatu beharko genituzkeenak.

Dilazio erregresiboz (88) mapan **mogitu** eta **mugitu / muitu / muittu** egitera bilakatzen da bokala, tartean "o" hertsi baten ebakera ere dagoelarik.

39 BORTZ (68)

"o": - Tarteko bokala + kontsonantea, silaba trabatuan.

Traskribaketak egiterakoan, "o" normaletik kanpo, irekia eta oso irekia berezi ditugu, bata edo bestea gertatzen delako ingurumen fonetikoaren arauera. Hala ere, ez ditugu beti erizpide normatibo-fonetikoak (23) jarraitu eta erabat pertzeptzioz mugitu gara. Kasu honetan, dardarkariarekin trabatua doanean, benetan irekia zela iduritu zitzaigun, baina ez, ordea, mihi-hobietakoarekin trabatua doanean, eta pertzepzio horren arauera traskribatu dugu (24).

Bestalde, "bortz / bost" aldakien arteko isoglosa garbia da; "bost" hitza Basaburua, Imotz eta Larraun haranek ebakitzen dute eta, horren parean, "bor(t)z" gainerako guztietan. (Beherago azalduko da kontsonante multzoari dagokiona).

40A ARDO - 40B ARDO ASKO (69-70)

"o": - Azken posizioan, silaba askean.

Garrantzitsua da euskal fonetika diakronikoan, bokalarteko kontsonante sudurkariak, izan duen bilakabidea ezagutzea, eta gaur egunean duen egoera ikustea. Bi motatakoa izan daiteke kontsonante sudurkari hori: euskalki guztietan agertzen den sudurkari tinkoa bat, eta azken posiziokoa, mugikorra eta galtzeko arriskuan ageri dena, bestea.

Azken posizioko hori, galdu aurretik ondoko bokalak sudurkaritasunez kutsatuz desagertu zen. Gero bokal sudurkariak galduz joan ziren garai ezberdinetan, euskalkien arauera, MITXE-

LENA (1977,48 eta hur.). Egun, sudurkariaren aztarna hitz konposatu eta eratorrietan ageri da, kontsonante sudurkaria bera kasu askotan. Beste batzutan gorde egin da besterik gabe, zenbait euskalkitan distribuzio garbia lortuz euskalkien eta aldakien arauera. Bai mota batetakoak, bai bestekoak, mapetan agertzen dira.

Orain aztertu behar den mapan kasu horietako bat dugu, "ardo" hitzarena hain zuzen. Bere forma zaharra ***ardano** litzateke eta hitz konposatuak **ardan**-ekin sortzen dira. Hegoaldean, (B) baldin bazen azkenengo euskalkia XVI. menderarte bokal sudurkaria mantenituz, Madariaga eta Garibay horren lekuko, (Z) da, egun, euskalki bakarra bokal hori gordetzen, (R) euskalkia galdu bait zen.

Mapan ageri diren erantzunak ez dute ezer berezirik aurkezten bokalismoaren aldetik. Armonia bokalikoak sortzen duen aldaketatik kanpo, bereiztasun bakarra **ardo / arno**-ren artekoa litzateke. Zugarramurdi agertzen da bakarrik sudurkariaren ebakerarekin, honela Iparraldeko hizkerekin lotuz (25

41A DENBORA - 41B DENBORA TXARRA (71-72)

"o": - Kontsonantea + bokala, silaba askatuan.

Aurreko mapetan bokalen sinkopaz hitz egin eta sinkopa horien arrazoiren batzu eman ditugu. Ingurumen fonetiko batzutan bokal postonikoa aisago galtzen da beste batzutan baino. Leherkari eta dardarkari bigunaren arteko bokala jausi egin daiteke maiztasun haundiarekin zenbait euskalkitan, Ekialdekotan batez ere.

"Denbora"/ "denpora" eta "tenbora" / "tenpora"ren artean

"tenpra" aldakia sortu zen (R) eta Hg(G) euskalkietan, eta, egun, "tenbra" aldakia ere hizketaren baten gelditzen da.

Ez da sinkoparik agertzen, ordea, aztertzen dugun lurraldean. "O" bokala tonikoa denez, bokala mantenitu egiten da berez. Aldaz-ek eta Beramendi-k dute posizio postonikoan silaba hau, baina bokalari eusten diote. Galtzen dena dardarkari biguna da eta, agian, horren ondorioz dator bokal postonikoaren gordetzea. Arraras-ek eta Larraintzar-ek dardarkaria eta leherkaria ere bai "ó" gordetzen dutelarik. Aztertzen den bokal ertaina silabikoa da eta tinbreari ondo eusten dio.

Forma mugagabean tonikoa da kasu guztietan eta hurrengo lexemarekin bat egiten du dardarkaria eta "-a" morfema galduz Mendebaldeko hizketetan.

42A GOROLDIO - 42B GOROLDIO TXARRA (73-74)

"o": - Kontsonantea + bokala, silaba askean.
- Kontsonantea + bokala + kontsonantea, silaba trabatuan.
- Azken posizioan.

Hitz honetan "o" bokalaren aliterazio haundia dago. Bi gertakizun ageri dira interesgarri: dardarkari bigunaren galeraren ondorioz sortzen den bokalen elkarketa batetik, eta azken posizioko bokalari ematen zaion tratamendua, bestetik.

Forma mugatuan hamabi aldaki daude hogei herrietan: honek agertzen du ematen den dispertsioaren ideia. Hau dela eta, ez dago emaitzak kontrastatu eta erkatzeko bide haundirik, forma mugatuan eta mugagabean aldatzen direlako aldakiak eta lekuko

berak bi aldetara azaltzen duelako forma. Hala ere, emaitzak honako hauek lirateke:

1. Dardarkaria mantenitzen dute, eta horren ondorioz hasierako bi bokalak ere gordetzen dira:

a) Forma mugatuan: Oronotz-Mugaire, Etxalar, Aniz, Sunbilla, Arantza, Donamaria, Ituren, Oieregi eta Beunza.

b) Forma mugagabean: Arraiotz, Auza eta goian aipatutakoak.

2. Dardarkaria erlaxatzen dute:

a) Forma mugatuan: Gartzain, Larraintzar, Auza eta Erasun.

b) Forma mugagabean: Erasun, Zugarramurdi.

3. Dardarkariaren galeraz, bokal bixkiak:

–, Forma mugatuan: Beramendi, Arraras, Amaiur, Arraiotz, Zugarramurdi eta Goldaratz.

–, Forma mugagabean: mugatuan aipaturikoak, Zugarramurdi eta Arraiotz izan ezik, hauek ahoskera aldatzen bait dute, dardarkariaz ebakiz.

4. Ez da bokal luzerik jaso eta bokal bixkietatik sortu den murrizketa bakarra Aldaz-koa izan da, baina, hemen ere, B lekukoak bokal bixkiez ahoskatu du forma mugatua.

Azken posizioko bokalari dagokionez, bokal honek ez du, forma mugatuetan, beste lexemetan bezala jokatu. Sei kasutan mantenitzen da "-oa" taldea: Oronotz-Mugaire, Garzain, Larraintzar, Beramendi, Arraras eta Beunza.

"O" bokal hertsia : Etxalar, Auza, Erasun, Amaiur, Arraiotz eta Zugarramurdi-n gertatzen da.

Bokal erlaxatua: Sunbilla, Goldaratz eta Aldaz-en.

Azkenik, galdu egin da: Aniz, Arantza, Donamaria, Ituren eta Oieregi-n.

Mugagabean beste emaitza batzu agertzen dira. Ituren-en "o" bokala mantenitzen da, "goroldo ..." eginez, baina B lekukoak galdu egiten du. Auza, Sunbilla eta Goldaratz-ek ere galdurik, "goroldi ..." dute. Aniz, Beunza eta Oieregi-k "gorolde" "-ea < ia" ultrakorrekzioz ebakitzen dutelarik, Arantza eta Ituren-go B lekukoez gain. Gainerako guztiek mantenitu egiten dute, Aldaz-ek erlaxatu egiten duelarik.

Ikusi den bezala, kasuistika honetatik ezin daiteke ondorio garbirik atera, ez linguistikorik ez geografikorik. Gehien ere esango genukeena, berriro ere, hauxe da: Mendebaldeko hizkerak direla aldaketa haundienak sortzen dituztenak, batez ere bokal bixkietan, baina puntu honetan ere ez dago batere batasunik.

Lexemaren basea, bestalde, "-o" izan arren, forma mugatua bihurtzerakoan ez da "-oa > -ua" sortu inon, horrek beharko lukeen arren izan formarik arruntena lurralde hauetan.

Eta azkenik, hainbeste bokal bixkik dardarkariaren galera motela eta berria dela pentsarazten digu.

1.1.5. / u / fonema

1.1.5.1. Definizioak

- Artikulaziozkoa: Goikoa, atzekaldekoa
- Akustikoa: Bokalikoa, ezkontsonantikoa, barreiatua, lodia.

1.1.5.2. Gertaera fonetikoak

[ụ] oso hertsia:

- Silaba askean, [sụ́re], [lụ́se].

[u] normala ere izan daitekeelarik bestearen aldaki bezala, ebakeraren arauera [lúse].

[u̥] irekia:

- Silaba trabatuan, [ikù̥ste], [bú̥lca]
- Dardarkari anitzaren aurrean, [ú̥rte], [u̥rdá̯ja]

Bonaparte-ren eritziz bada frantsesaren "ou" eta "u"-ren arteko soinu bat euskalki hauetan: Mend(BN), (Aezk), Ip(GN) Baztan, Heg(GN) Artzibar, Erroibar, Longida.

[ũ] sudurkaria:
- Kontsonante sudurkariaren aurrean [t'ũn't'úr]
- Kontsonante sudurkarien artean [mún̥du]

[ᵻ] erlaxatua:
- Azenturik gabeko silabetan, pre edo postonikoetan [arkákᵻsu]

1.1.5.3. **Fonetika diakronikoa**

Galera

- Zenbait hitz mailegutan: Lat. MARTIUS > marti
- Sistematizatu gabeko hitzetan: berandu > berant (L), (BN), (Z).

Irekiera

- Kasu bakan batzutan [o̥] hertsia ahoskatzen da: duzu [dó̥śo̥],Ip(GN), errazu > [er̄áso̥] (BN) Ustaritze.
- Analogiaz edo ultrazuzenketaz nahasketak sortu izan dira: beso besua → beso; katu katua → kato Ip(GN).

Ezpainketa eta desezpainketa

- /i/ fonemaren ezpainketaz sor daiteke "u" bokala, zenbait kasutan, (B)ko zenbait hizketetan:
  Eskuarki: [iɣ̌éri] > [úɣe̥r];
  [i̥lce] > [ú̥lce]
- Bokalen aurrean: (Zar) [siék], (Z) [síek], (Azk) [dusíe].
- Alderantzizko jokabidea ere gertatu izan da aski maiz. Batzutan asimilazioaren eraginez edo: [mútil] > (R) [mítil], [míthil]; [súßi] > (R) [síßi], [gúči] > (B)[gíči].

Fenomeno honi buruz hitz egin dugu gorago eta Gavel eta Mitxelenaren arrazoiak ikusi ere bai. Edonola ere, ez da erraza aldaketaren arrazoia garbi ezagutzen. Beste bokal baten eraginez izan daiteke, baina baita kontsonanteen ukipenagatik ere (ezpainetakoak, mihi-bizkarrekoak, sabaikariak, xistukariak), ondorengo silaban "i"-rik ez izan arren. Ez da, bestalde, fenomeno sistematikoa bakana baizik, zenbait hitzetan gertatzen bada ere.

Diptongazioa

- Bokalarteko gertatzen denean, nahiz "u" nahiz "o" izan jatorriz, diptongatzera jotzen du: [makál'wa], [oliwa], Ekialdeko hizkelkietan batez ere. Beste kasu batzutan kontsonante hurbilkari bihurtzen da eskuarki: [gaßón].

1.1.5.4. Galdekizunean jasotzen diren fenomenoak

- Silaba askatuan:

  katu - hiru katu
  putzu - putzu txikia
  garizuma - garizuma luzea
  guti
  mogitu

- Silaba trabatuan:

  huntz - lau huntz
  gorputz - hamar gorputz

- Alternantziak:

  u / o lkus goian eta /o/
  u / i lkus goian eta /i/
  u / e lkus goian eta /e/

- Aldaketa:

  katakume - hiru katakume

- Galera:

  berant - berantetsi

1.1.5.5. Jaso diren emaitzen analisi fonetiko-diatopikoa

43A KATU - 43B HIRU KATU (75-76)
44A KATAKUME - 44B HIRU KATAKUME (77-78)

"u": - Kontsonantea + bokala, silaba askean, azken posizioan.

Euskarak latinetik hartzen zituen hitz maileguak fonetikaren aldetik egokitzean, "u" bokalez amaitzen ziren hitzekin ez zuen eragozpenik izan. Arrazoia, bistan da, euskarak azken posizioan bokal guztiak dituelako da. Horrela gertatu zen hemen jasotzen den hitzarekin, eta mapan ere horrela agertzen da.

Ez dago aldaketarik bokalismoaren aldetik. "ú" bokala tonikoa gertatzen da leku askotan, baina alternantziak ere ageri dira. Nabarmena Oronotz-Mugaire-koa da, A lekukoak "gatúa" ebakitzen bait du, B-k, ordea, "kátue" bere bailarako Baztan-go inguruetako herriekin bat eginez. Berriro ere, herri honek mugan egotearen ondorioak agertzen ditu.

Interesgarritasuna forma mugagabeak sortzen du, "-u" bokala "-o" bihurtzen bait da artikuloaren morfemarik gabe doanean. Ultrazuzenketa bat da hau "-ua" nahastua dagoelako "-oa"tik datozen formekin, eta horregatik hiztunek oker erabiltzen dute forma mugagabea. Arraras, Donamaria, Sunbilla, Ituren eta Oronotz-Mugaire dira, guk aztertu ditugun herrietatik, nahasketa hau egiten dutenak. (Ikus, honi buruz,(80) mapan egiten den komentarioa).

Edozein modutan, isoglosa hau ere ez da behin-betikoa, hirugarren lekukoengandik aldaketak jaso izan bait ditugu. Baina, bai, ordea, ondorio bat atera daiteke, nahasketarena dena, alegia.

Hurrengo mapetan "katu" hitza konposizioan sartzen da eta "-u" bokal tematikoa duten hitzek, MITXELENA-k dioen bezala (1977,128), "u" hori "a" batez aldatzen dute, konposaketan lehen osagai direnean. Mapetan ageri diren datuetan hiru tokitan baka-

rrik jasotzen da emaitza hori: Aldaz, Goldaratz eta Arraras-en, eta Goldaratz-en behinik-behin alternantzia ematen da, forma mugagabea jasotzen den mapan "u"z ahoskatu bait du lekukoak. Gainerakoek "u" edo "o" dute hitz konposatuko lehen osagaiaren azken bokala, mapa biek emaitza berdintsuak agertzen dituztelarik funtsean. Ez da, beraz, lege hori orohar betetzen guk jasotako datuen arauera. Baliteke, galdera egiteko erak baldintzaturik edo, lekukoentzat momentuko erantzunan hitz-konposatua baino elkarturik dauden bi izen sintagmak ebakitzea, horren alde azentua ere legoke, kasu gehienetan bi azentu nagusi agertzen bait dira. Nolanahi ere, hemen ageri dena zera da, bi elementuek jatorrizko egitura gorde dutela.

45A PUTZU - 45B PUTZU TXIKIA (79-80)

"u": - Kontsonantea + bokala, silaba askean.
- Kontsonantea + bokala, azken posizioan, silaba askean.

Hitz hau ere latinetik dator, PUTEUM hitzetik hain zuzen. Tinbre hertsi eta berdineko bokalak lehenengo momentuan mantenitu badira ere, gero, tokien arauera, disimilatuz joan dira, batez ere Ekialdeko hizketetan.

Lehenengo bokalari dagokionez, aztertzen den lurraldean ez da aldaketarik sortu eta "u" gorde da kasu guztietan, "ú" tonikoa gehienbat. Azkenengo "-u" bokala, berriz, aldakorra dela dio MITXELENA-k (1977,130-131):

> *"La vacilación etre "-o" y "-u" era natural en zonas como algunas guipuzcoanas y alto-navarras donde se confunde totalmente la declinación determinada*

en ambos grupos de temas: ***berua*** *da* ***bero*** *como* ***zerua*** *da* ***zeru.*** *A ello contribuiría además la diferencia de pronunciación de la vocal final en préstamos románicos según la fecha de su introducción y según su procedencia: a.-nav. (Isasti) b.-nav. lab.* ***abendo,*** *a.-nav. guip. sal. vizc.* ***abendu,*** *[...] sul.* ***abéntü,*** *del lat.* ***adventus;*** *Rent.* ***putzo*** *y* ***putzu*** *'charco', etc."*

Gure lurraldean batasun haundia aurkitu dugu hitz honetan, denetan "-u" hori oso gotor gordez lekuko guztiengan, aurreko mapan gertatu ez den bezala. Halere, fenomeno hau berriz agertuko da hiatoak aztertzerakoan.

Fenomenoari berari lotuz, ez da batere sistematikoa agertzen batzutan batera eta beste batzutan bestera gertatzen bait da. Horren arrazoia ere ez da garbi ikusten. Ez dugu uste erromantzearen eragina izan daitekeenik, ikusi diran bi kasu hauetan, "pozo" eta "gato", biak ere interferentzia berdintsua eragin bait zezaketen, baina ez dute berdin operatu. Gure ustez, nahasketak eta ultrazuzenketak mintzalearengan bertan dautza, ezin bait du berezi jatorrizko hotsa forma mugatuaren sinkretismoaren ondoren. Edonola ere, fenomeno honi buruz berriro mintzatuko gara hiatoak aztertzerakoan.

46A GARIZUMA - 46B GARIZUMA LUZEA (81-82)

"u": - Kontsonantea + bokala, silaba askean.

"Será pues preferible pensar en coloración por la consonante siguiente dentro del vasco mismo, antes que en la conservación de un arcaismo latino, por lo que hace a la ***-u-*** *del aezc. ronc. dekuma, sal. teku-*

ma 'diezmo' [...] o de guip. ant. ***garaizuma,*** *aezk. b.-nav. guip. lab.* ***garizoma,*** *sul (Gèze)* ***goroxüma, gorozema",*** *MITXELENA (1977,78).*

Hitz hau komentatzerakoan, hobe izango dugu bere alderdi diakronikoa uztea, sinkronia mailan berez nahiko aldakortsua ageri zaigun hitza baita.

"Garizuma" forma hartu zen izenbururako, formarik hedatuena zela uste genuelako. (G) zaharrerako Mitxelena-k "garaizuma" aldakia ematen du. Guk forma hori bera Auza-n jaso genuen, bigarren lekukoak "garizúme" erantzun bazuen ere. Bide beretik doa Gartzain-go "garaizíme", bokal tonikoaren asimilaketarekin. Bestalde, bokal arteko dardarkari bigunaren galera ere bi bazterretan gertatzen da: Basaburua-ko Beramendi eta Arraras-en batetik eta, Iparraldeko mugan, Zugarramurdi-n, bestetik.

Edozein modutan, eta "u" bokalari lotuz, hiru erantzun ezberdin agertzen dira: kontserbazioa, galera, bokal erlaxatua ere tarteko urrats bezala gertatzen delarik, eta ezpainketa, atzeranzko dilazioa eginez.

Isoglosen distribuzioaren arauera, honako datuok ageri dira:

• "u" kontserbatzen da: Ultzamako Beramendi, Arraras eta Auza-n, Aldaz-en eta Zugarramurdi-n.

• "u" erlaxatua: Beunza eta Erasun-en.

• "u i" aldaketa: Oieregi, Amaiur eta Gartzain-en.

• Galera: Aniz, Arraiotz, Oronotz-Mugaire, Donamaria, Sunbilla, Ituren, Etxalar eta Arantza-n.

Zein da galdu den hotsaren tinbrea? Izan daiteke "u" bokalarena, baina, bestalde, ikusirik "u i" zein tokietan gertatu den, baliteke "i" bokalaren galera izatea, baina ezin daiteke zehaztasunez esan zein izan den, ez bait da forma alternatiborik jaso.

Oronotz-Mugaire-n "garizime" agertzen bada ere, horrek berriro ere frogatzen duenahauxe da: Oronotz-Mugaire-ko hizkera euskalkien arteko muga-mugan dagoela.

47 GUTI (83)

"u": - Kontsonantea + bokala, silaba askean.

"u / i" bokal aldaketak, orain arte ikusi dugun bezala, hasierako posizio absolutuan izan daitezke: **irin, iltze;** hitz barruan **garizuma, ukitu.** Eta gerta daitezke hasierako silaba ez absolutuan ere mapa honetan jasotzen dugun hitzean gertatzen den bezala. Hurrengo silabako bokalaren eragina norainokoa den ez da erraz jakiten, baina asimilaketa gertatzen dela ez dago dudarik. Hona LAFON-ek (1934,609) azaltzen dituen isoglosak:

> *"Le mot guti (lab., b.-nav. h. nav.) "peu", **güti** (soul.0, **gutti** (lab.), **gutxi** (guip., bazt.) est devenu **guttu** en salaz., mais **gitxi** en bisc.".*

Ez da oraingoa forma hau, (B) zaharrean ere horrela dokumentatzen bait da.

Aztertu dugun lurraldean ez da aldaketarik bokalei dagokienez, tonikoa / atonoa litzateke aldaketa bakarra, eta hori lexemari dagokio.

48A HUNTZ - 48B LAU HUNTZ (84-85)

"u": - Bokala + kontsonantea, silaba trabatuan.

Ingurumen fonetikoa berdina denez, "o" bokalarekin loturik dagoen fenomenoa da, (66-67) mapetan azaldutakoa; horregatik mapa hau neurri batean komentatua dagoela esan daiteke.

Hemengo emaitzen tinkotasuna ikusirik, ondorio garbi bat atera daiteke: "o → u" aldaketa, sudurkari baten aurrean batez ere, oso ugaria da, baina alderantzizkoa, "u → o" alegia, ez da, guk dakigunez, inoiz gertatzen, eta gertatuko balitz, euskal bokalismoaren sisteman ondoriorik izanen zukeen.

Baztango hizketan "osto" osagaia itsekitzen diote hitzari eta Ultzamako azpi-euskalkian ere bai, Beunza-n; Bortzirietakoan Ituren-go B lekukoak; Zugarramurdi-n "láu unzóndo" jaso dugu. "Hontz" hitzetik bereizteko beharrak eraginda izan daiteke, agian.

Azkenik, eta forma mugagabeekin jarraituz, "-uu-" sekuentzia ikusten da ia kasu guztietan. Egia esan, traskribaketa inpresionista denean, hau da, entzumen hutsez erabaki behar denean, ez da batere garbi bereizten geminatua ala luzatua den bokala. Beheko oharretan bokal bakarra ere azaldu dugu, garbi somatu dugun kasutan. Alabaina, goiko informazioan bokal bixkiak jartzea egokiago iduritu zaigu zalantzazko kasutan. Horrela, bestalde, dispertsio ugaritik ere ihes egiteko bidea zabaltzen zen.

49A GORPUTZ - 49B HAMAR GORPUTZ (86-87)

"u": - Kontsonantea + tarteko bokala + kontsonantea, silaba trabatuan.

Orain arte agertu diren bokalen aldaketen kasuak hitz hasieran edo tartean izan dira, baina azkenengo silaban ere ager daitezke u → i aldaketak. Honako hau Lat. CORPUS > eusk. **gorputz** kasua litzateke. Zein izan daiteke arrazoia (R) **korpitz** eta (Z) **khorpitz** egiteko? Ondoko kontsonante xistukariaren eraginez, agian?

Mapetan ez da bokal horren aldaketarik ageri; gehien ere, nabari izan dugu bokala aurreratzeko joera bizkar-hobietakoa den kontsonante afrikariaren eraginez.

50 MOGITU (88)

"-tu", partizipioak sortzeko erabiltzen den atzizki honek ez du, normalean, guk aztertzen dugun lurraldean aldaketarik nozitzen eta tinbrea tinkotasunez mantenitzen du. Galerarik ere, guk dakigunez, ez da gertatzen.

Batzutan, ingurumenak eraginda, ireki egin daiteke apur bat. Gure kasuan, esaterako, sabaikariak eraginda, baina inoiz ez da "o" izatera iristen. Bestalde, Arraras-en ebaki den "u" ireki hori kasu bakan eta isolatua baino ez da izan.

51A BERANT - 51B BERANTETSI (89-90)

"u" - Kontsonantea + bokala, azken posizioan.

Gaztelerako "tarde" aditzera emateko euskaraz **berant,** ekialdeko euskalkietan (Z), (BN), (R) eta (L)-n, eta **berandu -belu-**rekin batera- erabiltzen dira. Bi forma hauen artean, **berant-berandu,** ez dakigu zein izan daitekeen formarik zaharrena, edo, bestela esan, zein fenomeno gertatu izan den gero, apokopea ala paragogea, alegia. Bokalaren galera gertatu izango zela pentsa daiteke, azken posizioan ez bait dira ohizkoak "-nt" gisako talde kontsonantikoak; **berandu** izan daiteke, beraz, formarik zaharrena. **Berandu**-tik, bokalaren galeraz, **berand** eta **berant,** hitz eratorrietan lehen osagai, **berantetsi, berantarbi** e. a., eta gero forma aske bezala erabilia. Mapan forma osoa mantenitu da, "berándu" delarik erabiliena. Auza-k testuinguruaren eraginez, azkenengo silaba erlaxatu du. Arraras eta Sunbilla-n "-o" ahoskatu dute, eta informazio hori 3. lekukoengan Bortzirietako azpi-euskalkiko zenbait lekutan jaso da. Tinbre aldaketa hori ez da arrazoi fonetikotan oinarritzen. Arantza eta Etxalar-ko **berandua** eta Erasun-go **berandue** formek mugatu egin direla adierazten dute; hurrengo pausua nahasketarena da, hau da, forma mugagabearen base tematikoa oker ematearena: "-ua" "-o": **berando.** Bide honetatik jo du Zugarramurdi-ko B lekukoak ere, **berant** formari "a" atzizkia itsekiz, "beránta" egin bait du; forma honek, bestalde, Lapurterarekin duen zerikusia agertzen du berriro ere.

(90) mapan alternantzia garbia azaltzen da: **berantetsi,** eta bere aldakiak, batetik, eta **berantsia,** bestetik. Ultzama-ko Auza-k eta Bortzirieta-ko azpi-euskalkio hizkerak dira bokala sinkopatu eta forma laburtzen dutenak. Oieregi eta Oronotz-Mugaire kanpoan gelditzen dira eta Erasun-ek bietara egiten du. Edozein eratan ere, denek "u" azkenengo bokalaren galera konposaketan nahiko sistematikoa dela adierazten dute.

1.1.6. Analisi fonetiko eta diatopikoaren ondorioak

Bokalismoari buruz egin diren analisiei buruz eta guk aztertu dugun lurraldera mugatuz, ideia nagusi batzu laburbildu nahi ditugu, ondorio gisa, jarraitzen duten lerro hauetan.

Lehenengo eta behin, gauza bat da nabarmen agertzen dena eta konstantea izango dena denbora guztian, gertakizun fonetikoetan, alegia, ez dagoela batasunik eta jasotzen diren emaitzek ere ez dutela distribuzio geografiko zehatzik. Alderantziz esango bagenu, aldaberatasuna eta aldaketak direla, bokalismoaren baitan, ezaugarririk nabarmenena agertuko genuke. Aldaketa horiek fonetikoak dira eta fonetikari dagozkionak, baina, horrekin batera, hiztunenak ere bai, ez bait da tinkotasunik ez batasunik aurkitu leku bereko lekukoen artean jaso den informazioan, eta areago dena, ez eta batbederarengan jaso denean ere. Esaten dugunaren adibide bikaina "goroldio" hitza litzateke (73-74) bere hamabi aldakiekin.

Fonetika hutsari lotuz, batasun falta hori bokalen tinbrearen bazilazioan datzala esango genuke, eta etengabeko mogimendu batean sartuak daudela. Mogimendu horren arrazoiak ugariak dira: asimilaketa, disimilaketa, dilazioa, metafonia; azken finean, inguruko hotsen eragina dela arrazoi nagusia uste dugu. Kasu askotan armonia bokalikoa izaten da aldaketa zuzen baten eragile, gero beste kasutara zabaltzen dena. Beste askotan, gehienetan, kontsonanteak eta hauen aurreko bokalen posizioa faktore eraginkorrak izango dira aldaketak sortzeko, silaba askean hobetoago gordetzen delarik bokala trabatuan, azkenean edo hasiera absolutuan baino.

Bokalen arteko tinbre aldaketa ugarienak "i-e","o-u" eta "u-i"-ren artean gertatzen diren alternantziak dira, "a" bokala delarik tinkoago mantenitzen dena.

Bokalen galera ere ez da hain urria, eta honetan ere posi-

zioak paper garrantzitsua jokatzen du. Azentuaren arauera hartzen duen lekuagatik pre edo postonikoa bihurtzen da, -bokal tonikoa ez da galtzen eta, orohar, normalean ez du bere tinbrea aldatzen, inoiz aldaturik ageri bada ere-, eta, azentu hori dela bide, gertatzen zaion ahultasun horrek erlaxatzeko eta galtzeko zorian ipini ezeze, galerazi ere galerazten du bokala. Hiru silabatik gorako hitzetan gertatzen da hau, "atzapra" kasuan, esaterako. Lexematik kanpo, kate mintzatuan gertatzen denean ere azentu nagusiaren eraginez gerta dakioke aipatzen ari garen galera: "ikusdut", "etorda", e.a. Azken hauek apokopeak lirateke, "goroldi(o)", "berand(u)" eta horrelakoetatik desberdindu beharko genituzkeenak. Morfema mugatzailearekin "a" azken posizioko bokala ere gal daiteke harekin sortzen duen amalgamagatik, "katea", "nabala" eta horrelako lexemekin gertatzen den bezala. Dena den, jaso ditugun emaitzetan "a" bokala da, orohar, bere tinbrea tinkoen mantenitu duena.

Azkenik, bokalen galeraz bukatzeko, aferesi kasuak aipatu behar dira. Hauek nahiko kokapen zehatza dute gure azpi-euskalkietan, Bortzirieta eta Baztangoan, Atez eta Ultzama-ko bailararekin batera, gertatzen baita. Halere, joera orokorra aferesi aldekoa den arren, ez da beti egiten, batez ere hizketa maila zainduagoa denean.

Aipatu ditugun aldaketak ez dira sistematikoak, hau da, ingurune fonetiko berdinetan ere ez dira beti gertatzen, edo, alderantziz, espero ez den kasutan ere gerta daiteke aldaketa; bestela esan, emaitza desberdinak eta ustekabekoak jasotzen dira maiz arrazoi garbirik gabe. Horrek ez du, ordea, bokal bakoitzaren nortasun fonologikoa eragozten, eta are gutxiago balio hori gutxienezko bikoteen erregelaz neurtzen bada. Hor daude, "(h)erri / (h)arri" eta horrelako kasuak, nahiz eta gero sinkretismo kasuak ere gertatzen diren, hala nola Beramendi-ko "itxéa" nominatibo singularrerako eta adlatiborako berdin balio duena (15 eta 17); baina honek zerikusi haundiagoa du morfologiarekin fonetika eta fonologiarekin baino.

Bokalismoaren egongaiztasun hori formen aldaberatasunean datzala uste dugu eta, batez ere, bokalek duten irmotasunik ezean. Hori adierazten du hasierako posizioko silaba askeak duen estatus aldakorrak: "ikusi / ekusi", "kiratsa / keratsa" ... Eta aldaki horiek ez dute, bestalde, oinarritzen dituen arrazoirik. Ez dugu uste, eman daitezkeen beste arrazoiez gain, azentuaren eragina izan daitekeenik, aldatu egiten bait da zenbait hizketetan testuinguruaren arauera, esaterako, Beramendi-rekin jarraituz, "láuarrí", baina "árriaundíorí".

Tinkotasun faltak polimorfismoa sorrerazten du oso maiz. Mapak komentatzerakoan esan den bezala, forma polimorfikoek fenomenoen ahultasuna adierazten dute eta, kasu askotan, mintzalea ere hartaratu egiten denez nibelaziorik ezarekin, bere hizkera ere aldatzen du. Hortik dator, berriro ere, hainbestetan jaso dugun desoreka hizkuntza zainduaren eta laxoaren artean.

Polimorfismoa -hemen forma bi edo gehiagoren balioaz erabiltzen da terminoa- gehiago nabarmentzen da azpi-euskalkien arteko mugetan gertatzen diren lurraldeetan. Oronotz-Mugaire genuke adibide adierazgarriena, baina Erasun ere mintzairen arteko bidagurutzean kokatua agertzen da. Bigarren mailan geldituko lirateke Oieregi, Bortzirietako azpi-euskalkikoa, behin baino gehiagotan Baztan aldera begira aurkitzen duguna eta, hein batean, Ultzama-ko bailarako herriak eta Atez bailarako Beunza bera ere, Baztangoarekin zerikusirik agertzen dutelarik.

Dena den, bokalismoari eskeinitako kapitulu honetan fenomeno bokaliko garrantzitsuenak eta araubidetik aldentzen direnak jaso ditugu, hau da, nolabait esateko, arau zehatzetatik aldendu egiten diren kasuak. Lan osoan zehar jaso diren sekuentzia bokalikoak askoz ere ugariagoak dira eta horietan sartzen den gertakizun normatiboa bera ere bai. Kapitulu honetan jaso diren materialekin, beraz, ezin izan dugu mapa sintetikorik egin, formen aniztasunak ez duelako horretarako biderik eman eta banaketa geografiko eta linguistikorik egiteko ere ez. Azaltzen dugun mapa bakarra zenbait aditzetan gertatzen den aferesiari dagokio, eta

gehiago oinarritu da grabaketa askeetan galdekizunean jasotako erantzunetan baino.

1.1.7. Analisi akustikoa

Bokalen analisi akustikora hurbilpen izan nahi lukeen hau egiteko galdekizunaren bitartez jasotako honako hitz hauen sonogramekin lan egin dugu: "iltze", "ihize", "gizoneri". "etxe", "hiru etxe", "herri", "eguzki", "kerats", "izter", "eguerdi", "katea", "hiru kate", "arratoi", "zahar", "ahari", "mogitu", "aho", "hondar", "hontz", "goroldio", "katu", "hiru katu", "huntz", "gau", "hiru gau", "arraultza", "egitai", "Jainko", "bezain", "zain", "hiru zain", "artzain", "artzain gutxi", "behi", "asuin","suerte", "leiho", "eho", "joan", "hari", "are", "mahats", "belarri", "alaba", "barkatu", "onddo", "sagarrak dira", ez gara", "aita", "loditu", "il da", "atzo", "atso", "oso", "otso", "txori", "jauntzi", "sudurtzuloa", "haitzur", "afari", "alfer", "nor haiz?", "jabe", "hiru jabe", "sare", "zare", "su", "zu", "zeru", "sorgina", "esne", "atzamar", "larru", "ilar", "perrexil", "hartz".

Ez zaigu erraza gertatu lan sistematikoa jasotzea, edo sistematizazio bidean jartzea. Alde batetik behar adina material ez genuelako, eta gehiagorekin hasteak ere lan honen helburuak eta norabideak erabat hautsiko zituzkeelako. Bestalde, lekuko eta gertakizun asko direlako ere, eta aski bereziak aunitzetan, eta tinbre aldaketak eta bokalen galerak ere oso maiz ageri direlako, eta azentua bera lekuko batetik bestera aldatu egiten delako, hau da, ez duelako leku tinkorik lexema barruan.

Horiek denak kontutan harturik, eta jarraitu duguna ez bada ere biderik eredugarriena metodologiaren aldetik, gertakizun desberdinak batu eta parekatu bait ditugu azpi-euskalki berekoak diren aitzakiarekin, emaitza osoak emateko ongi begiratu dugu analisietan ingurune fonetiko desberdinen eragina, eta, nolanahi

ere, eremu hauetan diharduten fonetistek darabilten metodologiari jarraituz, emaitza bateratuak baizik ez ditugu eman.

Goian esan dugun bezala, harriturik gelditu gara gertatzen den kasuistika haundiarekin, hainbeste aldaketa eta era ezberdinetako ahoskera jaso bait ditugu lekuko batbederarengan ere. Hau ez da berria, NAVARRO TOMAS-ek Gernika-ko hizkera aztertu zuenean gauza bera jaso zuen eta honela agertzen zuen (1923,49):

> *"Varias veces, al repetir algunas frases, manifestó, en la articulación de ciertos sonidos, diferencias considerables. En la transcripción tomada a oído noté varias de estas diferencias. Dos inscripciones quimográficas de aquellas mismas frases pusieron de relieve otros puntos de vacilación. La pronunciación de P., sin coincidir exactamente con la de O., presentaba también esa misma falta de fijeza".*

Egia esan, guri beste horrenbeste gertatu zaigu: traskribaketak egin genituenean hartaratu ginen aldaketekin, eta gero, espektrogramak aztertzerakoan, aldaketa horiek baieztatu ezezik nabarmendu eta ugaritu ere egin zitzaizkigun.

Eragozpenak eragozpen, batasun bat eman behar zitzaiela datuei eta, sistematizatze ahaleginean saiatu gara, eta barreiadura larregirik sor ez dadin, bost talde egin ditugu azpi-euskalkiak erreferentetzat hartuz, azpi-euskalki bakoitzean sail horretako lekuko guztien datuak sartu eta bataz-bestekoak ateraz. Honek badu, bestalde, arrazoirik: bokalismo mailan behintzat jaso ditugun datuak eta horien hedadura, azpi-euskalkien arauera, mugetako hizketak kendurik, nahikoa bat datoz Bonaparte-k egindako sailkapenarekin; eta metodologikoki mesedegarri iduritzen zaigu banaketa horrezaz baliatzea. Dena dela, bokalismoarekin egin dugun honek ez du behin-betiko baliorik, erabili diren datuek ez bait dute horretarako ematen, baina, muga horiek kontutan izanik, balia dezake erakusgarri gisa.

Hona hemen antolatu ditugun bost taldeak:

I. taldea: (Lapurtera): Zugarramurdi.
II. " (Baztangoa): Amaiur, Aniz, Gartzain, Arraiotz.
III. " (Bortzirietakoa): Oronotz-Mugaire, Aranatz, Etxalar, Oieregi, Donamaria, Sunbilla, Ituren, Erasun.
IV. " (Ultzamakoa): Auza, Larraintzar, Arraras, Beramendi, Beunza, Goldaratz.
V. " (Arakilgoa): Aldaz.

Bokalen analisarako, eta ateratzen diren emaitzen bataz-bestekoak ez daitezen desbidera, baizik batasun bat izan dezaten, andrazkoei eginiko sonogramak kanpoan utzi dira. Hori dela eta, Etxalar-erako eskeintzen diren emaitzak lekuko bakarrean oinarritzen dira. Aldaz-ekin ere gauza bera gertatu zaigu, eta V. taldea Aldaz-ek bakarrik osatzen duenez, murritzegi eritzi diogu lekuko bakarrari talde baten informazioa emateko. Horrenbestez, lau talde nagusienak bakarrik emanen dira. Jarraian lehenengo bi formakinen frekuentziak azaltzen ditugu hertzioetan (Hz) eta iraupenak milisegundutan (msg). Iraupenari dagokionez, badakigu sekuentziaren baitan neurtu behar dela eta, gainera, ez dela beste ingurune batzutan jasotako bokalen iraupenarekin alderagarri; hala eta guztiz ere, iraupena ematea erabaki dugu, alde batetik argigarria gerta daitekeelako, eta bestetik, lekukoen erritmo ezberdinak eta formakinen balio erlatiboa gorabehera, bokal luzeak eta geminatuak bereizteko ere lagun dezakeelako.

HOTSA: [i]
KOKAPENA: hitz hasieran, silaba trabatuan

	F1	F2	IRAUPENA
I.	328	2665	120
II.	308.5	2241.33	71.35
III.	311.6	2128	76
IV.	312.6	2201.6	64

HOTSA: [i]
KOKAPENA: hitz hasieran, silaba askean

	F1	F2	IRAUPENA
I.	328	2419	124
II.	287	2227.66	76
III.	287	2183.25	75
IV.	328	2070.5	64

HOTSA: [i]
KOKAPENA: hitz hasieran, silaba trabatuan

	F1	F2	IRAUPENA
I.	266.5	2357.5	50
II.	328	1913.33	61.33
III.	273.33	2070.5	38.66
IV.	276.75	2470.25	36

HOTSA: [i]
KOKAPENA: hitz hasieran, silaba askean ("e-" bokaletik datorrena)

	F1	F2	IRAUPENA
I.	322.4	2214	36
II.	311.6	2099.2	51.2
III.	307.5	2125.16	60
IV.	292.5	2127	51

HOTSA: [i]
KOKAPENA: hitz barruan, silaba askean

	F1	F2	IRAUPENA
I.	351.42	1911.02	101.06
II.	309.26	2059.33	60
III.	287	1927	58.66
IV.	404	2128	71

HOTSA: [i]
KOKAPENA: hitz barruan, silaba askean

	F1	F2	IRAUPENA
I.	369	2132	64
II.	300.66	2008.29	72
III.	341.66	2015.83	54
IV.	333.5	2078.75	49

HOTSA: [i]
KOKAPENA: hitz barruan, silaba askean ("e" bokaletik datorrena)

	F1	F2	IRAUPENA
I.	410	2091	62.7
II.	246	2159.33	64
III.	295.2	2009	52.8
IV.	307.5	2173	71

HOTSA: [i]
KOKAPENA: hitz bukaeran, silaba askean

	F1	F2	IRAUPENA
I.	328	2378	84
II.	366.5	2132	72
III.	360.8	2107.4	68.8
IV.	323.25	1899.25	89

HOTSA: [e]
KOKAPENA: hitz hasieran, silaba askean

	F1	F2	IRAUPENA
I.	533	2173	72
II.	445.79	1520.2	80
III.	503.71	2498.57	76
IV.	525	1722	54.66

HOTSA: [e]
KOKAPENA: hitz hasieran, silaba askean

	F1	F2	IRAUPENA
I.	450.35	2559.33	48.1
II.	461.25	1906.5	43
III.	310.35	1861.28	56.57
IV.	410	2289.7	51.2

HOTSA: [é]
KOKAPENA: hitz barruan, silaba askean

	F1	F2	IRAUPENA
I.	470.85	2255	48
II.	441.66	1845	76
III.	420.25	1906.5	68.8
IV.	435	1851.6	68.8

HOTSA: [é]
KOKAPENA: hitz barruan, silaba trabatuan

	F1	F2	IRAUPENA
I.	502.25	1755	75
II.	533	1640	64.4
III.	481.26	1632.81	66.85
IV.	432.25	1901.8	64.66

HOTSA: [é]
KOKAPENA: hitz barruan, silaba askean

	F1	F2	IRAUPENA
I.	369	2132	80
II.	369	1845	81.35
III.	369	2558	100
IV.	410	2339	84

HOTSA: [a]
KOKAPENA: hitz hasieran, silaba askean

	F1	F2	IRAUPENA
I.	574	1394	76.2
II.	647.8	1484.2	67.2
III.	656	1511.14	64
IV.	589.5	1383	50.36

HOTSA: [á]
KOKAPENA: hitz hasieran, silaba askean

	F1	F2	IRAUPENA
I.	697	1640	128
II.	724.33	1517	97.33
III.	738	1650.25	96
IV.	672	1513	82

HOTSA: [á]
KOKAPENA: hitz barruan, silaba trabatuan

	F1	F2	IRAUPENA
I.	697	1312	164
II.	684.75	1414.5	121
III.	630.8	1467.8	106.4
IV.	629	1355.25	73

HOTSA: [á]
KOKAPENA: hitz barruan, silaba askean

	F1	F2	IRAUPENA
I.	625	1232.4	76.8
II.	492	1189	80
III.	574	1508.8	74.4
IV.	619.8	1406.6	60.2

HOTSA: [a]
KOKAPENA: hitz barruan, silaba askean

	F1	F2	IRAUPENA
I.	615	1476	60
II.	615	1517	116
III.	633	1429.14	66.85
IV.	605	1476	48

HOTSA: [ó]
KOKAPENA: hitz hasieran, silaba trabatuan

	F1	F2	IRAUPENA
I.	512	820	64
II.	390	845	74.4
III.	512	779	80
IV.	445.8	779	60

HOTSA: [o]
KOKAPENA: hitz hasieran, silaba trabatuan

	F1	F2	IRAUPENA
I.	469	1394	88
II.	477.66	925	56
III.	435	882.5	53
IV.	435	997.66	42.66

HOTSA: [ó]
KOKAPENA: hitz barruan, silaba askean

	F1	F2	IRAUPENA
I.	491	861	64
II.	498	943	88
III.	468	738	56
IV.	574	984	88

HOTSA: [o]
KOKAPENA: hitz barruan, silaba askean

	F1	F2	IRAUPENA
I.	436.5	881.5	106
II.	492	950	69
III.	455.3	999.4	63.2
IV.	469.6	923.4	68

HOTSA: [ó]
KOKAPENA: hitz barruan, silaba trabatuan

	F1	F2	IRAUPENA
I.	480.5	902	94
II.	469	943.15	77
III.	469	943	73
IV.	464.6	1008.2	72

HOTSA: [ú]
KOKAPENA: hitz hasieran, silaba trabatuan

	F1	F2	IRAUPENA
I.	389.5	861	72
II.	264	615.76	48
III.	328	779	68
IV.	266.5	697	60

HOTSA: [ú]
KOKAPENA: hitz barruan, silaba askean

	F1	F2	IRAUPENA
I.	328	820	60
II.	324	810.53	64
III.	353.83	826.83	86
IV.	324	906.66	101.33

HOTSA: [u]
KOKAPENA: hitz barruan, silaba askean

	F1	F2	IRAUPENA
I.	328	902	64
II.	344.4	999.23	85.6
III.	328	676.5	76.5
IV.	333.33	753	81.33

HOTSA: [ú]
KOKAPENA: hitz barruan, silaba trabatuan

	F1	F2	IRAUPENA
I.	394.5	911.25	76
II.	315.8	785.34	72
III.	380	725.5	84
IV.	410	779	78.75

Hona hemen, datu hauen arauera, azpi-euskalki bakoitzaren batazbestekoak:

HOTSA: [i]

	F1	F2	IRAUPENA
I.	337.91	2270.94	80.22
II.	307.19	2105.05	65.98
III.	308.01	2070.76	60.49
IV.	322.26	2143.54	61.87

HOTSA: [e]

	F1	F2	IRAUPENA
I.	465.09	2174.86	64.62
II.	450.14	1751.34	68.95
III.	416.91	2091.43	73.64
IV.	442.45	2020.82	64.66

HOTSA: [a]

	F1	F2	IRAUPENA
I.	641.6	1410.88	101
II.	632.77	1424.34	96.30
III.	646.36	1513.42	81.53
IV.	623.06	1426.77	62.71

HOTSA: [o]

	F1	F2	IRAUPENA
I.	477.80	971.70	83.20
II.	465.33	921.23	72.88
III.	467.86	868.38	65.04
IV.	477.80	938.45	66.13

HOTSA: [u]

	F1	F2	IRAUPENA
I.	360	873.56	68
II.	312.05	802.71	67.4
III.	347.45	751.95	78.62
IV.	333.45	383.91	80.35

I. Taldearen bokalen triangelu akustikoa.



II. Taldearen bokalen triangelu akustikoa.



III. Taldearen bokalen triangelu akustikoa.



IV. Taldearen bokalen triangelu bokalikoa.



Lau laldeen bokalen formakinen datuak batera.



Lau taldeei batera dagokien bokalen triangelu akustikoa.



Datu horien arauera, hona, azpi-euskalki guztien formakinak baturik, bokal bakoitzaren bataz-bestekoa:

HOTSA:

	F1	F2	IRAUPENA
[i]	318.84	2147.59	67.14
[e]	443.65	2009.61	67.88
[a]	635.94	1443.85	85.38
[o]	472.19	924.94	71.81
[u]	338.23	803.03	73.59

1.1.7.1. Komentarioa

Analisi akustikoa eta artikulatorioa erkagarriak eta elkarren osagarri direnez, bidezkoa da baterako eta besterako jaso diren datuak parean ipintzea. Horrela eman zuen aditzera DELATTRE-k (1966) formakinen maiztasunaren eta aho-barrunbearen arteko zerikusia azpimarratu zuenean. Badakigu lehenengo formakinaren altuera, F1-ena, alegia, bokalaren irekierarekin eriazio hertsian dagoela; bestela esan, mihiaren eta ahosapaiaren artean zenbat eta distantzia haundiagoa izan, hainbat altuagoa izanen da lehenengo formakina, eta alderantziz ere gauza bera. Gure hizkuntzari lotuz, "a" bokala izango da formakin altuena duena, bera bait da bokalik irekiena.

Bigarren formakina, berriz, F2, alegia, bokalaren aurrekalde edo atzekaldeko artikulagunearekin harremanetan dago; hau da, zenbat eta mihia aurreratuagoa ahosapai aldera, orduan eta altuagoa izanen da formakina, eta alderantziz, mihia atzerago eta formakina apalagoa. Horren arauera, beraz, euskaraz "i" bokalak

ditu bigarren formakin altuenak eta "u" bokalak, berriz, apalenak. Ezpainek ere badute zerikusirik bigarren formakinarekin, honek maiztasun txikiagoa izanen duelako ezpainak borobiltzen eta luzatzen badira. Labur esanda, lehen formakinaren maiztasun haundiagoak aho-barrunbe irekiagoa suposatzen du, eta bigarrenaren maiztasun haundiagoak, aho-barrunbe luzera txikiagokoa, lehenengoa proportzio zuzenean, eta bigarrena alderantzizkoan.

Formakinen karta eginez eta papel logaritmikora baloreak eramanez, F1 ordenaden ardatzean ezartzen da, behetik gora doan ardatzean, jakina; F2, berriz, abzisen ardatzean, ezker eskuin doan ardatzean. Maiztasunek hertzioetan ematen dizkiguten emaitzak ardatz hauetara eramanez gero, aztertzen den hizkuntzaren sistema bokalikoa irudikaturik azalduko da. Irudi hau gaztelerarako hiruki bat da, QUILIS (1981,175), katalanerako ere hirukia, CERDA (1972,166), eta euskararena ere bai, SALABURU (1984,225); izan ere, lehenengo mailako hiru, bost edo zazpi bokal kardinal dauzkaten hizkuntzek aurkezten duten bezala. Horrela egiaztatu zuen C. F. Hellwag-ek 1781. urterako fonetika artikulatorioan, eta, esan denez, bat dator fonetika akustikoarekin.

Komenigarria gertatzen da bestalde, zenbait ikerketa motarako, bi formakinen balioak ere elkarrekin erkatzea. Esaterako, euskararako arestian ikusi ditugun "e" bokalaren gertakizunetan, "e" bokala ireki egiten dela dardarkari baten aurrean esan dugu. Hori akustikoki aztertu beharko litzateke. Horretarako ingurune neutro baten "e" bokalaren sonogramaren lehenengo bi formakinak hartu eta dardarkari anitzaren alboan doan "e" bokalarenarekin erkatu beharko lirateke. Azken "e" hori benetan irekiagoa bada, formakinak ere hurbilago egongo dira euren artean, lehenengoa gorago egongo delako, irekiagoa, alegia, eta bigarrena, berriz, beherago, mihia beherago eta atzerago dagoelako eta aho-barrunbeak luzera txikiagoa duelako.

Analisi hauetatik atera daiteke bokalen alofonoek oinarririk duten ala ez, eta, beraz, aldaki hutsak edo beste zerbait garrantzitsuagoa ote diren. Horretarako lan monografikoak beharrezkoak

dira, sistematizazio haundiz eta datu ugariz eginak eta egoera berezietan jasoak. Gure kasua eta helburua bestelakoak diren arren, mesedegarri deritzogu begirada bat botatzeari.

Azpi-euskalkika jaso diren datuak erkatuz, lehenengo begiradara, bereizketa nabarmenik ez dagoela orohar esan daiteke, eta nahiko inguruan gertatzen direla formakinek azaltzen dituzten maiztasunak. Baztango azpi-euskalkian /e/ fonemaren bigarren formakina atzeratu samarra ageri da ehun hertzioen aldia ateratzen delarik, 300-400 bitartekoak direlako agertzen diren mugak beste azpi-euskalkiekin erkatuz. Bestalde, /o/ bokalaren bigarren formakina ere bereziagoa azaltzen da Bortzirietako azpi-euskalkian, atzeragotuagoa bait dago besteekin erkatuz, eta Zugarramurdi-koarekin batez ere, honek ematen dituelako zenbaki gorenak 971 hz.-rekin.

F1 formakinari dagokionez, /i/ eta /u/ fonemetan oso parean gelditzen dira Baztango azpi-euskalkian, 337-360 bitartean, eta, beraz, hersketaren aldetik bi fonemak berdintsu gelditzen dira hizketa horretan; Bortzirietakoan, aldiz, distantziarik haundiena gertatzen da. Datuak osotasunean hartuz, alderdi esentzialetan ez dugu desberdintasunik eta ezusteko haundirik aurkitu. Neurri batean datu normalak iruditu zaizkigu; izan ere datu denak batu ondoren atera bait dira.

Bokal ertainek, orohar, distantzia txikiagoa dute bokal hertsietatik irekiena den /a/ bokaletik baino. Fonetika artikulatorioan ikusi dugun bezala, armonia bokalikoa dela bide, txikiagoa den distantzia horretatik jarrai daiteke bokal ertainen hersketa eta, sistema parekatzeko, "a"-ren erakarpena, hau ere inflexionatuz eta "e" eta "o"-ren aldera eramanez.

Armonia bokalikotik kanpo, badira beste metafonia mota batzu hersketa sortzen dutenak, "eguzki / iguzki", "(h)ontz / (h)untz" edo, hitz barruan gertatutakoak, "mogitu / mugitu" etabar. Kasu hauek ere funtsean eragin fonetiko berdina aurkezten dute eta armoniarako esandako arrazoia hemen ere baliagarria litzateke.

Hala eta guztiz ere, ez dira horrelako tinbrearen aldaketak gertatu kasu guztietan. Tarteko emaitzak ere agertu dira. Honek ez du bilakabide batean egon zitekeen aztarnarik agertu, edo, bestela esan, itsirik dago "e" bokaletik "i" bokalerako aldaketa fenomenoa. Datuetara jotzen badugu, "e" > "i" eta "o" > "u" bilakabidea gertatu den tokietan, balore absolutuetara lotuz, ez da batere desberdintasunik gertatu jatorrizko "i" edo "u" hotsekin.

Isteko joera, aldiz, badago armonia bokalikoa gertatzen ez den tokietan, "e" eta "o" bokalen lehenengo formakinak txikiagoak ematen bait dituzte, baina ez da, bestalde, sistematikoa eta aztertu dugun kasuetan ezin dugu behin-betiko ondoriorik eman.

Hersketarekin jarraituz, "o" bokal ertainaren lehenengo formakina isteko joera agertu da sudurkariarekin trabatua doanean hasierako posizioan, batzutan "u"-rena baino hertsiagoa delarik.

Alderantziz, berriz, ireki egiten dira dardarkari anitzaren aurrean joaten direnean; baina ez beti, aurretik bokalak daraman hotsak eragin haundiagoa bait du eta, zenbait kasutan, kontsonante belarea edo [u] bokala badarama -gorunzko diptongoa sortuz, kasu honetan-, tinbrea hertsi eta bigarren formakina nahikoa atzeratzen da.

Analisi artikulatorioan trukaketa fenomenoen garrantzia azpimarratzen genuen eta akustikoak ere baieztatu baizik ez dizkigu egin han esandakoak. Hori dela eta, /a/ fonemak ez duela /u/-rekin inoiz trukaketarik egiten eta, aztertu dugun lurraldeko hizketetan, salbuespenen bat izan ezik, ez dugu aurreko bokalak atzekoekin trukatzen direnik aurkitu. Laburbilduz, trukaketa nagusiak eta maizen gertatzen direnak hauek lirateke:

a → e → i, batetik, eta o → u, bestetik.

Beste maila batean, jasotako datuak besteek jaso dituztenekin erkatzen baditugu, orohar, gure emaitzak hurbilago daude espainol sistematik, QUILIS (1981,175), gehienetan SALABURU-k (1984,225) Baztango azpi-euskalkirako jaso zuen sistematik baino.

Baztango formakinen bi kuadroak erkatzen baditugu, bapatean ikusten da guk jaso dugun triangelua ez dela Salaburu-rena bezain hertsia. Beste ezberdintasuna /a/ fonemari dagokio, guk jaso duguna hertsiagoa baita, espainolerako Quilis-ek ematen duenarekin ia bat datorrelarik. Proportzio berdinean gertatzen dira /e/ eta /o/ bokalen lehenengo formakinak hertsiagoak; /e/-rena /o/-rena baino hertsiagoa gertatzen da gure datuetan, Salaburu-renean, aldiz, /o/-rena hertsiagoa da /e/-rena baino, honetan ere espainolekoarekin hurbilago gelditzen direlarik gure datuak, espainolekoan /o/-ren F1 altuagoa bait da /e/-rena baino. Hauek horrela direlarik ere, desberdintasunik nagusiena /u/ bokalaren formakinetan datzala uste dugu, askoz ere irekiagoa bait da Salaburu-k jasotakoa gurea baino F1-i dagokionez, eta berriro ere espainolerako Quilis-ek ematen duenetik hurbilago gelditzen dela guk jasotakoa esan behar. Bigarren formakinari buruz ere beste horrenbeste esan behar da, Salaburu-rena altuagoa da eta, hortaz, aurreratuagoa du ebakera; guk bildu duguna atzeratuagoa, baina ez Quilis-ek gaztelerarako jaso zuena bezain atzeratua.

Gure datuak, azpi-euskalkiak batuz eta datuen bataz-bestekoa egin ondoren, espainoleko eta frantsesko, DELATTRE (1966,236 eta hur.), triangeluekin erkatuz, zenbait gauzatan antzik aurkitu arren, aldakuntzak ere ageri dira. Bokalik irekiena /a/ da, eta espainoleko "a"-ren oso antzerakoa, ia bat egiten dutelarik biek, eta bokal ertainekin ere badu antzik lehenengo formakinari dagokionez. Halaz ere, guk jaso ditugun /i/ eta /u/ bokalak irekiagoak dira gaztelerarenak baino. Frantsesarenakin erkatuz, berriz, frantsesaren bi "a" bokalak euskararenak baino irekiagoak dira, baina euskararen bokal itsiak, aldiz, frantsesarenak baino irekiagoak, /u/ batez ere, N'DIAYE-k (1970,12) Amaiur-ko hizketarako esan zuen bezala.

Bigarren formakinean daude, halere, desberdintasunik haundienak, ez bait dira guk jasotako datuetan belareak hain belare gertatzen, edo bestela esan, beherago gertatzen dira espainolaren formakinak, eta alderantziz, espainoleko /u/ eta /i/ bokalen bigarren formakinak altuagoak dira, edo aurreratuagoak, guk

euskararako jaso ditugunak baino. Ertain mailako bigarren formakinei dagokienez, askoz ere erdiagoan gertatzen dira guk jasotakoak espainolekoak baino, horretan Salaburu-renetatik hurbilago geldituz.

DELATTRE-k (1966, 236 eta hur.) sintetizaturik jaso zituen bokal kardinalekin erkatuz gure datuak, esango genuke /i/ bokala irekiagoa eta atzeratuagoa dela, /u/, berriz, irekiagoa baina aurreratuagoa. Euskararen /a/ bokala "a" sintetizatuak baino hertsiagoa agertzen da eta ertain mailako bokal sintetizatuak tartean gelditu-ko lirateke, bigarren formakinak nahiko parean geldituz.

Bukatzeko, zera esan dezakegu, garai zahar batean, "-i" erdibokala diptongoaren bigarren elementua zelarik, aspiraketa berriak agertzen duenez, beherunzko diptongoa zuten hitz mordoxka horrek, artikulazioa aldatzen du, elementu erdibokaliko hori kontsonante bihurtuz. Sabaiko igurzkari ahostuna da sortzen den kontsonantea, eta hasierako posizioko yod hotsaren edo armonia bokalikoaren ondorioz sortzen den bilakabidea izan du, hala nola, "leiho" hitzean (R), Ekialdeko (B)-n: Bergara, Arrasate, Gatzaga, Oñati "leixo" (AZKUE, 1969,539).

88A EHO - 88B ARTOA EHO (150-151)

> *"...los dialectos vasco-franceses tienen **eho** (sust. verbal **ehaite**), a-nav. guip. **eo**, pero hay también vizc. **eio** [ei(z)o], io [i(d)zo], a-nav. guip. vizc. **igo** ei-: en ronc. eio "moler" i debe ser epentética, pues de otra forma se esperaría *exo" MITXELENA (1977,176).*

IRIGOYEN-ek (1987,9) beherunzko diptongoaren ondotik aspiraketa daramaten hitz mordoxka horretan kokatzen du hitz hau, forma zaharra bezala ***eiho** hartuz eta honela arrazoitzen du:

> *"...si tenemos en cuenta que junto a la variante **eho** se encuentra el derivado **eihera / eihara,** 'molino', en torno a las cuales, sobre todo después de que tenemos conocimiento de que en el bronce de Contrebia, -de antes de mediados del siglo I antes de Cristo-, se registra (s)EIHAR como monbre del padre de un zaragozano, SALLVIENSIS-".*

Jatorrizko hotsen egoera, hau da, garai zaharreko hitzak diptongoa ote zuen ala ez alde batera utziz, ez bait da hori garbi gelditzen, mapetan ageri diren datuak, orokorki harturik, hauek dira: Baztan, Zugarramurdi eta Etxalar-en **ego;** Ultzaman **ei / i-go,** tarteko ahoskera, Arakil, Ultzamako azpi-euskalkietako zenbait lekutan eta Bortzirietan **ijo, io, jo.**

Datu hauetatik atera daitekeenez, agian, **eio** zitekeen forma zaharrak, **eho** eta **eiho**-rekin alterna zezakeen distribuzio geografikoz "ei" → "e" gertatuz, oraintxe puntuan "leiho → leo [leúa] (Ituren) gertatzen zela ikusi dugun bezala-. Forma aspiratuak, Hegoaldean aspiraketa galdu zenean, **ego** ahoskera hartu zuken, Baztan-en eta Etxalar-en ahoskatzen dena eta beste kasu batzutan gertatu den bezala, bokal ezberdinen arteko aspiraketa belare hurbilkari egitera aldatuz. Beste era bateko aldaketa "ei → i" litzateke, **eiho**-tik "igo" Erasun-en. Eta, azkenik, batere aspiraketaren aztarnarik gelditzen ez denean, eta diptongoa murriztuz: **ijo, io eta jo,** bokal, erdikontsonante eta kontsonante oso eginez, alegia, gainerako tokietan (39).

Ahoskeraren aldetik, bestalde, hitz polimorfikoa da hau. Etxalar eta Erasun-ek Bortzirietako azpi-euskalkira jotzen dute, lekuko nagusien informazioa aldendu egiten bada ere, eta Ultzamako azpi-euskalkietako zenbait lekutako forma oso mugikorra da, estatus finkorik ez bait du. Azkenik, Zugarramurdi-ko B lekukoaren aspiraketak bidea zabaltzen digu, hitz honetan "h" hotsaren bilakabideak ez duela aztarnarik utzi beste tokietan, zero izan dela, alegia, ziurtatzeko.

ZHO (150)



89A MAHAI - 89B HIRU MAHAI (152-153)

Aspiraketa egiten ez den tokietan, egun, elkar jotzen geldi-tzen diren bokalak, tinbre berdinekoak direnean, murriztu egiten dira Bizkaieratik kanpo, noizean behinka geminaziorik agertzen bada ere, orain arte ikusi den bezala.

Geminazioaz gain, beherunzko diptongoaz amaitzen den hitza da ala "ma-i", horrelako muga silabikoa duena? Baldin azken hau izango balitz, berriz, morfema mugatzailea hartzerako-an nolako segmentoa sortzen duen ikustea beharrezkoa litzateke.

Mapan ageri diren datuek ez dute arazorik sortzen. Toki guztietan kontsonante sabaikari bezala ahoskatzen da, forma mugagabean beherunzko diptongoa sortuz.

Zugarramurdi-ko forma da aldentzen dena. Iparraldeko **mahain** formatik datorrena da. **Mahain** hitza, bai Azkue-k eta bai Lhande-k beren hiztegietan (L), (Z) eta (BN)-ko bezala dokumen-tatzen dute, azkenengo euskalki honetan Alduides-en **mahai** ere erabiltzen dutelarik. Ez dute ez Gavel-ek ez Mitxelena-k kontso-nante sudurkari horren berririk ematen. Agian, latineko MAGIDEM hitzetik datorrela, Lhande-k dioenari jarraituz, onartuko balitz, hitz honetako "-ain"-ek beste "-ain" kasuetan bezalako tratamendua izan duela esan beharko litzateke, "ma(h)ain" egiten ez den lekue-tan, Hegoaldeko hizkelkietan kontsonante sudurkaria galdu egin dela, alegia, hitz konposatuetan sartzen denean "mai-" hitzak sudurkariaren aztarnarik agertzen ez badu ere.

Zugarramurdi-ko bi lekuko nagusien erantzunek, bokalismo-aren aldetik, badute ezberdintasunik. Kasu honetan ere badirudi forma zaharragoak ematen dituena, B lekukoa dela, "ma-í-na" eta "-ma-ín" ahoskatuz. Agian aspiraketa gal berriaren aztarna ote?

90A ZANGO - 90B HIRU ZANGO (154-155)

Hitz honetan gorunzko diptongoa ahoskatzeko joera izaten da "-a" mugatzailea hartzen duenean eta, jakina, azentua lehenengo silaban daramanean.

Hala eta guztiz ere datuek ez diote horri erantzuten. Inon ez bait da gorunzko diptongorik egin eta kasu askotan ez dira lexemaren bokala istera ere iritsi.

Maila semantikoaren aldetik hauxe esango genuke, hitz honen erreferentea ez dela batere garbia. **Zango, oina, hanka** hirurek gauza berdintsua edo bera adierazten dute eta jendeak orohar, ez daki zer den zer bereizten. Hirurak ingurumen berdinetan erabiltzen dituzte eta bereiztasunen bat seinalatu arren, praktikan nahasirik darabiltzate; elkarren artean alderik izatekotan maiztasunarena baizik ez litzateke izanen, gehien ere. Beraz, distribuziorik ez duen polimorfismo lexikoko kasu bat litzateke.

91 JOAN (156)

[w] gorunzko diptongoaren elementu erdikontsonantikoak, [j]-ek ez bezala, ez du askatasunik lortu, eta bere errealizazioak /m/-renakin nahasten dira kasu batzutan. Hori aditz honen faktitiboaren bilakabideak agertzen du:

"*eraoan→*erawan→*eraban→eraman"/ Hg(GN) "eramo", (BN) "erman", (B) "eroan", beste bilakabide bat izan duelarik.

Erakusleek ere [w] horren kontsonantizazioa agertzen dute: "(h)eben", "(h)emen" formak "*auen" formatik datozenak dira.

Kasu batzutan metatesiak ere gertatzen dira, beherunzko

diptongoarekin gertatzen den bezala. Ikus, "euskara" hitzetik sortu den metatesia (102) mapan.

"E-oa-n" formatik datorren hitz honek aldaketa haundiak izan ditu. Lehenbiziko hotsa "i" egin zen, baina "e" bokalaren aurretik doan hots hori inoiz bokal oso edo erdikontsonante bezala ahoskatu ote den jakiteko ez dugu batere aztarnarik (40). Kontutan hartuz gero lehenengo posizioan dagoela, aski zail iduritzen zaigu fonetika artikulatorioaren aldetik horrelakorik gertatzea, hasiera absolutuko egoerak beti ere indar berezia eskatzen duelako ahoskatzerakoan.

Talde horren bilakabidea, hitz honetan hain zuzen ere, berezia izan da, baita ezpain-horzkari [f-] bezala egiten delarik Aezkeraz, Heg (GN)-z, eta Gipuzkoako (B)-z egiten den leku batzutan ere, erabiliagoak diren ahoskeren artean. Honetaz beherago hitz egingo da.

Bokalismoaren aldetik, berriz, lehenengo hotsa, toki guztietan kontsonantizatu denez gure ustez, hurrengo "oa" taldeak bilakabide ezberdinak izan ditu: "o-an", "-wan" eta "-an" lirateke nagusienak.

Gure datuetan "oa" taldea mantenitzea izan da jokabiderik arruntena, eta horren parean, armonia bokalikoz, "ua". Ez dira oso datu fidagarriak, zeren sabaiko ahostuna ahoskatzen duten tokietan hau da, Bortzirietako azpi-euskalkian eta Ultzamakoan, zati nagusi batean, "ua" egin bait dute grabaketa askean ikusi den bezala.

Baztan-en, berriz, batasun haundiz "gan" ahoskatzen da, kasuren baten "goan" ere entzun den arren.

92 (MUTIKO) HAUEK (157)

Bokalarteko [w] hots erdibokalikoak gorunzko diptongoaren bidea eraman du. Hau da, kasu gehienetan kontsonante bihurtu da, edo, bestela, murriztu egin da.

Erakusle honek Nafarroa-n, guk jaso dugunez, ez du goian aipaturiko forma jarraitzen, **hauk** forma baizik (41). Hori da, hain zuzen, Zugarramurdi-n erabiltzen dutena, aspirazioa galdua duelarik A lekukoak, baina ez, ordea, B-k.

Gainerako guztiek **(h)auk** formatik diptongoa monoptongatuz **ok** ahoskatu dute denek. Guk, egia esan, izen sintagma traskribatzerakoan, "oo" bokalen elkarketa geminazio bokalikoa bezala hartu dugu. Ez da erraza bereizten, belarriz batez ere, geminazioaren eta bokal luzeen artean. Geminazioa edo bokal bixkia gehiago zirudienez, horrela traskribatzea erabaki genuen.

1.2.3. Analisi fonetiko eta diatopikoaren ondorioak

Diptongoei buruz egin dugun azterketaren ondoren gauza bat agertzen da oso nabarmen, eta hori diptongoek duten nortasun falta dela esango genuke. Salbuespenak salbuespen, lekuak eta ingurumen fonetikoak erabakiorrak izango dira diptongoaren mantenimenduan edo galeran. Dena den, ez dago lege zehatzik ere eta ezin daiteke, arau sistematikorik eman, izan ere ez bait da horrelakorik.

Zenbait kasutan, eta beti mugatuko gara guk aztertu dugun lurraldera, diptongoa oso tinko mantenitzen da. "Gauza" eta "aul", "au"-ren kasuan, "bai", "naiz" -honetan Aldaz gelditzen da kanpoan- eta "aingeru", "ai"-renean, "goiz" "oi" diptongoari dagokionez: hauek izango lirateke gure datuetatik jaso ditugun diptongo bakarrak toki guztietan. Bistan da, Goi-Nafarreraz ez dagoela "i" erdi-

bokal sabaikariaren aldetik hurrengo kontsonante xistukaria bustitzeko joerarik, "bakoitz" lexemaren kasuan gertatzen bada ere.

Ez da, halere, bustiduraren bitartez sortzen den murrizketa kasu bakana, "i" erdibokala, albokaria eta sudurkaria busti ondoren, bera galtzen bait da hainbeste kasutan, ez, ordea, beti eta toki guztietan ere. Zugarramurdi-k, diptongoa mantenituz gain, ez du bustitzen hurrengo hotsa eta Baztango aspi-euskalkian busti eta, gainera, diptongoa mantenitu egiten du. Beste azpi-euskalkietan, orohar, kontsonantea busti eta diptongoaren murrizketa izango litzateke emaitzik hedatuena.

Diptongoa azkenengo posizioan aurkitzeak ere bidea zalbaltzen dio murrizketari, batzutan berez galduz, besteetan, gehienetan, mugatzailea hartzerakoan "i" elementu bokalikoa kontsonantizatu egiten delako. Honek bapatean ekartzen digu burutara fonetisten artean sortu zen eztabaida, hau da, erdibokalen nortasuna ez datzala bokala izatean kontsonantea izatean baizik. Bestela esan, ez direla bokalak diote, ikus esaterako MALMBERG (1943,24). Egia esan, artikulaketaren tentsioa jeitsi egiten da hots hauek ahoskatzerakoan, eta ahoan sortzen den barrunbea ere aldatu bokal hutsekin erkatzen baditugu. Horrela izanik ere, bokalen ezaugarrietatik hurbilago daudela kontsonanteenetatik baino bistan dagoen gauza da. Eztabaida beti irekia dago eta, neurri batean, ulergarria da, eta hor daude, ondorioen artean, eten gabe ikusten ari garen elementu hauen kontsonanteen aldeko bihurketak. Bihurketa edo transformazio hauek maizago gertatzen dira, normala den bezala, erdikontsonanteekin nahiz eta erdibokalekin ere gertatu. Euskararako ikusi duguna, beste hizkuntza askotara ere heda daiteke, ikus B. HALA (1973,110-111).

Murrizketari dagokionez, ez du oinarri finkorik, eta "au" → "o" egiten denean, "arroltza", edo "a", "aspoa", edo "ei" → "i", "haritza", eta antzerako hainbeste, ez da murrizketa estrukturalik onartzeko arrazoi garbi eta sendorik ikusten. Ez dago erabateko

azalpenik horrelako kasuetarako eta esan beharko da hizkuntzaren barruko joera dela, orokorra, bestalde, beste hizkuntzetan ere gertatzen bait da, diptongoak murriztekoa eta, beraz, berriro berriak sortzekoa ere.

Gorunzko diptongoei buruz, berriz, euskaraz ere gertatzen edo badirela esan behar da, oso maiztasun gutxirekin agertzen badira ere; hitz mailegu berri samarretan, lekuko guztiak elebidunak direnez, euskarak berak asimilatuak dituen hitzak baino erdararen erregistrotik jasoak direla iduritzen zaigu gehiago.

Banaketa geografikoaren aldetik, esan bezala, Zugarramurdi ageri da bereziena, Lapurterara begira bait dago nagusiki; kasu batzutan Baztango azpi-euskalkira ere jotzen du, baina gutxitan. Behar bada, Amaiur-ko hizketa hurbiltzen da gehiagotan Zugarramurdi-ra eta baita, gutxiagotan bada ere, Etxalar-koa. Erasun-go hizkera nahastuxea dagoela esan behar, askotan Ultzamakora begira aurkitu bait dugu. Azkenik, Ultzamako Auza eta Larraintzar herrietako hizketak Baztan aldera jotzen duela askotan aurkitu dugu, Beunza-koa erdi mugan geldituko litzatekeelarik.

1.2.4. Azterketa akustikoa

Orain arte ontzat eman ditugu euskaraz gertatzen diren talde tautosilabikoak, hau da, silaba batean bi bokal edo gehiago jarraian gertatzen direnean. Eta, alderantziz, jarraian doazen bokal horiek silaba berekoak ez badira, talde heterosilabiko baten aurrean gaude. Lehenengo taldeari "diptongoa" deitzen diogu eta "hiatoa" bigarrenari.

Talde tautosilabikoetan, ordea, zein bokalek hartzen du gune nuklearra? Hortan fonetistek ez dute zalantza haundirik, eta QUILIS-ek (1981,176) egoera hobeagoan dagoenak hartzen duela

esaten du, hau da, irekiena denak, tentsio, intentsitate eta pertzeptibilitate gehiago dituenak.

Hizkuntzaren sintesiaren aldetik fonetista ospetsuenak bat datoz egin dituzten frogan eta saioetan, diptongoek dituzten ezaugarri nabarmenenak seinalatzerakoan; eta, gainera, baieztatu egin dituzte hizkuntza errealetan ere egiaztatu ondoren, FRY (1985), BORZONE DE MANRIQUE (1979), QUILIS-ek (1981) honako ezaugarri nagusiak azaltzen dituzte:

1. Bokal irekiak duen tinkotasuna eta estabilitea kasu guztietan.
2. Bigarren formakinaren norabidea eta honen iragaitearen abiadura.
3. Iragaite motelak bi bokalen arteko formakinetan diptongo baten aurrean gaudela adierazten du. Eta, alderantziz, iragaite azkarrak eta gogorrak badira bokalen formakinen artean gertatzen direnak bokalak heterosilabikoak izango dira.

Euskal diptongoen analisi akustikoa egiteko hitz hauen espektrogramak aztertu ditugu: "gau", "arraultza", "egitai", "Jainko", "bezain", "zain", "artzain", azkenengo bi hauek forma mugatu eta mugagabean, "behi", "asuin", "suerte", "leio", "eho" eta "joan". Hitz gutxi eta kasuistika haundikoak denak ere, baina guk erakusgarri gisa baizik ez ditugu hartu. Hemen aurkeztuko ditugunak oraindikan gutxiago izango dira, bestalde, gertatzen diren murrizketak, aldaketak eta abar guztiak alde batera utziz, diptongoen adibideren batzu bakarrik jarriko bait dugu.

Azterketa egiteko beste hizkuntzetan egin diren lanetan oinarritu gara, HARA (1973), HALA (1973),TORREBLANCA (1980), QUILIS (1981), euskaraz, guk dakigunez, ez bait da diptongoei buruz lanik egin akustika ikuspegiz. Erkaketa gaztelerarekin egin dugu hizkuntza honetan lan askorik egin ez den arren, batez ere bokalismo mailan bi sistemek duten berdintasunagatik.

Erkaketa egin ondoren, euskararako ere arau berdinek balio

dutela ohartu gara. Bokalen formakinen iragaitea, batez ere bigarrenarena, oso astiro gertatzen da eta kontinuitate paraleloa sortzen du. Gune silabikoaren ezaugarria ez da hain garbi gelditzen, ez bait da intentsitatearen aztarnarik ageri, aurkezten ditugun espektrogrametan ikusten den bezala.

"Gaua" kasurako bi espektrograma azaltzen ditugu adierazgarri gisa. Bat Aniz-ekoa (2.1) irudian -irudien zenbakiak parentesi artean emango dira (2.1)-, [au̯] diptongoa ahoskatuz. Ondo agertzen dira ezaugarriak. Elementu bokalikoen iraupena ez da luzea, laburra baizik, eta iragaitea luzea eta barea gertatzen da, etenik gabea. Gartzain-goan, berriz (2.2), "a" bokalaren formakinak moztu egiten dira, tartean kontsonante hurbilkaria gertatuz. Kontsonante honen formakinek, ondo ageri denez, antz haundia dute aldamenean dituen bokalen formakinekin: erresonantziak behean dauzka eta frekuentzia guneek, ahulagoak izan arren, bokalaren jarraipena dirudite. Horregatik ulergarria gertatzen da diptongotik kontsonante hurbilkarira sortzen den pasua.

"Ai" diptongoa "Jainkoa" hitzaren bitartez azaltzen dugu. Arraras-ek (2.3) eta Auza-k (2.4), biek diptongoa ebaki arren, iraupenaren aldetik askoz laburragoa gertatzen da Auza-koa eta horregatik iragaiteak ez dute hainbesteko luzapenik. Auza-koarenean gorunzko diptongoa [wa] ere gertatzen da, guk mapan ez duguna traskribatu, baina sonogrametan argi gelditzen dena; lehenengo silabako azentuaren indarraren eraginez sortua da; baina hori ez da nabaritzen sonogramaren intentsitatean.

"Ai" diptongoarekin jarraituz, ikus, lekuko berarengan, azkenengo posizioan kontsonante sudurkariaz trabatua gertatzen denean nola ezabatzen den (2.5) morfema mugatzailea hartzerakoan. Baina, aldiz, diptongoa eLakitzen da mugagabean sudurkariaren bustiduraz (2.6).

Ez dugu diptongo bezala hartu, berriz, Arraras-ko ahoskera (2.7). Hiato honetan agertzen den iragaitea bapatekoa da eta estabilitatea eta iraupena bera ere askoz ere haundiagoak dira hiatoan gertatzen direnean bokalak.

"I" diptongoko bigarren elementua denarekin amaitzeko, benetan euskal sistema fonetikoan interesgarri gertatzen diren fenomenoak bederen aipatu nahi ditugu. Oso aberats gertatzen den saila da, hain zuzen ere, sabaiko ahostun diren hotsei dagokien hau: "i" bokala, "i" erdibokala eta erdikontsonantea, eta kontsonanteak diren sabaiko hurbilkari ahostuna eta honen pareko erlaxatua, hau da, [i], [i̯], [j], [j̈] eta [ʝ̈], oraingoz alde batera uzten ditugularik afrikariak eta leherkariak. Ez ditugu horiek aztertuko orain, baina diptongoaren bigarren elementuaren errealizazioak direnez, hemen, eredu gisa, Etxalar-ko lekukoaren "behia" hitzaren sonograma (2.8) eta kontsonante hurbilkari erlaxatu bezala traskribatu duguna, - halere ez gaude hain konforme bereizketa honekin, berez ugaria den arloa konplikatzera bait dator, eta funtzionaltasunaren aldetik, ekarria hagitz murritzekoa agertzen bait da-, eta kontsonante hurbilkaria hitz berean (2.9) Larraintzar-ko lekukoarena, gorunzko diptongotik hurbil gelditzen dena, aurkezten ditugu. Dena den, beherago hitz egingo dugu horiei buruz, orain aipamena besterik egiten ez dugularik.

Belarea den "u" bokal aldera hurbilduz, hor dugu Auza-ko gertakizuna [au̯] diptongoarekin hasierako posizioan (2.10) "asuin" hitzarekin. Oso iraupen laburrekoa da, bi elementu bokalikoen formakinak jarraian doazenak bait ditu. Intentsitateko azentua lehenengo silabari jarri badiogu ere, eta azkenengoari bigarren mailakoa, bi silabek dute indar haundia eta ez genuen garbi ikusten biotatik zeini jarri azentu hori.

Zugarramurdi-ko lekukoak, aldiz, diptongoa barrenean egiten du [oi̯], eta luzexeagoa izan arren, betiko konstanteak gordetzen ditu diptongoaren ezaugarriei dagokienez (2.11).

Azkenik, gorunzko diptongoen lekukotasuna jasotzeko, [wa] eta [we] gertatzen direneko bi ekartzen ditugu. Auza-ko [d'wán], batetik eta Arantza-ko [śwértià] bestetik, (2.12) eta (2.13) jarraiberean. Ikus (2.4) sonograman agertzen dena ere, eta erkatu denak Arantza-ko [d'uán]-ekin (2.14). Begi bistan gelditzen dira gertatzen diren desberdintasunak: hiatoari dagozkion formakinak, bakoitzak

bere nortasuna du eta sonograman ebakita bezala agertzen dira, iragaitea bapatekoa da eta tonikoaren aurrean doan "o" bokalaren intentsitatea ere makalagoa. Ez da, hortaz, diptongoaren eta hiatoaren bereizketan, euskarari dagokionez behintzat, arazorik sortzen.

Egia esan, beherunzko diptongoetan, gure pertzepzioz jaso genuenaren eta analisi akustikoan ikusi dugunaren artean batasun haundia aurkitu dugu. Beste kontu bat da gorunzko diptongoaren errealizazio eta pertzepzioari dagokiena, ez bait da entzuten den oro gorunzko diptongo izaten; eta alderantziz, batzutan gertatzen dira gorunzko diptongo bezala horrela ez somatu arren; hauetan, egiaz, entzumenez bereizteko eragozpen haundiak izan ditugu eta espektrogramen laguntza behar-beharrezkoa jotzen dugu. Honek ere ez ditu denak gainditzen, jakina, eta ezinbestekoa da analisi zehatz eta begiratua.



(2.1) g ə́ u̯ ə̄ ʰ



(2.2) g ə́ β ə̀



(2.3) x á i̯ n kʰ o à



(2.4) x á i̯ n k w à



(2.5) s á n' à



(2.6) í r v s á i̯ n'



(2.7) á ř s a i è



(2.8) b é f à



(2.9) b é ǰ à



(2.10) á u̯ s i n' è: ʰ



(2.11) a ś ó i̯ n ə ʰ



(2.12) d' w á n



(2.13) s̀ w è r̄ t i à



(2.14) d' u á n

1.3. HIATOAK

Puntu honetan, lehenbizi bokalak elkarrekin aurkitzen direnean sortzen diren kasuak azalduko ditugu, diptongoez kanpo, noski; gero armonia bokalikoaz mintzatuko gara, eta egile ezberdinek esandakoa gai honi buruz ikusiko dugu.

Bokalen topaketak ugariak dira eta batez ere arrazoi morfologikoak tartean direla gertatzen dira, hala nola hitz berriak eratzean nahiz elkarketaz nahiz eratorbidez, deklinabide mugatuan, joskeran, eta edozein bokalen arteko elkartzerik gertatzen denean. Horrelakotan topo egin duten bokalek bata bestearekin egokitu beharra izan ohi dute. Alabaina, gramatikarekin loturak dituzten heinean, ez dira fonetika zehatz eta soileko kasuak, fonetika sintaktikokoak baizik. Nolanahi ere, fenomeno bokalikoak dira, hiatoaren formaz agertzen direnak eta batera edo bestera topaketa hori erabakitzen dutenak.

Armonia bokalikoari buruzko fenomenoak ez dira aspaldikoak izan ohi, alderantziz baizik, eta honek berreraiketa erkatzailea ezezik, baita analisia eta kasuen sistematizatzea ere galerazten ditu; beraz, gehienetan deskribapen hutsean eta hartzen duten banaketa geografikoan gelditu beharra dago, ikertzaile orok, Bonaparte-tik hasita, egin duen bezala egiaz.

1.3.1. GEMINAZIOA

93A HARI - 93B HIRU HARI (158-159)
93C ARE - 93D HIRU ARE (160-161)
93E ARI NAIZ (162)

Hiatoei buruz hitz egiteko ditugun mapa sail honetan, lehen ikusitako 30A AHARI eta 30B HIRU AHARI (50-51) biak ere sartu behar dira, lau hitz nahiko berdintsu eta elkarrekin erkatu beharrezkoak bait ditugu, bere artean dituzten ezberdintasunak mantenitu ala areagotu egiten dituzten, ala, bestela, batzera eta berdintzera jotzen duten ikusteko. Bestalde, analisi honetarako bokalen tinbreak bost gradutakoak bezala hartzen ditugu, eta bokal irekia ala itsia izateari ez diogu pertinentzia berezirik eskeintzen.

Hiru lexema horiek ezberdinak dira. Kasu baten geminazio bokalikoa ageri da, **ahari,** aspiraketa galdu den tokietan, jakina. Beste bitan, **(h)ari / are** oinarri lexematiko ezberdinetako hitzak; eta, azkenik, aditzean perifrasi multzotako **ari** osagaia. Lexema hauei buruz, tinbre bereko bokalek bat egiten dutenean, MITXELENA-k (1977,110) honela dio: "hechos complejos de acento y entonación que permiten distinguir en muchos lugares entre **ari** 'hilo'y **ari** 'carnero', **ate** ...".

Aztertu diren lekuetan jaso ditugun datuen arauera, lehenengo ikusten dena, **ahari** kasua alde batera utziz, da: azentuak eta doinuak ez dutela balio bereizgarririk, ez eta apropos ezarritako esaldietan ere,: "(h)ari(are)kin josten ari naiz", edo "lau (h)ari eta bi orratzekin lanean ari naiz".

Mapetara begiratuz, berriz, forma mugatuei dagokienez, Zugarramurdi eta Amaiur dira geminazioa mantenitu eta lexemaren oinarria aldatu ez duten leku bakarrak. Oieregi eta Erasun-ek geminazioa mantenitu dute, baina tinkotasun haundirik gabe. Oieregi-ko lekukoak gainera, nahastu egiten ditu "area" eta "aharia" biok bokal geminatuz ahoskatu bait zituen.

Beste lekuetan **ahari** bereizteko joera dago, orohar, lehenengo silaba tonikoa eginez. "Aá-" izango litzatekeen formatik, bokala laburtuz, "á-" izatera pasatu da, eta horrela mantenitu da ia Bortzirietako azpi-euskalki osoan eta Baztangoan, Ultzamakoan aldaki gehiago daudelarik.

Ez da ezberdintasunik egiten, berriz, **area / (h)aria**-ren artean Bortzirietako azpi-euskalkian, bi formak batzen bait dituzte denek, eta aldakiak armonia bokalikoaren ondorioz baizik ez dira gertatzen.

Ezberdintzen dira, aldiz, lehen esan bezala, Zugarramurdi eta Amaiur-en, Larraintzar-ekin batera.

Forma mugagabeetan gauzak berdintsu agitzen dira. Zugarramurdi eta Amaiur-ek bereiztasunak mantenituz; beste lekuetarako, berriz, ez da erraza ondoriorik ateratzea, kasuistika haundia dagoelako. Beramendi-k nahastu egiten ditu, hiru formak "ari" eginez -azentuak ez du pertinentziarik-; Arraras-ek "are" formarekin ere nahasten ditu.

Bestalde, ohartu garenez, nahiko zail gertatzen zaie "-e" / "-i" basetako temak hizkuntz mintzatuan bereiztea , azken hauek, "-i" bokalekoak, alegia, "-e" egitera jotzen bait dute edozein testuingurutan, baita hitz konposatu bezalakoetan ere, esaterako Arantza-n "íru ári", baina "áre jokuk", azken hau hitz konposatua izan arren, nahiko klitxaturik dagoena, eta, agian, aspaldikoa denez, jatorrizko forma zuzena gorde duena.

Aditz perifrasi multzoaren osagaia den **ari** formak, berriz, hizkuntzan ez dela dena nahitanahiez desberdintzen formaren aldetik, edo, bestela esan, oposatu beharraren hutsunea baieztatzen digu, segmentu berdinak bait dira kasu honetan. Edozein modutan, "ari" osagaiak badu zerbait berezia: beti aditzarekin loturik doa, eta batzutan aurrizkia dela dirudi, autonomi gabeko elementu itxekia. Hortik bere makaltasuna jarraitzen da, dardarkari biguna erlaxatu egiten da eta azkenean erori; horren ondo-

rioz bigarren elementu bokalikoak nortasuna galtzen du eta diptongoa sortzen eta batzutan ia galdu ere egiten da.

Baztango azpi-euskalkia eta Ultzamakoa dira, Aldaz-ekin batera, makaltasun gehien dutenak, azentuaren indarra lehenengo silaban gertatzen bait da.

Amaitzeko eta lexema guztiak kontutan harturik, zera esango genuke orohar: denak berdin egiteko joera ageri dela, eta inoiz ezberdintzen badira ere, ez dirudiela berariz gertatzen denik, berez armonia bokalikoaren ondorioz baizik. Geografiaren aldetik Zugarramurdi eta Amaiur kontserbatzaile ageri zaizkigu, baina ez besteak.

Honako hau atera daiteke ondorioz, eta ez dira kasu bakarrak: sistemaren barruan ez dela lexema hauek berezi beharrik somatzen . Komunikazioko testuinguruak berak aski laguntzen bide du bereizketa hori egiten mintzaleen arteko harremana eragotzi dadin.

94A MAHATS - 94B HIRU KILO MAHATS (163-164)

Batzutan, bai tinbre berdineko, bai tinbre ezberdineko bokalen elkarketen eraginez geminazio bokalikoa jasotzen da hizketa batzutan, beti hain garbi agertzen ez bada ere, fonetikaren aldetik, benetako hots bixki bezala ahoskatzen den, edo bokal bakar bezala, iuzeagoa gertatzen dena iraupenaren aldetik. Hizkuntza idatzian oinarrituz, MITXELENA-k (1977,112-113) bokal geminatuak agertzen diren kasuak azaltzen ditu, batez ere deklinabidean, hitz konposatuetan eta eratorrietan, eta, lexema barruan ere "txaal", "leen", "maats" eta horrelakoetan, Oñati-ko eskuizkribua eta Mogel, batez ere, aipatuz. Hona zer dioen hizketa hauei buruz:

"... estas hablas vizcaínas continúan en este punto un estado de cosas más antiguo que todas las demás variedades de la lengua. De una manera particular, parece fundada la opinión de que así es en realidad por lo que respecta a sufijos, segundos elementos de compuesto y más generalmente a la parte final de palabras de alguna longitud. Acaso pueda también extenderse esta afirmación a ciertas palabras que en todos los demás dialectos son monosilábicas: ***haár*** *'gusano'(**RS** 400), LeiÇ. sul.* ***har*** *(ronc. ar);* ***zoor*** *'deuda'(Moguel), com.* ***zor*** *(ya FGNav.)".*

Hau dena oso garrantzitsua gertatzen da sinkroniari dagozkion gertakizunetan, hau da, testigantza zahar hauen bitartez, gaurko egoera bera nolakoa den kontutan hartu eta aztertu ondoren, eguneko geminazioa ikusi eta garai zaharreko sistema bokalikoa nolakoa zen ikusteko.

Hurbilago gelditzen diren gertakizunak dira GAVEL-ek (1920, 100-107) "dédoublements de voyelles" izenaren pean eta honako distribuzio geografikoarekin azaltzen dituenak:

(GN), (B), (BN), (G), (R) **zar**
(B) **Markina zaar**
(BN), (L), (Z) **zahar**
(GN) Baztan **zagar**
(GN), (B), (Zar), (G), (R) **me**
(GN) Baztan, (B) **mee**
(BN), (L), (Z) **mehe**

Beren aldetik, HOLMER-ABRAHAMSON-ek (1968,91) Bizkaiera mintzatuan gertatzen diren zenbait kasuren aurrean, hala nola **ateetan** → "atí'tan", **altza(d)u zirala** → "alce'síla", geminazio bokalikoa dagoela esatera jotzen dute. Alabaina, geminazio horrek "propende a la pronunciación con vocal de duración normal, dejando no obstante vestigios en formas intermedias en que aparece algo alargada la vocal: nebeari (<nebeeri) →

nebe•rí, lumeagaz (>lumeegaz) → **lumi•'gas;** bere etxearen ondoan → **bere eci•'n ondo'an".**

HOLMER-ek berak ere, Ip(GN)-ko Gipuzkoa eta Bortzirietako hizketei buruz mintzatzen denean (1964,15), bokal luzeen presentzia baieztatzen du balio fonologikoa ematera ere iristen delarik:

> *"...las vocales largas (•) sólo surgen por énfasis y suelen asímismo llevar el acento* ***aita•', eupa•', ze kolore•',*** *o bien por contracción de vocales geminadas: aria (aaria)* ***a•'ri'e ≈ a'ri'e.***

LAFON-ek (1958,85-87) (Z)-z ere bokal luzeak edo bixkiak, ahozkoak, badirela ikusten du eta gramatikazko kasuetan balio bereizgarria ematen die: **hií** 'ville' ≈ **hí** 'toi', **aagian** ≈ **agian** (haragian ≈ agian).

Azkenik, MOUTARD-ek (1976,45) Euskal Herri guztian jasotzen du kasu bat ingurumen berezikoa bada ere:

> *"L'allongement occasionel d'une voyelle est fréquemment utilisé dans tout le domaine basque pour donner de l'emphase à un mot, par exemple andi "grand" est souvent réalisé [a:ndi]".*

Azalpen honetatik jarrai daitekeenez eta salbuespenak salbuespen, bost bokal luze edo sei, (Z)-ko ü kontutan izanez gero, luze leudekeela iraupen normaleko bokaletatik fonologikoki bereiziko liratekeenak onartu beharko litzateke; noski, ez balira beti hizkuntza mintzatuaren eraginez baldintzaturik aurkituko, horregatik murrizten bait dira eta iraupen arrunteko bihurtzen.

Bada beste geminazio mota bat ere,armonia bokalikoaren eraginez gertatzen dena. AZKUE-K (1919,475) horrelako gertaerak euskalki guztietan jasotzen ditu: "-a" oinarria duten hitzetan

(B) Ondarroa-n: "-a+-a > ii", **gonii.** Bokal tematikoa "-e" denean mugatzailea hartzerakoan: (G) Zegama: erlee, (B) Ondarroa eta (Z) Barkoxe **erlii;** "-i" eta "-a" artikuloa (B) Plentzia **ogii.** Bokal tematikoa "-o" dutenetan: (B) Plentzia **beroo,** (B) Ondarroa eta (Z) Barkoxe **beruu;** "-u" bokalarekin ere (B) Ondarroa **eskuu.**

AZKUE-k berak (1927,17-36) (G) Goiherri-n asimilaketa fenomenoak gertatzen direla dio, mugatzailearen bokalak aurreko bokalaren tinbrea jasoz: semeak > semeek, besoak > besook. Eta gehiago ere esaten du (1927, 22-23):

> *"dicen **gorrie, eskue,** permutando "a" por "e" por influencia de la "i" precedente, en tantos lugares extendida, pero cuando a la "a" le sigue un sufijo cualquiera no le dejan el sonido "e" sino que lo absorben y surge: **gorriik, eskuuk, Donostiin, Donostiiko, Errenteriin,** etc.".*

Geminazio mota berdina jasotzen du INZAK (1957,97-105) Larraun-go bailaran, eta IRIGOYEN-ek (1987,25) komentatu egiten du.

Aztertu behar dugun mapan hitz barneko geminaziorako bezalako ingurumena gertatzen da, tinbre berdineko bokalen artean aspiraketa ematen bait da (46-47), (48-49) eta (152-153) mapetan gertatzen zen bezala, haietan **zaharra, ahate** eta **mahain** jasotzen ziren eta.

"Zahar" hitzaren kasuan, geminazio bokalikoaz Zugarramurdi-k eta Amaiur-ek ahoskatzen dute; "ahate"-renean, Zugarramurdi-k eta Sunbilla-k, honek forma soilarekin txandakatuz mugagabean. Baztan-en erabiltzen den forma arrunta "piroa" bada ere, Amaiur-ko B lekukoak geminatuz azaldu zuen forma (42) eta gauza bera Oronotz-Mugaire-ko bigarren lekukoak ere. "Mahats" hitzean ez da geminaketaren arrasturik agertzen. Zugarramurdi-ko B lekukoak bakarrik egin du forma mugatuan, mugagabean aspiraketarekin txandakatuz.

"A:" bokal luzearen ahoskera ugariagoa da. Donamaria eta Aniz-ek horrela egiten dute "zahar" hitzaren kasuan; Beunza, Ituren eta Oieregi-k iraupen normala baino luzeagoa dute "ahate"-ren kasuan, baina ez, ordea, forma mugagabean, ez baita bokal bixkirik inon gertatzen. Donamaria azaltzen da, berriro ere, bokal luzearekin "mahats"-en kasuan, bat eginik Auza-ko emaitzarekin. Baina ez da beste horrenbeste gertatzen forma mugagabean. Azkenik, "mahai" hitzak ez du bokal bakunaren aldaketarik inon agertzen.

Ez da, bada, errendimendu haundiko fenomenoa geminazioarena; bokal luzeak hobea du, baina honen estatusa ere oso aldakorra da, forma mugagabeek ondo baino hobeto erakusten diguten bezala. Datu horien aurrean, berriro ere bokalen kantitatearen laburketa izen sintagmarekin, eta, batez ere, izen sintagmaren barruan daraman posizioarekin loturik ageri zaigu. Zugarramurdi da, eta ez beti, bokalen geminazioa tinkotasun batekin mantenitzen duena, eta beste kasutan, guk aztertu dugun lurraldean, hondar batzu besterik ez direla gelditzen esan behar da.

Bigarren mailako geminazioa ere, gure ustez bestea baino ugariagoa dena, agertu zaigu arrazoi ezberdinengatik: (52-53) mapetan, esaterako, "b" bokalarteko kontsonante hurbilkaria jausiz **láana** ebaki da Arraras-en; eta, beste mota batekoa bada ere, geminaketa da kanpo-sandhi baten ondorioz, kate mintzatuan gertatzen den (157) mapakoa, "oo" sekuentziarena.

Bigarren mailako geminazio hau oso zirkunstantziala da eta oraindik tenkortu gabea. Horregatik izan daiteke, orohar, ageri diren bilakabide ezberdinak. GAVEL-ek (1920,102) proposatzen duen geminazioaren sorketa, bokala bikoiztuz, alegia, garai zaharreko fenomenoa litzateke, baina onargarria **mahai**-ren kasua ikusirik, esaterako. Hotsen galeren ondorioz agertuak, berriz, geroagokoak. Ez dugu aurkitu, bestalde, GAVEL-ek (1920-100) Baztan-erako azaltzen duen "zagar" forma, Zugarramurdi-ko B lekukoak grabaketa askean esaten zuen "zagar dantza" izan ezik.

Halere, Gorosurreta-k, IRIGOYEN (1962,189), "zagarr" eta honen eratorriak kontsonante hurbilkari ahostunez idazten ditu. B. Echenique-k ere azaltzen zuen forma hau. Agian, berriki samar galdu den hotsa dela pentsatu beharko da.

Dena den, geminazio mota honi buruz gero hitz egingo dugu, armonia bokalikoari buruz hitz egiterakoan batez ere.

95 LEHEN (165)

Kasu berdina dugu lehen hitzarena. Alde batera uzten ditugu "lehen" eta "lehenago"-ren arteko ezberdintasun semantikoak. Hitza jasotzeko jarri genion ingurumena, gaztelerako esaldiaren bitartez, hau izan zen: "si hubiera venido antes".

Ez da geminaziorik ageri, Zugarramurdi-ko B lekukoak, tartean aspiraketa apur batez, egiten duena izan ezik. Bokal luzea, berriz, Ultzamako azpi-euskalkiko bi lekutan, Arraras eta Auza-n, jaso dugu.

96 EDAN - 97 JAN (166-167)

Bokalen geminazioaz hitz egiten denean, ez dira ahaztu behar adizkietan ageri diren bokal bikoitzak. Kasu hauek ez dira hain urriak eta testu zaharretan, Bizkaieraz idatzirik daudenetan, nahiko maiz ageri dira. Izan ere, dirudienez, Bizkaierara mugatzen dira. Hala eta guztiz ere, euskaraz hitz egiten den lurralde guztietan jaso nahi den galdekizunean ezin genuen kasu hau baztertu, Bizkaieraz egiten den tokietako egoera ezagutzeko beharrezkoa bait da.

Normala den bezala, Nafarroa-n aztertu ditugun lekuetan ez da ageri geminaziorik ez eta bokal luzeen aztarnarik ere.

98A BELARRI - 98B LAU BELARRI (168-169)

Badirudi hitz honek ere geminaziorako joeraren bat duela zenbait tokitan, dardarkariaren aurrean bokala bikoizteko dagoen joeragatik "belaarri" gisako formak ebakiz. Hitz berezia den arren, aldakiek zein hedadura hartzen duten ikusteko hartu da, batez ere aldaki horiek geminazioa egiten badute.

Egungo aldakien jatorrizko hitzak aspiraketa zuela dirudi; **beharri** eta honen ondorioz, bi emaitza gertatzen dira: toki batzutan tinbre ezberdineko bokalen arteko aspiraketaren ondorioz hurbilkari belarea "g" sortzen da **begarri** ebakiz; edo, bigarren forma, "r" dardarkariaz truka daiteke, gero, disimilazioz, "l" albokaria ebakiz. Hauek lirateke agertzen diren formarik nagusienak.

Gure mapetan ez da bokal bixkirik ez luzerik ageri. Isoglosak ere garbi azaltzen dira. Alde batera Arakil eta Ultzamako azpieuskalkiak ageri dira **belarri** formarekin, Erasun ere bertan sartuz.

Beste guztiek, Bortzirietakoak, Ultzamakoak eta Zugarramurdi-k berak, **begarri** forma dute, gehienek, bokalarteko kontsonante hurbilkaria galdu ondoren, e bokalaren tinbrea galtzera eta **biarria** ebakitzera jotzen dutelarik.

Geminazioari orokorki dagokionez, ondorio nagusi bezala atera daiteke hizketa hauek ez dutela geminaziorako joera haundiegirik. Gehien ere Zugarramurdi-k eta Amaiur-ek zertxobait, eta azken honek oso gutxi. Armonia bokalikoan Aldaz agertuko zaigu bokal geminatuekin, baina hori segidan ikusiko dugu.

1.3.2. ARMONIA BOKALIKOA

"Eufoniak" edo "armonia bokalikoak" arauak suposatzen ditu;norma aldakorrak dialektoen eta hauen hedaduraren arauera, baina bokal taldeen jokaerak eta aldaketak gobernatzen dituztenak. Kasurik nabarmenen eta erregularrena oinarri lexematikoko azken bokala "a" mugatzailearekin elkartzen denean gertatzen da. Honi buruz eginiko lan gehienak fenomenoaren hedapen geografikoari dagozkio (43), azkenaldian aldaketa fonetikoa bera gobernatzen duten arau fonologikoak aztertzeko interesik izan bada ere (44). Guk aldaketen isoglosa nagusiak emango ditugu (45).

1.3.2.1. TINBRE BERDINEKO BOKALEKIN

99 ALABA - 100 ALABA (ETXEAN DAGO?) (170-171)
101 ALABAK (172)

Orain arte ikusi dugun geminazioa hitz barnean gertatutakoa izan da, baina beste geminazio mota bat ere gerta daiteke, oinarri lexematikoko azken bokala "-a" denean eta "-a" morfema mugatzailearekin elkartzen denean. Alabaina, elkarketa honetatik ez da bokal bixkirik sortzen, ez eta, hizketa batzutan behintzat, "a" tinbrea duen bokal bakun iraupen normalekorik ere: "-ea" eta era horretako bokal multzoak baizik, (B)-z gertatzen den bezala. Fenomeno honek badu, halere, beste emaitzarik distribuzio geografikoaren arauera: bokal soila (G) , (GN)-z eta (L)-z; (BN) eta (Zar)-z dardarkari epentetikoa "-ra" hartzen du; (Z) eta (R)-z "-á" tonikoa ebakitzen dute. Muga horiek orokorki jarri badira ere, Serapio MUGIKA-k (1907,57), BAHER-ek (1925) Legazpi-rako seinalatzen duenarekin bat eginez, Gipuzkerako Hegoaldean "-ea" ebakitzen dela dio. Hona hemen MUGIKAK ematen duen hedapen geografikoa (1907,56):

> *"Para nosotros el sub-dialecto meridional es el que se habla en la comarca comprendida entre Alegría de Tolosa y Legazpia y Astigarreta y los confines de Navarra: los demás pueblos de Guipuzcoa comprendidos en el dialecto (G) son los adscritos al subdialecto septentrional, la vocal final siempre es á, mientras que en el meridional es a veces a y a veces e".*

(Oroit gaitezen Bonaparte-ren Sailkapenean (G)-ko Hegoaldeko azpi-euskalkiaren leku errepresentatiboa Zegama dela).

(BN)-ko "-ra" nominatiboko atzizkia egun non egiten den garbitu beharko litzateke, Zaraitzu-tik kanpo inon egiten bada ere.

Fenomeno hori jasotzeko **alaba** hitza jarri dugu hiru ingurumen desberdinetan: mugagabean, mugatu singularrean eta mugatu pluralean, elkarrekin erkatzeko. Jaso ditugun datuetan ez da batere ezberdintasunik agertzen. Toki guztietan "-a" bokal bakuna ahoskatuz, teoriaz behintzat bokal bixkiak izan behar liratekeenak murriztu egiten dira. Azentuz ere ez dira bereizten, kasu guztietan bigarren silaban bait doa. Arraras-ek, mugatu pluralean, hirugarren silaban jartzen du azentua, "álaba" ebakiz, baina besteetan: "íru alába" eta "alába ítxin al da?". Honek azentuaren eta doinu edo entonazioaren arteko lotura adierazten du, dudarik gabe; baina, bestalde, intentsitatezko azentuaren makaltasuna ere agertzen du.

Goian esandakoez gain, azaltzen da, bestalde, perpausen elementuak elkartzean ere, geminazioren bat agertzen dela lekukoren baten: ikus, esaterako, (171) mapan, Larraintzar-ko A lekukoaren erantzuna. Horiek, bat-batekoak dira erabat, eta grabaketa giroak berak sortzen duen ahoskera zainduaren ondorioa baizik ez dira. Beste horrenbeste gertatzen zen, goian ikusi den bezala "mutikook" lexemarekin. Baina, berriz esan, ez dute batere pertinentziarik maiztasunak berak agerian uzten duen bezala.

102 DEN / DAN - 103 DELA / DALA (173-174)

Bi bokal elkartzean aldaketak nozitzen dituzte, murriztu egiten dira gehienbat, gramatikazko fenomenoen ondorioz sortzen direnetan batez ere. Hitz konposatuetan erabat normala da murrizketa hori: *baga uso > (B) **bagauso, pagauso,** (Heg.) **baguso;** *basa herri > (G), (B) **baserri / basarri,** agiritxo bat baizik ez ipintzeko.

Hiatoan gertatzen diren bokal horien murrizketak adizkien

menpekotasunezko erabileretan ere sortzen dira, menpetasun hori adierazteko morfemak hartzen dituztenean, alegia: *da-en eta *da-ela > Ekialdean den, dela, Mendebaldean **dan, dala** gertatzen dira.

Kasu horiek dira mapa hauetakoak, eta, egia esan, batasuna aurkitu dugu. Denetan Ekialdeko emaitzak, "den", "dela", jaso dira. Erasun eta Goldaratz-en izan da aldaketaren bat "a" bokalez ebakiz hiatoaren murrizketa. Erasun-goak uste dugu ez duela pertinentziarik , beste lekukoek ez bait dute horrela ahoskatu; Goldaratz-en kasuak berriro ere herri honen hizketa, zenbait gauzatan, Mendebaldera begira dagoela agertzen du.

1.3.2.2. TINBRE EZBERDINEKO BOKALEKIN

> *"No es propio de este lugar, sino más bien de una dialectología vasca, el estudio detenido de las muy diferentes maneras en que se han resuelto los hiatos en la conjugación y sobre todo en la declinación." MITXELENA (1977,109).*

Erizpide hau kontutan hartuz gertatu genuen galdekizuna,tinbre orotako bokalak dituzten base lexematikoak hautatuz: "eke, herri, beso, esku" e. ab., eta deklinabideko morfemak erantsiz: mugatu singularra, mugatu plurala, inesiboa eta adlatiboa. Horrekin batera, "i" eta "u" bokalen kasurako, hauek bait dira aldaketarik haundienak sortzen dituztenak hurrengo bokala isteko duten joeragatik, "bat" formarekin batuz: "esku bat", esaterako.

Ez genuen bildu gabe utzi nahi izan, hitz barruan duten eraginagatik, "ikatz" eta horrelakoak. Bide batez, hauen bitartez, kontsonantez amaitutako lexema mugatua ere jasotzen da.

Apropos ez dira jarri hemen beste sintagma nominalak, "etxe hori", "mahai hau", "katu ederra" eta modu horrelako segmentoak. Arrazoia bistan da, galdekizunean zehar, mugagabeko forma jasotzerakoan, etengabe agertzen zaizkigula.

Hemendik aurrera, fenomeno hauek aztertzeko (175) mapatik hasi eta (208)-rainoko mapek armonia bokalikoa aztertzen dute, eta taldeka ikusiko ditugu.

1.3.2.2.1. "-e" bokala

Erdiko eta aurrekaldeko "e" bokalarekin sortzen diren aldaketak hauek dira (46):

"-ea": **etxea**: (B) Mendebaldea: Gernika, Plentzia, Arratia (Areatza, Zeanuri, Arantzazu, Igorre, Lemoa, Bedia), Orozko, Otxandio. (G) Hegoaldekoa, Ip (GN): Baztan, Araiz. (L) Urdazubi, Zugarramurdi, Mend (GN), (Aezk), (Zar).

"-ia": **etxia:** Ek (BN), Mend (B): Gernika (Mungia, Durango, Arrigorriaga, Laudio), (G): Iparraldeko eta Nafarroako azpi-euskalkiak, Ip (GN): Ultzama, Bortzirieta, Gipuzkoakoa. (L) Sara eta Nahastua. (BN).

"-ie": **etxie:** Mend (B): Bermeo, Gernika (Sic., Zornotza), Arrigorriaga (sic, Galdakao, Basauri, Miraballes, Barakaldo), Otxandio (sic, Ubide, Elosu). Heg (GN): Oltza.

HOLMER-ek (1968,98) epentesi moduan hartzen diren elementu kontsonantikoak daudela dio berak azterten dituen (B)-ko tokietan: "etxean; (etzean): **ecijen".** NAVARRO TOMAS-ek (1923,50-51), fonetika artikulatorioari dagokion erizpide zorrotzez, Gernika-n gertatzen den posizio horretako "-ea" talde bokalikoa honela deskribatzen du: "En las palabras con e final, esta e fué pronunciada como una i abierta, y la a del artículo como una a

anterior relajada y labializada". (G)-ko ahoskeran (47) (1925,600) hala "-ea"-rentzat, nola "-oa"-rentzat, bi ahoskera bereizten ditu NAVARRO TOMAS-ek: bata kultoa "-e" eta "-o" bokal itsiaz, baina tinbrea aldatzera ez delarik iristen; bestea herrikoia, "-ea" > "-ia" , "-oa" > "-ua" aldaketa burutuarekin. Badu beste kasu bat ere "-ea" multzoarentzat, [d'] baten antza duen kontsonante epentetiko batez eta, hots horren deskribapenik eskeintzen ez badu ere, leherkari horzkari ahostun baten ebakera lukeena.

1.3.2.2.1.1. Jaso diren emaitzen analisi fonetiko -diatopikoa

104A EKE - 104B EKE ASKO (175-176)
105 GAZTE - 107 ETXEAK (177-179)
108 ETXEAN (180)

(Ikus gainera: 10A ETXE - 10B HIRU ETXE (15-16)
11 ETXERA (17)

Mugatzaile singularrean azentuan agertzen diren desberdintasunak alde batera utziz, ez bait dute pertinentzia fonologikorik, gure ustez, bilakabide hau gertatzen da:

"-ea" → -ia → -ie → -ii → -i:
→ ee

Fenomeno bakoitzaren isoglosek hedadura hau dute:
"-ea": **eke** hitzean: Zugarramurdi, Baztango azpi-euskalkia; Ultzamako azpi-euskalkia: Larraintzar, Beunza, Beramendi, Goldaratz; Bortzirietakoan Erasun.

Gazte hitzean, aldiz, "-ea" Amaiur-ek bakarrik Baztangoan - eta azpi-euskalki honetako beste herriek "-ia"-, eta Ultzamakoan, Arraras-ek.

"-ia": Bortzirietakoan Erasun-en izan ezik, eta Auza-n. "Gazte" hitzean, aipatu berri ditugun herri beretan.

"-i:": Arraras-en, "eke" hitzean.

"-ee": Aldaz-en, tonikoa "gazte" hitzean eta bigarren mailakoa "eke" hitzean.

Beste mapan, (176), forma mugagabea jasotzen da, eta horretan ere "-ea-" bokalen elkarketa sortzen da izen sintagma baten, eta oso emaitza ezberdinak gertatzen dira, "-ea" → "-ia" Arraras, Mugaire eta Ituren-en bakarrik ebakiz. Taldea mantenitzearena da emaitzarik arruntena.

Azkenik, "etxea" nominatibo singularrean ere antzerako datuak ageri dira.

Mugatzaile pluralean ere singularrean jaso diren gisako emaitzak ditugu:

"-eak" → -iak / → -eek.

"-eak": Zugarramurdi-n, Baztango azpi-euskalkian, Arraiotz eta Gartzain-en; Ultzamakoan Larraintzar, Beunza, Goldaraz eta Beramendi-n; eta Bortzirietakoan, Donamaria eta Erasun-en.

"-iak": Baztangoan, Amaiur eta Aniz-en; Bortzirietakoan, denek, Erasun eta Donamaria-k izan ezik.

"-eek": Aldaz-en.

"-ik": Arraras-en

"-ak": Auza-n

Erasun-en beste aldaki bat ere jaso da: "etxék".

Inesiboan bilakabide aurreratuagoa aurkitu dugu:

"-ean" → -ian -iin → -in, honako distribuzioz:

"-ean": Zugarramurdi-n; Baztango azpi-euskalkian,

Arraiotz, Gartzain; Ultzamakoan, Larraintzar, Beunza, Beramendi, Goldaratz; Bortzirietakoan, Erasun eta Donamaria.

"-ian": Baztango azpi-euskalkian, Amaiur eta Aniz. Bortzirietakoan, denean, goiko salbuespenekin.

"-iin": Aldaz-en.

"-in": Arraras-en. Ebakera hau Donamaria-n, B lekukoarengan ere jaso dugu, eta, grabaketa askoetan, Bortzirietako hizketetan ere.

(17) mapako adlatiboan, ez da gauza berezirik agertzen.

109 DEABRU (181)
110A BEHOR - 110B LAU BEHOR (182-183)

Hitz barruan

"Ea", hitz barruan gertatzen den hiatoa jasotzeko, bokal taldea posizio horretan duten hitzak hautatu genituen: **deabrua** izan zen bat eta **behor** bestea. Azken hau talde bokalikoaren tartean aspiraketa edo aspiraketa izanaren ondorioak dituelarik, "eo" taldean aldaketarik sortzen den aztertzeko.

Deabru hitzean:

"-ea": Zugarramurdi-n; Baztango azpi-euskalkian oro, Gartzain-en izan ezik; Bortzirietakoan: Erasun, Oieregi, Arantza, Sunbilla-n; Ultzamakoan: Larraintzar, Beunza, Goldaratz-en; eta, azkenik, Aldaz-en.

"-ia": Baztango azpi-euskalkian, Gartzain-en; Bortzirietakoan: Etxalar, Ituren, Oronotz-Mugaire-n eta Donamaria-n; eta Ultzamakoan: Auza, Arraras eta Beramendi-n.

Behorra kasuan, kanpoan geldituko litzateke Aniz, hurbilkari bat egiten bait du oso erlaxatua, baina ez aldaketa bokalikorik. Eta beste horrenbeste Arantza-ko B lekukoak.

"-eo" forma nagusia, Arantza, Etxalar, Sunbilla, Oronotz-Mugaire, Oieregi eta Donamaria kenduta -hauetan "-e" inflexionatuz "io" egiten bait dute, beste kasu guztietan. Halere, hizkuntza mintzatuan, zaindu gabekoan esan nahi baita, badute bokala isteko joera Ituren-ek ematen dituen datuek agertzen duten bezala.

Ondorioa

Nahiko isoglosa zehatzak ageri dira. Zugarramurdi-n eta Baztango Gartzain eta Arraiotz-en tinko mantenitu dituzte bokalak, aldaketarik gabe. Era berean, emaitza tinkoa, beti "-ia" eginez, Bortzirietako azpi-euskalkian, Erasun-ek txandaketa eta bazilazio batzu baditu ere, Donamaria-k bezala. Ultzamakoak ere aski tinko mantenitzen ditu bokalak, Arraras-en aldaketaren bat ageri den arren; azken honetan, orohar eta beste kasu batzu ikusiz, "-ea" elkarketaren ondorioz [-í:] eta [i] direla emaitza nagusiak, esango genuke.

Ultzamako azpi-euskalkian, Auza eta Larraintzar-ek ez dute joera garbirik: batzutan aldatu, besteetan ez, denetik azaldu da. Halere, Auza-k gehiago aldatzen duela esango genuke: "ítxà" jaso dugu, eta horren parean, gorunzko diptongoak diruditen batzu, "átia", diptongoak izatera iristen ez badira ere. Ikus, honi buruz, zer dioen IZAGIRRE-k (1966,404):

> *"Gaiñera, **-ia** edo **-ea** edo **-oa** oriek ditongo egiten dituzte eta berak mira erizten diote gipuzkoarrak luzeago egiteari".*

Azkenik, hitz barruko posizioan doanean bokalen elkarketa hori, "e" eta "a" edo "o" bokalekin gutxiago ageri da isteko joera, hersketa hori gertatu izan bada ere.

"-e"-ren armonia bokalikoa





"-e"-ren armonia bokalikoa





1.3.2.2.2. "-i" bokala

Bokal itsienekin, aurrekaldeko "i" eta atzekaldeko "u"-rekin, "-a" morfemak gradu batean isten du bere tinbrea:

$$a \rightarrow -e / \left\{ \begin{matrix} i \\ u \end{matrix} \right\} —$$

Bestalde, aurrekaldeko "i" bokalaren kasuan, sabaiko epentesi kontsonantikoa ere gerta daiteke, eta maila ezberdinetakoa izan daiteke, gainera, batzutan "-a" bokala inflexionatuz ere gerta daitekeelarik. Gertaerak hauek dira:

"-ia": **begia:** Ip (G) (Zumarraga, Urretxu), Ip (GN) Baztan (Elizondo, Errazu), Bortzirietakoa: Ezkurra bailaran; Heg (GN) Ekialde osoan; (L), (Z), (R).

"-ie": **begie:** Mend (B): Plentzia (sic, Mungia), Arratia (Areatza, Zeanuri, Igorre, Lemoa), Orozko, Arrigorriaga (Laudio); Heg (G): Zegama; Ip (GN): Ultzama, Baztan, (Irurita, Ziga, Aniz, Almandoz); Araiz.

Sabai mailako epentesi kontsonantikoak era guztietako kontsonante sabaikoak har ditzake. Bilakabidea honako hau litzateke: erdi-kontsonantetik hasi [j], kontsonante hurbilkari ahostun sabaikotik igaro [ǰ], hau bera erlaxatua ere izan daitekeelarik, eta sabai-aurreko afrikari ahostuneraino [dž], tartean sabai-aurreko frikari ahostuna ere egin daitekeelarik [ž], edo, zenbait tokitan, ahoskabea [š] ere. Kasuren batean, [d'] sabaiko leherkari ozena ere ager daiteke, horrelako kasutan "-a" bokalak bere tinbre irekia gordez. Aldaki guzti hauen distribuzio geografikoa zein den oso zaila da zehaztea. Lehen bezala, Bonaparte-ren datuak azalduko ditugu, oso zehatz eman ezin diren arren, Printzeak orokorrean idatzi bait zituen: Ek (B): Markina, Men (B): Gernika (Durango, Bermeo), Otxandio (Olaeta) (48); Gip (B): Bergara, Plazentzia, Elgoibar, Anzuola, Oñate, Elgeta; Ip (G): denean, Naf (G): (Urdiain, Bakaikoa, Iturmendi, Altsasu, Olazagutia, Ziordia, Etxarri-Aranatz); Ip (GN): Baztan (Arraiotz); Bortzirieta; Gipuzkoa.

Kontsonante sabaiko serie berdinarekin, baina bokalaren inflexioa eginez: Mend (B): Arrigorriaga (Sic, Galdakao, Basauri, Miraballes), Gernika, Otxandio; Hg (GN) Oltza.

Ingurumen fonetiko honetarako MUGIKA-k (1907,56) bokala eustea eta sabaikariaren epentesia azaltzen du (G)-ko Iparraldeko azpi-euskalkirako **arriya, argiya,** eta Hegoaldekorako bokalaren inflexioa **ogie, beie, aragie.** BAHER-ek ere (1025,97) bokala inflexionatuz, **argie** baina urrunago doa, Legazpia-rako barruko murrizketa ere seinalatuz: **begin, etxen, eskun.**

Bidasoa ingurutarako HOLMER-ek (1964,24) ere kontsonante sabaikaria jasotzen du: **la'mije** (Hondarrabia), **euskijeártu** (Hondarrabia), barruko sandhi diren kasu hauek ere bertan sartzen dituelarik . NAVARRO TOMAS-ek (1925,600) "i" bokal osoa duten oinarri lexematikoak "-i" bokalerdia dutenetatik bereizten ditu. Lehenengorako kontsonante sabaiko igurzkari ahostuna gertatzen dela dioen bitartean, "txoriya", eta barruko sandhietan ere, "diyegun", bigarrenerako, berriz, tarteko kontsonante hori goian aipaturiko kontsonante horzkari leherkari ahostuna gertatzen dela dio: [alą̣jŷa], [bę̣jŷa], [ǫ̣jŷa].

1.3.2.2.2.1 Jaso diren emaitzen analisi fonetiko -diatopikoa

111 HERRIAK - 112 HERRIRA - 113 HERRIAN (184-186)114 HERRI BAT (187); Ikus: 12A HERRI - 12B HIRU HERRI (18-19) 115 OGI - 116 OGIA - 117 OGIAN - 118 OGI BAT (188-191)

Mugatu singularrean "-i" tema bokalikoa duten lexemek, "-a" mugatzailea hartzen dutenean, guk aztertutako herrietan honako bilakabide hau dute:

i + -a → -ia → -ie → -ii → -i:

↓

[-i̯a] ([̯] Zeinu honekin interfijo epentetikoaren ebakera berezi nahi izan dugu, [j] hotsarena baino ahulagoa gure ustez).

Eta bakoitzak hartu duen hedadura:

"-ia": Zugarramurdi-n; Bortzirietako azpi-euskalkian: Oronotz-Mugaire,

Oieregi, Ituren, Erasun eta Donamaria-n. Ultzamakoan: Larraintzar, Beunza,

Beramendi eta Goldaratz-en.

"-i̯a": Bortzirietako azpi-euskalkian: Etxalar, Arantza eta Sunbilla-n.

"-ie": Baztango azpi-euskalki osoan eta Ultzamakoan, Auza-n.

"-ii": Aldaz-en.

"i:": Arraras-en.

Datu hauek **herria** hitzari dagozkio, **ogia**-ren kasuan, funtsean ez dira aldatzen, alderantziz baizik, gordetzen ez duten bakarrak Erasun eta Larraintzar dira, hauetan bokalaren hersketa sortzen bait da.

Mugatu pluralerako emaitzak berdinak dira, Erasun-ek "erriek" egiten duelarik. Eta mugagabean denek mantenitzen dute

"-i"-ren armonia bokalikoa



"-i" oinarrikoaren tinbrea, Arraras-ek izan ezik, honek, ultrazuzenketaz, "-e" egiten bait du kasu guztietan.

Inesiboak nominatiboak baino aldaki gehiago ditu:

"-ian" → -ien → -iin → -i:n → -in
↓ ↓
i̯an -i̯in

Aldaketarik sortu gabe, "-ian": Zugarramurdi-k; Bortzirietako azpi-euskalkian, Oronotz-Mugaire, Oieregi, Donamaria eta Iturenek; Ultzamakoan, Larraintzar, Beunza, Beramendi eta Goldaratzek. Datu hauek "herrian" izen sintagman, baina "ogian" formaren errealizazioan, Ituren, Beramendi eta Larraintzar kanpoan geldituko lirateke.

"-i̯an": Etxalar eta Arantza-n, biok Bortzirietako azpi-euskalkian.

"-ien" Baztan azpi-euskalkian; Bortzirietako Erasun-en; eta Ultzamakoan Auza-n (186). mapari dagokionez, hau da, "herrian" forman, eta ahoskera hori Auza eta Larraintzar-ek "ogian" formarako.

"-iin": Aldaz-en.

"-i̯in": Sunbilla-n.

"-i:n": Arraras-en, "herria" formari dagokionez; baina "ogia" forma ebakitzerakoan Ituren, Arraras eta Beramendi sartu behar dira isoglosa horren barruan.

Adlatiboan bi bokalen nortasuna da emaitzarik orokorrena. Halere, bokalaren inflexioa Baztango azpi-euskalkian sortzen da eta Ultzamako Auza eta Larraintzar-en ere.

Deklinabidetik kanpo

Deklinabidetik at, **kanpo-sandhietan** "herri bat" eta "ogi

bat" kasuetan, Baztango azpi-euskalkian eta Ultzamakoan inflexionatu gabeko forma mantenitzen da, Auza-k, Larraintzar-ek eta Beramendi-k txandakatuz ahoskatzen dutelarik, bokala gradu batean itsiz, alegia. Besteetan, jatorrizko tinbrea gordetzen da. Arraras-ek, beti bezala, ultrazuzenketarekin.

Hitz barruan ez dira beti emaitza berdinak agertzen, oso berdintsuak izan arren. **Ikatz** hitzean armonia Baztango azpi-euskalkian eta Ultzamakoan, Auza eta Larraintzar-en, gertatzen da. Hurrengo hitza **bihar** da eta, hersketa goian bezala gertatzen bada ere, Arraiotz eta Larraintzar-ek alternantzi agertzen dute. Etxalar-ek, berriz, kontsonante epentetikoa dauka.

Azkenik, sail honetan, bihotz mugatuan eta mugagabean dugu, eta "i" bokalak ez du aldaketarik sortzen hurrengo "o" bokalean. Bai, ordea, Etxalar-ko mintzairan, sabaiko epentesia agertuz.

Ondorioak

Fonetikaren aldetik ez da ustekabeko emaitzarik agertu, Aldaz-ko geminazioa izan ezik. Bilakabidean kasu inesiboa izan da urrutien joan dena, "i" bokalak hurrengo hotsa asimilatu bait du; sudurkariarekin silaba trabatuan dagoelako ote?

Geografiaren aldetik, berriz, sortu diren isoglosek aski distribuzio tinkoa dute, bazilaziorik ageri bada ere.

Lehenengo eta behin, Oronotz-Mugaire-n, mapen azalpenean esan zen bezala, "-ia", "-ie" alternantzia gertatzen da A eta B lekukoen artean. Halere, herri honetako joera armoniarik ez egitekoa da, baina muga dialektalean dagoenez, eragin hori beste batzuen artean agertzen da.

Beste maila batean bada ere, azpi-euskalkien arteko mugan aurkitzearen ondorioak Larraintzar-en ere ikusten ditugu. Herri hau, batzutan Baztan aldera, besteetan Basaburu-ra begira egoten da, eta zalantzak sarri askotan agertu zaizkigu. Halere, lekuko guztien informazioa jaso ondoren, "-ie" forma nagusitu zen.

Azkena, Erasun genuke. Azpi-euskalkiz Bortzirietakoan kokatua, baina Ultzamako azpi-euskalkira begira hainbeste aldiz aurkitzen duguna. Gure ustez, herri honetako hizkera aldatzeko zorian eta unean aurkitu dugu, eta hainbat kasutan aldatuko / ez aldatuko agertu zaigu. Erabili ditugun hiru lekukoek, eta horiez gain entzun ditugun beste batzuk, ez dute inongo batasunik armonia bokalikoa egiterakoan. Batzutan bokala aldatu, besteetan ez, lekuko batek berak ere formen bikoiztasun hau aurkez lezake . Horregatik "-ie" motako armonia bokalikoa sortu garaian aurkitzen dela esango genuke; "-ea", aldiz, zintzoago gordetzen dute.

Azkenik, "-ea" eta "-ia" elkarrekin erkatuz, jaso ditugun datuek sinkretismoa sortzen dutela aipatzekoa da, kasuen araueera, alegia: -ia ← -ea, -ia: Bortzirietako azpi-euskalkian (49), Zugarramurdi-n eta Ultzamako azpi-euskalkian, Beunza, Beramendi eta Goldaratz-en. Sinkretismoa sortzen da ere Arrarasen "-i:" luzea berdin izan daitekeelako jatorrizko "-ea" formatik edo "-ia"-tik datorrena.

Bukatzeko aipamen bat ageri-agerian azaltzen den polimorfismoari. Bi motatako polimorfismoa agertzen da: norbanakoa Erasun-goa litzatekeena, eta gizarte motakoa bestea, Oronotz-Mugaire edo Larraintzar-ek aurkezten dutena, alegia.

1.3.2.2.3. "-o" bokala

Ertain mailakoa, atzekaldekoa den "o" bokalarekin sortzen diren emaitzak hauek dira:

"-oa": **besoa:** Mend (B): Gernika, Arratia, Plentzia, Arrigorriaga. Ip (GN): Azpeitia (Zumarraga, Urretxu); Heg (G): Zegama; Ip (GN): Baztan (Elizondo, Irurita, Ziga, Aniz, Almandoz, Arraiotz), Araiz; Heg (GN): Olaibar; (L) Urdazubi, Zugarramurdi; (Aezk); (Zar).

"-ua": **besua:** Mend (B): Bermeo, Otxandio (Olaeta); Gip.

(B): denean; lp (GN): Baztan, Bortzirieta, Gipuzkoa; lp (G): Hernani, Tolosa, Azpeitia; (L) Bertakoa (Ainhoa, Sara), Nahastua; (Z), (R), (BN).

"-ue": **besue:** Mend (B): Otxandio (Otxandio, Ubidea, Elosu).

"-oba": **besoba:** Mend (B): Orozko, Barambio.

1.3.2.2.3.1. Jaso diren emaitzen analisi fonetiko -diatopikoa

123 BESOAK (196)
Ikus: 32A BESO - 32B HAMAR BESO (154-155)
124 BESOAN - 125 BESORA (197-198)

Mugatu singularrean bi gertaera besterik ez dira ageri: "-oa" eta hurrengo pausuan, bokala inflexionatuz, "-ua", honako hedaduraz:

"-oa": Zugarramurdi-n; Baztango azpi-euskalkian, Amaiur eta Arraiotz-en; Bortzirietakoan, Erasun-en; Ultzamakoan, Larraintzar, Beunza, Arraras, Beramendi eta Goldaratz-en. Eta Arakilgoan, Aldaz-en.

"-ua": Baztangoan, Gartzain eta Aniz-en; Bortzirieta denean, Erasun-en izan ezik; eta Ultzama-n, Auza-n.

Mugatu pluralean bilakabide berdina gertatzen da hedadura aldatuz. Hiatoa, "-oak" gordetzeko joera haundiagoa dago eta, hori dela eta, Ultzamako azpi-euskalkikoan, Auza-k eta Baztangoan, Gartzain-ek "-oak" ebakitzen dute, singularrean ez bezala.

"-i"-ren armonia bokalikoa



"-o"-ren armonia bokalikoa



Inesiboan nominatibo pluralekoa berdin mantenitzen da, baina bikote bokalikoa laburtuz "-un" ere ebakitzen da Arantza eta Ituren-en, biak Bortzirietako azpi-euskalkian.

Adlatiboak ez du aldaketarik, eta bi kasutan bakarrik sortzen da bokal armonia: Arantza eta Sunbilla-n, biak Bortzirietako azpi-euskalkian.

Deklinabidetik kanpo

126 ZOAZ - 127 NOA (199-178)

Jaso diren bi adizki hauek hain iduriak izanik, emaitza ezberdinak ematen dituzte, bigarrenak, "noa"-k, askoz ere aniztasun haundiagoa duelarik, bilakabide arruntetik beste pausu bat ematen bait du: "oa" → oa → ua → wa (azken hau "noa" formarako bakarrik) → a / u (azken hau "noa" aditzean).

"Zoaz"-en, "oa" taldea mantenitu da: Baztango azpi-euskalkian, Amaiur, Arraiotz eta Gartzain-en; Bortzirietakoan, Erasun eta Donamaria-n; Ultzama-koan, Arraras, Beramendi, Beunza eta Goldaratz-en. Azkenik, Arakilgoan, Aldaz-en.

Bokalaren inflexioaz, "ua": Bortzirietako azpi-euskalkian, Oronotz-Mugaire, Oieregi, Sunbilla, Ituren eta Arantza-n; Ultzamakoan, Auza eta Larraintzar-en.

Forma laburtua "a": Zugarramurdi-n; Baztango azpi-euskalkian, Aniz-en, eta Arraiotz-en ere B lekukoak.

"Noa"-ren kasurako aldaketak hauek dira:

"-oa": Zugarramurdi-n; Baztango azpi-euskalkian; Arraiotz,

"-o"-ren armonia bokalikoa





Gartzain eta Aniz-en; Bortzirietakoan, Erasun eta Ituren-en; Ultzamakoan, Auza, Larraintzar, Beunza, Beramendi eta Goldaratz-en.

"-ua": Baztango azpi-euskalkian eta Amaiur-en; Bortzirietakoan, Etxalar, Sunbilla eta Donamaria-n; Ultzamakoan, Arrarasen; eta, azkenik, Arakilgoan, Aldaz-en.

"-wa": Bortzirietako azpi-euskalkian, Oieregi-n.

Bi aldaki gehiago ere gertatzen dira, talde bokalikoaren murriztapenez sortuak. Goian ikusiriko "-a-" Oronotz-Mugaire-k ebakitzen duena, "o" erlaxatu eta erdi galdu bat entzuten delarik. Eta "-u-" forma soila Arantza-n.

Datu hauek ikusirik , "oa" eta "ea" hiatotan doazen ertain mailako bokal hauek nahiko estatus tinkoa dutela esan daiteke; areago oraindik: "oa"-ren kasuan bokalek gutxiago armonizatzen dute; -"ea"-ren kasuan Erasun eta Donamaria-k kolokan agertzen zuten aldaketa, "oa"-renean, berriz, ez da horrelakorik agertzen.

Kasu inesiboan talde bokalikoa laburtzeko joerari eusten zaio, eta hemen ageri izan den hedadura baino haundiagoa ere duela esango nuke.

Azkenik, deklinabidetik at jaso diren segmentoek aldatzeko joera haundiagoa dute. Izan ere, adizki trinkoak dira, aski fosilizatuak bestalde, eta horrelako kasutan askoz ere normalagoa da hitza erabiltzen den bezala botatzea zuzentzeko biderik ez daukatelako.

1.3.2.2.4. -u bokala

Atzekaldeko bokalari dagokionez, "i" bokala azaltzean esan dugunetik kanpo, emaitzek epentesi kontsonantikoa ere jasotzen

dute, kasu honetan, ezpainkaria eta sabaikaria ere izan daitezkeelarik. Emaitzak honako hauek dira:

"-ua": **eskua:** Ek (B): Markina; Mend (B): Otxandio; (G) osoan salbuespenen batzu izan ezik; Hg (GN): Ekialdean (Olabe, Sorauren); Ip (GN): Bortzirieta; (L) Berezkoa; (Zar), (Aezk).

"-ue": **eskue:** Mend (B): Gernika, Plentzia, Arratia, Arrigorriaga; (G): Zegama; Ip (GN): Ultzama, Araiz.

"-uba": **eskuba:** Gip (B): Elgeta; Ip (GN): Baztan, Bortzirieta (Bera, Igantzi, Sunbilla), Ip (G): Hernani, Tolosa, Azpeitia.

"-ube": **eskube** Mend (B): Orozko, Baranbio.

"-uya": **eskuya:** (L) Nahastua; Ek (BN) Aturrikoa; Mend (BN) Lapurdikoa (Hazparren).

"-ia": **eskia** (Z) eta (BN) (50).

Antzerakoak dira beste autore batzuk jaso dituzten datuak. MUGIKA-k dioenez, (1907,57-58) (G)-ko Iparraldeko azpi-euskalkiak ezpainetako hurbilkari ahostuna den kontsonante epentetikoa hartzen du: **katilluba, trikuba.** Hegoaldekoan, berriz, bokalaren inflexioa gertatzen da: **zorue, gaue, ostatue, akullue.** BAHER-ek (1925,97) Legazpia-rako inflexioa ere azaltzen du: **burue.** HOLMER-ek (1964,49), Bidasoa bailaran batzutan epentesia dagoela dio, **katuba** (Oihartzun), baina ez erabat: **buru'a, buru'an** (Hondarrabia). Eta (B)-z HOLMER-ek (1968,98) **suba** kontsonante epentetikoarekin. Ez dira berdinak NAVARRO TOMAS-en (1923,51) datuak, Gernika-n "-u" hori zabaltzen bait da eta (G)-z (1925,601) kontsonante epentetikoa edo bokalaren inflexioa, bi gertaera hauek txandakatuz gertatzen direla dio.

1.3.2.2.4.1. Jaso diren emaitzen analisi fonetiko -diatopikoa

Deklinabideko kasu-markekin

127 ESKU - 128 ESKU (200-201)
129 ESKUAK (202)
130 ESKURA - 131 ESKUAN (203-204)

Mugatu singularraren bilakabidea honela ageri da azterturiko lurraldean: "-ua" → -ue → -ue → -uu → u:.

Hartzen duen hedadura:

"-ua": Gertakizun zabalena da: Zugarramurdi; Bortzirietako azpi-euskalki guztia, Erasun izan ezik; Ultzamakoan, berriz, Beunza, Beramendi eta Goldaratz.

"-ue": Baztango azpi-euskalki osoan; Bortzirietako Erasun-en; Ultzamakoan, Auza eta Larraintzar-en.

"-uu": Lexemaren basearen tinbreak bere alde mugatzailea asimilatzen duelarik, Aldaz-en gertatzen da (51).

"-u:" : Arraras-en.

Mugatu pluralean: Orokorki singularrean bezala mantenitzen dira, baina badira aldaketak. Erasun-ek ez du bokala aldatzen eta "-ua" ebakitzen du. Arraras eta Beramendi-k kantitatea murrizten dute; Arraras-en kasuan, singularrean bokal luzea zuen eta Beramendik, aldiz, "-ua". Ez dira kasu hauek bakarrak: mapan esaten den bezala. mintzaldi askean Bortzirietako eta Ultzamako azpi-euskalkietan ere murrizteko joera dute.

Adlatiboan mugatu pluralean ikusi ditugun emaitzak mantenitzen dira, "-ura" eta "-ure" kasuetan. Aipagarri litzateke Aldaz-ek ebakitzen duen "-ue", bokalen armonia egiten duenaren seinalea delarik, beste kasutan asimilaketa agertu arren. Arraras-

ek, berriz, kasu guztietan bezala, ikus "-e", ultrazuzenketaz "esko" hartzen du lexemaren basetzat, mugagabean ageri den bezala. Aipagarria da ere Erasun-ena, hemen "-ura" forma aldatu gabe gorde bait da.

Inesiboan sortzen den bilakabidea, beste bokalekin agertu den moduan, laburtzekoa da. Aldaketa batzu ageri direnez, banan-banan azalduko ditugu:

"-uan": Zugarramurdi-n; Bortzirietako azpi-euskalkian, Erasun-en izan ezik; eta Ultzamakoan, Goldaratz-en.

"-uen": Baztan guztian; Ultzamakoan, Auza eta Larraintzar-en; Bortzirietakoan, Erasun-en.

"-uun": Aldaz-en.

"-u:n": Arraras-en.

"-un": Beunza, Beramendi eta Iturен-en B lekukoak. Gertaera honek ez du "-ua" → -ue → -u suposatzen. Hain zuzen ere, mugatu singularrean agertu den bezala, herri horiek "-ua" taldea mantenitzen dutela ikusi dugu. Bada laburtzeko joera inesiboan, beste euskalkiren batzutan ere gertatzen dena. Agian, marka hauek, "-n", edo pluraleko "-k", nominatibokoa, nahiko lirateke bete behar duten funtzioa adierazteko, eta hortik letorke, ekonomiaren legea aplikatuz, murrizketa. Baina ez murrizketa fonikoa, gure ustez, funtzionala baizik.

"-u"-ren armonia bokalikoa





Deklinabidetik kanpo

132 ESKU BAT (205)

Kanpo-sandhietarako "esku bat" adibidea bildu dugu. Erantzunak adlatiboan azaldutakoekin erabat berdinak dira. Aipagarriak han bezala eta berriro ere Aldaz-en armonia eta Arraras-ek egiten duen "esko bat". Dena den, ultrazuzenketa hau Arraras-en jaso dugu, baina ez da bakarra. Beste mapetan ageri den bezala, Arantza, Ituren eta Sunbilla-n, Bortzirietakoak hirurak, gertaera berdinera jotzen dute.

133A BULARRA - 133B HIRU BULAR (206-207)
134 HUTSA (208)

Hitz barruan armoniaren legeak ez dira beti berdin betetzen. "Bular" hitzean, esaterako, armonia bokalikoa gertatu den kasu bakarra Ultzamako azpi-euskalkia da: Auza, Larraintzar eta Arraras-en, forma mugatuan. Mugagabean, berriz, Larraintzar-ek ez du armoniarik egin.

"Hutsa" hitzean emaitzak aldatzen dira. Bortzirietako Erasun-ek armonizatzen du bokala, eta Ultzamakoan, Auza, Beunza, Arraras eta Beramendi-k. Horietatik kanpo, Baztan osoan ere bai, Gartzain-en bazilazioa dagoelarik, A eta B lekuko-ek "utsa" ahoskatuz, baina hirugarrenak "utse".

Aldaz-ek geminazioa, "-e" oinarria izango balu bezala: "utsee".

Bi hitz hauek, "bularra / hutsa", erkatuz, "bular" forma askoz ere kontserbatzaileagoa da ahoskeraren aldetik. Arrazoia, gure ustez, erabileran datza. Batak oso erabilera haundia du, maizta-

sun haundikoa da; bestea, berriz oso baztertua dago. "Petxoa" baizik ez dute toki batzutan erantzun, eta leku gehienetan, edo denetan, lehenbiziko etortzen zitzaien hitza "petxoa" zen.

Ondorioak

."-u" oinarri lexematikokoa "-a" mugatzailearekin elkartzen denean -eta ingurumen berdineko beste kasu batzutan- sortzen diren aldaketei buruzko ondorioak armonia bokalikoaren kasu guztietara heda daitezke. Bi ondorio nagusi atera daitezke: lehenengoa, armonia bokalikoaren legea ez dela derrigorrez eta sistematikoki paradigma guztian betetzen, eta gertatzen diren alternantzia eta txandaketak sitematizazio horren ahultasunagatik azal daitezkeela. Bigarrena eta, neurri batean lehenengotik jarraitzen dena, hau da, kasu hauek agerian uzten dutela, armonia bokalikoaren fenomenoa ez dela, euskararen fonetikaren historian, zaharra, alderantziz baizik.

Badirudi, bestalde, prozeso hori, neurri batean, atzeranzkoa izan dela, guk aztertutako lurralderen batean behintzat. Adibide bezala, "-u"-ren kasua aipatuko dugu. Bonaparte-k, goian ikusi dugun bezala, "esku" hitzean epentesi kontsonantikoa jasotzen zuen armonia bokalikoan biezpainetako hurbilkari ahostuna, "eskuba", seinalatzen zuen Ip (GN)-ko Baztan eta Bortzirietako (Bera, Igantzi, eta Sunbilla) azpi-euskalkietan.

Guk leku horietan ez dugu horrelakorik jaso. Bai, aldiz, Zugarramurdi-n kasu irlatu batzutan, hala nola, B lekukoak ahoskatzen zuen "gatuba", (75) mapan, edo, herri berean, lekuko guztiek "suba" (316). Baina, ez da inola ere izan sistematikoa, alderantziz baizik, "-ua" izan bait da erantzunik arruntena.

Ondorio geografikotarako, "-i"-ren kasuan esandakoak baliagarriak dira, batez ere "-u" kasurako, berdintsuak gertatu izan bait dira bai gertaerak, bai egon diren alternantziak.

1.3.3. Analisi fonetiko eta diatopikoaren ondorioak

Hiatoei egin zaien analisi honen ondoren garbi gelditu da bi arlo bereizi behar direla diptongo gertatzen ez diren bokalen elkarketa hauetan. Alde batera tinbre berdineko bokalek sortzen duten geminazioa eta honen bilakabidea genuke, eta beste aldera tinbre ezberdinetako bokalak elkartzean gertatzen diren fenomenoak eta "armonia bokalikoa"-ren barruan sartzen direnak, geminazioa ere armonia bokalikoaren ondorioz gerta badaiteke ere.

Geminazioaren presentzia aurkitu dugu, baina ez hedadura berdinez. Hots baten galeraren ondorioz -aspiraketan, normaleansortzen dena Zugarramurdi eta Amaiur-en jaso dugu. Beste toki batzutan ere agertzen da, baina sistematizazio batez aipaturiko bi lurralde horietan bakarrik aurkitu ditugu bokal bixkiak, eta Zugarramurdi-n batez ere. Iraupen luzeagoko bokala ugariagoa da geminazioa baino forma mugatuetan, ez, ordea, mugagabeetan. Hemendik jarraitzen da lexemak izen sintagma barruan daraman posizioa eta horren arauera azentuak hartzen duen posizioa oso eragikor direla bokalen kantitatean. Eta ondorio berdina beste bigarren mailako bokal bixkientzako ere, hau da, kontsonante hurbilkari baten galeraz sortzen direnentzat: "go(r)oldioa" (73), "ira(b)azi" (223). Emaitza ez da berdina tinbre berdineko bokalak bi hitzetakoak direnean. baten azkena eta bestearen lehena, alegia; elkarketa hauetan bokal bakoitzak bere nortasuna gordetzen du: "osóóna" (262).

Geminazioarekin jarraituz, armonia bokalikoari dagokionez, Aldaz-en jaso dugun geminazioa nabarmenduko genuke, lexemaren oinarriari asimilatzen zaion mugatzailearen ondorioz sortua. Bokal denekin gertatzen da "o" eta "a"-rekin izan ezik, eta ez badugu jaso ere lekuko guztiekin gertakizun fonetiko hau, bokal luzearen ebakera beste lekukoengan ere gertatzen da behinikbehin. Ultzamako azpi-euskalkiko Arraras-en gehienbat bokal luzea gertatzen da, ez, aldiz, hain gertu dagoen Beramendi herrian, kasu batzutan luzapenak jasotzen badira ere.

Hiatoa sortzean aurkitzen diren bokalena bizirik dirauen bilakabidea da. Bizirik diogu, Bonaparte-k iragan mendean jasotako datuekin erkatu ondoren, aldaketak idoro ditugulako. Badira kasuren batzutan aurrera egin dutenak, aldaketa ordutik garatuz joan delako; eta hori egiaztatzeko aztertu dugun Iurraldearen Mendebaldea daukagu, Aldaz eta Arraras-eko lekukoen emaitzak batez ere. Beste batzutan, atzerunzko bilakabidea gertatu izan da: goian aipaturiko "-u" bokalak hartzen duen epentesi kontsonantikoaren kasua litzateke, Baztan eta Bortzirietako azpi-euskalkietan gertatzen zena Printzearen ustez, eta guk, ordea, jaso ez dugu-na. Ezin dugu esan, hala eta guztiz ere, Bonaparte-k emandako emaitzak eta gureak oso bat ez datozenik, funtsean aski parekoak gertatu bait dira.

Aztertu dugun Iurraldeko azpi-euskalkien mugetako hizketetan armonia bokalikoan aldakortasun nabarmena gertatzen da, eta oso sendo eta iraunkor ageri dena, bestalde. Kasurik apartena Oronotz-Mugaire-koa da, ez bait dago alferrik bi azpi-euskalkien ertz-ertzean. Herri honetako bi lekuko nagusiek elkarren aurkako joera agertu dute armonia bokalikoari dagokionez, batak Baztango azpi-euskalkian bezala eginez eta besteak Bortzirietan bezala; nolanahi ere, joera nagusia Bortzirieta aldeko armonia egitea izan da. Larraintzar-ko emaitzak ere bikoitzak izan dira, baina lekuko berari zegozkion alternantziak, orohar Auza-rekin bat egitera jotzen zuelarik. Eta, azkenik, Erasun-go armonia azaldu da benetan berezia, orotariko txandaketak jaso bait dira. Esan bezala, ez dira harritzekoak zalantza hauek, hizketa desberdinen mugetako herriak bait dira denak.

Horrekin batera, bere ondorio denez, polimorfismoa aipatu behar da. Erasun-goa banakako polimorfismoa da, lekuko batek berak egiten dituelako txandaketak, baina badu gizartekoa ere, azken hau Oronotz-Mugaire-n ere aurkitzen delarik. Bada beste polimorfismo mota bat ere, Bortzirietako azpi-euskalkiko aunitz lekutan gertatzen dena: Ituren, Oieregi, Donamaria, Arantza-n, nominatibo plural eta inesibo kasuetan batez ere sortzen den murrizketa, "a" bokala desagertuz: "etxeak" → "etxik", "mendian" →"mendin"; hizketa zainduan ez da hain nabarmenki gertatzen.

Sinkretismoa ere ugaria da, "e" eta "i" eta "o" eta "u"-ren artean, eta hortik ultrazuzenketak sortzen dira, oso ugariak Ultzamako eta Bortzirietako azpi-euskalkietako zenbait lekutan: "kato", "piko", "beli","esko" "lode" eta horrelakoak.

Guzti honek agertzen duenez, komunikaziorako ez da, orohar, hain noraezeko morfema gramatikalak zehaztasun eta bereiztasun osoz ahoskatu beharra; edo, bestela esan, elkarren artean ulertzeko ez da sintagma nominala erabat ezberdindu beharrik somatzen, inguruneak eskeintzen dituen lagungarriak aski bide direlako mezua argitu eta ulergarri egiteko.

1.3.4. Analisi akustikoa

Hiatoen azterketa akustikoa bokalismoari loturik dago eta ez dugu lehen esandakoa berresango. Hala eta guztiz ere, bokalen iraupenari buruz bi puntu ukitu nahi genituzke, interesgarriak iruditzen zaizkigu eta.

Aurretik bokalen geminazioaz hitz egin dugu eta horrelako bokal geminatuak jaso ere bai zenbait kasutan, ikusi den bezala. Han analisi artikulatorioa eskeini da, baina espektrograma batzu ikusi ondoren, analisi hartan esandakoak zerbait ukitu beharrean gaude. Adibide bezala, "ma(h)atsa" (163) hitza jarriko dugu. Mapetan ez dugu geminaturik traskribatu, baina bai [a:] bokal luzea Donamaria eta Auza-ko ahoskeran. Sonogramen bitartez, berriz, ez dugu leku horietan bokalaren luzapenik aurkitu, Auza-ko adibideak agertzen duen bezala (3.1). Lehenengo "a" bokalaren luzapena 64 msg-takoa da, eta Ultzamako azpi-euskalkirako eman dugun bokal horren bataz-besteko luzapenaren neurria 62 msg-takoa da, eta 60-koa posizio horretako [á] bokalaren neurria. Hortaz, iraupenaren aldetik, bokal arrunta gertatzen da.

Gartzain-go ebakera, hitz berarekin jarraituz, mapan "a"

arrunt bezala traskribatu genuen, eta, sonograma ikusirik (3.2), 120 msg-tako iraupenekoa gertatzen da, hau da, [a:] bokal luzea bezala, kontutan harturik 96 msg-takoa dela Baztango azpi-euskalkiko bataz-besteko neurria eta 80 msg-takoa azpi-euskalki horretako posizio horretan dagoen [á] bokalarena.

Hemen azaldu nahi dugun beste puntua azken posizioko geminazioari dagokio. Armonia bokalikoa dela eta Aldaz-en sortzen den asimilaketagatik geminazioa agertzen zela esaten genuen goian eta horrela traskribatu genuen mapetan ere. Kasu honetan ondo traskribatuak zeuden, ikus adibide moduan [áriì] (3-3), [áreè] (3-4), [éskuù] (3.5). Izan ere, begi bistakoa zen tinbre berdineko bokalen bikoiztasuna. Datu hauek, beste burutapen eta azterketa sakonen artean, gauza bat adierazten digute, analisi inpresionistaz ezin daitekeela osoro fida eta, gaur egun, ezinbestekoa dela fonetika akustikoak eskeintzen dizkigun teknikez baliatzea.

Kontsonantismoan azaltzeko uzten dugu armonia bokalikoa dela eta "-i+-a"-ren tartean sortzen den kontsonantearen epentesia, eta gertatzen den kontsonante sabaikoen espektro guztia batera azaltzeari bideozkoago deritzagu.



(3.1)



(3.2)



(3.3)



(3.4)



(3.5)

OHARRAK

(1) Hemen azaltzen dugun fonetika artikulatorioaren egoera eta fonetika diakronikoarena euskal fonetikako lanik nagusienetatik jasoa da. Ikus bibliografia. Autoreen izenak eta erreferentziak ez ditugu seinalatzen, azaltzen diren gertaera fonetikoak denek onartzen dituztenak direlako orohar. Alabaina, kasu apartak direnean edo autore bakar batek azaltzen duena denean, autorea eta iturria emango dira.

(2) Hemendik aurrera euskalkiak siglen bidez azalduko dira eredu honen arauera: (B) Bizkaiera, (G) Gipuzkera, Ip(GN) Iparraldeko Goi-Nafarrera, Heg(GN) Hegoaldeko Goi-Nafarrera, (L) Lapurtera, Mend(BN) Mendebaldeko Behe-nafarrera, Ek(BN) Ekialdeko Behe Nafarrera, (Z) Zuberera, (R) Erronkariera, (Zar) Zaraitzera, (Aezk) Aezkera. Horrek ez du esan nahi azken hiru hauek euskalkitzat hartzen ditugunik, arrazoi metodologikoagatik erabiltzen dira, eta ez dago, beraz, beste aurreiritzirik.

(3) Hau konstante bat izanen da eta lan guztian agertuko da ikusiko den bezala. Galdekizunaren bitartez erantzunak jasotzea eta, batez ere, mikrofono baten aurrean erantzun beharrak guk nahi izango genukeen baino askoz gehiago baldintzatzen du lekukoa. Ingurumen horretan jasotzen diren erantzunak askoz ere zainduagoak izaten dira lupustean eta pentsatu gabe hitz egiten denean baino. Horregatik, grabaketa askeetan jasotzen den informazioak beste erregistro bat agertzen du, zaindu gabekoa eta bere ohitura linguistikoekin askoz ere gehiago identifikatzen dena eta, dudarik gabe, baita fidagarriagoa ere. Bigarren motako material hauek jasotzen saiatu gara, eta jaso ere jaso ditugu kasu askotan. Halere, ez dago mapetan azaltzerik erantzun hauek, ez bait lukete erizpide metodologiko bateraturik. Horregatik, galdekizunaren bitartez jaso diren erantzunak kartografiatzea ezinbestekoa da.

(4) Harrigarria gertatuko da, agian, bigarren mailako azentu bat, azentu sekundario bat, azken silaban ikustea. Uste dugu, benetan, azken silaba horretan nolabaiteko intentsitatea edo kadentzia dagoela, ez azentu tonala, azentu tonikoarenakin erkatu daitekeen zerbait baizik. Tonikoarena baino ahulagoa, indar gutxiagokoa, entonazio berezi batekin batera doana. Beraz, baduela garrantzirik, uste dugu, hori seinalatzeak, eta horrela jokatu dugu azentu hori bazela iduritu zaigun kasutan.

(5) Baiezko formen parean ezezkoa ere jaso izan dugu, eta azalduko genuke interesgarria izango balitz.

(6) GAVEL-ek (1920, 44) (Z) eta (BN)ko **hunki** eta **hunkitu** formak azaltzen ditu, "n" epentetiko bat sortu delarik "u⟶ ü" aldaketa gertatu aurretik.

(7) Horrela ikusten zuen Gamillscheg-ek ere, MITXELENA-k (1977, 15) azaltzen duen bezala. Dena den, MITXELENA-k (1977, 129) ezartzen duen isoglosa honako hau da: (GN), (G), (B) **elza**, (GN), (G), (Zar), **elze**, (BN), (Z) **ihize**, (GN) Baztan **izi**.

(8) MITXELENA-k (1977,125) bokal hauei buruz hau esaten du: "Para el tratamiento de las vocales hay que distinguir el final de palabra del final del primer miembro de compuestos y ciertos derivados. En este último caso, los cambios de timbre de las vocales y su pérdida son numerosos y regulares: recuerdan la pérdida de vocales finales en sustantivos proclíticos en los romances españoles y su anterior timbre vacilante".

(9) "Una vibrante fuerte, intervocálica o implosiva, ha tenido, como en otras lenguas, la virtud de abrir una vocal precedente [...] la vocal más sensible a la acción de la consonante

ha sido "e" que se abrió en "a" [...] La vocal no parece haberse abierto en posición inicial absoluta (precedida o no de "h" en otros tiempos)", MITXELENA (1977,60-61).

(10) Badira, bestalde, horrelako kasu asko: **arbi /erbi, ardi /erdi**, e. ab.

(11) Aldaki asko ditu hitz honek eta gure mapen arauera aldakorra dela esan daiteke kontsonantismoaren aldetik. Azkue-k bere hiztegian honako aldakiak azaltzen ditu euskalkien arauera: (L), (G), (R) **eguzki**, eta horren parean **iruzki** eta **iduzki** Ip (GN) Baztan eta Bortzirieta-n. (R) eta (BN)-z iguzki, baina (R)-z **eguzku** ere egiten delarik, Uztarroze eta Isaba-n behintzat. Ikus: MITXELENA (1977,65).

(12) GAVEL-ek (1920,39) ere azaltzen du gertakizun hau "e" bokala zaharragoa zela arrazoituz, eta hitz hauekin amaitzen du:

> "Comme nous l'avons déjà fait observer ailleurs, lorsque dans les alternances de cette sorte, la voyelle e est la plus primitive, c'est que cet e devait avoir une tendance à prendre un timbre plus fermé qu'ouvert".

(13) Hiru silabatako hitzetan ugariagoa da fenomeno hau eta (B)-ra mugatu ohi da: **igerri / igarri, izerdi / izardi** ... izango lirateke adibide batzu.

(14) Fenomeno hau ondoen ageri duen euskalkia (Z) da "gaihérdi" eta horrelakotan aspiraketa ere sartu bait du.

(15) Dena dela, hau edozein bokalekin gerta daiteke. Guk horrelako kasuren bat sartuko dugu galdekizunean, batez ere beste azterketa batzutarako bidea irekitzeko. Ikus, beherago, geminazioari buruz dioguna.

(16) "Ni zu baino gazteagoa naiz" ingurumen fonetiko osoa litzateke jaso duguna, "yo soy más joven que tú" galderari erantzunez.

(17) Amaiur, orain dela urte gutxi arte, udalerri askea izan da; eta gaur egun Baztan bailaran sarturik dago beste udalerriekin batera.

(18) Iparraldean "-o" eta "-e" silaba askean gero eta tinbre hertsiagoz ahoskatzen dira frantsesaren eraginez, [go̯r̃ǫ́tɒ], [mȧi̯tẹ].

(19) Baina ez dugu aurkitu zenbaitek azaltzen duen "o" hertsia posizio honetarako. Ikus TXILLARDEGI (1980,28).

(20) "O" bokal irekiari buruz (68) mapan hitz egiten da. Dena den, oso diferentzia txikia agertzen da tinbre normaleko "o" bokalarekin.

(21) Honen alde dago (R)-rako BONAPARTE-k jaso zuen au forma ere. MITXELENA (1958,345): "Un vocabulario aezkoano, salacenco y roncalés preparado por el Príncipe Bonaparte", **BRSVAP** XIV, 335-364. or.

(22) Ez da, hala ere, erabat gardena Mitxelena-ren pasartea: begira nola dioen:

> "Pero sin duda fue común a todos los dialectos la tendencia a confundir **on** y **un**, sobre todo ante consonante. Con todo, el guipuzcoano, por lo menos desde Larramendi, distingue **ontza** 'el buho' de **untza** 'la yedra': cf. **hontça** 'hibou', **huntza** 'lierre' en Pouv. Sin embargo, no es seguro que en éste como en otros casos concretos sean los dialectos occidentales los más conservadores: el sul. tiene **hũntz** en ambos casos (**hunçac** 'el buho (act.)', Sauguis 129), y **untz** 'buho' se dice no sólo en baztanés, afín al labortano, sino también en aezc., sal. y ronc.". Ikus

daitekeenez, azkenengo adibideekin konfirmatzen bait du Ekialdeko euskalkiak aldakorragoak izan direla.

(23) TXILLARDEGI-k (1980,28) silaba trabatu guztitarako "o" irekia azaltzen du.

(24) (39) eta (86) mapetan ingurune berdineko bokal irekia ageri da.

(25) LHANDE-k (1926,55) Zubererarako **ardu** azaltzen du eta Lapurtera eta Behe-Nafarrera-ko **arno**. Halere, Lhande-k berak, hitzaren erabileraren adierazgarri, Lapurteraz idazten zuen Hiribarren-en "arduak eragina" ematen du.

(26) "Miguel García de ArraulÇe-Gaytz", **Gacetilla de la Historia de Navarra**

(27) Hala eta guztiz ere, mapan ageri diren datuak ez dira erabat fidagarriak. Hitz hau ematerakoan, bigarren erregistroa azaldu zaie eta heuren hizketatik urrutiratu egin dira. Horrela, eta jaso dugunez, Amaiur-en "eskuara", gorunzko diptongoarekin, da forma normala. Beste horrenbeste gertatzen da Oieregi eta Sunbilla-rekin, "uskára" egiten bait dute hizkuntz arruntean

(28) "En realité, le passage de **al** a **i** a dû se faire par deux étapes intermédiaires: d'abord passage de **al** à **el**; puis l'e de ei devenant de plus en plus fermé sous l'influence de l'I suivant, on a dû avoir à un certain moment un groupe ou diptongue **II**, dans lequel le premier I était voyelle et le second semi-voyelle; ensuite le second I se sera fondu avec le premier". GAVEL (1922,19).

(29) **Iangoyco, Iengoico, Ieinco, Jeinco**; ikus ALTUNA (1979): **Etxepareren Hiztegia**, Bilbao, eta ALTUNA (1980,8).

(30) TOVAR-ek (1959,97) Abadino-ko iskripzioan agertzen den IAUNINCO forman Jaun - Inco bi elementu hauek bereizten ditu, eta bigarren hori, Inko /Jinco, Iparraldeko hizketetan agertzen dena litzatekeela dio. Inko < einko batetik letorkeena, alegia. "Una antigua inscripción vasca con el nombre de Dios", **El euskera y sus parientes**, Madrid, 96-99. or.

(31) "Jaincoa" hitzean bezala, hemen ere, sudurkari inplosibo aurrean doa diptongoa.

(32) Ez du MITXELENA-k (1977,200) emankizun hau jasotzen. "Dech. **bana** 'mas pero', **bano** 'que (comparativos)', Leiç. **baina, baino**, a.-nav. guip. **baña(n), bañо**, a.-nav. Elcano **baña** (Beriayn baya), **bañо**, vizc. ant. **baea** (Cap.), **baya y bañо**, aezc. **bala, beino**, sal. **bala, beño**, ronc. **bala, b(e)ino**, sul. **béna, béno**".

(33) Diptongoaren murrizketa osoa gertatzen da, eta ez dira agertzen ez "ei", ez "i" aldakiak tarteko bilakabide bezala.

(34) "... cuya nasal palatal se debía a la pronunciación ya prepalatal del continuador románico del lat. g': esta consonante, probablemente africada, se reprodujo sin embargo en vascuence por la oclusiva g a falta de un fonema más próximo en el sistema de esta lengua" MITXELENA (1977, 159).

(35) Izan ere, 'behe+-a > beea > beia / 'bei-a' formarengandik desberdintzeko izan daiteke.

(36) Kontsonante sabaiko hori oso arrunta da beste euskalkietan bezala, Iparraldeko aspiraketaren pareko delarik: **Iharrosi / Iñarrosi; Ihauteri / Iñauteri; Ihaurri / Iñaurkle; Ihaus / Iñaus**, e. ab.

(37) "En Guip. se siguen acomodando los nuevos préstamos en "-ón" (**abiol** 'avión', **kamiol** 'camión', etc.), pero no los en -án. En a.-nav. hace ya tiempo que **-on** se acepta sin modificación, **kañonak** (= guip. **kañolak**) non dire? se dice que preguntaba Espoz y Mina, natural de Idocin, en Lecároz, en 1835 (J. M. Iribarren **Historias y costumbres**, Pamplona 1956,335)" MITXELENA (1977,143).

Ikus, gainera, fenomeno berdintsua jasotzen duten (132) eta (133) mapak.

(38) Ahoskera honek ere ez dirudi berria denik, (R) eta (Zar)-z yod bati bezalako tratamendua eman bait diote "oxal", "**lexo**", "exar" eginez. Eta horien parean: leixo (R) eta (B) Guip. azpi-euskalkian, oixal (R), eixar (R), AZKUE **Diccionario.**

(39) Ikus daitekenez, diptongoaren aztarnak Ultzama-n gorde dira.

(40) GAVEL-ek (1969,118) hots honi buruz honako azalpena egiten zuen:

> "Nous devons donc admettre que le valeur primitive du "j" basque a été celle d'un son de "i" consonne pur. Si nous acceptons cette hypothése, il deviendra facile d'expliquer tour les autres valeurs qu'a prises cette lettre dans les divers dialects ...".

Grafiak ere ez digu laguntzen; IRIGOIEN-ek (1987,299) ongi dioenez: "Gogora ekarri behar dugu j eta I jatorriari begiraturik grafia berbera dela, izkribatzerakoan beherantz arrastoa eginik j forma hartu baitzuen. U eta v ere bat ziren. Erromatarren garaiean kasu bietan letra bakarra zen, geroago latinezko testuen argitaratzaile batzuk berezi badituzte ere".

LAFON-ek (1951,313) Etxepare-ren ortografia ikusirik horrelako burutapenak egiten ditu:

> "Quelle est das la langue de Dechepare la nature du son initial de **Ian, io, Iura, Iende, gende, gIn**, et qui était à date ancienne un I consonne (y)? Ce son, noté, à l'initiale d'un mot, I devant **a, o, u** parlois aussi, mais rarament, devant **e**, et **g** devant **e** et I, était il encore chez Dechepare la semi-voyelle **y**, ou bien un élément occlusif sonore s'était-il déjà développé devant lui, et avait-on à faire à un **d** mouillé, à un **g** mouillé ou à un son intermédiaire entre d' et g'?".

Edota ECHENIQUE-k, (1979,59) gertaera sinkronikoei dagokienez: "La grafía j responde, en vasco, a una llamativa y variada gama de pronunciación, hecho éste que ha sido señalado como una de las diferencias fonéticas que más netamente separan a los dialectos vascos, aunque no se recoge en la escritura".

(41) Erakusle honen jatorri eta erabilerarako ikus ALTUNA (1978), "Erakusleak zenbait idazle zaharrengan", **Euskera** XXIV (2), 699-712. or. eta IRIGOYEN (1978) "Erakusleez", **Euskera** XXIV (2), 713-735. or.

(42) Hirugarren lekukoak "aatea" frantsesek esaten dutela zioen.

(43) Oihenart ere bere **Notitia** liburuan fenomeno honetaz mintzo zen. Hala eta guztiz ere, Larramendi-k eta bere jarraitzaileren batek, Fray Mateo de Zabala-k bezala, zer edo zer deskribatu bazuten ere, Bonaparte izango da fenomeno honen benetako ikertzailea eta bere ibilaldi eta lan guztietan aztertuko du euskal fonetikaren fenomeno hau.

Kapitulu honetan azaltzen dugun bokalen armoniari buruzko erlazioa eta hedapen geografikoa, inoiz argia ikusi gabeko Bonaparte-ren artikulu batetik jasoa dugu: "Phonologie de la langue basque dans touts ses dialectes [...]: suivie de la loi de l'afinité ou, harmonie des voyelles...", 1368. urtean, gutxi gora behera, idatzia. Esku-izkribua Bizkai-ko Aldundiaren Liburutegian dago eta handik kopiatu dugu.

Argitaraturik dauden Printzearen lanetatik honako hauek nabarmenduko genituzke: (1862) **Langue basque et langue finnoises**, Londres, (batez ere, IV puntua, armonia bokalikoari buruzkoa), (1881) "Observaciones sobre la ley de la afinidad de las vocales en el vascuence de Lizaso, Valle de Ulzama", **Revista Euskara** IV, 65-75. or.; (1881) "Observaciones sobre el vascuence de algunos pueblos del valle de la Burunda", **Revista Euskara** IV, 33-40; (1882) "Observaciones acerca del vascuence de Betelu", **Revista Euskara** V, 120-121. or. (1881) "Observaciones acerca del vascuence de Valcarlos", **Revista Euskara** IV, 161-166. or.; eta, azkenik, (1887) "Observations sur le basque de Fontarabie, D'Irun, etc.", Paris, Ernest Leroux éditeur.

Bonaparte-z gero, arreta bereziarekin jarraituko dute gaia: AZKUE-k (1919), (1926); MUGICA-k (1907); GAVEL-ek (1920), (1923); BAHER-ek (1925); HOLMER-ABRAHAMSON-ek (1968-69); HOLMER-ek (1964).

(44) BEREICUA-BASAURI (1972), JAKOBSEN (1971), DE RIJK (1970) lanei buruz ari gara.

(45) Beti bezala, euskalki eta azpi-euskalkiei buruz ari gara. Behin baino gehiagotan euskalki bat bera aipatzeak, gertaera bat baino gehiago dituela esan nahi du.

(46) Iturria goian aipatu da. XIX. mendean jasoriko datuak direnez, balio mugatua dute, horrelako fenomenoa jasotzerakoan batez ere. Halere, sistematizazio batekin Euskal Herri osoan jaso diren datu bakarrak direnez, horiekin lan egin beharrean ikusi gara.

(47) Lanaren izenburuak Gipuzkera osoari dagokio; alabaina, ikerketa hori egiteko erabili zituen lekukoak lurralde jakinetakoak ziren. Nagusiena Zaldibia-koa eta bigarren mailakoak Alkiza eta Tolosa-koak.

(48) Gaur egun, banaketa hau aldatu izan da Bizkaieraren aldakiei dagokienez behintzat, bokala inflexionatu bait da zenbait lekutan. Hala eta guztiz ere, guk Bonaparte-ren datuak eskeintzen ditugu.

(49) Ez, ordea, Erasun-en, "-ea"-ri aski tinko eutsi bait diote eta, Sunbilla-n, Arantza-n eta Etxalar-en ere ez, "-ija" ebakitzen dute eta.

(50) "I" horren tinbrea diskutigarria da. Bonaparte-k "i" / "u" bokalen arteko ahoskera berezi bat seinalatzen zuen, bai Iparraldean bai Hegoaldeko muga ondoko lurraldeetan (Z)-n bertan ere "buru" (Z) "burü"; eta asimilaketa eginez "bürü+-a" > "büria", ahoskeran [büiá], baina "i" hori berezia delarik.

(51) Egiten den asimilaketa "-e", "-i", "-u" bokalekin da. Ez da "-a" eta "-o"-rekin egiten.

2. KONTSONANTISMOA

2.1. LEHERKARIAK

2.1.1. Definizioak

/b/ fonema: Artikulatorioa: leherkaria (1), ezpainetakoa, ahostuna.
Akustikoa: Ez bokalikoa, kontsonantikoa, barreiatua, lodia, ahozkoa, ahostuna, matea.

/d/ " : Artikulatorioa: leherkaria, hortzetakoa, ahostuna.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, barreiatua, zorrotza, ahozkoa, ahostuna, matea.

/g/ " : Artikulatorioa: leherkaria, belarea, ahostuna.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, trinkoa, lodia, ahozkoa, ahostuna, matea

/p/ " : Artikulatorioa: leherkaria, ezpainetakoa, ahoskabea.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, barreiatua, lodia, ahozkoa, etenkaria, ahoskabea, matea.

/t/ " : Artikulatorioa: leherkaria, hortzetakoa, ahoskabea.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, barreiatua, zorrotza, ahozkoa, etenkaria, ahoskabea, matea.

/k/ " : Artikulatorioa: leherkaria, belarea, ahoskabea.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, trinkoa, lodia, ahozkoa, etenkaria, ahoskabea, matea.

2.1.2. Gertakizun fonetikoak

Artikulaketaren ikuspuntutik leherkariak bi sail nagusitan berezi izan dira:

AHOSTUNAK: [b], [d], [g]

AHOSKABEAK: [p], [t], [k]

Azken hauek errealizazio aspiratuak eduki ditzakete Iparraldeko euskalkietan:

[ph], [th], [kh] (2)

Hauez gain, badira, bestalde, beste hots batzu leherkari sailean sartu behar direnak:

[t'] eta [d']

Beste sail batean ikusteko utzi ditugu kontsonante sudurkariak, hauek ere leherkariak izan arren; baina sudurkarietan sortzen diren ezberdintasunak bereziak direnez, batetik, eta betiko euskal tradizioari jarraitzeagatik, bestetik, "ahozkoak / sudurkariak" bereizketa nagusi bezala hartzea erabaki dugu, sudurkariak aurrerago ikusteko atal honetatik kanpo utziz.

Leherkari bezala hartzen badira ere, ahostunak ez dira beti leherkari gertatzen, ingurunearen arauera baizik. Nahiko bateratua badago ere ingurune hori, guk hiru fonetista-dialektologoen eritziak jasotzen ditugu, zenbait aldaketa bait dago batetik bestera, funtsean berdinak izan arren seinalatzen dituzten inguruneak.

Leherkari ahostunak leherkari mantenitzen dira honako ingurune hauetan:

HOLMER (1968)
(Bizkaiera)

- Hasiera absolutuan
- Sudurkariaren ondotik
- [l] albokariaren ondotik [d] hortzetakoaren kasuan

N'DIAYE (1970)
(GN) Amaiur

- Hasiera absolutuan
- [n], [l] eta [r] hotsen ondotik
- Fratses hizkuntza dakiten lekukoentzat leherkari ahostunak leherkari gertatzen dira ingurune guztietan.

NAVARRO TOMAS (1923)
(B) Gernika

- Gazteleraz leherkari ahostunak leherkari gertatzen diren ingurune berdinetan gertatzen dira euskaraz ere.
- Hasiera absolutuan tarteko ebakerak gertatzen dira, batzutan afrikariak ere direlarik.
- Leherkari hortzetakoa [d] beti leherkaria gertatzen da [n] sudurkariaren edo [l] albokariaren ondoren doanean.
- Sudurkariak eta ezpainetakoak sortzen duten taldea ondo aztertu beharko litzatekeela dio.

Artikulaketari jarraikiz, hiru sail nagusitan bereizi ohi izan dira leherkariak, non eta nola ebakitzen direnaren arauera.

Lehenengo sailean [p] eta [b] daude. Ezpainetakoak deituak, bi ezpainek parte hartzen dutela hersketa sorraraziz eta hotsa leherkari bihurtuz. Hots hau ebakitzerakoan mihia elementu pasiboa da eta aho-barrunbe osoa libre uzten dio aireari ezpainetara iritsi arte.

Bigarren sailean hortzetakoak daude, [t] eta [d] dira eta hersketa hortzetan gertatzen da, mihi-punta hortz gainean jarriz hersketa sortaratzen du, beheko hortzak ere hurbiltzen direlarik mihi azpira. Aho-barrunbea nahiko estua gertatzen da, ahoa bera

itsi samarra geldituz. Guk jasotako palatogrametan NAVARRO TOMAS-ek (1925,604) Gipuzkerarako azaltzen duenarekin bat datoz:

"La t es dental, como la t española, formándose con la punta de la lengua contra la cara interior de los dientes superiores. El contacto de la lengua puede extenderse más o menos por las encías hasta los alvéolos, pero el punto principal y constante de dicho contacto es el que queda indicado, empezando por lo general, desde el filo de los dientes".

Guk jaso ditugunak hobietakoak izan dira, ez hain hortzetakoak, atzera jotzeko joera nabariarekin.

Azkenengo saila, belarearena da, [k] eta [g] hotsek sortzen dutena. Hots hauek ebakitzeko mihi gorputzak ahosabai bigunaren kontra jotzen du airearen hersketa sortuz. Aurreratu edo atzeratu egin daiteke artikula-puntua belarekin batera doan bokalaren tinbrearen arauera.

Deskribapen honek berdin balio du hurbilkariekin, kontutan harturik hauetan ez dela hersketarik sortzen eta aireak askea duela bidea kanpora urtetzerakoan.

2.1.2.1. HURBILKARIAK

Goian aipaturiko ingurunetatik at gertatzen direnean "g, t, d" hotsak, "frikariak" deituak izan ohi direnak, guk, "approximants" ingeleseko terminologiari jarraituz, "hurbilkariak" deitu ditugu. Ian MACKAY-k (1987,103) honela definitu izan ditu hots hauek:

> *"The primary sense of the verb to approximate is "to get close to" in a physical sense (the verb to* ***approach*** *is related to the verb to* ***approximate****). To produ-*

ce one type of consonant, the articulators are brought close together, or ***approximated,*** *although not sufficiently to create the frictional noise of the fricatives. For this reason, they are called approximants or, by some writers on the subject,* ***frictionless continuants".***

Ingelesen terminologiari jarraituz sortu zuen MARTINEZ CELDRAN-ek (1984,170-171) "aproximantes" neologismoa espainolerako:

> *"Las aproximantes tienen un grado menor de estrechamiento del canal supraglótico, de tal manera que deja de percibirse claramente el ruido de frotamiento que caracteriza a las fricativas. Además, la tensión articulatoria y la cantidad total del sonido es bastante menor. Se escucha como una leve modificación de las vocales contiguas".*

Deskribapen honetan "hurbilkariak", orain arte "igurzkariak" deituak izan direnak, beste igurzkarietatik bereizten dira, ez bait dira berdinak, eta egiten duen bereizketak uste dugu euskararako ere berdin balio duela, horregatik bidezkoa dela iduritzen zaigu hona ekartzea.

Ingeleseko "approximants" hitza "glides" (erdibokalak eta erdikontsonanteak) terminoarekin identifikatzen da, MACKAY (1987,103):

> *"These speech sound have some characteristics of consonants and some characteristics of vowels. Like vowels, they are produced without blockage or severe constriction and therefore have less noise component in their acoustic output than other consonants. They are distributed in language like consonants; that is, they are normally found accompanying vowels in syllables (whereas vowels may stand alone in syllables)".*

*"For classificatory convenience, we shall divide these sounds into two groups: the **glides** and the **liquids**".*

MARTINEZ CELDRAN-ek (1984,171) inondik ere ez du hau gaztelerarako onartzen, eta, gure ustez, ondo aztertu beharko litzateke euskaran banaketa hori onar daitekeen ala ez. Guri kontsonante mailan bereizketa egitea, egoki ezezik, beharrezko ere iruditzen zaigu, horren bitartez seinalatzen delako orain arte kontutan hartu izan ez den bereizketa.

Hizkuntzalari ingeles ABERCROMBIE, D. (1967,67), LADEFFOGED, P. (1975, 54 eta hur.) eta O'CONNOR-ek (1982,49), "frictionless continuants" (jarraikorrak, igurzkaritasunik gabeak) deitu izan dituzte. Horrela deituak izan dira ere AFI-k (Alfabeto fonetiko Internazionala), 1979. urterako eman zuen alfabeto berriztuan. Alfabeto horren barruan artikulazio moduaren aldetik oraindaino kontutan hartu gabeko zehaztasunak bereizten dira. Horietako bat lehen aipatua litzateke, "erdibokalaren" kontzeptua baztertu eta "approximant" hartzen du. Bestalde, igurzkariak eta hurbilkariak bereizten dira, eta azken hauetan albokariak ere sartzen dira, igurzkari edo hurbilkari izan daitezkeelarik. Hori dena, aire espiratuaz eginez. Zeinu diakritikoen bitartez igurzkari eta hurbilkari gertatzen diren hotsak bereizteko aukera ematen du, horrela [ß], [ð] eta [ɣ] igurzkari gertatzen direnak lirateke eta [ß] eta [ð] irekitasun zeinuz, alegia, hurbilkariak. Belarea, aldiz, AFI-ren arauera [ɰ] traskribatzen da, euskarak ez duen "ɰ" hotsa ere traskribatzeko bide batez.

Hurbilkarien barnean kokatu dituzte gainera, "erdikontsonanteaK" hauekin talde berezirik egin gabe, "glide"-rena esaterako.

(88) mapan **mogitu** forma jasotzen genuen. Hemen ere bustidura automatikoki gertatzen da, salbuespen hauez: Zugarramurdi; Baztango azpi-euskalkian Aniz eta Gartzain, -Amaiur eta Arraiotz-ek sabaitu bait dute hortzetako hotsa-; Bortzirietakoan, Erasun-ek alternantzia aurkezten du, A lekukoak bustidurarik gabe, baina B-k bustiduraz; azkenik, Ultzamako Goldaratzek bustidurarik gabe. Ezin izan da Etxalar eta Auzako A lekukoen ebakera jakin, "mugizu" eta "mugizak" formak azaldu bait zituzten.

(108) mapan "egitai" forma jasotzen da, eta, ingurunearen aldetik, leherkari hortzetako hots hori sabaiko egiteko ingurune egokia du. Horrela gertatzen da Bortzirietako azpi-euskalkian, Etxalar eta Oronotz-Mugaire-n ez beste toki guztietan bustitzen bait da. Erasun-en txandaketa gertatzen da, lekukoen arauera. Hitz berezia den arren, besteen aurretik bidea jarraitzen du honek ere. AZKUE-ren (1969,198) hitzak gogoratu beharko genituzke: "En la AN, por ejemplo, dicen, hasta causar hastío al oyente, **dittu, itto, atta por ditu, ito ...**"

160 TIPI / TTIPI / TTIKI / TXIKI (244)
161 TENTE (245)

Ingurune fonetikoak eragin gabeko bustidura kasuak gerta daitezke hitz hasieran, "ttipi", "ttarra", e.ab., eta hitz barruan ere, "gutti", "pattarra" eta horrelakoetan. Guk mapa hauetarako hautatu ditugun hitzetan edukiak berak sortzen du bustidura, ingurune fonetikoaren eraginik gabe, hitzaren eduki semantikoa indartuz bereiztasun fonetiko horren bidez. "Tipi" hitzak, bustiduraren


t´ notsa
[t']
[č]
[t]
[t']
[č]
GUTI / GUTTI / GUTXI


Joera nagusiak
[t]
[t']
[č]
tkandaketa larrienak

bidez, "ttipi" sortzen du distribuzio geografikoz. Leherkari ahoskabearen txandaketaz, "ttipi"-ren parean "ttiki" dago, baina honen bustidurarik gabeko forma, guk dakigunez, ez da erabiltzen gaur egun. Azkenik, bai "ttipi" bai "ttiki" formek aldaketa afriri dute, "txipi" eta "txiki" jarraiberean. Forma igurzkaria, berriz, "xipi"-ren kasuan agertzen da bakarrik.

MITXELENA-k (1977,186) forma hauentzat azaltzen dituen isoglosak hauek dira: (GN), (L) **ttiki;** (GN) Baztan, (BN) Amikutze, (Z) **ttipi;** (G), (B) **txikar, txiker** (Mic); (Heg) **txikir;** (GN), (BN), (G), (B) **txiki;** (L), (Z) **(t) xipi** (Etx., Leiç. **xipi,** Gar, Land. RS **txipi**).

Dena den, (B)-ko formetan alternantziak daude: Markina-n, **ditut, deutsat;** Eibar-en, **dittut, detzat;** Bergara-n, **dittut, dotzat;** Plaentzia-n, **ditxut, dotxat.**

Bestalde, Erdi Aroan deituretan Chipia arrunta zen eta guk aztertu dugun lurraldean "ttiki" izen laguntzaile bezala erabiltzen bada ere, tokiren batzutan toponimia xehean eta etxeen izenetan "txipi" aurkitu dugu, "Matxatxipia" adibidez, Ituren-go etxe baten izena.

Gure mapan, **ttipia** forma "ttikia"-rekin alternatuz aurkitu dugu Bortzirietako Oronotz-Mugaire-n. Halere, formarik hedatuena "ttiki" da: Zugarramurdi-n, Bortzirietako azpi-euskalki guztian eta Ultzamakoan erabiltzen da. Azken honetan salbuespen bakarrak, Arraras eta Goldaratz dira, "tx-" ebakitzen bait dute, eta Aldaz-ek "tt-" / "tx-" txandaketa du. Larraintzar eta Arraras-en hitzaren esanahia indartzen dute "-tto" eta "-txo" atzizkia erantsiz: "ttikittoa" eta "txikitxoa", jarraiberean, ahoskatuz. Bestalde, Erasun-en B lekukoak "txikia" ere erabiltzen du, ikus (80) mapa.

Baztan-en ez dute hitz hori erabiltzen, "ttalla" eta "ttarra" baizik. "Ttipi" eta "txipi" ezagutu eta esan ere egiten zuten, baina denak bat zetozen goiko formak jatorrenak zirela baieztatzen. Halere, Gorosabel-ek, **tchipi** eta **tchipitu** ematen zituen, IRIGOYEN (1962,187), eta IZETA-k (1985,605) **ttipie** eta **ttipitu.** Bien

informazioa erkatuz, gutxienez txandaketa edo bikoiztasuna agertzen dute, polimorfismo kasu baten aurrean ez bagaude behintzat.

"Tente" hitza ere berezia da. Adierazkortasunaren bila, bustitzera jotzen duen hitza da. Edozein modutan, adierazkortasuna ren arrazoitik kanpo, ingurumen fonetikoaren eraginez ere gerta daiteke. Sudurkariaren ondoko leherkari ahoskabeak, zein kasutan ez dakigularik, sabaitzeko joera badute batzutan: "tente" → "ttentte", "ttunttur", "ttantta", e. ab., batzutan leherkari ahoskabe hori ahostuna egin daitekeelarik sudurkariaren eraginez: [egiɲditut] → [egiɲtut] → [egin't'ut] [e(g)in't'ut] → [in'd'ut] (GN)-z, azken hau guk mapetan bildu ez badugu ere.

"Tente" hitza erabiltzen bada ere, "xutik" edo "txutik" ere erabiltzen da, eta hitz hau goikoa lekutzen ari dela Ultzamako azpi-euskalkiko toki gehienetan uste dugu.

Bustidurarik gabe, "tente", jaso genuen Iparraldetik Hegoalde-Mendebalde aldera doan eremu haundi samar batetan: Zugarramurdi-n; Baztango Aniz eta Gartzain-en; Bortzirietako azpi-euskalkiko Donamaria-n; eta Ultzamako Auza eta Larraintzaren; eta, azkenik, Aldaz-en.

Beunza tartean gelditzen da, "ttente", bigarren leherkariari bustidura zabaldu gabe. goian azalduriko legea ez badu betetzen ere. Eta "ttentte" Bortzirietako azpi-euskalki guztian, Donamaria-n izan ezik; Baztango Arraiotz eta Aniz-en eta Ultzamako Beramendi eta Goldaratz-en. Eta azkenik, bi aldaki, bustidurarik gabekoak, aipagarriak lirateke, Erasun eta Etxalar-ko B lekukoenak.

Dena den, "tente" eta "tipi" hitzek ez dute erkatzerik, gure ustez, bustiduraren aldetik. "Tipi"- k duen bustidura iraunkorra da, ez du adierazgarritasunik seinalatzen eta, azken finean, lexikalizatua dago. "Tente"-ren kasuan, berriz, "ttentte" jaso den eremuan erabiltzeko bi aukera daude: bata sabaikoa, forma bustia, erabile-

ra bereziz zahar eta umeekin erabilia, benetan adierazkorra dena, eta mota honetako perpausetan jasoa: "Begira, ze ttentte dabillen andre xar ori!" edo, bestela, "Aur ori ttentte dabil!". Eta horien parean "Tente ibili zaite!", balio ezberdina duelarik hots bakoitzak.

"Ttipi"-ren parean "gutti" ere bagenuke. Erdi Aroan eta Nafarroa-ko toponimian ageri den "guti" hitza bustiz: guti → gutti → gutxi bilakaera izan du, baina toki guztietan afrikaria ahoskatzera ez da iritsi. MITXELENA-k (1977,186) ematen dituen isoglosak hauek dira: (GN), (BN), (L) **guti;** (L) **gutti;** (Z) **gütti;** (GN) Baztan, (G) **gutxi;** (B) **gitxi;** (Heg) **guti** eta **gutxi.**

Gure mapan (83) jaso ditugun datuetan "guti", bustidurarik gabeko forma toki honetan ageri da: Zugarramurdi-n; Amaiur eta Gartzain-en, Baztango azpi-euskalkian; Larraintzar eta Beunza-n Ultzamakoan.

"Gutti", bustiduraz, Arraiotz eta Aniz-en Baztangoan; Erasun kenduta, Bortzirietako azpi-euskalki guztian; eta Auza eta Arraras-en, Ultzamakoan.

Afrikariz, "gutxi", Erasun eta Aldaz-en eta Beramendi eta Goldaratz-en.

Datu hauek, aurrekoekin erkatuz, konstante batzu mantenitzen direla esan daiteke. Zugarramurdi, Amaiur eta Gartzain bustidurarik gabe, aski tinko ageri dira behin eta berriz. Bortzirietako azpi-euskalkian bustiduraz, salbuespen nabariena Erasun delarik, zenbait emaitza txandakatu egiten dituelako. Ultzamako azpi-euskalkian ere txandaketak ageri dira, batez ere Gipuzkeraren aldera begira dauden lurraldeetan: Basaburua-n eta Imotz haranean, eta gauza bera Aldaz-en ere, jakina.

Adierazkortasuna agertzen duten beste kasu batzu ere, nahiko bat-batekoak direnak, bestalde, **kattukume** (76-77), **ttittare** (212-213), eta horrelakoren batzu aipagarriak lirateke. Eta bada bustiduraren aldetik, beste kasu aipagarririk ere, baina xistukarien sailean agertuko dira.

163A OHE - 163B HIRU OHE
164 OHETIK (247-249)

"Ohe" hitzak badu beste aldaki bat, "-tu" atzizkiaren bitartez partizipioa eginez, "ohatu", eta gero, hortik, "ohatze" aditz-izena, eta "ohe"-rekin batera, esanahi berarekin, distribuzio geografikoz izen bezala erabilia (6).

Aztertu dugun lurraldean, "ohea"-tik Zugarramurdi-n A lekukoak [oxea] ahoskatzen du; B-k, aldiz, "oea", baina mugagabean "iru oge". Larraintzar-ko B lekukoak "ogetik" erantzun zigun, baina erabilera hau ez da batere arrunta lurralde honetan, alderantziz baizik. Beste guztiek "goatze" eta horren hiatoak, armonia bokalikoaren ondorioz, sortzen dituen aldakiak eman dituzte.

Ingurune fonetikoa ikusirik, ez da bustidurarik gertatzeko aukerarik ez dagoela bistakoa da. Zugarramurdi-ko A lekukoak, bokal artean belare igurzkari ahoskabea hiatoaren tartean sartzearekin gerta zitekeen bustidura erabat urratzen du, eta B lekukoak, aldiz, hiatoa aldaketarik gabe mantenituz, "oetik" zegoen aukera bakarra urratzen du. Beste kasu guztietan "goatzetik" eta horren ingurukoak. Edozein modutan, "oittik" eta honen inguruan sor daitezkeen aldakiak, Bizkaieraz gertatzen dira batez ere, eta (B)-n bertan eta beste toki batzutan nola eta non kokatzen den jasotzeko jarria dago adibide hau.

166A TU - 166B ZENBAT TU (252-253)
167 -T(T)O / -TXO (254)

Hitz hauek berriki aztertu ditugun "ttiki","gutti" eta horien antzerakoak dira, leherkari hortzetakoa busti egin bait da. kasu batzutan leherkaria mantenituz, baina beste batzutan leherkaria asibilatu eta afrikaria bihurtuz.

"Tu" hitzak aldaki asko ditu. Alde batetik, leherkaria bera hortzetakoa ebakiz edo honen aldaki aspiratua, lparraldeko hizkeretan egiten den **thu** eta, jakina, (Z)-ko **thü** forma ere hor sartzen delarik. Beste talde batean: **listu, istu, histu** hauek denak ere, lparraldean eta lp (GN)-z gertatzen direnak.

Baina, **tu** formak leherkari hortzetakoaren parean, leherkari sabaikoa aldakia aurkezten du, agiriko arrazoirik ez duen aldaki bustia. "Ttu" forma lp (GN) Baztango azpi-euskalkian gertatzen da batez ere -horrela dakar IZETA-k (1985,605), Gorrosueta-k "thu" eta "tchu", IRIGOYEN (1962,186)-, eta AZKUE-k dioenez (**Hizt.** 294), Lesaka-n eta Oiartzun-en ere bai. Forma horretatik sortzen den aldaki afrikaria, **txu,** (B)-z gertatzen da.

Jaso ditugun datuak ez datoz zehaztasunez bat, goian aipatuarekin. Zugarramurdi-n "tua" forma ageri da eta Baztango azpieuskalkian,bustidura eginez, "ttua". Beste gainerako lekuetan "listu" hitza erabiltzen dute, Erasun-en izan ezik, hemen "ixtu" jaso bait genuen. Azkenik, Oronotz-Mugaire-n txandaketa bat, B lekukoak "ttue" eta A-k, aldiz, "lixtu", behin eta berriz herri honek azpieuskalkien mugan egotearen ondorioa agertzen duelarik.

Forma mugagabeetan mugatuetan bezala gertatzen da. Aldaketa bakarra Zugarramurdi-koa da, A lekukoak, "ttu", bustiduraz ahoskatzen bait du, eta B-k, aldiz, "zenbat lixtu", erabat aldaturik, eta txandaketa gaitza agertuz.

Guk, Lesaka-ko hizkera jaso ez arren, Arantza eta Etxalar, biak Bortzirieta bailarakoak, ikusiz, Lesaka-koa ere "lixtua" izango dela uste dugu, Azkue-k "tua" egiten zela esaten badu ere.

Diminutiboak sortzeko "-to" izan zitekeen atzizkia, bere eduki semantiko adierazkorrak bustitzera bultzatuko zuen eta, beraz, ohizkoak diren bi aldakiak, **-tto, -txo,** horretatik sortzen al ziren.

Informazio hau ez da lekukoarengandik bat-batean jasotzeko erraza, testuinguru berezia eskatzen baitu; galdera aproposa eginez bortxatu egin daiteke erantzuna, eta horrek fidagarritasuna kenduko lioke. Halere, "amatxo" hitzaren bitartez,"-txo" atzizkia jaso genuen leku guztietan, bat-bateko erantzun bezala. Zugarramurdi eta Beunza-n "-tto" erantzun zuten, baina horrekin batera "-txo" afrikaria ere bai. Horrez kanpo, Arantza, Etxalar, Oieregi, Arraiotz eta Auza-n "-tto" ere errango luketeela adierazi ziguten.

Beste Bortzirietako azpi-euskalkiko herrietan eta Baztangoan ere bai, "amatto" kasu berezi batzutan, aproposeko mimoa agertzeko edo, erabiliko lukeela haurrak adierazi ziguten, baina besterik ez.

Eta hots honekin bukatzeko, goian esandako ondorioei ezer gutxi erants dakiekegu hitz hauen bitartez. Hitz hauek benetan bereziak dira, eta gehien ere lurralde honetan bustidura, automatikoa batez ere, egiteko joera dagoela sendotu egiten dute, goian aipaturiko salbuespenez. Eta txandaketa gertatzen dela ere bai zenbait kasutan, Aldaz eta Erasun-en batez ere; baina kasu gehienetan, garai bateko txandaketak behin-betirako ordezketari egin dio tokia.

168 SAGAR ONDO (255)
169 IL DA (256)
170 EZIN DUT (257)

Bagenekien aldez aurretik mapa honetan jasotzen diren sudurkari eta albokari ondoko leherkari hortzetako hots ahostun hauek Nafarroa-ko guk aztertutako lurraldean ez zirela sabaiko egiten. Hala eta guztiz ere, helburua euskalki guztietan jasotzekoa denez, isoglosak markatzeko eta ebakerak ikusteko jaso egin behar ziren.

Espero genuen bezala, ez da bustidurarik jaso. (169) mapan, "il da" sekuentzian "i" bokalaren eraginez albokaria sabaiko egiten da zenbait tokitan, baina ez da hurrengo hotsa kutsatzen.

(220) mapan "onddo" hitza jasotzen da eta mapa horretan bai ageri dela [d'] hotsa, leherkarien txandaketa azaltzerakoan komentatu genuen bezala. Dena den, honako hau esango genuke: mapan ageri den bezala, bada txandaketa bat, distribuzio geografikoz, sabaiko hotsen sailean leherkariaren eta afrikariaren artean, azken hau Arraras-en gertatzen delarik.

"Onddo" eta "ondo" bikotea jarri izan ohi da bi hotsen fonematasuna erkatzeko, latinezko FUNGUS eta FUNDUS jarraibereko etimoetan oinarriturik dagoen bikotea. Bestalde "ondo" hitzak balio asko ditu eta aldatu egiten dira, tokian tokiko erabilerak dituelarik, aurre-inkesta euskalki guztietan jaso genuenean ikusteko aukera izan genuen bezala. Azkenean, eta erantzunetan batasima lortzeko asmoz, "sagar ondo" hautatu genuen ezin bada ere pare parean jarri "onddo" hitzarekin. Halere, erkagarriak gertatzen dira bi hotsak eta dituzten bereiztasunak ikusi eta aztertzeko bidea zabaltzen dute.

Ikusi dugunetik, [d'] hotsa oso estatus mugikorrekoa dela atera daiteke, eta oso eskasa maiztasunaren aldetik. Ahultasun hori inguruan dituen hotsen arauera gertatzen delako heldu zaio, izugarrizko kapazitatea bait du haietara egokitzeko. Uste dugu

hots honek ikerketa sakona behar duela bere egoera eta nortasun fonetikoa ezagutzeko, eta bere gertaerak eta distribuzioa ingurune fonetiko ezberdinetan aztertzeko ere. Bestalde, hedapen geografikoa bera ere ondo finkatzeko du, baina horrek lan honen helburuak eta mugak gaindi ditzake neurri on batean.

2.1.6. Analisi fonetiko eta diatopikoaren ondorioak

Leherkariez hitz egin dugun kapitulu honetan, hasiera-hasieratik gauza bat azaldu da nabarmena eta, analisi akustikotik kanpo, aurrena azaldu behar dena: kontsonante leherkari eta hurbilkarien arteko bereizketa, alegia.

Leherkariak hersketagatik ezagutzen eta definitzen badira eta hurbilkariak hersketarik ezagatik edo ez izatetik, besterik ere badute artikulaketa modutik kanpo elkarrengadik bereizteko.

Bereizketa hori joera eta jokabidetik dator, hizkuntza mintzatutik sortzen den modu bateko edo besteko erantzunetik. Leherkarien egoera aski mugikorra dela ikusi dugu, baina txandaketat beti ahostunaren eta ahoskabearen edo hutsaren artean gertatu ohi dira. Hitz barnean ahostuna / ahoskabea bereizketak fonematasun osoz funtziona dezake, "aita / aida", baina honek ez ditu banaketa geografikoz ematen diren balio funtzionalik gabeko txandaketa soilak eragczten: "jaiki / jaigi". Hitz hasieran ahostuna / ahoskabearen arteko oposaketak ez du balio funtzionalik agertu sekula; beti txandaketa arruntak dira ebakeraren bi aldaki bezala, "pekatu / bekatu". Inoiz beste hotsen batekin ere izan dezake alternantzia, "porru / borru / forru (L) Zug.", baina honelako kasutan beste arrazoi batzuk ere hartzen dute esku.

Bestalde, leherkarien txandaketa hori ahultasun batetik badator ere, ezin daiteke erka hurbilkariak dutenarekin. Normala den bezala, ahultasun hori ahostunekin gertatzen da biziago eta

hortik datoz ahostunen txandaketak batez ere. Zenbait kasutan gertatzen den protesia berezia da eta badu bere azalpen fonetikoa.

Bestelakoa da hurbilkariekin gertatzen dena. Hauen estatusa, mugikorragoa izateaz gainera, zabalagoa da, heuren arteko txandaketetan hirurak ager bait daitezke hitz berdinean, edo hutsa ere bai, "eguzki"-ren kasua, esaterako. Baina, horiez kanpo, alterna dezakete dardarkari erlaxatu diren hurbilkariekin, "edo / ero", eta ezpain hortzetako igurzkariarekin "f"-rekin, alegia, "kabia / kafia", honela hurbilkari ez den beste hots batekin alternatuz.

Sarri askotan leherkaria bigarren mailako hotsa gertatzen da, hau da, jatorriz beste euskal hots batetik datorrena, aspiraketa izaten delarik eskuarki jatorririk arruntena, "aho / ago / abo / axo", azken honetan belare igurzkari ahoskabearekin txandakatuz. Edo beherunzko diptongotik datorrena: "gaua / gaba", esaterako.

Bi arrazoi dira funtsezkoenak hurbilkarien egoera berezia leherkarien parean eta leherkarienarekin batera agertzeko. Bata eta nagusia, hurbilkariak bigarren mailako hotsak direla, jotorriz leherkariak eta, ingurunearen eraginez, hurbilkari izatera iritsiak, inoiz beste hotsen batetik ere bai. Aurreko honen ondorioz gertatzen da bestea, hau da, beste hots baten ordez egoteak hurbilkariei dakarkien ahultasun eta aldaberatasuna. Egoera horretatik datozkie, bestalde, hainbeste aldaketarako dituzten aukerak; izan ere, leherkariek baino askoz posibilitate gehiago dituzte, eta honek beste ikuspegi bat ematen die kontsonante hauen egoerari.

Lege tinkoak eman izan dira, kanpo-sandhietan bi hots, xistukaria eta leherkari ahostuna, alegia, elkartzen direnerako, edo, hitz barruan sudurkaria edo albokariaren ondoren leherkari ahoskabea datorrenerako. Gure ustez lan sistematiko eta zehatzak egin behar dira kontsonante multzo horien joerak edo, hala balitz, ohizko jokabideen arauak hobetoago ezagutzeko textuinguru guztietan. Jokabide horiek eskuarki betetzen dira, eta, beraz, joera hutsa baino zerbait sakonagoa da, baina itsu-itsuan eta beti gertatzen direnik ere ezin daiteke esan. Ongi begiratu eta aztertu

beharko litzateke kontsonante taldea zein ingurunetan eta zenbaterainoko maiztasunez gertatzen den ingurune berezi horretan, honek zerikusi haundia bait du multzo konkretu horren joera eta jokabidearekin. Honekin batera beste ingurune batzutan ere ikusi behar dira, eta kontsonanteen elkarketa berria den edo ez, eta beste zehaztasunik ere bai, denak bait du eraginik kontsonante multzo horien ahoskeran. Kontsonante sudurkarien edo albokarien ondorengo leherkari ahoskabea ahostun bihurtzeko legea maizago betetzen dela esango genuke hitza latinetik datorren mailegua denean, euskal jatorriko denean baino: **ilko, kolko, Jainko, elkar,** e. ab.-ek azaltzen duten bezala.

Dena dela, konstante bezala agertzen den txandaketa hemen ere jasotzen da. Begiratu beharko litzateke posizio horretan gertatzen den hotsak benetako oposaketa sortzen duen ala neutralizaturik gelditzen den, edo, bestela esan, benetako pertinentziarik duen ahostuna / ahoskabearen ala ateza / ahula-ren artean sor daitekeen oposaketak.

[t'] hotsaren aldetik ere txandaketa nabarmenak jaso ditugu, afrikari sabaiko ahoskabea leherkari hortzetako ahoskabearekin aldatzen bait da. Txandaketa hauek gertatzea oso arrazoizkoa da. Izan ere, jatorrizko hotsa leherkari hortzetakoa da, eta aztertu dugun hotsa, berriz, [t] busti bat baino ez bait da. Bestalde, afrikariaren ebakerak, agian hizkuntzaren baitako joera baino gehiago, kanpoko interferentzia dela dirudi, batez ere hartzen dituen isoglosei begi ematen badiegu. Kasu honetan txandaketaren bilakabidea burutua ez ote dagoen pentsatzen dugu, eta nahiko tinko ebakitzen direla hots bata nahiz bestea uste dugu. Horrek ez du esan nahi beti hots berdinez ebaki behar denik toki batean: hotsak alterna dezake dudarik gabe, baina kasuen arauera. Mugan dauden herrietako hizketak dira kasu honetan ere txandaketa hori agertzen dutenak, Erasun eta Aldaz batez ere, eta Basaburua Haundia haraneko Arraras eta Beramendi ere bai, bi hauetan hain garbi agertzen ez bada ere. Oronotz-Mugaire alde batera gelditzen da kasu honetan: txandaketa lekukoei dagokie azpi-euskalki ezberdinetara begira bait daude.

[d'] hotsaren arazoa bestelakoa da oso estatus berezia bait du hots honek. Hagitz maiztasun murritzekoa da, ia egon ere ez dagoelako hots hau berezkoa duen hitzik, "onddo" eta besteren bat kenduta. Ingurunearen eraginez gertatzen da eta gehiago dirudi unean uneko erabilera eta gertakizun konkretua, berezkoa den hotsa baino.

Hori dela eta, "tt"-ren kasuan fonema baten aurrean gaudela uste dut, baina "dd"-renean aldaki fonetikoa baizik ez dela esango nuke. "Tt", egia da, aldaki bezala "t"-ren bustidura ingurunearen eraginez sortuz, automatikoki gertatzen da, "loditu" **loditu,** "ditu" **dittu,** e. ab. Eta horren parean bustidura expresiboa dago: **aitta, gutti, ttipi, ttentte, kattakume, ttittare,** nahiz hitz barruan nahiz hitz hasieran gertatu. Baina hots honekin, goian esan dugun bezala, erabilera tinkoa gertatzen da, distribuzio geografikoz bada ere. Hau da, "tt" egiten den kasuetan, garai batean bustidura automatikoa gertatu bazen ere, egun bustidura hori beti erabiltzen da, ez bustidurarik gabeko formaren aldaki bezala, baizik balio funtzionalez, esaterako "lau kattu ttut" eta "kattua dut" (Bortzirietako Ituren-en), "dut" eta "ttut", aditzaren zenbakia bereizteko indarra duelarik.

Azkenik, "tt" hotsa Bortzirietako azpi-euskalkian asko ageri da, baina kontutan hartu behar da, hots hau ziurrenez gehien erabiltzen den lurraldean aritu garela lanean.

2.1.7. Analisi akustikoa

Aztertu ditugun sonogrametan, leherkariak bere nortasun bereziarekin agertzen dira eta ez dute eragozpen haundirik sortzen beren tasun propioak azaltzerakoan.

Ahostun eta ahoskabeen arteko desberdintasunak oso garbi eta errez bereizten dira. Ahots-korden mogimendua ondo marka-

tua gelditzen da ahostunen sonogramaren beheko partean, ahostasunaren formakina deritzanean eta honen falta, aldiz, leherkari ahoskabeetan. Ikus (4.1) eta (4.2).

Beste ezaugarri bat leherkaritasunaren marrari dagokio. Ahoskabeetan leherkaritasunaren marra bertikala askoz ere markatuagoa da, eta ahoskabeek sortzen duten espektroan maiztasun bat ageri da, hersketaren ondoren gertatzen den igurzkaritasun apurrari dagokiona. Ez da iraupen berdinekoa bokal denekin: "u" bokalarekin eta "i"-rekin ere, uste dugu, luzexeagoa dela, baina hori astiroago aztertu beharko litzateke.

Kasuren batean, aspiraketa txiki bat egiten da leherkari ahoskabearen ondoren, hasierako posizioan dagoenean leherkaria. Baina ez dugu erabateko daturik eta hori patxada gehiagorekin jaso behar den gauza da lan monografikoen bitartez.

Hasierako posizioari dagokionez, eta kontutan hartuz datuak biltzerakoan alternantzia haundia jaso genuela ahostun eta ahoskabeen artean, batzutan lekuko berak bi era ezberdinetara erabil zezakeela ere ikusirik, ahostun / ahoskabearen arteko oposaketa baino egokiagoa eta pertinenteagoa ateza / ahula izan ote zitekeen pentsatu genuen. Halere, jaso ditugun espektrogramak aztertu ondoren, ezin diogu hipotesi horri eutsi, ahostun / ahoskabearen arteko bereizketa oso zehatza bait da. Egia esan, ateza / ahula ere ezaugarri bereiztailea da, bistan gelditu den bezala, baina ahostasunarena hain gelditzen da argi eta hain da edozein zalantza gainditzeko egokia, ezen bazterrezina gertatzen den.

Leherkari ahostunen distribuzioaren aldetik,leherkari gertatzen dira hitz hasieran eta sudurkari eta albokarien ondoren doazenean. Salbuespenak ere aurkitu ditugu, ordea, hau da, ingurune horietan joan arren ere ez dira kasu guztietan sonogramek azaldu duten bezala, leherkari ebaki, hurbilkariak ere aurkitu bait ditugu. Hala eta guztiz ere, joera nagusia leherkari bezala mantenitzearena da, eta besteak kasu solteak baizik ez dira izan. Ezin dugu beste horrenbeste esan dardarkarien ondoren joaten direnean, horietan, orohar,

hurbilkari bezala gertatu bait dira. "Il da" kasuan ere, "i" bokalaren eraginez albokaria busti denean, ez da leherkaria hurrengo hotsa, hurbilkaria baizik. Dena dela, kasu honetan ere gertatu da salbuespenen bat, ikus, esaterako, Beramendi-k egin duena (4.3).

Iraupenaren aldetik, laburragoak gertatu dira sonanteen ondoren doazenak baina hauetan ere nahiko luzeak aurkitu ditugu zenbait aldiz, sudurkarien ondorengoak esaterako. Halere, gure datu mugatuen arauera, atzeman diegun joerari buruz baizik ezin gaitezke mintza. datuak eta erkatu, tendentziaz bakarrik mintzatu bait gara.

Leherkari ahoskabeak azken posizioan gertatzen direnean, goian ikusi dugun bezala, NAVARRO TOMAS-ek (1923,55-56) ahostu egiten direla esaten zuen eta horrela onartu izan da ordutik eta traskribapen fonetikoetan ere horrela errepresentatu izan dira. Guk jaso ditugun kasuetan, azken posizioko leherkaria belarea izan da gehienbat eta ahoskabea gainera, garbi agertuz nahiz hersketaren edo leherketaren marra nahiz ahostunen beheko maiztasunarik eza; batzutan aspiraketa txiki bat ere egiten zen, azken posizioan askotan gertatu ohi den modura. "Ez gara" (240) jaso genuenean, "ez gara hemengoak" sekuentzian jaso genuen. Eta espektrogrametan azaldu denez, kasu guztietan, baten izan ezik, azkenengo hotsa leherkari ahoskabea jaso dugu, oso markatua agertuz gainera leherkariaren marra. Ikus Aniz-eko gertaera (4.4).

Leherkaria + leherkaria kasuak desberdinketa haundikoak izan dira, orotariko gertakizunak agertzen bait dira sonogrametan, eta maizenik bat etorri dira aurretik egindako traskribaketekin. Behar bada desberdintasun nagusiena bi leherkari ahoskabeen sekuentzian jaso da espektrogrametan iraupen haundiagoko leherkari bakar bezala agertzen bait da.

Komentario berdina xistukaria + leherkaria talderako, kasu hauetan ere emaitza asko eta era askotakoak aurkitu bait ditugu. Azaldu da aurreko xistukarien ozenketa ere ondorengo leherkari

ahostunaren eraginez: "ez gara" kasuan Arraras-en. Ikus, honi buruz, igurzkari xistukarien sailean dioguna.

Definizioari dagokionez, ezpainetakoak eta hortzetakoak "barreiatuak" dira, espektroan erdialdeak ahulagoak ageri direlako eta energia ere motelagoa dutelako; belareak, berriz, "trinkoak" dira. "Lodiak" ezpainetakoak eta belareak dira; "zorrotzak", aldiz, hortzetakoak, haiek espektroaren behekaldean agertzen direlako eta aho-barrunbea ere banatu gabe dutelako. Azkenik, "mate" bezala hartu ditugu denak, espektrogrametan agertzen dituzten frenkuentziak aski erregularrak bait dira, behetik gora zuzen. Leherkari ahostunen aldakiak ere, hurbilkariak, alegia, "mate"-ak dira. Leherkari ahoskabeak "etenkari" bezala definitu ditugu, kasu guztietan horrela gertatzen bait dira. Ahostunetan, aldiz, ezin daiteke horrenbeste esan, hurbilkariak jarraikorrak bait dira.

[t'] hotsa benetan berezia da izatez. Leherkaria bezala definitu badugu ere, espektrograman agertzen zaigun irudia afrikarien ingurukoa da, igurzkariena baino denbora laburragoa badu ere, 45- 52 msg-koa da, bataz-beste, guk jaso izan duguna hitz barruan doanean; hitzaren hasieran laburragoa gertatzen da. Ikus azaltzen ditugun adibideak eta ikus ere afrikarietan hots honi buruz azaltzen doguna.

Maiztasunak ere nahiko goian daudela iduritzen zaigu hots sabaikariak izateko. Bokalaren arauera gertatzen dira, jakina, baina "a"-rekin joaten denean ere aski goian gertatzen da, ikus, esaterako, "ttarra" Aniz-eko lekukoak ebakia (4.5). Honek, nolabait, egindako palatogrametan jaso genuena konfirmatzen digu, hau da, sabai-aurrekoa gertatzen zela eta ez sabai-erdikoa.

Ipintzen ditugun adibideak erakusgai bat besterik ez dira, aldaki asko aurkitu bait ditugu eta denak ere benetan interesgarriak. Hemen, alegia, bustidura automatikoa gertatzen den kasuen bilakabidea ematen saiatu gara. Lehenengo, "aite", sabaikari gertatzen ez den ebakera azaltzen dugu, baina hortzetako hotsak badu bustidura apur bat maiztasunak berak azaltzen duen bezala,

(4.6) Amaiur-ko lekuko batengandik jasoa. Hurrengoa "atte" dugu (4.7), Auza-koarena, bustidurarekin, baina, esan dugun bezala, afrikaritik nahiko hurbil gelditzen dena: erka Arraras-koaren "atxe" formarekin (4.8) eta ez dira hain urruti ere gelditzen elkarrengadik, eta hori bat dator, bestalde, goian ikusi dugun bezala fonetistek azaldutakoarekin.

[d'] hotsari dagokionez, "onddo" hitzarena ekartzen dugu hona. Izan ere, ingurune egokia du, sudurkariaren ondoren doanez gero, leherkari gertatzeko; haatik, ez da beti leherkari gertatu, afrikaria eta igurzkaria ere agertu zaigu; eta behin ahoskabetua ere gertatu da. Hemen jartzen ditugun kasuak leherkariarenak eta ahostunak dira ageri den bezala (4.9) eta (4.10) leherkaritasunaren marrak ez du zalantzetarako aukerarik ematen eta gutxiago ozentasunaren beheko maiztasunak. Bestalde, hots honetan maiztasunen altuera hurbilago gelditzen da sabaikoak izan ohi dutenetik, eta, beraz, behe samarrean gelditzen da.

Bada ipini ditugun bi adibideen artean ezberdintasun garrantzitsu bat, ahoskeraren bigarren momentuari dagokiona, hain zuzen. Lehenengoak (4.9) badu hersketaren ondoren igurzkaria den une bat, laburra bada ere, 36 msg-koa; bigarrenak, (4,10) aldiz, ez du batere igurzkaritasunik, hersketaren ondoren zuzenean iragaitea agertzen bait da, "o" bokalaren aldera beheruntz egiten duelarik. Azken hau, gure ustez, "d" hortzetakotik hurbilago dago eta "d" bustia deitu izan dugun horietakoa litzateke. Bestea, berriz, benetako hots sabaikoa genuke. Guk bietarikoak aurkitu izan ditugu. Ez nuke NAVARRO TOMAS-en hitzak ekartzeko gogoarekin gelditu nahi, garai hartarako hain izan bait ziren zorrotzak esan zituen gauzak: "...sin duda, en el sonido vasco la proporción entre la parte oclusiva y la fricativa era menos fija y regular que en la y española" (1923,55).

Definizioaren aldetik sabaiko leherkari hauek bereizketa bat dute ahostuna eta ahoskabea izatetik kanpo: ahoskabea "karrankaria" gertatzen da eta ahostuna "matea".



(4.1)



(4.2)



(4.3)



(4.4)



(4.5)



(4.6)



(4.7)



(4.8)



(4.9)



(4.10)

OHARRAK

(1) Hots horiek leherkari bezala definitzen ditugu betiko bideari jarraituz, nahiz eta leherkari elementuaren pertinentzia diskutigarria den. Leherkari ahostunek bi alofono dituzte, bat leherkaria dena eta hurbilkaria bestea, biak osagarrizko banaketarekin, hain zuzen. Artikulaziozko eta akustikazko definizioen artean kontraesan bat dago, eta "leherkaritasunaren" ezaugarria kendu beharko genuke artikulaziozkotik, akustikotik "etenkaritasunarena" kendu dugun bezala. Halere, berriro esan, tradizioari jarraitu diogu; eta horretan ezezik leherkaritasuna artikulazioari eransten ere bai. Leherkaritasuna fenomeno akustikoa da izan, baina gure artean, akustikako lanen urritasunagatik edo, fonemen definizio artikulatoriotarako izan ohi da, eta guk ez dugu horretan bide-urratzaile nahi izan. Alabaina, hasi beharko genuke artikulazioan "herskari" erabiltzen, "leherkari" akustikorako utziz.

(2) Egiten ari garen deskripzio orokor honetan ez gara sartzen leherkari aspiratu hauek eduki dezaketen balio fonematikoarekin. Badirudi, halere, egun fonemaren balioa eman arren, garai zaharretan ez zutela horrelakorik, inguruko hotsen eta hitzaren barruan zeukan posizioaren eraginez sortzen bait zen aspiraketa. Iparraldean gertatzen diren leherkari aspiratu horiek Hegoaldean ere gerta daitezke, oso kasu bakanetan bada ere, ikus NAVARRO TOMAS (1925,604).

(3) Dardarkariaren aldeko aldaketak ugariak ez badira ere, gertatzen dira, ordea, beste mota batzuetako aldaketak: ago / abo (60); edo galera kasuak: **labana / laana** (52), esaterako adibide bat besterik jartzen ez dugularik.

(4) Alternantzia edo txandaketa hori latinezko f- hasieran zuten hitz maileguetatik sortu zen ziurrenez, gero beste testuinguruetara zabaldu zena barruko posizioan, bokal artean, hain zuzen. Hitz barruan, uste dugunez, alternantzia hori ez da leherkari ahoskabeekin gertatzen, hasierakotan bezala: "kabi / kafi", baina: "biku / fiku / piku", alegia.

(5) Zentzu honetan definitzen du asibilaketa: "La punta de la lengua queda cercana a los dientes, al relajarse la tensión muscular de esta articulación en la pronunciación descuidada, esto es, al iniciarse la 'mouillure', la explosión pierde su brusquedad y se convierte en una breve fricación sorda entre la región postdental superior y el ápice lingual que no se había alejado de entre los dientes". A. ALONSO (1923,63).

(6) Bilakabide hori LHANDE-k **Hizt-n** (792) ematen du. Agian, ohe faktitiboren bitartez **oheratu**, eta erabiltzen den formatik etor zitekeen, **o(h)e(r)atu** > o(h)atu / o(h)atze eginez. Honen eragozpena, hain zuzen ere, hauxe da, hiato horiek ez "-a", baizik "-e" bezala gertatzen direla: "den", "dela",... Mitxelena-k ez du hitz honetaz deusere esaten.

(7) MITXELENA-k ere (1967,167) sail guzti hau "sabaikoak" edo "bustiak" izenaren barnean sartzen du: "El nombre puede no ser muy exacto, si nos atenemos a la sustancia, puesto que, para no citar más que un inconveniente, la articulación de c y s no es muy distinta como se acaba de decir, de la de o y s. Lo que las agrupa en realidad es un común valor expresivo (diminutivo, afectivo) que todas ellas puedan tener, aunque no siempre lo tengan".

(8) Ez du, dena den, inondik ere, bablerako "dd" kakuminal ebakitzen den hotsaren antzik. Ikus Joseph FERNANDEZ-ek (1960,23) egiten dion deskripzioa, definizioa berdina edo ia berdina izan arren: "Es un sonido prepalatal o postalveolar, oclusivo y sonoro, con alta tensión articulatorioa, sin huella de africación. Se articula sin redondeamiento de labios, y o bien con el ápice o, por lo menos en algunos hablantes, con la parte inferior de la lengua. Cae, por tanto, dentro de la serie de sonidos "más o menos cacuminales", pero es preciso

hacer constar que este sonido no es tan "cacuminal" como se viene creyendo. No llega al grado cacuminal de la dd de Sicilia, sino que parece más bien ocupar un lugar entre esta misma dd y la conocida "d" oclusiva en posición inicial absoluta del castellano. Creo que su carácter particular y la impresión acústica que produce estriba en el grado de tensión con que se articula y la totalidad de la oclusión".

2.2. AFRIKARIAK

2.2.1. Definizioak

/c/ fonema: Artikulatorioa: afrikaria, bizkar-hobietakoa, ahoskabea.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, barreiatua, zorrotza, ahozkoa, etenkaria, karrankaria, ahoskabea.

/ć/ " : Artikulatorioa: afrikaria, mihipunta-hobietako, erretroflexua, ahoskabea.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, barreiatua, zorrotza, ahozkoa, etenkaria, karrankaria, ahoskabea, erretroflexua.

/č/ " : Artikulatorioa: afrikaria, sabaikoa, ahoskabea.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, trinkoa, zorrotza, ahozkoa, etenkaria, karrankaria.

2.2.2. Gertakizun fonetikoak

Esan daiteke hiru fonematako saila dela, fonetika artikulatorioarer. aldetik artikula gunean bereizten diren fonemena: bi hobietakoak dira, bata mihi-bizkarrekoa, eta mihi-puntako, erretroflexua bestea; eta hirugarrena, sabaikoa, mihi-bizkarrekoa edo erdikoa ere izan daiteelarik. Beste ezaugarriak berdinak dituzte, hirurak afrikatuak eta ahoskabeak bait dira.

Horiek kontutan harturik, euskarak fonologikoki hiru fonema afrikari ditu: bizkar-hobietakoa ahoskabea /c/; mihipunta-hobietakoa ahoskabea /ć/; eta sabaiko ahoskabea /č/. Fonetikoki bikoiztu egiten dira, alde batetik deskribatu ditugun fonemen alofonoak: [c],

[c̀] eta [c̆], eta bestetik, [dz] eta [dź], goikoen alofono ahostunak, eta beste bat, [dž], /j̆/ fonemaren alofonoa dena. Aldaki ahoskabeak, ingurune guztietan ahoskabe gertatzen dira, inoiz ahostun gerta daitezkeen arren, baina batere araurik gabe; ahostunak, [dz] eta [dż], aldiz, banaketa konplementarioz gertatzen dira, sudurkari edo albokari baten aurrean joaten direnean, edo beste hots ahostun baten aurrean; [dž] hotsa [j̆] igurzkariarekin banaketa konplementarioan aurkitzen da; eta hasierako posizioan eta sudurkari eta albokarien aurrean doanean afrikari bezala ebakitzen da, eta, agian, finkatzeke dauden beste ingurune fonetikoetan ere bai. Sabaiko afrikariaz, [c̆]-k, balio adierazkorra ere badu. Kasu horietan ere bigarren mailakoa hotsa da, nomalean [c̆], bizkar-hobietako igurzkarien aldakia, edo bizkar-hobietako igurzkari ahoskabearen [s] aldakia; [t'] sabaiko leherkari ahoskabearen aldakia ere izan daiteke.

Iparraldean afrikari ahostunak fonema bezala hartuak izan dira, LARRASQUET (1928), baina ez LAFON-ek (1958) eta ez GAVEL-ek (1960) ez dituzte beren sistema fonologikoetan sartzen. Bestalde, guk egin dugun deskribapena, zer esanik ez, orokorra da eta horregatik euskalkien arauera aldatu egiten da, bai hotsen fonematasunaren aldetik bai azaldu ditugun errealizazioen inguruneen aldetik.

Hiru fonema afrikari hauek beren pareko igurzkariak dituzte, artikula puntua berdina dutelarik eta, haiek bezala, ahoskabeak direla. Igurzkarien sailean aurkeztuko ditugu.

Artikulaketaren puntua benetan pertinentea gertatzen da hots hauetan, horiei esker benetako fonema bihurtzen direlako. Ots / **otz; atso** / **atzo; etzi** / **etsi**, beste askoren artean bikote sail bat genuke. Badituzte, bestalde, igurzkari diren korrelato ahoskabeak, kasu hauetan artikula modua da bereizgarria, igurzkari / afrikari oposaketa, alegia: **oso** / **otso, aza** / **atza, lixu** / **litxu,** e. ab.

Azalpen hau, beti bezala, teoriko samarra gertatzen da, errealitatea aldakorra bait da fonetikarekin mugitzen garenean.

Alabaina, xistukarien kasuan oraindikan egoera larriagoa da, (B)-z erabat urratua bait dago azaldu dugun sistema. Hona MITXELENA-k (1977,282) sistema honen egoera geografikoa nola aurkezten zuen:

> *"La confusión total de los dos órdenes de sibilantes es hoy general en Vizcaya, salvo, a lo que se indica, en Marquina-Echevarría y Bolívar: la fricativa es apical, /s/, pero la africada predorsal. La confusión gana terreno en Guipúzcoa, sobre todo en las poblaciones de alguna importancia: no es infrecuente que la distinción se mantenga bien en los caseríos vecinos cuando se ha perdido en el casco de la población. Ambos órdenes se mantienen bien distintos en toda Navarra, incluso donde la lengua está moribunda".*

Hotsen nahasketa hau XVII. mendean gertatzen zen Bilbo inguruan eta, orohar, (B) Mendebaldean, garaiko idazleengan ikus daitekeen bezala; Micoleta, esaterako, horren adibide ona da. Larramendi-k ere, mende bat beranduago Bilbo inguruan nahasketa hau gertatzen zela salatzen zuen. Garaitzen doan fenomeno hau azterketa sakon baten beharrean aurkitzen da gaur eguneko egoera zein den garbi jakiteko (1).

2.2.2.1. Afrikarien hersketaren ezaugarriak

Orohar, edozein hizkuntzetako fonema afrikarien ebakerak dituen bi momentu edo une ezberdinengatik fonetista ospetsuen artean eztabaida haundiak izan dira bi hots ezberdin ala hots bakarra ote direnentz, edo, bestela esan, afrikariak soinu bifonematikoak diren ala ez; QUILIS-ek (1981,257) zehaztasun haundiz ematen ditu egon diren polemikak eta horren inguruko bibliografia. Egia esan, afrikariak ez dira berdinak izaten hizkuntza guztietan

eta, agian, hortik etor zitekeen gaitza, erabaki orokorrak eta berdinak hartu nahi izatetik hizkuntza orotarako, alegia. Edozein modutan, badirudi bi momentu ezberdinen artikulaketa toki berean egiten bada eta atezua irauten duen une berean, hots baten, edo fonema baten, aurrean gaudela eta, gure ustez, hori litzateke euskararen kasua ere ziurrenez.

AMADO ALONSO-k (1923,58-63) Baztango xistukariei buruz kimografoaren bitartez egin zuen ikerketan, hersketa edo oklusio gradu ezberdinak bereizten ditu artikula puntuaren arauera.

Sabai-erdikorako hiru oklusio mota bereizten ditu, bokalartean doanean hersketa haunditik txikiagora alda daitekeena eta gaztelerakotik ezberdintzen dena, eta (G)-z eta (B)-z duten afrikatu sabaiko hotsetik ere bai: **etxea, atxiki.** Hitz barruko gertaera honetan hiru gradutako afrikariak bereizten ditu leherkaritasun eta igurzkaritasunaren iraupenaren arauera. Zenbat eta iraupen luzeagoa duen leherkariaren uneak, orduan eta ahoskera zainduagoa; eta, alderantziz, leherkariaren unea laburragoa eta ahoskera laxoagoa.

Hasierako posizioan, hotsak bere leherkaritasuna galtzen du eta kontsonante bizkarraurreko igurzkari sabaiko ahoskabea bihurtzen da: **xoria.** Lege hau, bestalde, gaztelerarekin erkatuz, haren aurkakoa dela dio (1923,61): "p. e., la de la pronunciación de la y fricativa en posición intervocálica **(mayo, suyo)** y frecuentemente africada en posición inicial absoluta **(yo, yeso)** y la de la pronunciación de las consonantes b, d, g, que en posición inicial absoluta requieren contacto completo, esto es, oclusión".

Bistan da hasierako posizioko igurzkaria definitzen duela. "Xoria" hitzaren hasierako hotsa igurzkarien artean aztertu behar zuen eta ez, egin duen bezala, afrikarien artean. Izan, hitz horretan igurzkaria da aurrekoa, beste euskalkietan edo lp (GN)-ko zenbait azpi-euskalkietan apikaria ahoskatzen bada ere, baina hauen afrikaria bigarren mailakoa da.

Izan ere, aztertzen ari garen sabaiko afrikari honek antz haundia du igurzkariarekin, baina artikula lekua zabalagoa du bere kideak baino. Laguntzen dion bokalaren eraginez eta haren arauera. Sabai-aurretik hasi eta sabai-erdiraino mugi daiteke. Jaso ditugun datuetan, eta eginiko palatogrametan modu askotara ebaki daitekeela ikusi dugu, leherkaritasuna nahiz igurzkaritasuna indartuz eta luzatuz, edota ahulduz eta laburtuz.

"Ts" hotsa mihipunta-hobietako afrikari ahoskabea bezala definitu izan dute fonetista guztiek. A. ALONSO-k (1923,62) zenbait kasutan (G)-z egiten dena baino hobietakoagoa dela Baztan-goa dio. Hots honetan, bizkar-hobietakoan bezala, hiru afrikari mota bereizten ditu leherkaritasunaren iraupenaren arauera.

Hots afrikari mihipunta-hobietako hau behin eta berriz izan da erkatua, -Campión-ek ere aunitzetan esan izan zuen-, Nafarroa-ko Erribera aldean ebakitzen den gaztelerako "tr" taldearekin. A. ALONSO-k (1923,62) horrela erkatzen ditu:

> *"Coinciden en punto de articulación: contacto completo africo-alveolar. Pero, al deshacer este contacto, la punta de la lengua se desprende hacia adelante en* **ts**, *y hacia atrás, en movimiento vibrante, en* **tr**. *En la articulación vasca la lengua se desprende de una manera gradual, constituyendo una africada de carácter bien marcado, con todo su elemento fricativo sordo, hasta la aparición de la vocal. En la articulación romance la punta de la lengua se despega bruscamente, ocasionando una explosión sin sonoridad; y esta explosión, sin alcanzar la duración ordinaria de una explosión seguida de vocal, es invadida por una fricación apico-prepalatal, sorda, pero que con frecuencia tiene una prolongación sonora".*
>
> *"Además la fricación de la* **ts** *es redondeada y la de la* **tr** *alargada, como se nota claramente cuando, al final, aparece en esta última la sonoridad".*

Interesgarria litzateke, egun ere, puntu hau gaur egungo teknikek eskeintzen duten laguntzarekin aztertzea. A. Alonso-k berak ere agindu zuen honi buruz artikulu bat argitaratzea, baina guk behintzat ez dugu ezagutzen; tamalez, ez zen argitaratu izanen.

Hots xistukarien artean, erretroflexu bezala hartuak izan dira zenbait afrikari eta mihi-punta hobietako hau bereziki. Hots afrikari hauen deskribapena LARRASQUET-ek (1932,178), Larraja-ko hizkera palatalogramez eta kimografoz aztertu zuenean, zehaztasunez eman zuen. "Ts" hotsaren deskribapena egiterakoan, hots erretroflexua denik ez du garbi esaten, baina bere hitzetatik horrela jaso zuela jarrai daiteke:

> *"La langue touche les bords de la moitié postérieure du palais. Son extrêmité se replie en haut et en arrière, jusqu'au sommet de la bouche".*

N'DIAYE-k (1970,14-15) Baztango Amaiur-ko /ts/ fonema afrikari erretroflexu ahoskabea bezala definitzen du. Gauza bera ere egiten du MC. MURRAUGH-ek ere (1981,79) hobietako-mihi-puntako afrikatua erretroflexu bezala hartzen duenean Ip (GN)-ko euskalkian eta (G) Hegoaldeko azpi-euskalkian. Beste euskalkietan ez dela horrela dio, eta azaltzen duen distribuzio geografiko honetan inguruetako hizkuntza erromanikoekin erkatzen du ezaugarri fonetiko hau eta, agian, sustratoaren aztarnak ere izan daitezkeela agertzen du:

> *"Iparraldeko, Nafarroa Garaiko, eta hego-gipuzkerazko* ***ts*** *ere bai erretroflexoa da. Hobeki esan,* ***t-****aldea erretroflexoa du. Hots hau Asturiasen, Aragonen eta Aragon-ondoko Gaskonian ere agertzen da. Menéndez-Pidal-en colonización dialectal delako teoria etsigarria zait, bainan agian begiratu beharko da euskal sustratoaren partea".*

Guk egin ditugun palatalogrametan erretroflexua agertu

zaigu, eta Mc. Murraugh-ek esaten duen bezala, lehenengo momentua da erretroflexua, "t" partearena, hau da, hersketa egiteko momentua; bigarren unea igurzkariarena da, eta mihia hurrengo bokalaren artikula-punturantz mugitzen da.

Azkenik, /ć/ fonema definitzean, beste afrikariekin bezala fonetistak bat datoz ahoskatzen den tokietan bizkar-hobietakoa dela esaten. Eta, A. ALONSO-k (1923,62-63) honetan ere hauxe dio:

> *"Respecto al soplo de aire es aplicable lo dicho para* ***tx*** *y* ***ts.*** *Es decir, que en la pronunciación esmerada y enérgica se produce la africada corriente. Pero en la pronunciación ordinaria y familiar, no se forma la articulación con tanto esmero y energía, sino que la lengua acude un poco perezosa, y en lugar de detenerse en la oclusión durante unas 9 c. de s., deshace el contacto en el mismo instante de alcanzarlo".*

Hots honen ebakera egiteko, gure datuen arauera, mihi-bizkarra hortz hobietaraino aurreratzen da eta puntu horretan sortzen da hersketa, mihi-punta beheko hortzen hobietan geldituz eta mihi-sahietsak hortz bazterrak ukituz. Gure sonogramak, lekukoren batek egin duen aldaketaren bat kenduta, A. ALONSO-k azaltzen duenarekin bat datoz.

Azkenik, hainbestetan aipatu dugun A. ALONSO-k egindako artikulutik jasotako zitarekin bukatu nahi genuke afrikarien deskribapen artikulatorioari zuzendu diogun ataltxo hau.

> *"Esta propensión del baztanés a la desaparición del elemento oclusivo en las* ***tz, ts y tx,*** *atacando con escasa energía muscular, y la tendencia a la abreviación del soplo sordo con que frecuentemente se prolongan estos fonemas en guipuzcoano, y más aún en vizcaíno, es lo que considerando el fenómeno empíricamente ha sido interpretado como "mayor dulzura de pronunciación." (1923,63).*

2.2.3. Galdekizunean jaso diren fenomenoak

1. Bikoteak:
   txar
   atzo
   atso - hiru atso
   oso
   otso - hiru otso
2. Distribuzioa:

2.1. Hitz hasieran:
   zakur - hiru zakur
   txori - hiru txori
   txotx - hiru txotx
   tximitx - hiru tximitx

2.2. Hitz bukaeran:
   hotz - hotz gutxi
   (Eta goikoak)

2.3. Hitz barruan:
   itxaso - hiru itxaso
   martxoa
   itsu - hiru itsu
   autsiki

3. Neutralizazioak:
   jauntzi - erantzi
   intxaur - hiru intxaur
   itsi - hertsi
   beltza - kolore beltz hori
   bertso - hiru bertso
   sudurtzulo - hiru sudurtzulo
4. Txandaketak:
   aitzur - hiru aitzur
   (Eta goikoak)

2.2.4. Jaso diren emaitzen analisi fonetiko-diatopikoa

171 TXAR (258)
172 ATZO - 173A ATSO - 173B HIRU ATSO (259-261)
174 OSO - 175A OTSO - 175B HIRU OTSO (262-264)

Euskalki guztien gertaera fonetikoak eta hauen bilakabideak eta hedadura ezagutzeko helburua duen lan honek, ezin zuen, euskararen sisteman xistukariak hain garrantzi haundia izanik, xistukarien artean sortzen diren bikote batzu jaso gabe utzi. Mapa hauetan, hain zuzen ere, igurzkari / afrikarien arteko oposaketa edo oposaketarik eza jaso nahi izan da.

"Txar" "zahar"-ekin (46) aldera daiteke, ez, ordea, beste mailako afrikariekin, hauen bustiduraz gertatzen bait da "tx-" hotsa. Izan, bada bikoteren bat, "tzarra" / "txarra", esanahi ezberdina bait dute, baina oso mugatuak daude euskalkiren batean, eta besteetan ez dira gertatzen. Hori dela eta, goian esan den bezala, batasunez bildu ezin zitezkeen kasuak alde batera utzi genituen.

Egia da (262) mapan "oso" hitza jasotzen dela eta horrek biltzen dituen erreferenteak hitz mota asko dituela: **hagitz, gorki, arront, arras** Baztan-en batez ere barietate haundia dute-. Halere, mihipunta-hobietakoaren eta afrikariaren arteko oposaketa egiteko onak diren euskalkiak (B) eta (G) dira, eta hauetan, batez ere (B)-z, hots afrikariaren estatusa egoera iriskorrean dago, eta "oso" ere euskalki hauetan erabiltzen den forma denez, eusteari generitzon zuzenen.

Bada besterik "txar" lexemaren kasuan ere. Baztan eta Bortzirietako azpi-euskalkietan "ttikia"-ren esanahia ere badu; horregatik, erantzun ezberdinak ez jasotzeko, "bazkari txarra" testuinguruan jaso genuen.

Semantikaren alderdiarekin jarraituz, "atso" hitza hitz 'tabu' horietakoa dela esan behar. Inork ez daki zenbat kostatzen den jasotzea edo esanaraztea, kasu bakarren baten izan ezik. Ez dago mapetan ageri diren erantzunak ikustea besterik horrekin ohartzeko.

"Otso" hitza, bestalde, ondo edo nahiko ondo gordetzen da oraindik. "Lobo" galdetu eta "axeri" ere erantzun arren, basapiztiaren deskribapena eginez gero, agudo ohartu eta erantzuten zuten. Horrek esan nahi du eragozpena gazteleran datzala. Eta 'oso', "hartza" (454), hitza galdetzerakoan, erantzuna, kasu gehienetan, "otso" izaten zen, eta hau gaztelerakoarekin duen antz fonetikoagatik izan zitekeen. Baina, kasu honetan berriz, deskribapena egin eta lagundu ondoren ere galderari ezin erantzunez ibiltzen ziren. Ez zen beste horrenbeste gertatzen, ordea, zeharbidez galdera eginez eta "ihauterietan, larruz mozorroturik, ateratzen den animaliaren izena" galdetuz gero; aztertu ditugun herrietan "hartza" ezaguna da ihauteritako ohiturak etenik gabe gorde bait dira beti.

Honek hitzaren eta erreferentearen artean dagoen lotura agertzen du, eta hitzaren iraupenean erreferenteak jokatzen duen papera neurtezina eta paregabekoa dela.

Azkenik hauxe esan nahi dugu, ez dugu erabateko erabakirik hartu, ez bait dugu deus garbirik jaso. Hori dela eta, /f/ fonemari gertakizun bakarra jarri diogu, [f]-rena, alegia. Ez dugu [φ] alofono bezala inon sartu, ez bait da batere ziurra bere izatea.

2.3.2.2. Galdekizunean jasotzen diren fenomenoak

1. Banaketa:
   Hitz hasieran:
   faltsu - hiru (gizon) faltsu
   ferian - hiru feri
   festa - hiru festa
   Hitz barruan:
   afari - hiru afari
   afaldu
   Nafarroa - nafartarra
   alfer - hiru alfer
   Txandaketak:
   fiku - hiru fiku
   ferra - hiru ferra
   ifar

2.3.2.3. Jaso diren emaitzen analisi fonetiko-diatopikoa

193A FALTSU - 193B HIRU (GIZON) FALTSU (294-295)
194A FERIAN - 195B HIRU FERI (296-297)
195A FESTA - 195B HIRU FESTA (298-299)

Hitz hasierako posizioan gertatzen den "f-" hotsa, ezpain-hortzetakoa, hiru hitz mailegutan kokatzen dugu. Garai ezberdinetan hartutako maileguak: FESTA zuzenean latinetik, eta beste biak, "faltsu" eta "feria", gaztelera erromantzetik. Bietatik, "feria", gazteleraz erdi-kultismoa bada ere, lehenago sartua euskarara ziur aski "faltsu" mailegua baino.

Ahoskerak, jaso dugun lurraldean, ez du zalantzarik. Denetan ezpain-hortzetakoa ebaki da "faltsu" eta "ferian" kasutan; salbuespen bakarra Oronotz-Mugaire-koa izan da, biezpainetako frikari ahoskabea egin duela iduritu bait zaigu.

Mailegu zaharrean, aldiz, "festa"-ren kasuan "b" eta "p"-ren arteko txandaketa gertatzen da. Ez da hain bakana Arraras eta Oronotz-Mugaire-k forma mugatuan erantzun duten "festa". Egia esan, horrelako forma bikoitza beste Bortzirietako herrietan ere aurkitu dugu, baina ez da sistematikoa, horregatik ez dugu mapetan jarri. Gure ustez, alternantzia horren arrazoia gazteleraren interferentzian bertan datza. eta, nolanahi ere, beti bigarren mailako forma litzateke.

Isoglosa nagusiak honako hauek dira: Zugarramurdi-n, Baztango azpi-euskalkian, Bortzirietakoan, Erasun kanpoan geldituz, eta Ultzamako Larraintzar, Auza eta Beunza-n, **bestak;** Auzan ahoskabetua jaso genuen mugagabean; Bortzirietako Erasunen, Arakil-go Aldaz-en eta Ultzamako Arraras, Beramendi eta Goldaratz-en, **pestak.**

FERRA (309)



ALFERRA (305)



201A FIKU - 201B HIRU FIKU (307-308)
202A FERRA - 202B HIRU FERRA (309-310)

"Fiku" hitza ere, goian esan den bezala, latinezko etimotik datorrena da eta toki guztietan ezpainetako leherkari ahoskabea egin da; Zugarramurdi-ko B lekukoak egin duena da, "fikoa", aldentzen den kasu bakarra.

"Ferra"-ren kasuan emaitzak aldatu egiten dira. Ezpain-hortzetako frikari ahoskabeak hartzen du lparraldeko zatirik haundiena: Zugarramurdi, Baztango azpi-euskalki osoa, eta Bortzirietan, Erasun, beti bezala, kanpoan gelditzen da, eta Oronotz-Mugaire eta Donamaria-k ezpainetako frikari ahoskabea egiten dute forma mugatuan; mugagabean, Donamaria-k bakarrik, beste leku guztietan "ferra", Ultzama-ko Larraintzar eta Auza-n ere horrela ahoskatzen dutelarik.

Ezpainetako leherkari ahoskabea, Aldaz eta Erasun-en Bortzirietako azpi-euskalkian, eta Beunza, Arraras, Beramendi eta Goldaratz-en Ultzamakoan.

196A AFARI - 196B HIRU AFARI (300-301)
197 AFALDU (302)
198 NAFARROA - 199 NAFARTARRA (303-304)

Hitz barruko "f" hotsaren gertaerak eta banaketa ikusteko jatorri ezberdineko hitz hauek hautatu genituen. MITXELENA-k (1977,266) **afari** hitzeko ezpain-hortzetako hotsa, "f", biezpainetako hurbilkari ahostunetik, "b" hotsetik, datorrela dio, "abari" batetik, alegia. Eta GAVEL-ek, (1920,301) Behe-Nafarrerako Amikutze-n erabiltzen den **auhari** forma, (Z)-n **ai(h)ari,** "afari" baino forma zaharragotzat hartzen du (4).

Aztertu dugun lurraldean jaso duguna, orohar, ezpain-hortzetako hotsa da. Halere, forma mugatuan, Donamaria eta Mugaire-n biezpainetako igurzkari ahoskabe bezala traskribatu dugu ahoskatu duten hotsa, eta forma mugagaberako ahoskera hau Sunbilla eta Zugarramurdi-ra zabaltzen da, alde batetik, eta Aldaz-era, bestetik.

Beste horrenbeste esan beharko litzateke "afaldu" kasuan ere, egin den ahoskera nagusia ezpain-hortzetakoa izan bait da; Arakil-go Aldaz, eta Donamaria eta Oronotz-Mugaire dira salbuespen bakarrak biezpainetako igurzkari ahoskabearekin.

"Nafarroa", Lurralde Historikoaren izenari dagokionez, bertako biztanleen erabilera, nafarrena, alegia, hagitz nahasia da. Agian, gaztelerako "Navarra" forma oso maiz entzuten dutelako eta galdekizunean galdera egiterakoan ere bai, eta euskarazko forma normalizatua den "Nafarroa" ere, lehen erabiltzen ez zutena, gero eta erabiliagoa delako izan daiteke nahasketa horren zioa (5).

Jaso ditugun emaitzak hauek izan dira:

"Nafarrua": Bortzirietako Arantza eta Oieregi-n

"Nabarra": Baztango Aniz eta Amaiur-en; Bortzirietako, Oronotz-Mugaire, Sunbilla, Donamaria, Erasun eta Etxalar-en; eta Ultzamako Beunza-n.

"Naparroa", "Naparra": Baztango Arraiotz eta Gartzain-en, Bortzirietako Ituren-en, Ultzamako Auza, Larraintzar, Goldaratz, Arraras, Beramendi eta Beunza-n eta Arakilgo Aldaz-en.

"Nafartarra"-ren kasuan ez da beste horrenbeste aurkitzen eta garbi ikusten da gazteleraren eragina ez dela honetan hain gogorra; esaterako, Arantza-ri begiratzen badiogu, A lekukoak: "Nafarrua" eta "naparrukuk" egin zuena eta B lekukoak "Nabarra" eta "naparrukuk", biek alternantzia agertuz. Mapa honetan, (304), biezpainkari hurbilkari ahostunaren ebakera, [ß] aldakia, mugatua-

goa da, Bortzirietako Etxalar, Sunbilla, Oronotz-Mugaire eta Erasun-en besterik ez baita gertatzen. Gainerako leku guztietan biezpainetako leherkari ahoskabearen ebakera, [p], jaso zen, Oieregi-n izan ezik, herri honetan, hiru lekukoengandik gainera, "nafartarrak" bildu bait zen.

Hitz barruko posizioarekin jarraitzen dugularik, baditugu interesgarriak gertatzen diren beste bi mapatako emaitzak: **kafia** (142) eta **kabia** (216) hitzek, lehenengo begirada batera behintzat, bikote bat sortzen dute, eta aztertzen ari garen hotsaren fonematasuna argitzeko baliagarria gerta daiteke gure lurralderako.

Mapak erkatuz ohartzen gara benetan balio bereizgarria dutela bi hots horiek bokalarteko ingurumen foniko horretan. Alabaina, ez da toki guztietan horrela, Zugarramurdi-n eta Baztango azpi-euskalki osoan "txori kabia" adierazteko "kafia /-e" ezpain-hortzetako igurzkari ahoskabeaz, eta "kafe" edariaren izena ere hots berarekin ebakitzen dituzte. Armonia bokalikoa gertatzen da bi izen hauen bereizgarri -forma mugatuan, mugagabean ez bait da nahasmenik-: Zugarramurdi-n eta Amaiur-en "kafia" (edaria) / "kafie" (txoriarena). Gartzain-en bi lexemak erabat homofonoak gertatzen dira.

200A ALFER -200B HIRU ALFER (305-306)
203 IFAR (311)

Bi hitz hauek aparte utzi izan dira sortzen dituzten arazoengatik. Alde batetik "alfer" lexemak dituen aldakiak daude, ez hainbeste ezpain-hortzetako hotsak sortzen dituenak, albokariaren eta bokal-erdiaren txandaketarenak baizik: "alfer" eta honen aldakiak batetik, eta "auher" eta bereak bestetik; eta horien parean, "afer" forma batere hotsik ez duena, besteek txandaketa zuten lekuan. GAVEL-ek (1920,301) seinalatzen ditu aldaki horien isoglosak: **alfer / alper** (B), (G), (GN), eta (L)-z egiten da; eta **auher** (Z)-z eta, horren parean, (Zar)-z **auer;** horiek ikusi ondoren, **alfer** hitzetik, l-ren bokalizazioz letorkeen forma zahar bat, dokumentatzen ez dena, proposatzen du, ***aufer;** forma honetatik letozke Zubererako eta Zaraitzerakoa, eta, "au" diptongoaren murrizketaz, Aezkeraz erabiltzen den **afer** ere. Guk jaso ditugun datuak, "festa" (298) mapan jaso genituen isoglosen antzerakoak dira:

Ezpain-hortzetako igurzkari ahoskabea [f]: Zugarramurdi-n eta Bortzirietako azpi-euskalki osoan, Erasun-en eta Donamarian izan ezik, eta azken honetan biezpainetako igurzkari ahoskabea ebaki zen; Baztango azpi-euskalki guztian, Amaiur kanpoan geldituz; [f] ahoskatzen da, Ultzamako azpi-euskalkiko Auza eta Larraintzar-en ere. Gainerako leku guztietan biezpainkari leherkari gorra [p].

Ez dago, bada, arazorik aipaturiko fenomenoari buruz, leku guztietan batasuna ageri baita, "-lf-" taldea ebakiz; ikusten da, ordea, txandaketa geografikoa ongi mugatua gelditzen dena.

"Ifar" hitzari buruz komenigarria litzateke MITXELENA-k hitz honetaz dioena ikustea (1977,267, 11. nota), aztertzen ari garen eta hainbestetan bigarren mailakoa gertatzen den hots honen jatorrian aldaketa kualitatiboa iradokitzen bait du:

> *"Es importante el a.-nav. guip. vizc. Guernica* ***ifar*** *'norte', general* ***ip(h)ar,*** *ya que* ***ifar / ip(a)r*** *se opone*

en todas partes a ***ibar*** *'valle' [...] he sugerido que acaso la diferenciación sea secundaria. En vista de sul.* ***peko-áide*** *'viento norte' (sal.* ***peko-aize,*** *ronc.* ***peko-aire*** *'viento sur', por la distinta orientación de estos valles con respecto a la divisoria de aguas), [...] acaso de trate de* ****ibar-aize*** *'viento del valle' [...], con intesificación expresiva de la oclusiva".*

Guk aztertu dugun lurraldean galduxea dute "Ipar" hitza 'Norte' bezala. Aisago gertatu zaigu 'viento norte' jasotzea, galdera honi "iparra" erantzuten ziotelarik, eta hau bera ere galdua da toki batzutan, Bortzirietako Donamaria-n bezala -hemengo hirugarren lekukoak, zaharragoa adinez, bilatzen genuen erantzuna eman zigun, "iparra", alegia-.

Ezpain-hortzetako hotsez, "ifar aizea", Erasun-en jaso zen. Beste toki guztietan, biezpainetako leherkari ahoskabeaz, "p" hotsez, lekuko guztiengan.

Bada ezpain-hortzetako igurzkari ahoskabearen beste gertakizun bat, bigarren mailakoa hau ere, yod batetik datorrena eta "jw-" ingurumenetik sortua, guk (156) mapan jaso dugun "joan"-en kasuan ager zitekeena; baina gure mapetan ez dugu, horrelakotan, "f-" kasurik, aztertu dugun lurraldean horrelakorik ez bait da gertatzen.

Bukatzeko eta ondorio gisa zera esango genuke: aztertutako lurraldean ezpainkari-hortzetako igurzkari ahoskabea [f] ahoskatu ezezik, erabili ere barra-barra erabiltzen dute, batez ere mailegu berri samarretan: "faltsu", "feria", "fruta" (137-138). Besteetan, mailegu zaharragotan, latinetik, ustez, hartutakoetan, bi joera nabarmentzen dira: hitz hasieran, leherkari biezpainetako ahoskabea, "piku", edo, txandakatuz, ahostuna / ahoskabea, "pesta" / "besta", eta alternantzia hori aurkitzen dugu hitz barruan ere zenbait kasutan; baina aurkitzen da ezpain-hortzetakoa / biezpainetako leherkaria alternantzia ere, "f" / "p", "alfer" / "alper"; edo beste emaitza, ezpain-hortzetakoarena huts-hutsik, "afaria".

Azkenez, biezpainetako igurzkari ahoskabea ere uste dugu zenbait tokitan agertzen dela, baina ez erregulartasunez eta, are gutxiago, sistematizazioz.

Txandaketa, bada, ez geografikoa bakarrik -batere tinkotasunik gabekoa hau, gainera-, baita leku bakoitzean agertzen dena ere nabarmentzekoa da. Ez dago joera garbirik, ez eta distribuziorik ere, ezer egotekotan, distribuzioaren aldetik, hotsaren posizioaren arauerakoa litzateke, hau da, hasieran edo barnean aurkitzearen arauerakoa, baina hau ere erregulartasun urriz.

2.3.2.4. Analisi fonetiko eta diatopikoaren ondorioak

Ondorioei dagokienez, esan ditugu gauzarik nagusienak eta ez dago orain errepikatu beharrik. Hala ere, laburbildu bidenabar, lehen esandakoari zerbait erantsi nahi genioke, orokorra eta, agian, euskalki guztietarako balio duena bada ere, eta ez aztertzen ari garen azpi-euskalkietarako berezia.

Aztertu eta ikertu beharra euskal sistema fonetikoaren hots guztietan agertu bazaigu ere, ezpain-horzkariaren kasuan larriagoa da behar hau. Ondo finkatzeko dago zein den bere artikulapuntua eta modua bera ere, eta horretarako, gaur dagoen tresneriaz baliatu behar da nahi eta nahiez. Distribuzioari dagokionez ere hutsune bera somatzen da: hasierako posizioan dituen txandaketak eta trukaketak, hitz barrukoak ere bai, zein distribuzioz gertatzen dire hortz-ezpainarekin aztertu behar dira, eta hitz barnekoak ere bai, zein distribuzioz gertatzen diren hortz-ezpainetakoarekin txandakatzen diren hotsak eta zein hedadura duten. Esan nahi duguna, beraz, hauxe da, lan sistematiko eta sakonen premian dagoela hots hau. Izan, bibliografia asko dago hots honen inguruan, baina dana edo gehiena diakroniari dagokio, eta egungo egoera, aldiz, argitu behar gorrian aurkitzen da.

Horrekin batera hotsaren maiztasuna ere aztertu beharko litzateke, ez hainbeste, hori ere beharrezkoa izan arren sistema osoan duena, agertzea espero zitekeen kasuetakoa, baizik. Hau da, agertzen diren kasuak jaso eta agertzen ez denekoekin erkatu, ezautzen diren datuak gaurkotuz, bestalde.

Nafarroa-n aztertu dugun lurraldean ez dugu inon hots hori ahoskatzeko eragozpen berezirik aurkitu. Eta jaso ditugun alternantziak gehiago dirudite iragan denborako gertaera fonetikoak, garai batean maileguen egokitu beharrak eragindakoak; eta soinu hori behin ahoskatzen ikasi ondoren, sistemaren berrituraketan ez zen behar adinako orekarik izan, ez bait zekiten zein zen hitz bakoitzaren jatorrizko hotsa, eta, beraz, denetariko soluzioak ageri dira, ultrazuzenketak ere barne direlarik.

Bestelakoa da ezpain-hortzetakoaren eta biezpainetako igurzkari ahoskabearena. Bat gatoz goian Martinet-ek bigarren hots horri ematen dion definizioarekin. Martinet-ek azaltzen duen zailtasun horren ondorioz gertatu zitzaion Navarro Tomás-i hain ezinezkoa bere lekukoek egiten zuten ebakera zehaztea, eta guk ere nahiko ausarki jokatu dugu hots horren traskribaketa eskeiniz. Utz dezagun, bada, ez gaitezen bigarrenez ausarkerian erori, ondorio nagusirik atera gabe azterketa sakonagoak egin arte. Bukatzeko, eta "f" hotsak sortzen dituen aldaketen alde, haren berritasuna euskal sistema foniko eta fonologikoan aipatu nahi genuke, bereizgarritasun horrek sortzen bait du hots honen ebakeraren finkotasun eta sendotasunik eza.

2.3.2.5. Analisi akustikoa

Igurzkariak akustikoki definitu eta deskribatzerakoan, hots horiek ateratzen duten zarata izan da ezaugarririk nagusiena, igurzkaritasun horren zaratak espektroan uzten duen aztarna, alegia. Halere, hori ez zen nahiko gertatzen igurzkari guztiak

ezagutzeko eta elkarren artean bereizteko, eta horregatik maiztasunaren indizea eta beste zerbaiten beharra zegoela ikusi zen. DELATTRE-k (1962,407) argia egin zuen iragaitearen garrantzia eta beharra zenbait hotsen bereizketan azaldu zuenean:

> *"Il est bon mentionner pourtant que la part que prennent les transitions dans la perception des consonnes varie d'une consonne à l'autre. Ainsi elle est plus grande pour les sonores que pour les sourdes, pour les occlusives labiales que pour les palatales, pour les fricatives à turbulence effacée, comme [f], [θ], que pour celles à turbulence stridente comme [s], [ʃ]".*

Eta oraindik gehiago zehazten ditu iragaite horiek (408.or.):

> *"Nous considérerons ensemble les transitions des deuxième et troisième formants d'une part, et les transitions du premier formant d'autre part, celui-ci ayant une fonction assez différente des deux autres".*

QUILIS-ek (1981, 221) gaztelerako igurzkarien deskribapen akustikoa egiten duenean bi sail nagusi bereizten ditu. Alde batetik, berak "fricativas de resonancias bajas" deitzen dituenak, hau da, beren erresonantziak espektroaren behekaldean dituztenak edo, bestela esan, maiztasun gutxikoak direnak. Talde honetan sartzen ditu guk hurbilkari bezala hartu ditugunak [ß], [ð], [ɣ] eta [j̆], lehenengo hiruen iragaiteak beren pareko leherkari ahostunenekin bat datozelarik. Beste multzoan, "fricativas de resonancias altas" deritzonak. Sail honetan, beti gaztelerazaren sistemarekin jarraituz, [f], [θ], [s] -hots hau mihipunta-hobietakoa da- eta [x] kokatzen ditu. Hauetatik, intentsitaterik haundiena [s] hotsak dauka, gero belareak [x] jarraitzen du eta intentsitaterik ahulena dutenak [f] eta [θ] dira (228-229. or.).

QUILIS-ek berak "f" hotsari egiten dion ezaugarritze akustikoa hauxe da (1981,229):

"Por su carácter labial, T2 y T3 son negativas cuando [f] está en un contorno de [i, e, a] y horizontal con las otras vocales. Su frecuencia comienza a unos 2.100 cps".

MARTINEZ CELDRAN-ek (1986,316-317) ez ditu datu erabat berdinak ematen:

"Acústicamente posee ruido a lo largo de todas las frecuencias en general, pero con una intensidad muy baja. El locus se sitúa hacia los 700 cps. Y las transiciones de los formantes segundo y tercero son ambas descendentes".

Euskararako aztertu ditugun sonogramak oso gutxi izan dira, "afaria", "alferra", "feria" eta "ferra" eta azken bi hauek ere ez ditugu lekuko guztienak aztertu. Horregatik ezin dugu gauza gehiegirik esan.

Jaso ditugun datuetatik honako zehaztasunak eman ditzakegu:

Maiztasunak "a" bokalaren ingurune fonetikoan, 1.100-tik 1.400-erartekoak izan dira gutxi gora behera; "e" bokalarekin gorago joan dira, normala den bezala, baino ez askoz gehiago ere.

Intentsitatea, orohar, ahula da salbuespenen batzu egon arren, kasu batzutan ia agertzen ere ez delarik.

Iragaitearen aldetik ez ditugu, egia esan, gaztelerari ezartzen zaizkion ezaugarriak aurkitu kasu guztietan, askotan bat badatoz ere. Esan dezagun, orohar, "a" bokalarekin bai I2 eta bai I3 (I-rekin "Iragaitea" esan nahi da) positiboak direla "afaria" kasuan. Ez da, ordea, gauza bera gertatzen "alfer" hitzarekin, hemen "f"-k "e" bokalarekin dituen iragaiteak positiboak dira batzutan, baina beste askotan horizontalak gertatzen dira, negatiboak ere agertzen direlarik. Hitz hasieran, aldiz, badirudi iragaite negatibo gehiago agertzen direla.

Ikus hurrengo sonogrametan, kasu batzuk batez ere gaztelerarekin bat datozenak. Lehenengo, Auza-ko lekukoarena (6.1) eta Zugarramurdi-koarena (6.2), bigarren honenak iraupen luzeagoa du, baina askoz ere ahulagoa da. 2 eta 3 formakinen dagozkien iragaiteak, I2 eta I3, alegia, negatiboak dituzte.

Hurrengoak (6.3), Ituren-go lekuko batena, lehenengo posizioan darama "f" hotsa "e" bokalez jarraiturik eta emakumearena denez, maiztasunak gorago ditu. Ikus, hemen ere, zein ahula duen espektroa eta iragaiteak ere, I2 eta I3, negatiboak.

Azkenik, Amaiur-ko lekuko baten sonograma azaltzen dugu (6.4). Adibide gisa jartzen da eta ikusi orduko konturatzen gara ez dela berdina. Guk biezpainetako igurzkari ahostua bezala traskribatu dugu. Egia esan, irudiak, gure ustez, igurzkariarena baino hurbilkariarena gehiago dirudi. Eta izan ere, ezpainetako hurbilkari ahostunarenakin antz haundia du, ahulagoa agertzen bada ere eta ez hain armonikoa. Ez dugu uste, bestalde, ahostuna denik, ahostua baizik, eta, gure ustez, bide beretik joan daiteke euskararako definitzen den biezpainkari igurzkari ahoskabea ere. Guk jaso duguna ez da kasu bakarra berau izanik ere garbienetakoa. Eragozpen nagusi bat izan dugu hots hau aztertzean, eredurik ezarena hain zuzen. Inguruetako hizkuntzek, nonbait, ez dute hots hau, eta, beraz, ez dute aztertzen. Saiatu gara bibliografian materiala bilatzen, baina alferrik izan da. Hemen azaltzen ditugun burutapenak gure kabuz eginak dira eta, agian, okerreko bidetik ibiltzeko aukera haundiak eginak izango dituzte.

Azkenik, definizioari buruz, /f/ fonema lodia jarraikorra eta matea bezala definitu dugu, beste ezaugarri arruntagoen artean. Dena den, behin-behineko definizioa da hau, eta goian egindako ondorioetan esanikoa berresaten dugu, ahal izango balitz hau baino indar haundiagoz fonema honi dagokionez benetako bidea ia erabat urratzeko bait dago.



(6.1)



(6.2)



(6.3)



(6.4)

OHARRAK

(1) (1959,467) **Word** 15. (MITXELENA-tik hartua (1977,263). JUNGEMANN, F. (1955), **La teoría del sustrato y los dialectos hispano-romances y gascones,** Gredos, Madrid; LAFON, R. (1948), "Correspondances basques-caucasiques", **Eusko Jakintza** II, 359-370. or.; MARTINET, A. (1970), **Economie des changements phonétiques,** A. Francke S. A., Berne.

(2) Biezpainkari igurzkari ahoskabearen ebakera Sakana-n jaso zen, lekuko euskaldunei jasotako gaztelerako hitzetan, bai Unanuan bai Etxarri-Aranatz-en, azken hontan "*i*" dardarkariaren aurrean izan ezik, ZENBAITEK (1977,71).

(3) Ana Mª ETXAIDE: 1968, **Castellano y vasco en el habla de Orio,** Principe de Viana, Pamplona.

Bestalde, TXILLARDEGI-k (1980,205), Edurne BIRITXINAGA-ren estatistikazko ikerlanetik jasorik dituen datuak ematen ditu "l" hotsaren maiztasunari buruzkoak, eta honako hauek dira, -ez dira posizioak eta ingurumenak markatzen-:

Gipuzkera / Bizkaieraz.....	0,00024
Lapurteraz	0,00267
Batuaz	0,00187

(Oharra: % portzentaietan oinarritutako zenbakiak dira, bistan denez).

(4) Horren inguruan beste isoglosok ere ematen ditu: **apari** (B) eta (G); (L) **apharl,** (1920,301).

(5) Halere, "l" formazkoa izan daiteke zaharra eta gordetzen dutena. "Erizkizundi Irukoitzean" ere "l"-z jaso zen, beste toki batzuren artean, guk aztertutako bailarako Etxalar eta Lesaka-n. Euskera (1928), IX, 115. or.

2.3.3. [ǰ]

Lehenengo eta behin, hots honen definizioari buruz hauxe esango genuke: lehen hurbilkari bezala definitu ondoren -ikus leherkarien kapituluan erabaki hori hartzeko mugitu gintuzten arrazoiak-, orain igurzkarien sailean sartzea kontraesantzat jo daiteke. Bi arrazoik mugitu gaituzte erabaki hau hartzera: tradizioari jarraitu nahi izatea lehenengoa, orain aztertu nahi den hotsa sistematikoki igurzkarietan sartua izan delako beti euskal sisteman, eta igurzkari bezala beti hartua; eta, bestea, hots horren gertaera fonikoen artean, maiz samar igurzkaria gertatzen delako, ikusiko dugun bezala. Konturatzen gara igurzkarien artean sartzea ez dela nahitaez erabakirik onena baina, hots honen estatusa eta nortasuna ondo ezagutu arte eta sailkapen nagusian zein leku beharko lukeen izan jakin arte hemen uztea erabaki genuen.

Bada beste arazo bat azaldu behar dena. Xistukarien definizioak eman ditugunean fonema bezala aurkeztu dugu eta orain, aldiz, atal honen izen- buruan, ez diogu fonemaren baliorik eman. Arrazoia bistan da, gure duda eta zalantza hots honen egoeran eta estatusean datza. Goian esandakoarekin bat eginez, zelakoa den eta zein leku hartu behar duen jakin arte, egia esan, ez gara ausartzen fonemaren balioa ematen. Hasierako azalpenean, metodologiarekin eta tradizioarekin jarraituz eraman dugu bide hori besterik gabe.

Fonetika diakronikoaren gertakizun historikoetan sartu gabe, [ǰ] aintzinako "*j-" hotsetik datorrena -ikus gorunzko diptongoari buruz hitz egiten den kapitulua-, batez ere aditz-izenetan agertzen da, bokal aurreko "e-" batetik sortzen delarik, ingurumen hauetan:

$$*e- > *j- > \check{j}- \;/\; \left\{ \begin{array}{l} -a \\ -au \\ -ai \\ -o \end{array} \right\}$$

"-e"-ren aurrean bakana da, eta "-u"-ren aurrean, ez da ageri.

jan, jakin, jarri
jautsi, jausi
jaiki
jo, joan, josi

2.3.3.1. Gertakizun fonikoak eta hauen banaketa diatopikoak

> *"La grafía j responde, en vasco, a una llamativa y variada gama de pronunciación, hecho éste que ha sido señalado como una de las diferencias fonéticas que más netamente separan a los dialectos vascos [...], aunque no se recoge en la escritura." ECHENIQUE (1979,59).*

Izan, horrela izan da, soinu honen ahoskera era ezberdinetan garatu da euskalkietan eta hortik datoz gertakizunen arteko bereizketak.

Guk azaltzen dugun banaketa Mitxelena-k, Bonaparte-ren eta Azkue-ren informazioan oinarrituz, egin zuena da. Esan daiteke banaketa geografikoa ez dela aldatu garai haietatik (1), baina adinaren aldakiak (bariableak) izan du eraginik azken urteotan. Bizkai-ko eskualde batzutan jaso daiteke belare ahoskera gazteen artean, adinekoak sabaiko ahostun ahoskatzen duten arren. Eta antzeratsu gertatzen zen Nafarroa-ko Arakil bailaran 50-kadan (2).

Ahoskera zaharrena [j], hurbilkari sabaiko ahostuna, Ip (GN)-n ageri da ia denean hedatua, salbuespenik ere baden arren; gelditzen den Heg (GN)-n, Mitxelena-k bere lana "Fonetica histórica vasca" egin zuen garaian, 1956-58. urte inguruan, Erroibar bailaran eta Auritze-n kokatzen zuen ebakera hau; gaur egun, berriz, euskalki horretarako, Esteribar, Mezkiritz, Eugi eta beste herriren bat besterik ezin daiteke aipatu; (L)-n ere bai; eta (B)-ren eskualde batzutan, Arratia-n eta Txorierri-n hain zuzen. GAVEL-ek dioenez (1920,118), afrikari bihurtzera jotzen du (BN) -n. MC MURRAUGH-ek (1981,71) erretroflexoa seinalatzen du eskualde batzutan:

> *"Nafarroa Beherean eta Mungian agian beste erretroflexo bat agertzen da, gutxienez hitz hasieran: "j" idatziz, adibidez "jan", "jo"".*

(Z)-n [ž] eman du, sabai-aurreko igurzkari ahostuna, frantseseko "j"-ren oso antzerakoa. Halere, GAVEL-ek (1936,8) "Erizkizundia"-n azaltzen dituen datuak ez dira oso garbiak:

> *"J erizkizundi onetan erderazko **joya, bajar** bezala darabilgu; frantsesen **j (juge, manger,jean) dx-z** adierazten degu. Bein beineko ortografía da"*

Eta gero, "ian" eta "ju(a)n" (8, 14. or.) Barkoxe-eko lekukoaren informazioan eta "ian" eta "júan" eta "juáiten" (18, 25.or.) Atharratze-ko lekukoarenean ematen ditu.

(Aezk) eta (Zar)-ko hizketetan eta galdutako (R) eta Heg (GN)-kotan (Egües, Oltza, Artze, Huarte-Arakil-go bailaran) sabai-aurreko igurzkari ahoskabea bezala [š] ahoskatzen da.

Beste ahoskera bat eta oso hedatua bera, eta egunetik egunera lurralde haundiagoa hartzen doana, [x] igurzkari belare ahoskabea da, gaztelerako "j"-rena bezalatsua: (G)-n lurralde osoan egiten da, (G)-ri dagozkion Nafarroa-ko herriguneak ere barne direlarik: Ergoiena, Burunda, Barrankako zati bat; baita Ip (GN)-ren Gipuzkoako azpi-euskalkian ere, Hondarribia-n, Irun-en, Oihartzun-en (3); Araiz eta Larraun-go bailaretan, Araiz-ko azpi-euskalkian, hau ere Ip (GN)-koa. Eta Bonaparte-k dioenez, Hg (GN)-ko Gares-en ere [x] soinua ahoskatzen da. (B)-n ere bai, Gipuzkoa-ko azpi-euskalkian eta Ekialdeko azpi-euskalkian Markina-n eta Ondarroa-n, eta Mendebaldekoan Gernika eta Orozko-ko eskualdetan.

Sabai-aurreko afrikari ahostun bezala, [dž] alegia, Bizkai-ko Mendebaldean ahoskatzen da, Lekeitio, Durango eta Otxandio aldean.

[ǰ-] eta [x-] soinuen arteko mugak Mitxelena-k Irun eta Ohiartzun-en artean ezartzen ditu, horiek biek [x-] ahoskatzen dutelarik, eta Nafarroa-n Bera-n eta Goizueta-n, eta Lapurdi-n Hendaia-n.

Kasu bakar batzutan, jatorrizko [*jo-] batetik datorren [jw-] multzoak bilakabide berezia izan du. Esate baterako, **joan** hitzaren errealizazioen artean honako hauek ere aurkitzen ditugu:

> *"vizc. Eibar, Elgueta, Placencia, guip. Alsasua, Olazagutia, Echarri-Aranaz, a.-nav. Fuenterrabía, aezc., sal., ronc. Vidángoz* ***fan,*** *vizc. Placencia y Oñate* ***fuan,*** *ronc. Isaba* ***xwan,*** *junto a* ***swan,*** *que en Uztárroz es forma única; a.-nav. Baztán, lab. Costa* ***gan,*** *lab. Ainhoa, Sara, etc.* ***goan*** *(ya d'Urte)", MITXELENA (1977,173).*

Gauza bera gertatu da **joale, joare** hitzarekin, (Aezk) eta (G) Etxarri-Aranatz-en **fare** egiten da, eta Ip (GN) Baztanen eta (L)-n **gare.**

Iparraldean ere, Joanes, Joanis, Joaniz izenak honako bilakabidea izan du: (L) Ganis, diminutiboa eginez, Ganex, Ganix, (Z)-z Manex, emakumearentzat Manexina gertatu da. (MITXELENA-tik (1977, 173) hartutako adibideak).

"U" silabikoaren aurrean [x-] soinuak [f-] eman du kasu bakanetan: Ip (GN), Ohiartzun-en **joera**-tik **fuera,** hiru silabakoa; (B)-n **justuri**-k Oñati aldean **fusturi,** 'ortots' esateko.

Ikusten den bezala, tradizioari jarraituz, guk ere jodari zuzenduriko atala ireki dugu. Badakigu zenbait kasutan erabilera oso bakana eta ia bitxia dela, baina gertakizun historikoei dagokienez, hotsen bilakabidearen inguruan beste zenbait hots desberdin batu ohi dira. Gure kasu honetan, lehenago joda zuten elementuak jasotzen dira, hots hori gaur egun galdua badute edo ahoskatzen ez bada ere. Dena dela, sabaiko hurbilkari ahostun bezala definitu dugun hotsa zenbait euskalkitan behinik-behin gertatzen da. Jakin behar dena besterik da: non eta nola gertatzen den eta, bidebatez, benetako fonema ala alofono hutsa den. Azken finean, hori da goian esaten genuena eta hori lortu eta finkatu behar dena.

2.3.3.1.1. "j" hotsari buruz, hizkuntzalarien zenbait burutapen

"Jod" deitzen den hots honen bilakabidea zein izan den ikusirik, beste burutapenen artean, burura etortzen zaigun lehenengo gauza honako hau da: (G)-n batez ere, sabai-aurreko igurzkari ahoskabetik, [s]-tik, belare igurzkari ahoskabera, [x]-ra gertatu den bilakabidean, eta *j > [x] aldatu den tokietan, bi [s] horien artean, hau da sorturikoaren eta jatorrizkoaren artean, nola ez den nahasmenik sortu. Mª Teresa ECHENIQUE-k (1979,63-64), galdera hau proposatu ondoren, bi bidetatik arrazoitzen du:

1.- Ahoskabetu egin zelako, edo ahoskabe-ahostun bereizketa galdu egin zelako.

2.- Ahostunak artikulaketa puntua atzeratu egin zuen ahostasuna galdu aurretik, ahoskabeak bere puntua gorde zuelarik, ordea:

> *"Ello implica que la sonora debía de estar diferenciada de la sorda, hecho que pudo estar favorecido porque la sonora contaba en vasco, con el carácter de africación [...] lo que suponía un rasgo de diferenciación frente a la sorda que no contaba con tal africación".*

Beraz, Gipuzkera izan da batez ere jatorrizko [š̌] eta *j nahastu ez dituena, ahostuna atzeratuz eta ahoskabea gordez. Beste hizketa batzuk, berriz, bilakabidea [š̌] soinuan berdindu dute, ahostuna, atzeratu beharrean, ahoskabetuz soilik, hau *j hotsa [š̌] hotsez egiten den euskalkietan gertatuko litzateke.

Errealizazio honen balio fonologikoari dagokionez, ECHENIQUE-k (1979,66):

> *"Nos queda aún por tratar un punto de enorme*

importancia, a saber, el preguntarnos si el sonido adoptado en vasco ha llegado a constituir un verdadero fonema dentro del sistema del euskera, o si se trata, en todos los casos en los que aparece, de meras variantes alofónicas".

(G)-n eta (B)-ren eskualde baterako zenbait gutxienezko bikote ematen ditu, baina oso gutxi, beste euskalkietarako fonema bakarraren aldaki bezala emanez:

"En los demás dialectos, las respectivas realizaciones se muestran como meras variantes de un único fonema, al menos por lo que hasta ahora sabemos y por lo que nosotros hemos podido observar".

HOLMER-ek (1964,19-20) esaten du "j" erdi-kontsonantea gaztelaniako "y" bezalakoa dela, eta honen aldaki berdinekin, [t']-ren forma ahostuna aipatzen duelarik: **ma'ja** ≈ **ma'd'á, arpe'ije** ≈ **arp'id'e** (Fuenterrabia), **jola'san** ≈ **d'ola'sa** (Aranaz) etc.", hain arrunta ez den aldaki bat ere seinalatzen duelarik Hondarribi-rako: "**o'jan** ≈ **o'd'an,** con una especie de fricativa interdental (semejante a th de inglés **father**)". [x]-ren artikulaketaz erlaxatua edo ahuldua izan daitekeela dio, aspiraketa bihurtu arte [h]: **hende** (Hondarribia), **heči** (Errenderia), **hoštóraca** (Hondarribia).

[d'] soinua *j errealizatzeko LAFON-ek ere (1952,13-14) sinalatzen du, eta onddo-ren ahoskerarekin erkatzen du; BONAPARTE-k (**Verbe,** XXX or., 6. z.) egindako lanean oinarritzen da, seinalatuz jodaren aurretik elementu leherkaria doala, d edo g-ren erakoa tokien, pertsonen eta kasuen arauera; bi kontsonante hauen korrelatu bustiak ez dira bereizten, eta hortik jarraitzen da bi leherkari busti hauen nahasketa. Ortografian ere, bestalde, Lafon-en ustez ez dira bereizten jodaren bitartez "i" bokaletik datorren soinua, **joan, jakin, joko,** eta abar, eta "d" bustitik datorrena, **jastatu dastatu-tik,** betiere "d" bustikoa. "g" bustiari dagokionez, **jende** < lat. GENTE(M) bezalako hitzei buruz ari da, hauetan ere kontsonante bustia izatera iritsi bait da (4).

MARTINET-ek ideia horien inguruan dabil esatean duenean (1955,324):

> *"En basque, le **j** se rencontre normalement à l'initiale de mot, et un renforcement de [i] en [d] dans cette position est naturel dans une système où **b, d** et **g** sont des occlusives à l'initiale et des spirantes à l'intervocalique".*

Diakroniari begiratuz, *j- zaharra [š̆-]-ra igaro da (Zar)-n, hainbeste aldiz esan den bezala. Alabaina, MITXELENA-k ongi esan zuenez (1967,170-171), aldaketa hori hagitz eskuarki gertatu da (R)-n ere, ez, ordea, hainbeste (Aezk)-n eta Heg (GN)-ko eskualde batzutan (Egües, Oltza, Uharte-Arakil bailarako herrietan). Seinalatu ere du, mailegu erromanikoetan sabai-aurreko ahostun eta ahoskabeak [š̆-] soinuan nahastu direla: **xabon** (R), **xaboi** (Z), **xabu** (Z), (R), (Z) **xalma** < enjalma, **xa** 'ja'(Zar), **xoka, xoku,** eta abar.

Gertatzen da hasierako posiziokoak bustidura galtzea ere gero datorren beste xistukari busti gabe baten eraginez, MITXELENA (1967,171):

> *"**saunts** 'bajar', A **sauts,** R **xatx,** cf. R Vidángoz **zauzi** 'salto', pero **xauxtikalari** 'langosta (insecto)'. Para 'ordeñar' (S **jaits**) he oído **saits, saitz, saintz y xaitz".***

Azkenik, (R)-ri dagokionez, MITXELENA-k dio (1954,136) kontsonante arteko *j-ak beti sabai-aurreko igurzkariaren balioa zuela: "anaxe", "oxal".

2.3.3.2. Galdekizunean jasotzen diren fenomenoak

1. Aditz izenetan:
   jakin
   jautsi
   jo
2. Lexema nominaletan:
   jabe - hiru jabe
   jai - hiru jai
   jende - jende asko
   (Ama) Birjina
   jikara - hiru jikara
   ijitu - hiru ijitu
   jauna - hiru jaun - (ez jauna)
3. Kanpo sandhietan:
   nor haiz?
   zait - jat
   zaio - jako
4. Bokalartekoa:
   emaiozu

2.3.3.3. Jaso diren emaitzen analisi fonetiko-diatopikoa

205 JAKIN - 206 JAUTSI (313-314)
207 JO (315)

Adizki hauen bitartez, hasierako jod hotsa ondo ikusten da, batez ere nola eta non gertatzen den jasotzeko; gure mapetan isoglosa garbiak markatzen dituzte.

Jakin hitzean, hau da, hitz hasieran bokal aurretik: belare igurzkari ahoskabea Aldaz, Goldaratz eta Beramendi-n, Arakil eta Ultzamako azpi-euskalkietan, aztertu dugun lurraldeko mendebal-

deko bazterra hartzen dutelarik; gainerakoetan sabaiko igurzkari ahostun bezala traskribatu dugu mapetan.

Berdin **jo**-ren kasuan ere, Arakilgo Aldaz eta Ultzamako Beramendi eta Goldaratz-ek belare igurzkari ahoskabea, [x-], ebakitzen dute.

Jautsi hitzean, beherunzko diptongoaren aurretik, goiko isoglosa mantenitzen da, baina Erasun-ek txandaketa agertzen du: belare igurzkari ahoskabea, [x-], A lekukoak, eta sabaiko hurbilkari ahostuna, [ǰ-], B lekukoak.

Isoglosa berdina ere **jauntzi** kasurako (281) mapan. Halere, Beramendi-ko B lekukoak sabaiko igurzkari ahostunez ahoskatu du. Izan al daiteke, agian, hitz fosilizatua, ez bait dute hizkuntza mintzatu arruntean erabiltzen?.

Aurretik ikusitako mapa batzuetan agertzen diren aditzen artean, "joan" (156) aipagarria litzateke. Jod hotsari atzekaldeko bokal batek jarraitzen badio, joda belarizatu egin daiteke, leherkari ahostun bezala ebakiz, VINSON (1921,213) ordurako ohartu zen fenomeno honek zuen txandaketa dialektalaz, berak (BN)-n batez ere kokatzen zuelarik. Jaso genituen hitz horren aldakiak hauek izan ziren: "joan", "juan" / "goan", "gan" / "joan", azken hau belarez, [x].

Hedadurari dagokionez, sabaiko hurbilkari ahostunez, [ǰ-]: Bortzirietako: azpi-euskalkian, leku guztietan, Oronotz-Mugairen izan ezik; eta Ultzamakoan, Auza, Larraintzar, Beunza eta Arraras-en.

Belare leherkari ahostunez, [g-]: Zugarramurdi-n, Baztan-go azpi-euskalki osoan eta Bortzirietakoan, Oronotz-Mugaire-n.

Belare igurzkari ahoskabea, [x-]: Aldaz-en eta Ultzamako Beramendi eta Goldaratz-en.

JOB HOTSAREN GERTAERAK





208A JABE - 208B HIRU JABE (316-317)
209A JAI - 209B HIRU JAI (318-319)

Isoglosa batere ikararik egin gabe mantenitzen da hitz hasieran yod hotsa daramatenak izen sintagmak direnean ere. **Jabe**-ren kasuan, Arakilgo azpi-euskalkian, Aldaz-en, eta Ultzamakoan, Beramendi eta Goldaratz-en, belare igurzkari ahoskabea, [x], ebakitzen dute. **Jai**-renean ere isoglosa berdina, alternantziarekin Erasun-en A eta B lekukoen artean, hirugarrenak ere belarekoa egiten duelarik.

Maila lexikoaren aldetik, **besta** hitza jaso dugu, eta ez "jai", azken hau ez omen dutelarik ez Zugarramurdi-n ez Baztan-go Amaiur eta Aniz-en erabiltzen.

Hots honen inguruan beste mapa batzu ere komentagarri gerta daitezke. "Jan" (167) ahoskatzerakoan Arakilgo Aldaz-ek eta Ultzamako Beramendi eta Goldaratz-ek belare igurzkari ahoskabea egin dute, beste guztiek, berriz, sabaikoa. Baina, "jaiki" (222) aditzean Goldaratz-ek sabaikoa ebakitzen du, ez, ordea, Aldaz eta Beramendi-k, belareko igurzkaria ebaki bait dute, [x-].

211 (AMA)BIRJINA (322)
212A JIKARA - 213B HIRU JIKARA (323-324)
213A IJITU - 213B HIRU IJITU (325-326)
214A JAUNA - 214B HIRU JAUN (327-328)

Hitz talde honen bitartez mota ezberdinetako jod hotsaren ahoskerak jaso nahi izan ditugu. Emaitzetan txandaketa eta ebakera ezberdinak ematen dituzte.

Birjina-ren kasuan, "g" grafemaz idatzia izan dena testu

zahar guztietan (Etxepare, Leizarraga, Betolaza), guk aztertu ditugun leku guztietan belareko igurzkari ahoskabea, [x], jaso dugu, jatorria eta izan duen interferentzia garbi agertuz.

Euskararen aldetik, eta orain aztertzen ari garen hotsean geldituz, aipagarria da kasu batzutan gertatzen den belare igurzkari horren aldaketa: artikulazio puntua atzeratzen du apur bat, eta hersketa ere sortzen da leherkaria bihurtuz, [x] > [k] egiten da, alegia, bai izenetan, "Kose", "Kenobeba", "Kaungoikoa", Kazintto, bai lexema arruntetan, "kauna", "kitu", "k(h)ikera" eta, dirudienez, Iparraldean ere gertatzen da, batez ere, gazteleratik hartutako hitz berrietan, ikus GAVEL (1920,119-120).

Jikara hitza horietako bat dugu eta gazteleraz ere oso berandu dokumentatzen da; Corominas-ek lehenengoz 1540-an agertzen dela eta Amerika-tik ekarritako hitza dela dio, azteka hizkuntzetako **xicálli** batetik, ziurrenez. Euskal Herrian, aurre-inkestetan ikusi genuenez, hitza ezagutzen da nahiz eta dagokion erreferentea ez den erabiltzen. Jikarak leku gehienetan txokolatea hartzeko erabiltzen ziren, eta egun, ohiturarekin batera, hitza ere galtzorian aurkitzen da, ezagutu, ezagutzen badute ere.

Nafarroa-n jaso ditugun emaitzak hauek dira. Baztango Amaiur eta Aniz-en eta Bortzirietako Sunbilla-n ez dugu hitz hau jaso, hiru tokietan "katillu"-tik kanpo ez bait zekiten besterik.

Beste lekuetan, "xikara" jatorrizko lexema bezala hartuz, honako ahoskerez ebaki zuten: [xikara] > [kixara], metatesia eginez; eta bokalen armoniaz, hurrengo pausua: [kixera]; beste bide bat [xikara] > [kikara] eta [kikera], hemen kontsonantearen asimilaketaz belareko eginez.

Hedadura, berriz, honako hau izan da:

[xikara] Bortzirietako Etxalar-en, Arantza, Oieregi eta Oronotz-Mugaire-n.

[kixara] / [kixera] Bortzirietako Ituren-en, Baztango Arraiotzen eta Ultzamako Auza, Arraras eta Beunza-n.

[kikara] / [kikera] Zugarramurdi-n (5) eta Arakilgo Aldaz-en. Azken honetan, [kixara] formarekin txandakatuz, lekukoaren arauera.

Alternantzia berdina gertatzen da "ijitu" hitzean, [x] / [k] bi formak ageri bait dira (6).

[ixitua] Arantza-n forma bakarra da; beste guztietan, zuzenean belareko igurzkaria dute hasierako posizioan, [x-], edo [k-] belare leherkaria, bietan ahoskabea. Azken hau Baztango azpieuskalkian Amaiur, Gartzain, Arraiotz eta Aniz-en, hau da, azpieuskalki horretan jaso ditugun leku guztietan; Bortzirietako Oieregi-n ere hots hau jaso genuen. Gainerako toki guztietan belareko igurzkari ahoskabea.

B lekukoek sortu dituzten txandaketak hauetxek dira: Oieregi-koak, hain zuzen, lehen bere azpi-euskalkitik kanpo gelditzen zitzaiguna, [xitu], eta erantzun berdina hirugarren lekukoak ere, Bortzirietako beste guztiekin bat eginez, horregatik fidagarriagoa iduritzen zaigu azken bi hauen informazioa. Beste txandaketa bat Zugarramurdi-n, B lekukoa [kitoa] ahoskerarekin Baztango azpi-euskalkiaren emaitzekin batuz.

"Kikara" eta "kito" / "kitu" formak, sortzen dituzten isoglosen aldetik erkatuz, ez direla bat egiten esan behar da . Hemen agertzen zaigu, euskalki hauetan [ǰ] hotsa belare izatera iritsi ez baina Bortzirieta, Baztan, Zugarramurdi eta Ultzamako toki gehienetan, sabaiko bezala mantenitzen bada ere, kasuren batzutan, Iparraldean bezala, belareko leherkaria egin dela. Baina, beste kasu batzuren artean, hemen aztertu ditugunak agertzen dutena ere hauxe da: belareko igurzkari ahoskabea ere, [x], alegia, ere ahoskatzen dela.

Jauna ere hitz aparta da. Gehienbat belare igurzkari ahoskabeaz ahoskatzen dela esan behar da, lehen eskuarki arrotza zen hots hori toki batzutan ahoskatu ez bazuten ere. Horrela aurkitzen dugu gure mapetan, Zugarramurdi-n eta Baztango Amaiur,



[x] / [x] txandaketa



Aniz eta Arraiotz-en izan ezik, hauek sabaiko hurbilkari ahostunez ebaki bait zuten hots hori. Oronotz-Mugaire-n ere txandaketa bat jaso genuen, baina, beste lekukoek belarea egin zutenez, ez zitzaigun iruditu hain fidagarria.

Beste horrenbeste esan behar **Jainkoa** (111) hitzari buruz ere, erabat apurtzen bait ditu hain tinko agertzen diren jodaren isoglosak. Kasu honetan ere sabaiko jod hotsaren isoglosaren muga oso murritza gelditzen da: Zugarramurdi eta Baztango azpi-euskalkiko Amaiur, Arraiotz eta Aniz hartzen ditu bakarrik, beste guztiek [x-] egiten dutelarik.

Aipagarria da, emaitzen aldetik goiko hitzekin bat egiten ez badu ere, lehen aztertutako (130) mapan azaltzen den "xaboi" hitza ere. Hasierako hotsak honako txandaketak ditu banaketa geografikoz:

Sabai-aurreko igurzkari ahoskabea, [s̆-],-ikus, honi buruz, goian aipaturikoa-: Zugarramurdi-n eta Bortzirietako azpi-euskalkian, Arantza eta Erasun-en izan ezik.

Sabaiko afrikari ahoskabea, [c̆-]: Baztango azpi-euskalki osoan, Bortzirietako Arantza eta Erasun-en eta Ultzamako Auza eta Larraintzar-en.

Belare igurzkari ahoskabea, [x-]: Arakilgo Aldaz-en, eta Ultzamako azpi-euskalki osoan, arestian aipaturiko Auza eta Larraintzar izan ezik.

215 ZAIT - JAT (329)
216 ZAI0 - JAKO (330)

Badaude jod hotsari dagozkion beste fenomeno batzu orain arte ukitu gabe ditugunak, fonetika sintaktikoaren ondorioz sortzen direnak, alegia. Hasteko aditzetan sortzen direnak hartuko ditugu.

*j- hotsaren aldakiek bilakabide ezberdinak izan dituzte aditz-forma finitu hauetan: a) laguntzaile iragankorraren orainaldiko flexio bipertsonaletan; b) (B)-n aditz iragangaitzeko lagunarteko alokutiboetan.

Euskalki denek, (B)-k izan ezik, [s] igurzkari bizkar-hobietako ahoskabea, ortografian "z", ahsokatzen dute aditz-forma hauetan, eta barnean aurkitzen direnean afrikari bezala ahoskatzen dira: **zaio, natzaio.** MITXELENA-k (1977,174) horrela berreraikitzen du hasierako eredu orokorra: *di > *dj. (B)-n **jat** ("jata"), **jagok** eta abar, sabaiko hurbilkari ahostuna, [ǰ] soinuarekin.

Oñati-n sabai-aurreko igurzkari ahoskabea ahoskatzen da, eta (B) egiten den Gipuzkoa-ko gainerako tokietan eta Markina aldean belare igurzkari ahoskabea [x].

Bizkai barruan sabai-aurreko afrikari ahostuna [dž̌] eta sabai-aurreko igurzkari ahostuna [ž̌] ahoskatzen da, eta sabaiko leherkari ahostuna [d'], ere bai; eta, dirudienez, Azkue-ren garaian, eta bai orain ere, beste hots horiekin batera, banaketa geografikoz, sabai-aurreko afrikari ahoskabea [č̌]; eta belare igurzkari ahoskabeaz ere, [x], ahoskatzen omen zen. Berriro ere ondo datozkigu MITXELENA-ren hitzak (1977,174, 12.nota):

> *"Sería muy importante determinar cuál es la pronunciación real en Vizcaya de bastantes formas que quedan enmascaradas en la escritura por escribirse uniformemente con j".*

Honen inguruan, ezezko forma ere azaldu behar da: *j- [-s + *j-] → [č̌] sabaiko afrikari ahoskabea sortzen duena, alegia.

š- / č- / x- txandaketa

"Xaboi"



"**ez zait etza(i)t, etzaio,** baina (B)-z: **etxat** (< ez + jat), **etxako** (<ez + jako).

Adizkietatik kanpo, "jauna" hitzarekin ere, talde kontsonantiko berdina sortzen da:

(Zar) **baxona** (< bai jauna), **etxauna** (< ez jauna), **apetxona** (< apez jauna).

Heg (GN) Elkano-n, **apetxaun** (< apez jauna).

Hauek izango lirateke ziurtasun osoz dokumentatzen direnak, Ip (GN) Baztanen eta (B) Otxandio-rako ere seinalatu izan dira, baina ez dira ziurrak.

Horrela, bada, mugak zehazteko eta sortzen den hotsa aztertzeko asmoz jarri genituen bi atzizki horiek eta, horiekin batera, ezezko formak ere.

Nafarroa-n, guk aztertutako lurraldean, ez da goian aipaturiko bilakabiderik agertzen: "zait", "zaio" eta hauen laburdurak edo hiatoaren aurkako kontsonante sabaikariaren sorketa besterik ez da gertatu. Ez Baztango azpi-euskalkian ere.

Bereizgarri gerta zitekeen beste kasurik ere ez dugu aurkitu; "ez jauna" jasotzerakoan, esaterako, ez genuen horrelakorik jaso.

217 EMAIOZU (331)

Bide horri jarraituz, barruko jod hotsa bokalartean nola gertatzen den ikusteko jarri zen aditz trinko hau. Aztertzen dugun lurraldean izan da aldaketarik. Orohar, sabaiko hurbilkari ahostuna mantenitu da Zugarramurdi--n aldaki morfologikoren batekin bada ere, eta Baztango azpi-euskalkian eta Ultzamakoan Beramendi-n.

Asimilaketa prozesu bat gertatu da Ultzamako azpi-euskalkiko Larraintzar eta Goldaratz-en.

Eta, azkenik, aipagarriena erantzunen aniztasuna litzateke, kasu batzutan hitanozko forma ere agertzen delarik, Arraras eta Auza-n gertatu den bezala.

204 NOR HAIZ? (312)

Fonetika sintaktikoan "haiz"-en kasua ere azaldu beharko litzateke. Adizki honek dituen bilakabideen artean, aipatzekoa da (B)-z gertatzen den murrizketa, "az" / "ax" eginez. Horrez gain bada beste joera bat ere adizki hauetan aspiraketarik ez den tokietan: joera hori protesi kontsonantiko bat sortzekoa da. Lehenengo eta behin, galderen ingurumen fonetikoan sortzen da kontsonante hori: "Nor aiz?", "Zein aiz?" galderetan, eta gero beste kasutara zabaldu da. Hots hori, normalean, sabaiko hurbilkari ahostuna izaten da, nahiz eta artikulaketa modua aldatzen den batzutan.

AZKUE-k (1931,222-223) (R) aztertu zuenean jaso zuen fenomeno hau:

"Es muy roncalés el elemento protético añadido al

pronombre de segunda persona. Mientras los vascos orientales dicen hi por nuestro i, los roncaleses se valen de yi para ello. Y así como el elemento representaivo de ni "yo" en la conjugación es n, el de yi "tú" es la y griega".

Baina ez du Erronkarieraz bakarrik jasotzen:

*"Esta **y**, como elemento paciente de segunda persona, figura en flexiones de varias comarcas del dialecto alto navarro. Aun en Oyarzun, Ondarribia e Irun son todavía corrientes las flexiones **yaz** o **yaiz** eres, **yabil** andas, **yao** o **yago** estás y **yöa** te vas. **Yaz** y **yao** son de Oyarzun. ¿Se deberá esto a contaminación o más bien a que un tiempo se haya dicho en esta misma variedad **yi** por **i**, como todavía hoy en el roncalés? Tal vez alguien opine que esas **yaz** o **yaiz**, **yago** y **yabil** contienen la misma y de **Santa Yagueda Yagueda, biar da Santa Yagueda"***

Azkue-k berak jarraitzen du gertakizun fonetiko honen ingurumena ematen:

"... Agueda decimos Agueda y no Yagueda cuando sigue a consonante o empieza una frase, al paso que esas flexiones verbales se dicen así, aun después de consonantes, tanto en este dialecto como en el citado subdialecto de la frontera".

Guk aztertu dugun lurraldean ez da protesirik sortu Zugarramurdi-n. Gainerako kasu guztietan sabaiko hurbilkari ahostuna jaso dugu Aldaz-en izan ezik, hemen sabaiko afrikaria jaso bait dugu.

Orain arte ikusi ditugun jod hotsaren kasuak hasierako posiziokoak eta fonetika sintaktikoari dagozkionak izan dira. Azken hauek, kanpo- sandhiaren ondorioz gertatutakoak dira, bigarren mailakoak, beraz.

Baina ezin dira aipatu gabe utzi beste batzu, fonetika sintaktikoko sail nagusian kokatzen direnak eta armonia bokalikoaren eraginez sortzen direnak; hauek ere, hortaz, bigarren mailakoak, baina duten maiztasunagatik, oso leku garrantzitsua hartzen dutenak bai dialektologian bai sistema fonetikoan. Sabaiko sailekoak dira, orohar, eta, horien artean, ikertzen dugun hurbilkari ahostuna sartuko litzateke.

"-l" bokalez amaitzen denean lexema bat, "-a" mugatzailea hartzerakoan, hau da, aktualizatzerakoan, "-ia" sekuentzia barruan lehen aipaturiko kontsonanteak gerta daitezke, guk sabaiko epentesi kontsonantikoa deitu izan duguna gorago: ikus "armonia bokalikoa"-ren kapituluan "-i" bokala, **herria** (18-19) eta (184-186), **ogia** (188-191) eta baita, "-ai + -a" sekuentzian **artzain** (118-119), **egitai** (119-120), besteren artean.

Sortzen diren epentesi antihiatiko edo interfijoei eta hasierako sabaiko hurbilkari ahostunei buruzko informaziorako ere, (B)-rako, kontutan izanik (B) dela kontsonante interfijo horiei dagokienez aberatsena, ikus IRIGOYEN (1978,633-637) eta (1987,299-302). Eta Nafarroa-n jaso ditugun emaitzetarako ikus "Armonia bokalikoa"-ren kapitulua, han agertzen bait dira hurbilkari sabaiko ahostun kontsonantikotik hasi eta maila guztietako sabaiko kontsonanteetaraino epentesi kontsonantiko antihiatiko horrek izan duen bilakabidea.

